

MAKROEKONOMIA LANDUZ

**Ariketak,
autoebaluzio praktikoak
eta soluzioak**

Amaia Garcia Azpuru



Makroekonomia landuz

**Ariketak,
autoebaluazio praktikoak
eta soluzioak**

Amaia Garcia Azpuru

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

García Azpuru, Amaia

Makroekonomia landuz [Recurso electrónico]: ariketak, autoebaluazio praktikoak eta soluzioak / Amaia García Azpuru. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2020]. – 1 recurso en línea : PDF (220 p.)

Modo de acceso: World Wide Web

ISBN: 978-84-1319-166-9.

1. Macroeconomía – Problemas y ejercicios.

(0.034)330.101.541(076.2)

Eskerrak:
Segundo Vicente Ramos
[Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)]

Aurkibidea

Ariketak	5
1. kapitulua. Makroekonomiaren ikuspegi panoramikoa	7
2. kapitulua. Ekoizpena, errenta eta gastua	17
3. kapitulua. Eredu keynestar sinplea: etxeko ekonomiak eta enpresak	27
4. kapitulua. Eredu keynestar sinplea: politika fiskala eta kanpo-sektorea	37
5. kapitulua. Dirua eta banku-sistema	49
6. kapitulua. Banku Zentrala eta diru-politika	57
7. kapitulua. Eskari eta eskaintza agregatuaren eredia	67
8. kapitulua. Inflazioa eta langabezia	77
Soluzioak	85
1. kapitulua	87
2. kapitulua	101
3. kapitulua	113
4. kapitulua	131
5. kapitulua	151
6. kapitulua	165
7. kapitulua	183
8. kapitulua	207

Ariketak

1. kapitulua

Makroekonomiaren ikuspegi panoramikoa

ARIKETAK, ATALEN ARABERA

1.1. Makroekonomia: kontzeptua eta sorrera

1. Makroekonomia ikastea maila indibidualean garrantzitsua da, besteak beste, norberaren ongizatean ondorioak dituelako («interes pertsonalarengatik» esan izan duguna). Garatu ideia hori labur-labur, eta, ahal baduzu, aplikatu zure bizi-esperientzian.

2. Adierazi atal hauetako zeinek ez dituen edo dituzten modu erabakigarrian zehazten edo baldintzatzen emaitza makroekonomikoak, eta azaldu zergatik:

- a) Herrialde bateko biztanleriaren hazkundera.
- b) Hirigintza-arrazoiengatik zenbait udaletan izan den ustelkeria.
- c) Herrialde baten zatirik handienean eragina duen urakan baten ondorio suntsitzaileak.
- d) Petrolioia esportatzen duen herrialde batean gertatutako gatazka, energia-iturri horren gutxitze mende dagoen ekonomia bati begira.
- e) Aholkularitza ekonomikoaren zerbitzuetan gehiegizko eskaintza egotea.
- f) Lehorreko, aireko eta itsasoko azpiegituren sare zabala eraikitzea.
- g) Kostako inguru mugatu batean ostalaritza-establezimenduak ixtea, errentagarriak izateari utzi diotelako.
- h) Ikuskizunen eta beste aisia-jarduera batzuen prezioek gora egitea.

3. Esan argudio honekin ados zauden ala bat ez zatozen:

Makroekonomiak herrialde bateko herritarren bizi-kalitatean eragina duten aldagai ekonomiko nagusiak aztertzen ditu, eta gobernuei aldagai horietan nola eragin adierazten die. Besteak beste, Makroekonomiak aztertzen ditu etxebizitzaren prezioaren bilakaera, automobil-sektoreko langabezia, petrolioaren prezioa igotzea eragiten duten arrazoiak...

1.2. Makroekonomiaren helburuak

4. Makroekonomiaren helburuei erreparatuz, adierazi edo ondorioztatu zein diren arazo makroekonomiko nagusiak. Eman azalpen labur bat bakoitzaren inguruan.

5. Adierazi zer baldintza bete behar diren pertsona bat langabe moduan hartzeko, ikuspegi makroekonomikotik. Definizio horren arabera, adierazi kasu hauetako zeinetan izango duen pertsona batek langabe kategoria (*idatzi LANGABE hitza amaieran agertzen den parentesiaren barruan*):

- a) Leire unibertsitatean ikasten ari da, eta gradua amaitzen duenean lana bilatu nahi du, baina ez lehenago. ()
- b) Rosak 55 urte ditu; iaz kaleratu zuten, eta ordutik elkarrizketak egiten ari da beste lan bat aurkitzeko. ()
- c) Lukas maisua da, baina ez da lanean ari gaixotasunaren ondoriozko baja-egoeran dagoelako. ()
- d) Pedrok ez du lanik egiten, eta ez da lan bila ari, boluntariotzan aritzen baita. ()
- e) Isabelek ez du lanik egiten, dibidenduetatik diru asko lortzen baitu. ()
- f) Jonek curriculuma Internetetik bidaltzen die elektronika-enpresei, baina bitartean informatika-ikastaroak egiten ditu. ()
- g) Peru kartzelan dago, eta ateratzean lana bilatuko duela pentsatzen du ().
- h) Martak lan bat behar du gurasoen etxetik irteteko, baina, mementoz, aitari laguntzen dio soroko lanetan. ()

6. Lan-merkatuan helburuei buruz hitz egiten denean, gauza bera esan nahi du enplegu-tasa handia lortzeak eta langabezia-tasa txikia lortzeak? Zergatik?

1.3. Politika makroekonomikoak

7. Zer politika makroekonomiko (diru-arlokoa, fiskala edo estrukturala) gehi ditzake neurri hauetako bakoitzak? (*Idatzi zure erantzuna horretarako jarritako parentesiaren barruan*):

- a) Gobernuak enpresa baten eraketa formalizatzeko beharrezkoak diren izapide burokratiakoak gutxitzeko hartu duen erabakia.
()
- b) Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) igotzea, kontsumitzaileen gastua murrizteko, prezioen gorakada murrizteko, prezioen hazkundea murrizteko.
()
- c) Banku Zentralak interes-tasa gutxitzea, sektore pribatuari mesede egiteko banku-kreditua lortu ahal izateko.
()
- d) Turismo-sektorean gastu publikoa handitzea, BPGd-ren hazkundeari mesede egiteko.
()

e) Gobernuak merkataritza-akordioei mesede egiteko duen ekimena, enpresa-sektore giltzarrietan lehiakortasuna handitzeko.

()

f) Gobernuak zerbitzu publikoen prestazioak murrizteko hartu duen erabakia, defizit publikoa gutxitzea helburu izanda.

()

8. Azaldu zein den hazkunde-politiken edo egiturazko politiken eta egonkortze-politiken edo politika antiziklikoen arteko aldea. Alde hori oinarri hartuta, sailkatu taula honetako neurriak, estrukturalak edo antiziklikoak diren kontuan hartuta.

		Politika mota: estrukturala edo antiziklikoa
1	Enpresa-ikerketari diruz laguntzea, herrialdeak petrolioaren mendekotasun gero eta gutxiago izan dezan.	
2	Funtzionarioen soldaten gastua aldi baterako jaistea, defizit publikoa murrizteko.	
3	Banku-sistemari dirua ematea, kontsumorako kreditu gehiago egon dadin eta jendeak gehiago eros dezan.	
4	Ikerketa zientifikoa erakargarriago egitea, ikerlariek ihes egitea saihesteko.	
5	Ospitaleen eta ikastetxeen sare indartsua sortzea, desberdintasuna eta txirotasuna saihesteko.	
6	Udaletan aldi baterako kontratuak sustatzea, langabezia murrizteko.	
7	Krisi ekonomikoak gogor astindutakoei emandako laguntzen zenbatekoa handitzea.	
8	Azpiegituren multzoa eraikitzea, probintzia guztien arteko komunikazioari mesede egiteko.	

1.4. Eskaintza eta eskari agregatuak

9. Arrazoitu esaldi hauetako bakoitza modu independentean, eskaintza eta eskari agregatuen kurben bidez (PISTA: *kasu bakoitzean, eskaintza agregatuaren edo eskari agregatuaren kurben lekualdatzea edo lekualdatzeak azaldu behar dituzu, emandako informazioa kontuan hartuta*).

- Barne-kontsumoak gora egin duenez eta esportazioak lehiakorrakoak direnez, hazkunde-tasak gora egin du, langabeziak behera, eta inflazio-tasek gorakada izan dute.
- Azpiegituretan eta funtzionarioei emandako prestazioetan egindako gastu publikoak behera egin duenez, langabezia-tasak gora egin du, eta ekonomiaren prezioek behera egin dute nabarmen.
- Lan-erreformen eraginez, enpresen kostuak murriztu egin dira, eta, horren eraginez, lehiakortasunak eta horrekin batera hazkunde ekonomikoak gora egin dute, prezio baxuagoetan.

- d) Lehengai energetikoen prezioaren gorakada handiak, batez ere petrolioaren kasuan, eragin du ekoizpen-kostuek nabarmen gora egitea herrialdeko enpresa guztietan, eta, horren eraginez, langabezia-tasak eta inflazio-tasak gora egin dute.
- e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia (IKT) berriak ekoizpen-sistemetan sartzeari esker, masako produkzioari mesede egin zaio, eta errentagarritasun handiagoa lortu da. Hala ere, ondasun askoren prezioek behera egin dute.

TEST ERAKO GALDERAK

(Galdera bakoitzean bost erantzun daude; bakarra da zuzena.)

1. Ekonomia batek oro har funtzionatzearen adierazle bat, denbora-tarte jakin batean, honako honen bilakaera da:

- a) Produktu subtropikalen salmenta.
- b) Prezioen maila orokorra.
- c) Babes ofizialeko etxebizitzaren prezioa.
- d) Estatuak ekoiztutako ondasun pribatuen ekoizpena.
- e) Erantzun guztiak okerrak dira.

2. Gorabehera ekonomiko handiak (ziklo ekonomikoak) arazo makroekonomikoa dira; izan ere:

- a) Biztanleen bizitza-mailan eragina dute zuzenean.
- b) Ekonomiaren prezioak ez dira aldatzen.
- c) Herrialde bateko atzerriko diruaren (dibisa) erreserbak handitzen dira.
- d) BPGd-ren hazkundera handia da.
- e) Langabezia-mailak murrizten dira.

3. Ekonomia batean enplegu betea lortzen bada:

- a) Ekoizpen efektiboak eta potentzialak bat egingo dute.
- b) Inflazio-tasa deuseza izango da.
- c) Ekoizpen-aukeren mugaren gainetik ekoizten da.
- d) Ez dago biztanleria aktiborik.
- e) Ez dago langaberik.

4. Ekonomia krisi sakonean murgilduta dago, eta Tamarak, Enpresa Eskolako ikasleak, egoera aztertzea erabaki du. Hau da ikusiko duen lehenengo gauza:

- a) Ekoizpen efektiboa ekoizpen potentziala baino handiagoa da.
- b) Ekoizpen efektiboa bat dator ekoizpen potentzialarekin.
- c) Ekoizpen efektiboa ekoizpen potentziala baino txikiagoa da.
- d) Ekoizpen efektiboak gora egiten du, eta ekoizpen potentzialak behera.
- e) Ekoizpen efektiboak eta potentzialak gora egingo dute.

5. Diru-politikaren berezko tresnen artetik, hauek kanpoan utzi beharko genituzke:

- a) Banku-sistemaren arauketa.
- b) Zerga-tasen kontrola.
- c) Diru-zirkulazioaren kontrola.
- d) Diru-eskaintzaren arauketa.
- e) Banku-erreserben aldaketa.

6. Aderazi egoera hauetako zein ez dagokion politika fiskalari:

- a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) % 2 handitzea.
- b) Sorospinak murriztea.
- c) Tabakoaren gaineko zergak handitzea.
- d) Ekonomiako diru kantitatea kontrolatzea.
- e) Estatuak errepideak eraikitzen eta horietan hobekuntzak egiten egindako gastua.

7. Eskaintza agregatuaren / eskari agregatuaren ereduaren grafikoari erreparatuz gero, ekoizpen-mailaren beherakada bat badator ekonomiako prezioen mailaren murrizketarekin; hau izango da eragilea:

- a) Eskaintza agregatuaren murrizketa.
- b) Eskari agregatuaren murrizketa.
- c) Eskaintza agregatuaren igoera.
- d) Eskari agregatuaren igoera.
- e) Eskari agregatuaren igoera eta, horrekin batera, eskaintza agregatuaren murrizketa.

8. Ekonomian aurrerapen handia dakarren iraultza teknologikoak hau eragingo du:

- a) Eskari agregatuaren kurba ezkererantz lerratzea.
- b) Eskari agregatuaren kurba eskuinerantz lerratzea.
- c) Eskaintza agregatuaren kurba ezkererantz lerratzea.
- d) Eskaintza agregatuaren kurba eskuinerantz lerratzea.
- e) Eskaintza agregatuaren zein eskari agregatuaren kurbak lekualdatzea.

9. Hauek dira herrialde bateko eskari agregatua zehazten duten eragile ekonomikoak:

- a) Familiak eta enpresak.
- b) Familiak, enpresak eta estatua.
- c) Familiak, estatua, enpresak eta kanpo-sektorea.
- d) Estatua eta kanpo-sektorea.
- e) Enpresak eta estatua.

10. Oreka makroekonomikoan, hau betetzen da:

- a) *Output*aren eta prezioen mailaren arteko konbinazioa dela-eta, erosleek eta saltzailleek ez dituzte erosketak, salmentak edo prezioak aldatu nahi.
- b) Eskatzaileak prest daude enpresak saltzeko eta ekoizteko prest dauden kantitatea erosteko.
- c) Eskaintza agregatuaren eta eskari agregatuaren kurbak moztu egiten dira.
- d) Helburu makroekonomikoak ez dira nahitaez beteko.
- e) Aurreko guztiak zuzenak dira.

EGIA ALA GEZURRA GALDERAK

1. Ziklo ekonomikoen ezaugarria da modu irregularrean edo ustekabeen gertatzen direla.
 EGIA GEZURRA
2. Ekoizpen-faktoreen zuzkidura bera duten bi ekonomia antzera haziko dira epe luzera, hartzen diren erabakiak gorabehera.
 EGIA GEZURRA
3. BPGd potentziala da herrialde batean inflazioa bizkortu gabe eta langabezia-tasa iraunkor albait txikienarekin mantentzeko daitekeen BPGd-ren gehieneko maila, industria- eta antolaketa-gaitasuna kontuan hartuta.
 EGIA GEZURRA
4. KPI ekonomia bateko ondasun eta zerbitzu guztien prezioa oinarri hartuta kalkulatzen da.
 EGIA GEZURRA
5. Euroak dolarrarekin alderatuta duen truke-tasa dolar bakoitzeko 0,85 eurotik 0,80 eurora jaisten bada, euroaren balioak dolarrarekin alderatuta gora egin duela esan dezakegu.
 EGIA GEZURRA
6. Petrolio-ekoizlerik handiena den herrialdean gatazka dagoelako energia-iturri horren prezioak gora egiten badu, eskaintzaren perturbazio negatiboa gertatuko da, eta eskaintza-kurba ezkererantz lerratuko da.
 EGIA GEZURRA
7. Egonkortze-politiken adibideak dira administrazio zentralak (udalak, gobernu autonomikoak, gobernu zentrala) egindako azpiegitura-obrak krisi ekonomikoen ondorio negatiboak aurre egiteko.
 EGIA GEZURRA
8. Zergak dira sektore publikoan sarrerak eragingo dituzten politika fiskaleko tresna bakanak.
 EGIA GEZURRA
9. Ondasun jakin baten merkatuko eskari-kurbaren eta eskari agregatuaren kurbaren arteko desberdintasuna da lehenengoak gizabanako guztiak hartzen dituela kontuan, eta bigarrenak ez.
 EGIA GEZURRA
10. Hazkunde-politikaren adibide bat diru-politika bat izango da, hain zuzen ere, interes-tasak baxu mantentzea inbertsio-proiektuak sustatzeko.
 EGIA GEZURRA

PAREKATZEAK: DEFINIZIOAK ETA KONTZEPTUAK

(Taula bakoitzeko azken zutabearen lehen zutabeko zenbakiak jarri behar dira. Horrela, definizio bakoitza bat etorriko da kontzeptu bakoitzarekin)

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Agintariak ekonomian esku hartzeko dituzten erremintak, helburu zehatz batzuk lortu ahal izateko.	MAKROEKONOMIA	
2	Errealitatearen deskripzio sinplifikatua, portaera ekonomikoari buruzko hipotesiak oinarri hartuta, egiaztatzeko moduko teoriak edo iragarpenak ezartzen dituen.	POLITIKA MAKROEKONOMIKOA	
3	Ekonomia sistema global moduan aztertzen duen diziplina, alderdien harreman agregatuak azpimarratuz.	AGINTARI EKONOMIKOAK	
4	Kontzeptu makroekonomiko baten neurtzeko moduko eta zenbakizko adierazpena da.	EREDU MAKROEKONOMIKOA	
5	Errealitate ekonomikoaren analisia oinarri hartuta, politika ekonomikoen neurriak diseinatu, orientatu edo gauzatzeko ardura duten entitate edo erakunde nazionalak eta nazioartekoak.	ALDAGAI MAKROEKONOMIKOA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Muga-zergak, kontingenteak eta kanpo-harremanetako beste mekanismo batzuk.	POLITIKA FISKALAREN TRESNAK	
2	Prezioen eta soldaten kontrola, gizarte-eragileen artean erabakiak sustatzea, sektore jakin batzuk bultzatzea...	DIRU-POLITIKAREN TRESNAK	
3	Enpresa-errenten eta lanaren gaineko zergak murriztea, burokrazia gutxitzea, berrikuntzari laguntzak ematea...	ESKAINITZA-POLITIKAREN NEURRIAK	
4	Zergak, gastu publikoa eta transferentziak.	MERKATARITZA-POLITIKAREN TRESNAK	
5	Ekonomiako kredituen kantitatea eta horien interes-tasa aldatzera bideratutako neurriak.	ERRENTA-POLITIKEN NEURRIAK	

MAKROEKONOMIA LANDUZ

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Estatuaren esku-hartzea defendatzen duen doktrina ekonomikoa, langabezia-aldi luzeak saihesteko (errenta txiroenen alde birbanatzea).	LIBERALISMO EKONOMIKOA	
2	Estatuaren esku-hartzea defendatzen duen eskola ekonomikoa, enplegu bete arte. Hortik aurrera, klasikoez iradokitzen duten moduan jokatu du ekonomiak.	KEYNESIANISMOA	
3	Doktrina ekonomiko honek merkatuen funtzionamendu askea defendatzen du, estatuaren esku-hartze minimoa eginda.	MONETARISMOA	
4	Pentsamendu makroekonomikoaren eskola honen arabera, printzipio klasikoak berreskuratzen dira igurikimen arrazionalen kontzeptua erabiliz.	MAKROEKONOMIA KLASIKO BERRIA	
5	Pentsamendu ekonomikoaren adar honen arabera, diruaren hazkundeak (edo diru-eskaintzak) inflazioa soilik eragiten du epe luzera.	SINTESI NEOKLASIKOA EDO NEOKEYNESIANISMOA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	BPGd-ren portzentajezko aldaketak, aurrerapenak eta atzerapenak eragiten dituztenak.	BPGd POTENTZIALA	
2	Ekoizpen-mailaren joera edo bilakaera, normalean goranzkoa. Inguru bateko bizitza-mailak denboran zehar gora egin duela erakusten du.	PER CAPITA BPGd	
3	Adierazle honek aberastasun nazionala neurtzen du biztanleriarekin alderatuta. Zeharka, biztanleen bizikaltatea irudikatu ohi du.	BPGd ERREALA	
4	Teknologiarekin eta egon dauden baliabideekin lor daitekeen gehieneko ekoizpenaren balioa, inflazioa bizkortu gabe. Epe luzean, oreka-ekoizpena da.	HAZKUNDE EKONOMIKOA EPE LABURREAN	
5	Ekoizpen osoaren balioa, inflazio-tasak kontuan hartu gabe, hau da, gertatu diren prezio-aldaketek zuzenduta dago.	HAZKUNDE EKONOMIKOA EPE LUZEAN	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Hainbat herrialdetako ondasunen prezio erlatiboa adierazten du, txanpon erkide batean konparatzen direnean; hau da, bi herrialdetako ondasunen truke-lotura zein den adierazten du, inflazio-tasak kontuan hartuta.	ALDAKETA NOMINALAREN TASA	
2	Kontabilitateko dokumentu honetan, herrialde batean bizi direnen eta munduko gainerako lekuetan bizi direnen arteko merkataritza- eta finantza-transakzio guztiak erregistratzen dira.	DIRU NAZIONALAREN BALIO-GALERA	
3	Txanpon baten balioa gutxitzea, beste txanpon batzuekin alderatuz neurtuta.	BALOREEN BURTSA	
4	Merkatu espezializatu honetan, enpresek emandako balore-tituluen transakzioak egiten dira.	BONUA	
5	Txanpon baten balioa, beste batekin alderatuz adierazita. Bi txanpon nazional trukatzeko prezioa da.	DIBISEN MERKATUA	

1. kapituluaren. AUTOEBALUAZIO PRAKTIKOA

1. Lanaren itxurazko produktibitatearen bilakaera edo beste herrialde batzuetakoarekin konparatzea adierazletzat hartzen da, herrialde horretako laneskua zein eraginkorra den jakiteko ondasunak eta zerbitzuak lortzeko eginkizunetan. Era berean, per capita BPGd-ren hazkundera ere herrialde bateko ongizate materialaren hazkunderaren adierazletzat onartzen da. Arlo ekonomikoan oro har onartzen diren baieztapen horien arabera, zure ustez, desiragarriak dira lanaren batez besteko edo itxurazko produktibitatearen hazkunde guztiak? Per capita BPGd-ren hazkunde guztiak onak dira biztanleentzat? Egin gogoeta eta idatzi adierazle horiek islatzen ez dituzten balizko gizarte-errealitateak.

2. Parlamentu batean gobernu batek politika ekonomikoaren mota bat defendatzen badu eta oposizioak beste bat, makroekonomian politika ekonomikoaren helburu-gatazka esaten zaiona izango dugu?

3. Irudikatu Espainiako ekonomiari buruzko testu zati hau, eskaintza eta eskari agregatuaren ereduaren bidez:

2008. urtearen hasieran, hirigintza-burbuilaren efektuak eragindako hazkunde etengabea bat-batean eten zen. Nazioarteko finantza-krisiak oso eragin negatiboa izan zuen ekonomiaren ekoizpen-sektoreko emaitzetan eta igurikimenean, baina baita kontsumitzaileen gastu-planetan ere. Horren emaitza moduan, atzeraldi bortitza hasi zen, eta, horrekin batera, deflazioa.

2. kapitulua

Ekoizpena, errenta eta gastua

ARIKETAK, ATALEN ARABERA

2.1. BPGd: kontzeptua eta neurketa

1. Adierazi (adierazi bakarrik) kontzeptu hauetako zein EZ diren sartzen BPGd-ren kontabilitatean.

- Pepita amonak auzokoekin frutarekin trukatzeko egiten dituen gailen balioa.
- Esteban jaunak tailer ofizial batekin kontratatutako hobekuntzak, bigarren eskuko autoa erosteko unean.
- Estherren txerrien basetxeak eragindako ingurumen-kutsadura.
- Sexuaren arloko langile batek eskainitako zerbitzuengatik etxean jasotzen dituen sarrerak.
- Gustavo medikuak emazteari ordaintzen dion soldata (eta Gizarte Segurantzako kotizazioa) kontsultako pazienteak artatzeagatik.
- Estatuak Francisco jaunaren enpresari zezen-plaza bat eraikitzeko ordaintzen dion dirua.
- Teresa andereñoak jasotzen duen estatuaren beka, unibertsitatean ikasketak egiteko.
- Antonio poliziak estatutik jasotzen duen soldata.
- Vicente antikuariok biltegian dituen antigoaleko gauzen balioa.

2. Erreparatu herrialde bateko ekoizpenaren datuei:

Urtea	Kapital-ondasunak		Kontsumo-ondasunak	
	Aleko prezioa	Ekoitzitako kopurua	Aleko prezioa	Ekoitzitako kopurua
0 (oinarri-urtea)	20	25	10	40
1	27	30	12	50
2	30	35	15	50

- a) Eragiketarik egin gabe, zergatik datoz bat BPGd nominala eta BPGd erreala oinarri-urtean?
- b) Kalkulatu BPGd nominala eta BPGd erreala 1. eta 2. aldietarako, 0 aldia oinarri-urte moduan hartuta.
- c) Zer BPGd mota erabiliko zenuke herrialdeko hazkunde ekonomikoa neurtzeko? Zergatik? Zure erantzunaren arabera, zein izango da hazkunde ekonomikoaren tasa 1. eta 2. aldien artean?
- d) a) atalean lortutako emaitzekin, kalkulatu 1. eta 2. aldien deflatoreak eta interpretatu horietakoren bat. Bi deflatoreak erabiliz, kalkulatu inflazio-tasa 2. aldian. Nola interpretatzen da inflazio-tasa hori?

3. Jo dezagun urte batean bakarrik dakigula BPGd nominala hazi egin dela eta inflazio-tasa, deflatorearen arabera, positiboa dela. Informazio bakar hori izanda, jakin dezakegu zer norabide-tan aldatu den BPGd erreala? Hau da, BPGd txikitu edo handitu egin da? Zergatik? Ipini adibide bat.

Jo dezagun esaten digutela BPGd errealak % 2 egin duela gora, eta BPGd nominalak % 3,5. Zein izango da ekonomiaren inflazio-tasa, deflatorearen arabera?

4. Eman bi argudio baieztapen hau gezurtatzeko: «Beti da ona BPGd-ren hazkundera al bait handiena izatea herrialde batean; hau da, zenbat eta gehiago hazi askoz hobe izango da herritar guztientzat».

2.2. Nazio-errenta eta nazio-gastua

5. Jo dezagun nazio-kontabilitateko datu hauek ditugula ekonomia baterako:

NPGbmp = 3.500

Zeharkako zergak (ZZ) = 350

Faktore nazionalen errentak atzerrian (f.n.e.) = 125

Diru-laguntzak: 175

Atzerriko faktoreen errentak herrialdean (a.f.e.) = 50

Inbertsioa birjarpenean (D) = 200

- a) Kalkulatu BPGdmp, BPGbfk, NPGdfk eta nazio-errenta (NE).
Jo dezagun orain errentari buruzko datu hauek gehitzen ditugula:

Irabazien gaineko zergak (IGZ) = 100

Banatu gabeko irabaziak (BGI) = 40

Zuzeneko zergak (ZZuz) = 300

Atzerriko transferentzia garbiak (ATN) = 200

Kotizazioak Gizarte Segurantzari (GSK) = 400

- b) Aurreko ataleko nazio-errentaren balioa erabiliz, lortu etxeko ekonomietako errenta pertsonalaren (EP) eta errenta pertsonal erabilgarriaren (EPE) balioak, eskura dituzun datuak bakarrik erabiliz.

Amaitzeko, jo dezagun gastuari buruzko datu guztiak gehitzen ditugula:

Kontsumo pribatua (K) = 2.100
Kontsumo publikoa (K_{PUB}) = 400
Inbertsio gordin pribatua (I) = 600
Inbertsio gordin publikoa (I_{PUB}) = 300
Inportazioak (N) = 100
Esportazioak (X) = 325

- c) Balio horiek erabiliz, kalkulatu gastu publikoa (G), kapitalaren eraketa gordina (KEG), eskari agregatua edo ekonomiaren gastu osoa (EA), barne-eskaria (BE), barne-eskaria barne-ekoizpenean, eta esportazio garbiak.

TEST ERAKO GALDERAK

(Galdera bakoitzean bost erantzun daude; bakarra da zuzena.)

1. Kontabilizazio bikoitza BPGd-ren balorazioan...

- Tresna erabilgarria da enpresen balio erantsiak kalkulatzeko.
- Saihestu daiteke enpresa bakoitzaren balio erantsia kalkulatzuz.
- Azken ondasunen kontabilizazioa saihesteko balio du.
- Gobernuaren prozedura bat da boto-emaileei emaitza ekonomiko hobeak aurkezteko.
- Erabilgarria da BPGd-ren bikoitza kontabilizatzeko.

2. Etxeko ekonomiek eta enpresek osatutako errentaren fluxu zirkularraren ereduan:

- Etxeko ekonomiek errentak jasotzen dituzte enpresei zerbitzuak saltzearen truke.
- Enpresek sarrera batzuk lortzen dituzte ekoizten dituzten ondasunak eta zerbitzuak saltzearen truke.
- Errenta guztien balioa erosketen balioaren edo kontsumoaren berdina da.
- Ekoizpenaren balioa errenta guztien balioaren berdina da.
- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

3. Barne Produktu Gordin agregatuak herrialde baterako urte jakin batean bildu nahi du:

- Ekoiztako ondasun eta zerbitzuen kopuru osoa.
- Ekoiztako ondasun eta zerbitzu guztien balioa.
- Ekoiztako azken ondasun eta zerbitzuen kopurua.
- Ekoiztako azken ondasun eta zerbitzu guztien balioa.
- Ekoizpena biztanleko urtebetean.

4. Ezkutuko ekonomiaren osagaitzat hartzen da:

- Aitortzen ez den legezko ekoizpena.
- Legez kanpoko ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.
- Ezkutuko gauzako errentak.
- «Egizu zeuk» lanak.
- Aurreko guztia.

5. Barne Produktu Gordin nominala...

- a) BPGd erreala baino txikiagoa da beti.
- b) Ez dago inflazio-mailaren mende.
- c) Gora egingo du, ekonomiako prezioek gora egiten dutenean.
- d) Euro konstanteetan adierazten da.
- e) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

6. Aldi jakin batean gora egiten badute BPGd errealaren mailak eta prezioen mailak, hau baieztatu dezakegu:

- a) Ondasunen eta zerbitzuen ekoizpen fisikoak behera egingo du.
- b) Ekoizpen nominala prezioak baino gutxiago handituko da.
- c) Ekoizpen nominalak behera egingo du.
- d) Ekoizpen nominalak gora egingo du beti.
- e) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

7. Jarduera hauetako zein ez da sartzen Espainiako NPGren barruan?

- a) Indian aholkulari moduan lan egiten duen ekonomialari espainiar baten soldata.
- b) Errioxako familia-upeltegi baten irabaziak.
- c) Galizian enpresa espainiar bateko ingeniari moduan lan egiten duen italiar baten soldata.
- d) Erresuma Batuko ligan jokatzen duen futbol-jokalari espainiar batek jasotzen dituen primak.
- e) Espainiako enpresa batek Txilen jasotzen dituen jabetzaren errentak.

8. 1960. urteko BPGd nominala 500 moneta-unitate izan bazen, eta urte bererako deflatoarea, 1950. urtea oinarri hartuta, 125 izan bazen, zein da 1960ko BPGd erreala 1950eko prezio konstanteetan?

- a) 350 moneta-unitate.
- b) 400 moneta-unitate.
- c) 625 moneta-unitate.
- d) 500 moneta-unitate.
- e) 62.500 moneta-unitate.

9. BPGd urtean % 5 hazten bada, zer gertatuko da lau urte barru?

- a) BPGd % 20 haziko da.
- b) BPGd % 20 baino gehiago haziko da.
- c) BPGd % 20 baino gutxiago haziko da.
- d) BPGd % 5 bakarrik haziko da.
- e) Hazkundearen ehunekoa BPGd-k aldiaren hasieran duen balioaren araberakoa izango da.

10. Turista japoniar batek Espainiako hotel batean egindako gastua honela kontabilizatzen da Espainiako Kontabilitate Nazionalean:

- a) Kontsumo pribatua.
- b) Inbertsioa.
- c) Gastu publikoa.
- d) Zerbitzu baten inportazioa.
- e) Zerbitzu baten esportazioa.

PAREKATZEAK: DEFINIZIOAK ETA KONTZEPTUAK

(Taula bakoitzeko azken zutabearen lehen zutabeko zenbakiak jarri behar dira. Horrela, definizio bakoitza bat etorriko da kontzeptu bakoitzarekin)

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	BPGd-ren balioa kalkulatzeko, herrialde batean egindako ekoizpen-jarduera guztiek eragiten duten balio erantsia batuta.	ERRENTAREN FLUXU ZIRKULARRA	
2	BPGd-ren balioa kalkulatzeko, herrialde batean egindako ekoizpen-jarduera guztien emaitzak lortzeko egindako erosketen balioa batuta.	ERRENTAREN IKUSPEGIA	
3	Kontabilitateko sistema honek herrialde bateko agregatu ekonomikoak definitu, neurtu eta lotzen ditu aldi jakin baterako.	GASTUAREN IKUSPEGIA	
4	Enpresen eta familien artean baliabide errealeen eta diru-baliabideen arteko trukea irudikatzen duen erredua.	PRODUKTUAREN BALIOAREN IKUSPEGIA	
5	BPGd-ren balioa kalkulatzeko, herrialde batean egindako ekoizpen-jarduera guztiek eragindako sarrera guztiak batuta.	NAZIO-KONTABILITATEA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Enpresa batek eraldatzeko edo ekoizpen-prozesuan erabiltzeko eskuratzen duen faktorea edo baliabidea.	<i>OUTPUTA</i>	
2	BPGd neurtzean egiten den kalkulu-errorea, enpresa guztien ekoizpenaren balioa kontuan hartzen denean.	<i>INPUTA</i>	
3	Enpresa baten ekoizpenaren balioa ken bitarteko erosketen balioa.	KONTABILIZAZIO BIKOITZA	
4	Ekoizpen-jarduera baten emaitza, zenbait faktore edo baliabide konbinatzean.	BALIO ERANTSIA	
5	BPGd nominala eta BPGd erreala konparatzean lortutako prezioen indizea, bien arteko zatidura oinarri hartuta.	BPGd-ren DEFLATOREA	

2. KAPITULUA. EKOIZPENA, ERRENTA ETA GASTUA

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Ekonomia batean urtebetez ekoiztako azken ondasunen eta zerbitzuen balio osoa.	BARNE PRODUKTU GORDINA (BPGd)	
2	Ekonomia batean urtebetez ekoiztako azken ondasunen eta zerbitzuen balio osoa, oinarri-urte baten edo erreferentzia-urte baten prezioak erabilita.	BPGd NOMINALA	
3	Ekonomia batean urtebetez ekoiztako azken ondasunen eta zerbitzuen balio osoa, kalkuluan merkatuek zehaztutako erosketako edo salmentako prezioak erabilita.	BPGd ERREALA	
4	Ekonomia batean urtebetez ekoiztako azken ondasunen eta zerbitzuen balio osoa, urte horretan indarrean dauden prezioak erabilita.	BPGd MERKATU-PREZIOETAN	
5	Ekonomia batean urtebetez ekoiztako azken ondasunen eta zerbitzuen balio osoa, kalkulurako fabrikako irteera-prezioak erabilita (zergak eta diru-laguntzak aplikatu gabe).	BPGd FAKTOREEN KOSTUAN	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Kontzeptu ekonomiko honek kapital-ondasun baten balio-galera itzulezina irudikatzen du kontabilitatean.	INBERTSIO GORDINA	
2	Kapital-ondasunen balio-galera, teknologiak aurrera egin duelako edo eskarian aldaketak egon direlako.	INBERTSIO GARBIA	
3	Aldi jakin batean dauden kapital-ondasunen balio osoa.	KAPITAL- <i>STOCKA</i>	
4	Kapital fisiko produktiboaren (planta eta ekipoa) erosketetan egindako gastu osoa gehi aldaketa garbia izakinetan.	ZAHARKITZEA	
5	Aldi jakin batean kapital produktiboaren ondasunetan egindako gastu osoa ken aldi horretan dauden kapital-ondasunen balio-galera.	AMORTIZAZIOA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Herrialde bateko egoiliarrek izan dezaketen errenta, herrialdeko ekoizpenari egindako ekarpena zein atzerriko transferentzia garbiak.	NAZIO-ERRENTA	
2	Herrialde bateko egoiliarren eskura dauden ekoizpen-faktore guztien ordainketa. Ekonomiaren nazio-produktu garbia da.	ERRENTA PERTSONALA	
3	Familiek azkenean izan dezaketen errenta garbia, zergak ordaindu ondoren, gastatzeko edo aurrezteko.	NAZIO-ERRENTA ERABILGARRIA	
4	Herrialde baten barruan jarduten duten ekoizpen-faktoreek jasotako sarrerak, horien bizilekua edozein izanda ere.	ERRENTA PERTSONAL ERABILGARRIA	
5	Familiek jasotako sarrerak ekoizpen-jarduerei egindako ekarpenaren kontzeptuan, zergak ordaindu aurretik.	BARNE-ERRENTA GARBIA	

2. kapituluaren. AUTOEBALUAZIO PRAKTIKOA

1. Aldi jakin batean, hau ekoitzi da herrialde batean:

Kontsumo-ondasunak eta -zerbitzuak: 2.700 m.u.

Ekipo-ondasunak:

Lehengaiak:

Lehengaien ekoizpen osotik, 400 m.u. kontsumo- eta ekipo-ondasunak ekoizten xurgatu dira. Ekipo-ondasunen ekoizpenetik, 100 m.u. kapital finkoaren balio-galera estaltzeko erabili dira. Aldi horretako kontsumoa 2.400 m.u. izan da.

- Adierazi zer osagai sartzen diren inbertsio pribatuaren barruan. Kalkulatu inbertsio gordina adibide honetarako.
- Azaldu zer den inbertsio garbia. Kalkulatu adibide honetarako.
- Lortu BPGd, herrialde horretako merkatuko prezioetan.

2. Adierazi, esaldi bakoitzaren amaieran BAI ala EZ idatzita, jarduera hauek Espainiako Barne Produktu Gordinean (BPGd) sartuko diren aurretik:

- Sukaldari profesional batek, hala nola Arguiñanok, bere etxean prestatzen dituen bazkariak.
- Baserritar batek Mercabilbaon saldu duen kalabazen uzta.
- Duela bost urte egindako bigarren eskuko autoa partikular batek beste bati saltzea.
- Langabe batek jasotzen duen langabezia-asegurua.
- Hoteletako animatzaileei ordaindutako soldata.
- Estatu Batuetako Coca Cola enpresak Salamancako botilaratze-planta berri batean egin duen inbertsioa.

- g) AirbusEspañak Getafen osagaiak ekoizten ditu, Alemanian egiten den Airbus 380 hegazkinerako.
- h) Josuk Telefónicaren 10 akzio erosi ditu Laurari oparitzeko.
- i) Adrianek Gibraltarretik sartu duten kontrabandoko tabakoa erosi du.
- j) Patriciak lurrin frantsesa erosi du Bilboko lurrin-denda batean.
- k) Aritzek lantxoak egiten ditu bere etxean eta auzokoen etxean.

3. Ekonomia bateko hazkunde-tasa hauek kontuan hartuta:

	2011. urtea	2012. urtea
BPGd nominalaren hazkunde-tasa	6,3	7,7
Inflazio-tasa (deflatorearen arabera)	4,1	
BPGd errealaren hazkunde-tasa		-2,3

- a) Osatu taula. Horretarako, urte bakoitzerako, BPGd errealaren gutxi gorabeherako hazkunde-tasa kalkulatu beharko duzu. Hurrengo espazioan, adierazi kalkulua egiteko erabili duzun adierazpena.
- b) Taulan agertzen diren hiru adierazleetatik, zein erabiltzen dira eskualde baten hazkunde ekonomikoa eta, beraz, ongizate ekonomikoa neurtzeko? Azaldu zergatik.

4. Ekonomia baten kontabilitate nazionalak datu makroekonomiko hauek biltzen ditu:

$$\text{BPGdmp} = 1.200$$

$$\text{BPGbmp} = 1.130$$

$$\text{Zeharkako zergak (ZZ)} = 100$$

$$\text{Diru-laguntzak (DL)} = 10$$

$$\text{Faktore nazionalen errentak (f.n.e.)} = 30$$

$$\text{Atzerriko faktoreen errentak (a.f.e.)} = 40$$

- a) Kalkulatu barne-errenta gordina (BEG), balio-galera (BG) eta nazio-errenta (NE). Nola definitzen da nazio-errenta?
- b) Jo dezagun herrialdeko kanpoko merkataritza-saldoa orekatuta dagoela. Kontsumo pribatua (K) = 720 eta gastu publikoa (G) = 280. Kalkulatu inbertsio garbiaren balioa (IG). Inbertsio publikoa 150 bada, zein izan da kapitalaren eraketa gordina (KEG)?
- c) a) ataleko aurreko EN oinarri hartuta, kalkulatu errenta pertsonal erabilgarria (EPE) eta aurrezkia (A), balio hauek izanda:

$$\text{Atzerriko transferentzia garbiak (ATN)} = -150$$

$$\text{Irabazien gaineko zergak (IGZ)} = 75$$

$$\text{Banatu gabeko irabaziak (BGI)} = 250$$

$$\text{Estatuaren transferentziak (TR)} = 25$$

$$\text{Familiak ordaindutako zergak (ZZuz + SSF)} = 40$$

$$\text{Dibidenduak} = 10$$

5. Herrialde batean, hiru azken ondasun soilik ekoizten dira: A, B eta C. Ekoiztako kantitateak eta hiru urtetako prezioak taula honetan jaso dira:

		A ondasuna	B ondasuna	C ondasuna
0 urtea (oinarria)	Prezioa	40	30	60
	Kantitatea	400	1.200	120
1. urtea	Prezioa	44	36	56
	Kantitatea	440	1.060	140
2. urtea	Prezioa	50	40	60
	Kantitatea	460	1.220	140

- a) 0 urteko prezioak oinarri moduan erabiliz, kalkulatu Barne Produktu Gordin erreala 1. eta 2. urteetarako.
- b) Bi emaitza horiek erabiliz, kalkulatu hazkunde-tasa 1. eta 2. urteen artean, eta inflazio-tasa.

3. kapitulua

Eredu keynestar sinplea: etxeke ekonomiak eta enpresak

ARIKETAK, ATALEN ARABERA

3.1. Kontsumoa, errenta eta inbertsioa

1. Jo dezagun herrialde bateko biztanleria honela sailkatzen dugula: kontsumitzeko joera marjinal (KJMj) handia dutenak eta kontsumitzeko joera marjinal (KJMj) txikia dutenak. Sailkapen horretan, zer sarrera-maila izango du pertsona talde bakoitzak? Informazio hori izanda, zure ustez, nola banatu beharko litzateke errenta ekonomiaren kontsumo osoa handitu nahi bada? Eta aurrezki handitu nahi bada? Iruzkindu ateratzen den gastuaren egitura, kasu bakoitzean.

2. Familiak eta enpresak soilik dituen ekonomian, kontsumo-funtzioa ekuazio honetara ekoizten da: $K = 125 + 0,75Y_e$. Erantzun galdera hauei:

- Egin irudikapen grafikoa, eta kokatu berdinketa- edo orekatze-puntua.
- Kalkulatu matematikoki berdinketa-maila, eta adierazi errenta erabilgarriaren zer baliotan egongo den aurrezki eta zeinetan desaurrezkia.
- Errenta erabilgarriaren maila $Y^e = 800$ bada, kalkulatu ekonomiaren kontsumo osoa, kontsumo autonomoa eta errenta-maila horrek eragindako kontsumoa.
- Lortu aurrezki-funtzioaren ekuazioa eta marraztu grafiko batean, kontsumo-funtzioaren azpian.
- Kalkulatu eta irudikatu aurrezki-mailak errenta erabilgarriaren balio hauetarako: $Y_e = 400$ eta $Y_e = 750$.
- Bilatu kontsumitzeko batez besteko joera (KJMe) eta aurrezteko batez besteko joera (SJMe), $Y_e = 400$ izanda.
- Aurreko ataletan kalkulaturako kontsumo- eta aurrezki-funtzioen irudikapenei erreparatuz, azaldu hiru baieztapen hauek zergatik diren gezurrezkoak:
 - Errenta erabilgarria gutxitzen denean, desaurrezkia murriztu egiten da.
 - Errenta erabilgarria gutxitzen denean, kontsumoaren kantitatea murriztu eta aurrezkiaren kantitatea handitu egiten dira.
 - Berdinketa-puntuaren azpitik, KJMe bat baino handiagoa da.

3.2. Inbertsioa

3. Zein izango litzateke gertaera hauetako bakoitzaren efektua inbertsio-eskariaren kurban, *ceteris paribus*? (hau da, nola aldatuko da I_c kurba?)

- Sarrera garbi handiagoak, inbertsio-proiektuetan erabilitako edozein diru kantitaterako.
- Interes-tasaren gorakada ekonomian.
- Enpresek lortutako irabazi garbien gaineko zergaren gorakada.
- Inbertsio-proiektu berriak agertzea interes-tasa baxuetan.
- Gizarte-bakearen giroa sindikatuen, enpresaburuen eta politikarien artean egindako akordioei esker.

4. Gobernu batek, hala nola Espainiako gobernuak, gure herrialdean konfiantza-, segurtasun- eta optimismo-maila handitzeko kanpaina egiten duenean, zer lortu nahi du? Hau da, eskari agregatuaren zer osagaitan eragin nahi du batez ere (kontsumoa, inbertsioa, gastu publikoa, esportazioak edo inportazioak), eta zer helbururekin? Azaldu labur-labur. (Gogoan izan hemen «Dirua beldurtia da» esaldi famatua eta *hegakortasun* kontzeptua).

5. Jo dezagun 30.000 euro dituzula inbertitzeko, eta bi inbertsio eskaintzen dizkizutela zure diruaren errentagarritasunik onena bilatzeko. A inbertsioan, gaur egun 28.000 euro gastatu behar dira, eta urtean 1.120 euro emango ditu. B inbertsioan, 19.500 euro gastatu behar dira, eta urtean 780 euro bermatzen dizkizu. Bi inbertsioetako zein da erakargarriena errentagarritasunari begira? Jo dezagun bankuek zure dirua sartzearagatik eskaintzen dizuten interes-tasa % 3 dela. Nola inbertituko zenuke zure dirua errentagarritasunik handiena lortzeko? Eta bankuek eskainitako interes-tasa % 5 balitz?

3.3. Orekako ekoizpena

6. Har dezagun ez sektore publikorik ez kanpo-sektorerik ez duen ekonomia.

- Osatu taula honetako espazio hutsak, nazio-errentari, kontsumoari eta aurrezkiari dagozkionak.

Nazio-errenta (€)	Kontsumoa (€)	Aurrezkia (€)	Inbertsioa (€)
2.000	2.200		400
4.000	4.000		
6.000			
8.000			

- Kalkulatu orekako errenta, eta deskonposatu eskari agregatuaren osagaiak.
- Zein dira KJMe eta SJMe ekoizpenaren eta errentaren orekako mailan?
- Egiaztatu aurreko orekako mailan bete egiten dela aurrezkia eta planeatutako inbertsioa berdinak izatea. Irudikatu grafikoki berdintasun hori.

- e) Itzul gaitezen enuntziatuko datuetara. Errenta-maila 5.000 ($Y = 5.000$) izango balitz, zein desoreka-maila egongo litzateke ekonomian? Zein izango litzateke hemen planeatu gabeko inbertsio-mailaren balioa?

3.4. Biderkatzailea

7. Saiatu deskribatzen *gastuaren biderkatzaile* edo *biderkatzaile keynestar* kontzeptua inguruabar hauetako bakoitzean:

- Lagunekin bazkalondoan zaude, eta hori azaltzen ahalegintzen zara, intuizioa edo sena oinarri hartuta ulertuko dutelakoan.
- Zure entzuleei geometria gustatzen zaie, eta efektu biderkatzailea grafikoren baten bidez irudikatzea nahi dute.
- Zure entzuleei ekuazioak eta zenbakizko adibideak gustatzen zaizkie.

8. Kalkulatu biderkatzailea kasu hauetan:

- $SJM_j = 0,25$
- $KJM_j = 5/6$
- $K = 200 + 0,85Y^e$

3.5. Aurrezkiaren paradoxa

9. Azaldu zergatik ezin den izan zuzena arrazonamendu hau: «Ekonomiak atzeraldia badu, eta hazkundeari mesede egin nahi bazaio, jendea gehiago aurreztera motibatu behar da. Modu horretan bakarrik handituko da inbertsioa, eta, horrekin batera, baita ekoizpena eta kontsumoa ere».

10. Egiatzatu aurrezkiaren paradoxa zenbakien eta grafikoen bidez datu hauetarako:

- Hasierako aurrezki-funtzioa: $S = -150 + 0,1Y$
- Amaierako aurrezki-funtzioa: $S = -100 + 0,1Y$
- Planeatutako inbertsioa: $I_p = 75$

TEST ERAKO GALDERAK

(Galdera bakoitzean bost erantzun daude; bakarra da zuzena)

- 1. Kontsumo-funtzioaren berdinketa- edo oreka-puntu izenekoaren azpitik dagoen errenta-mailan, hau betetzen da...**
 - a) Familiak zorpetu egiten dira edo metatutako aurrezkiak gastatzen dituzte.
 - b) Familiak ez dute ezer kontsumitzen.
 - c) Familiak errentaren zati bat aurrezten dute.
 - d) Familiak irabazten dutena kontsumitzen dute.
 - e) Familiak ez dute aurrezten, baina desaurreztu ere ez.

- 2. Kontsumitzeko joera marjinalaren balioarekin (KJMj), hau jakin dezakegu:**
 - a) Nola handitzen den aurrezki kontsumoa handitzen denean.
 - b) Nola gutxitzen den kontsumoa errenta eskuragarriaren maila gutxitzen denean.
 - c) Nola gutxitzen den aurrezki errenta erabilgarriaren maila gutxitzen denean.
 - d) Nola aldatzen den inbertsioa kontsumoa aldatzen denean.
 - e) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

- 3. Jo dezagun ekonomia batean hau dela kontsumo agregatuaren funtzioa: $K = 15 + 0,7 Y^e$. Zein dira aurrezki autonomoa (S_0) eta aurrezteko joera marjinala (s), hurrenez hurren?**
 - a) -15 eta -0,3
 - b) 15 eta 0,3
 - c) -15 eta 0,3
 - d) -15 eta -0,7
 - e) 15 eta 0,7

- 4. Adierazi lotura hauetako zein den GEZURREZKOA, KJMj eta SJMj kontsumitzeko eta aurrezteko joera marjinalak badira, eta KJMe eta SJMe, batez besteko joerak.**
 - a) $KJMe + SJMe = 1$
 - b) $KJMj + SJMj = 1$
 - c) Kontsumitzeko batez besteko joera beti da zero baino handiagoa ($KJMe > 0$).
 - d) Aurrezteko batez besteko joerak inoiz ezin du negatiboa izan.
 - e) Kontsumitzeko batez besteko joerak unitatea baino balio handiagoak izan ditzake.

- 5. Adierazi zer zehazten duen kontsumo agregatuaren funtzioak:**
 - a) Kontsumo-ondasunetan planeatutako gastu-maila, errenta erabilgarriaren maila bakoitzari dagokiona.
 - b) Inbertsio-ondasunetan planeatutako gastu-maila, errenta erabilgarriaren maila bakoitzari dagokiona.
 - c) Kontsumo-ondasun iraunkorretan egindako gastu-maila, errenta erabilgarriaren maila bakoitzari dagokiona.
 - d) Inbertsio-ondasunetan egindako gastu-maila, errenta erabilgarriaren maila bakoitzari dagokiona.
 - e) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

6. Inbertsioaren bolumena honen arabera da:

- a) Enpresek haien jarduerarengatik ordaindu behar duten zergen zenbateko osoa.
- b) Enpresei emandako maileguen interes-tasak.
- c) Enpresen irabazi-igurikimenak.
- d) Enpresen sarrera-maila salmentengatik.
- e) Aurreko guztia.

7. Adierazi baieztapen hauetako zein den GEZURREZKOA (irakurri arretaz esaldi bakoitza; akatsa hitz batean egon daiteke):

- a) $Y = Y_0$ bada, enpresen inbertsioa planeatuta zeukatena da, eta, horren ondorioz, ez dago interesik ekoizpena aldatzeko.
- b) $Y < Y_0$ bada, izakinen nahi gabeko murrizketa egongo da, eta, horren aurrean erreakzionatzeko, enpresek ekoizpena handitzen dute, oreka lortu arte.
- c) $Y > Y_0$ bada, izakinen gehitzea egongo da, eta, horren aurrean erreakzionatzeko, enpresek ekoizpena gutxitzen dute, orekara hurbiltzeko.
- d) Planeatutako inbertsioa zenbaki positiboa denez beti ($I_p > 0$), ekoizpen-maila edo orekako errenta beti dago kontsumo-funtzioaren berdinketa-puntuaren gainetik.
- e) Eredu keynestarraren ideia nagusia da ekoizpen-maila edo orekako errenta bateragarria dela ekoizpen-faktoreen langabezia-egoerarekin.

8. Udan basoko suteak ugaritu egiten direnez, zuraren arloko enpresa talde batek basoak erretzearen kontrako inbertsioa 1.250.000 euro handitzea erabakitzen du. Kontsumitzeko joera marjinala 0,75 ($c = 0,75$) bada, zer gertatuko da prozesu biderkatzailearen ondoren, bi sektoreko eredu keynestar sinplearen arabera?

- a) Ekonomiaren ekoizpen-maila osoa 4 milioi euro handituko da.
- b) Zuraren arloko enpresen gastuak eragindako kontsumoa 3.750.000 euro handituko da.
- c) Ekonomiaren inbertsio osoa 4 milioi euro handituko da.
- d) Ekonomiaren aurrezki osoa 4 milioi euro handituko da.
- e) Erantzun bat ere ez da zuzena.

9. Inbertsioaren hazkundeak ekoizpen- eta errenta-mailan efektu biderkatzailea eragiteko arrazoi nagusia hau da:

- a) Inbertsioak ekonomiako azpiegiturak hobetzen ditu.
- b) Errentaren eta kontsumoaren hazkundeek osatzen duten gurgil zoroa: zenbat eta inbertsio gehiago, errenta gehiago; zenbat eta errenta gehiago, kontsumo gehiago; zenbat eta kontsumo gehiago, errenta gehiago, eta horrela etengabe.
- c) Inbertsioa da epe luzeko hazkunde ekonomikoa sustatzen duen gastu bakarra.
- d) Inbertsioa eskari agregatuaren osagaia da.
- e) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

10. Aurrezteko joera marjinalak gora egiten duenean (s-ren hazkundera), *ceteris paribus*, hau betetzen da eredu keynestarrean:

- a) Murriztu egiten dira biderkatzailea eta orekako errentaren maila.
- b) Biderkatzailea murriztu egiten da, baina orekako errentak berdin jarraitzen du.
- c) Handitu egiten dira biderkatzailearen balioa eta orekako errentaren maila.
- d) Biderkatzailearen balioa ez da aldatzen, baina orekako errentak behera egiten du.
- e) Ez dira aldatzen ez biderkatzailea ez orekako errenta.

EGIA ALA GEZURRA GALDERAK

1. Arrail atzerakorra ekonomia enplegu osoko ekoizpen-mailaren gaintetik kokatzeko beharrezko «jauzi» moduan uler daiteke.
 EGIA GEZURRA
2. Efektu biderkatzaileak ekoizpen- eta errenta-mailari lotuta duen definizioaren arabera, berdin dio 20.000 euroko balioa duen automobil bat familia batek edo enpresa batek erosteak.
 EGIA GEZURRA
3. Eredu keynestarraren funtsezko ezaugarrietako bat da ekonomiaren epe luzerako analisia dela, eta prezioak oreka lortu arte aldatuko direla.
 EGIA GEZURRA
4. Inbertsioak 100 milioi euro gora egiten duenean ekoizpen- eta errenta-mailak 500 milioi euro gora egiten badu, gastuaren biderkatzailea 5 milioi euro dela esango dugu. Hau da, milioi bat euro bakoitzeko, 4 milioi euro gehiago sortzen dira. Beraz, horrela lortzen ditugu 5 milioi.
 EGIA GEZURRA
5. Jo dezagun enpresa-igurikimen onen eraginez burtsako akzioak azkar eta modu iraunkorrean egiten dutela gora. *Aberastasun* kontzeptuari erreparaturaz, esan dezakegu, burtsaren hazkunde horren ondorioz, gastuak behera egingo duela planeatutako kontsumoan.
 EGIA GEZURRA
6. Aurrezki- eta kontsumo-funtzioen arabera, aurrezki negatiboa (edo desaurrezkia) egongo da errenta-maila txikietarako, eta aurrezki positiboa errenta-maila handietarako.
 EGIA GEZURRA
7. Makroekonomian, joera marjinalen eta batez besteko joeren arteko alde kontzeptuala hau da: marjinalak aldagaien balio osoak lotzen ditu, eta batezbestekoak, aldagai horien aldaketak.
 EGIA GEZURRA
8. Sarrera gutxi dituztenek («jende txiroa» esango diegu) kontsumitzeko joera marjinal oso handia izango dute (unitatetik hurbil edo parean agian), eta sarrera asko dituzten pertsonak («jende aberatsa» esango diegu) kontsumitzeko joera marjinal oso txikia izango dute (zerotik hurbil edo parean agian).
 EGIA GEZURRA
9. Eredu keynestarraren arabera, ekoizpen- eta errenta-maila orekako ez bada, bete egiten da familiek planeatutako aurrezkia ez datorrela bat enpresek planeatutako inbertsioarekin.
 EGIA GEZURRA
10. Enpresa batek pentsatzen zuena baino gutxiago saltzen badu, inbertsio efektiboa planeatuta zeukana baino txikiagoa izango da.
 EGIA GEZURRA

PAREKATZEAK: DEFINIZIOAK ETA KONTZEPTUAK

(Taula bakoitzeko azken zutabearen lehen zutabeko zenbakiak jarri behar dira. Horrela, definizio bakoitza bat etorriko da kontzeptu bakoitzarekin)

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Egoera honetan, familien gastua bete-betean bat dator errenta erabilgarriaren mailarekin ($K = Y^e$).	ENPRESA-IGURIKIMENAK	
2	Enpresek kapital-ondasunetan planeatutako gastua (makineria, ekipoa, softwarea eta izakinak).	PLANEATUTAKO INBERTSIO PRIBATUA	
3	Enpresaburuek etorkizunean gertatuko denari buruz duten iritzia subjektiboa.	KONTSUMO-FUNTZIOAREN BERDINKETA-PUNTUA	
4	Mailegu-kontratuetan iragartzen edo jasotzen den interes-tasa.	INTERES-TASA ERREALA	
5	Erosteke ahalmenaren arabera baloratzen den interes-tasa, inflazioa kendu ondoren.	INTERES-TASA NOMINALA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Egoera honetan, ekonomiaren planeatutako eskari agregatua bat dator ekoizpen-mailarekin ($EA = Y$).	ARRAIL ATZERAKORRA	
2	Desoreka-egoera honetan, ekonomiaren ekoizpen-maila orekako mailaren azpitik dago ($Y < Y_0$).	GEHIEGIZKO ESKAINTZA AGREGATUA	
3	Desoreka-egoera honetan, ekonomiaren ekoizpen-maila orekako mailaren gainetik dago ($Y > Y_0$).	GEHIEGIZKO ESKARI AGREGATUA	
4	Zenbaki honen bidez, ekonomiaren ekoizpen-mailaren azken hazkundera neurtzen da gastu autonomoaren hasierako hazkundera dagoenean.	BIDERKATZAILEA	
5	Enplegu osoko ekoizpen-mailaren eta ekonomiaren ekoizpen efektiboaren mailaren arteko aldea.	OREKA KEYNESTARRA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Kontsumitzen ez den errenta erabilgarriaren zatia da.	AURREZTEKO BATEZ BESTEKO JOERA	
2	Zenbaki honen bidez adierazten da nola aldatzen den aurrezki errenta erabilgarria aldatzen denean.	AURREZTEKO JOERA MARJINALA	
3	Zenbaki honen bidez adierazten da zer ehunekok irudikatzen duen aurrezki pribatua errenta erabilgarriarekin alderatuta.	AURREZKI INDUZITUA	
4	Etxeko ekonomien aurrezkiaren zati bat, errenta erabilgarriaren mailaren arabera ez dena.	AURREZKI PRIBATUA	
5	Etxeko ekonomiaren aurrezkiaren zati bat, errenta erabilgarriaren arabera edo horrekin aldatzen dena.	AURREZKI AUTONOMOA	

MAKROEKONOMIA LANDUZ

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Kontsumoaren gastu hau ez da errenta erabilgarriaren araberakoa, beste faktore batzuen araberakoa baino.	KONTSUMO INDUZITUA	
2	Etxeko ekonomiek azken ondasun eta zerbitzuetan egiten duten gastu agregatua da.	KONTSUMO PRIVATUA	
3	Zenbaki honen bidez adierazten da nola aldatzen den kontsumoa errenta erabilgarria aldatzen denean.	KONTSUMITZEKO BATEZ BESTEKO JOERA	
4	Zenbaki honen bidez adierazten da zer ehunekok irudikatzen duen kontsumo agregatu pribatua errenta erabilgarriarekin alderatuta.	KONTSUMITZEKO JOERA MARJINALA	
5	Kontsumoaren gastu hau errenta erabilgarriaren mailaren araberakoa da, edo horren arabera aldatzen da.	KONTSUMO AUTONOMOA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Enpresen planeatutako inbertsioa gehi izakinen nahi gabeko aldaketa.	AURREZKI AGREGATUAREN FUNTZIOA	
2	Ekonomian lor daitekeen gehieneko ekoizpen-maila, eskura dauden ekoizpen-baliabide guztiak erabilita.	KONTSUMO AGREGATUAREN FUNTZIOA	
3	Ekuazio matematiko honek adierazten digu zein izango den familiek planeatutako aurrezki errenta-maila bakoitzerako.	EKOIZPEN POTENTZIALAREN EDO ENPLEGU OSOAREN MAILA	
4	Etxeko ekonomien aurrezki gutxitzea edo zorpetzea, irabazten dena baino gehiago gastatzeko nahiak eraginda.	INBERTSIO EFEKTIBO PRIBATUA	
5	Ekuazio matematiko honek adierazten digu zein izango den familiek planeatutako gastua errenta esku-ragarriaren maila bakoitzerako.	DESAURREZKIA	

3. kapituluaren. AUTOEBALUAZIO PRAKTIKOA

1. Etxebizitzaren prezioak oso azkar gora egiteak zein burtsak modu ikusgarrian gora egiteak kontsumo-gastuaren hazkunde handia eragin dezakete. Azaldu zer argudio dagoen baieztapen horren atzean, eta adierazi zer izen ematen zaion egoera horri ekonomian.

2. Aztertu errenta erabilgarriari, aurrezkiari eta kontsumoari dagokien taula:

Errenta erabilgarria	Aurrezki	Kontsumoa	SJMeS	KJMe
0	-80		—	—
400		400		
800	80			0,9
1.200		1.040	0,13	
1.600				

- a) Bete hutsuneak.
- b) Zein da kontsumo autonomoa, K_0 ? Eta aurrezki autonomoa?
- c) Kontsumo-funtzioa lineala dela jotzen badugu, kalkulatu errenta erabilgarriaren, kontsumoaren eta aurrezkiaren aldaketen bidez zein diren kontsumitzeko joera marjinalaren (KJMj) eta aurrezteko joera marjinalaren (SJMj) balioak. Interpretatu bi balioak.
- d) Irudikatu grafikoki taula horretatik ateratzen den kontsumo-funtzioa.
- e) Kontsumo- eta aurrezki-taula honen arabera, badago kontsumo-funtzioaren berdinketa-puntu izenekoala ala ez? Non egongo da kokatuta?

3. Azaldu esaldi hau: «Izakinetan egindako inbertsioa planeatuta egon daiteke ala ez, enpresen igurikimenean eta hazkunde ekonomikoaren arabera (BPGd-ren aldaketa)».

4. Keynesen teoriaren arabera, gastuaren efektu biderkatzailea zergatik hurbiltzen da balio finitura eta ez infinitura?

5. Jo dezagun bi sektoreko ekonomia daukagula, jokabide-ekuazio hauekin:

$$K = 50 + 0,75Y^e \quad I_p = 150 \quad Y_{EO} = 2.000$$

- a) Kalkulatu orekako errenta, eta deskonposatu eskari agregatuaren osagaietan.
- b) Errenta-maila 1.000 izan balitz ($Y = 1.000$), zein izango litzateke desoreka? Zein izango litzateke planeatu gabeko inbertsio-maila?
- c) Bilatu biderkatzailearen zenbakizko balioa, eta interpretatu.
- d) Kalkulatu orekako zer ekoizpen edo errenta lortuko litzatekeen kontsumo autonomoa 10 ($\Delta K_0 = 10$) handituko balitz.
- e) Enuntziatuko datuak hartuta, zein da planeatutako inbertsioan egin beharreko hazkundera, orekako errenta potentzialera hurbildu dadin?

4. kapitulua

Eredu keynestar sinplea: politika fiskala eta kanpo-sektorea

ARIKETAK, ATALEN ARABERA

4.1. Gastu publikoa eta sarrera publikoak

1. Presio fiskal egokia finkatzea (hau da, zergen kantitatea eta mota) ez da zeregin erraza gobernuentzat. Azaldu, labur-labur, zerga handiek zein zerga txikiek zergatik izan ditzaketen ondorio txarrak gizartean.

2. Herrialde bateko defizit publikoa modu jarraituan jaitsi da azken urteetan (adibidez, Espainian 2012tik aurrera). Boterean dagoen alderdi politikoaren ustez, aurrekontu-saldo negatiboaren murrizketaren arrazoia koiuntura mesedegarria da, ekonomia hazi egiten baita. Hala ere, oposizioan dauden alderdientzat eta sindikatuentzat, kontu publikoen saneamendu horren jatorria politika fiskal indartsua eta murriztailea da. Azaldu talde bakoitzak egiten duen arrazonamendua defizit publikoaren beherakada azaltzeko. Aurrekontu-saldoarekin lotutako zer bi adierazle erabili beharko genituzke, arrazoia bi taldeetako zeinek daukan egiaztatzeko? Azaldu nola kalkulatu diren adierazle horiek eta zer lotura dagoen haien artean. Jarri zenbakizko adibide bat, ahal baduzu.

3. Defizit publikoa eta zor publikoa. Zer motatako aldagai ekonomikoak dira: fluxu erako aldagaiak edo stock erako aldagaiak? Zer lotura dago haien artean? Beti betetzen da defizita zenbat eta handiagoa izan zorra handiagoa dela? Edo ez dago lotura finkorik bien artean? Azaldu zure erantzuna.

4.2. Oreako nazio-errenta sektore publikoarekin

4. Hazkunde ekonomikoaren hedatze-koiuntura batean, gobernuak gastu publikoa eta zerga-bilketa zenbateko berean murrizteko konpromisoa hartu du (jo dezagun, adibidez, proposamena 1.000 milioi euro murriztea dela). Zer eragin izango du erabaki horrek aurrekontu-saldoan? Neu-

trala da politika fiskal hori ekoizpen- eta errenta-mailaren gain? Hau da, politika fiskal horrek eskari agregatuan eragina izango du ala ez? Nolako eragina? Zergatik?

5. Jo dezagun prezio finkoak eta langabezia handia dituen ekonomia. Ekuazio hauek ditu ezaugarri:

$$\begin{aligned} \text{Kontsumo pribatua: } & K = 700 + 0,8Y^e \\ \text{Inbertsioa: } & I_p = 800 \\ \text{Gastu publikoa: } & G = 300 \\ \text{Zerga-tasa: } & t = 0,25 \\ \text{Enplegu osoa: } & Y_{EO} = 6.000 \end{aligned}$$

- Kalkulatu gastatzeko joera marjinala (z), eta interpretatu.
- Lortu orekako errenta edo ekoizpena (Y_O), arrail atzerakorra eta ekoizpenaren deskonposizioa eskari agregatuaren osagaietan. Irudikatu grafikoki soluzio hau.
- Kalkulatu etheen errenta erabilgarriaren maila (Y^e) eta aurrezki osoa (S). Datu horiek oinarri hartuta, bilatu aurrezteko eta kontsumitzeko batez besteko joerak (SJMe eta KJMe), eta interpretatu lortutako emaitzak. Familiak, oro har, ekonomiako kontsumo-funtzioaren berdinketa-puntuaren gainetik edo azpitik daude?
- Kalkulatu zerga-bilketa (T) eta aurrekontu-saldoa (AS) oreka-mailan. Deskonposatu AS , lortu osagai estruktural eta ziklikoa, eta interpretatu emaitzak.
- Kalkulatu ekonomiak izango lukeen desoreka, errenta-maila 5.000 balitz. Nolako izango litzateke planeatu gabeko inbertsioa (I_{e_p}) kasu honetan: positiboa edo negatiboa? Zergatik? Irudikatu desoreka hori a) ataleko grafikoa.

4.3. Biderkatzaile fiskalak

6. Irudikatu taula honetan gastuaren lehenengo lau etapen efektu biderkatzailea, gastu publikoa 5.000 handitzen denean ($\Delta G = 5.000$). Horretarako, jo dezagun kontsumitzeko joera marjinala 0,9 ($c = 0,9$) dela, eta zerga-tasa 0,2 ($t = 0,2$). (Efektu biderkatzailearen lehen balioa eta taulako azkenak nik emango dizkizut).

Etapa kopurua	Gastu publikoaren hazkundera	Kontsumoaren hazkundera ($c = 0,9$)	Zerga-bilketaren hazkundera ($t = 0,2$)	Ekoizpen-mailaren hazkundera metatua
1	5.000	—	—	5.000
2	—	—	1.000.0	—
3	—	—	720.0	—
4	—	1.866,624	518.4	13.058.624

Idatzi beharrezko eragiketak ordenan.

7. Zergatik dago efektu biderkatzailea ekonomiako ekoizpen- eta errenta-mailan gastu publikoa aldatzen denean? Hau da, zein da justifikazio logikoa ekoizpen-mailaren aldaketa gastu publikoaren aldaketa baino handiagoa izateko?

8. (5. problemaren jarraipena)

- Kalkulatu gastu publikoaren biderkatzailea, eta interpretatu.
- Zenbat handitu beharko litzateke gastu publikoa (ΔG) enplegu osoa lortu ahal izateko? Zein izango litzateke efektu biderkatzaileak eragindako kontsumoaren hazkundera (ΔC) kasu honetan? Zer motatako politika fiskalaz ari gara: hedatzailea ala murriztailea? Nola aldatuko litzateke aurrekontu-saldoa (ΔAS) politika fiskal horren aurrean?
- Zerga-tasa $t = 0,3$ mailaraino igoko balitz eta gastu publikoa ere handituko balitz eta 500ean kokatu, zein izango litzateke orekako ekoizpen-maila berria? Nolakoa izango da kasu honetan politika fiskala: hedatzailea edo murriztailea?

9. Gastu publikoa 25 m.u. handitzen bada, eta inbertsioa zenbateko berean txikitzen bada ($\Delta G = 25$ eta $\Delta I = -25$), zein izango da efektu biderkatzailea ekoizpen- eta errenta-mailaren gain? Zergatik? Jo dezagun orain gastu publikoak 25 egiten duela gora, eta oraingoan zergek zenbateko berean egiten dutela gora ($\Delta G = 25$ eta $\Delta T = 25$). Zer gertatuko da orain efektu biderkatzailearekin? Nola esaten zaio fenomeno horri?

4.4. Orekako nazio-errenta sektore publikoarekin eta kanpo-sektorearekin

10. Jo dezagun orain, aurreko bi funtzioekin batera (K eta t), ekonomia ireki batekin lotutako gainerako aldagaiak sartzen ditugula:

$$K = 90 + 0,85Y^e \quad I_p = 250 \quad G = 100 \quad t = 0,2 \quad X = 100 \quad N = 0,18Y$$

- Identifikatu zein ekuazio dagozkion sektore pribatuari (familiak eta enpresak), zein sektore publikoari, eta zein kanpo-sektoreari.
- Kalkulatu kontsumitzeko joera marjinala zergak kenduta (z) eta barne-ondasunetan kontsumitzeko joera marjinala zergak kenduta (z_i). Zergatik dago balio-aldea bien artean? Agian ekonomiak orain esportazioak dituelako eta lehen ez? Kalkulatu ekonomia ireki honetako gastu publikoaren biderkatzailea.
- Behin biderkatzailea kalkulaturik, bilatu orekako errenta (Y_0). Eta datu hori oinarri hartuta, lortu zerga-bilketa (T), errenta erabilgarria (Y^e), kontsumoa (K) eta inportazioak (N). Informazio horrekin, eskari agregatuaren deskonposizioa oinarri hartuta, egiaztatu kalkuluan ez duzula akatsik egin.
- 45°-ko zuzena abiapuntu hartuta, irudikatu grafikoki aurreko atalean lortutako orekako errenta-maila. Grafiko hau erabiliz, azaldu non egongo diren izakinen nahi gabeko metaketa duten ekoizpen-mailak ($I_p > 0$): oreka-mailaren gainetik edo azpitik egongo dira? Zergatik?
- Eredu honetako orekako errenta —e) atalean lortutakoa— oinarri hartuta, ekonomian desorekaren bat egongo da? Hau da, kontu publikoak (AS) eta kanpoko kontuak (XN) orekatuta egongo dira, edo superabita edo defizita izango dute? Egiaztatu zenbakiak erabiliz, eta azaldu emaitza kasu bakoitzean.
- Enplegu osoko errenta 2.200 ($Y_{EO} = 2.200$) bada, kalkulate arrail atzerakorra (ΔY) eta enplegu osoa lortzeko beharrezko inbertsioa (ΔI). Zenbakizko kalkulurik egin gabe, ereduaren formulak bakarrik erabiliz: aurrekontu-saldoa (ΔAS) handitu edo txikitu egingo da I -k gora egiten bada? Zergatik? Eta zer gertatuko da esportazio garbiekin (ΔXN)?

- g) Jo dezagun natura-hondamendi baten eraginez 40 ($\Delta I = -40$) balioko enpresa suntsitzen direla, eta, suntsitze hori konpentsatzeko, estatuak kopuru bera gastatzen duela galdutakoa berreskuratzeko ($\Delta G = 40$). Ekonomiako ekoizpen-maila berria handitu edo txikitu egingo da bi hazkunderen efektu biderkatzaileak kontuan hartu ondoren? Azaldu. Eta estatuak gastu publikoa handitu beharrean zerga-bilketa kopuru berean murriztu izan balu ($\Delta T = -40$), Y_E horren gaineko azken eragina berdina izango litzateke?

TEST ERAKO GALDERAK

(Galdera bakoitzean bost erantzun daude; bakarra da zuzena.)

1. Aurrekontu-saldoaren formula sinplifikatuari erreparatuz, $AS = t_0 Y - G_0$, hau baieztatu dezakegu:

- Hazkunde ekonomikoa zenbat eta handiagoa izan, txikiagoa izango da aurrekontu publikoaren saldoa.
- Hazkunde ekonomikoa zenbat eta handiagoa izan, handiagoa da aurrekontu publikoaren saldoa.
- Aurrekontu publikoa soil-soilik aldatuko da politika fiskaleko tresnetan egon diren aldaketek eraginez.
- Aurrekontu publikoa soil-soilik aldatuko da ekoizpen- eta errenta-mailan egon diren aldaketek eraginez.
- Aurrekontu-saldoak inoiz ezin du orekan egon.

2. Baieztapen hauetako zein da ZUZENA?

- G murrizten bada, eskari agregatua eta orekako ekoizpena handitu egiten dira.
- G handitzeak orekako ekoizpenean eragiten duen efektu bera eragiten du kopuru bereko Ip-ren hazkunderak.
- G handitzeak orekako ekoizpenean eragiten duen efektu bera eragiten du kopuru bereko Ip-ren murrizketak.
- G-k ez du zuzenean eragiten ekonomiaren gastu osoan, ez baita eskari agregatuaren osagai bat.
- G-ren aldaketak eskari agregatuan duen eragina zergek duten eraginaren modukoa da.

3. Eredu keynestarrean zerga zuzenak (t hizkiarekin izendatzen ditugunak) sartzen direnean...

- Gastuaren biderkatzailea zergak sartu gabe lortutakoa baino handiagoa da.
- Eskariaren edozein osagai autonomo aldatzen bada, zergarik gabe aldatuko litzatekeena baino gehiago aldatuko da errenta.
- Ekonomiaren eskari agregatua zergarik gabe egongo litzatekeena baino handiagoa izango da.
- Orekako ekoizpen-maila zergarik gabe baino txikiagoa da.
- Aurreko guztia zuzena da.

4. Baieztapen hauetatik zein da ZUZENA?

- a) Kontsumo pribatuak gora egiten du zerga bat ezartzen denean.
- b) Zerga-tasa zenbat eta handiagoa izan, handiagoa da gastatzeko joera marjinala errentekin alderatuta (z esan dioguna).
- c) Ekonomiako eskari agregatuan zergek ez daukate eraginik.
- d) Zergek familien errenta erabilgarria handitzen dute.
- e) Zergen hazkundeak murriztu egiten du errenta erabilgarria, eta, horren ondorioz, kontsumo pribatuak behera egingo du.

5. Aldagai hauetako zein da eskari agregatuaren osagaia eta ez determinatzailea?

- a) Zerga-tasa.
- b) Gastu publikoa.
- c) Kontsumitzeko joera marjinala.
- d) Igurikimenak.
- e) Atzeraldi ekonomikoaren testuingurua.

6. Zer eragile ekonomikok osatzen dute herrialde bateko planeatutako eskari agregatua, eta, beraz, eragina dute ekoizpen-mailaren hazkunderan?

- a) Etxeko ekonomiek edo herrialdean bertan bizi diren familiek.
- b) Herrialdean bertan ezarritako enpresek.
- c) Herrialdeko sektore publikoa osatzen duten erakundeek.
- d) Familiek eta herrialdearekin merkataritza-loturak dituzten mundu osoko enpresek.
- e) Erantzun guztiak zuzenak dira.

7. Jo dezagun lau sektoreko ekonomia daukagula, inportazioak positiboak direla ($N = n Y$) eta ez dagoela inolako esportaziorik ($X = 0$). Biderkatzaileari dagokionez, baieztapen hauetako zein da OKERRA?

- a) Esportazioen biderkatzailea zero da.
- b) Esportazioen biderkatzailea eta gastu publikoaren biderkatzailea berdinak dira.
- c) Ekonomia ireki honen biderkatzailea inportaziorik gabe egongo litzatekeena baino txikiagoa da.
- d) Esportazioen zenbatekoak ez du eraginik biderkatzailearen balioan.
- e) Biderkatzailea inportatzeko joera marjinalaren arabera da.

8. Jo dezagun kontsumo autonomoak 100 m.u. ($\Delta K_0 = 100$) egiten duela gora, eta ekoizpen-maila ez dela aldatzen ($\Delta Y = 0$). Zure ustez, aldaketa hauetako zeinek konpentsatu ahal izan du erabat kontsumo pribatuaren hazkunde hori?

- a) Esportazioak 100 m.u. haztea.
- b) Inportazioak 100 m.u. haztea.
- c) Inbertsio autonomoa 100 m.u. haztea.
- d) Gastu publikoa 100 m.u. haztea.
- e) Erantzun guztiak zuzenak dira.

9. Jo dezagun herrialde batean inportazioen pisua oso handia dela (n handia). Gertaera horrek badu eraginik gobernuaren politika fiskalaren eraginkortasunean?

- a) Ez, tresna fiskalek berdinak izaten jarraitzen dutelako.
- b) Bai, gastu publikoaren hazkundearen efektu biderkatzaileak handiagoak direlako ekonomia itxian ekonomia irekian baino.
- c) Bai, gastu publikoaren hazkundearen efektu biderkatzaileak txikiagoak direlako ekonomia itxian ekonomia irekian baino.
- d) Kontsumo autonomoaren balioaren arabera.
- e) Enplegu osoaren mailaren arabera.

10. Eredü keynestarraren ikuspuntutik, biderkatzailea zergatik da handiagoa hiru sektoreko ekonomia batean (kanpo-sektorerik gabe) lau sektoreko ekonomian (kanpo-sektorearekin) baino?

- a) Ekonomia ireki batean, bete egiten da errenta-mailen hazkundeen zati batek atzerrira ihes egiten duela inportazioak ordaintzeko.
- b) Ekonomia ireki batean, bete egiten da errenta-mailen hazkundeen zati batek atzerrira ihes egiten duela zergak ordaintzeko.
- c) Ekonomia ireki batean, bete egiten da errenta-mailen hazkundeen zati batek atzerrira ihes egiten duela inbertsioa ordaintzeko.
- d) Ekonomia ireki batean, bete egiten da errenta-mailen hazkundeen zati batek atzerrira ihes egiten duela ezkutuko ekonomiaren erruz.
- e) Erantzun guztiak okerrak dira.

EGIA ALA GEZURRA GALDERAK

1. Gobernuak gastu publikoa kantitate jakin bat handitzen badu, denboraldi bat igaro ondoren, *ceteris paribus*, ekoizpenaren arrail atzerakorra kantitate bera murriztuko da.
 EGIA GEZURRA
2. Esportazioak eta inportatzeko joera marjinala eskari agregatuaren osagaiak dira, eta kanpo-sektorearekin lotuta daude.
 EGIA GEZURRA
3. Gastu publikoaren eraginkortasunari begira, ekonomiaren tresna aktibatzailea den aldetik, komenigarria izango litzateke inportatzeko joera marjinal albait txikiena egotea.
 EGIA GEZURRA
4. Politika fiskal baten bidez, posible da aldi berean inflazioaren eta atzeraldiaren aurka borroka egitea.
 EGIA GEZURRA
5. Efektu biderkatzaileak alderantzizko lotura du ekonomiaren zerga-tasarekin. Beraz, zenbat eta handiagoa izan zerga-tasa, txikiagoa izango da biderkatzailea.
 EGIA GEZURRA
6. Egonkortzaile fiskal automatikoaren adibide bat izan daiteke enpresek teknologian egin-dako inbertsioa.
 EGIA GEZURRA
7. Politika fiskalak inflazio-ondorioak ditu beti.
 EGIA GEZURRA
8. Ekonomiaren jarduera-mailan duen inpaktuaren ikuspuntutik, berdin da gobernuak 10 milioi euro gastatzea edo zerga-bilketa 10 milioi euro murriztea.
 EGIA GEZURRA
9. Atzeraldian defizit publikoak gora egitea (edo superabita murriztea) itxaron behar dugu, sektore publikoak atzeraldiaren aurkako politika fiskalik hartu ez arren.
 EGIA GEZURRA
10. Ekonomian biderkatzaile bakarra dago. Hala ere, biderkatzaile horren azpiindizea zehaztuko du aldatzean orekako errenta-mailan aldaketak eragiten dituen aldagai induzituak.
 EGIA GEZURRA

PAREKATZEAK: DEFINIZIOAK ETA KONTZEPTUAK

(Taula bakoitzeko azken zutabearen lehen zutabeko zenbakiak jarri behar dira. Horrela, definizio bakoitza bat etorriko da kontzeptu bakoitzarekin)

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Mekanismo fiskal hauek modu automatikoan jartzen dira martxan, agintariek ekintza kontzienterik egin gabe.	GASTU PUBLIKOAREN BIDERKATZAILE KEYNESTARRA	
2	Zenbaki honen bidez adierazten da nazio-errentaren zein ehuneko gastatuko den barne-ondasun eta zerbitzuetan soilik.	SUPERABIT PUBLIKOA EDO AURREKONTU SUPERABITA	
3	Zenbaki honen bidez neurtzen da gastu publikoaren hasierako aldaketaren eta gastu publiko horrek eragindako ekoizpen-mailaren azken aldaketaren artean dagoen lotura.	DEFIZIT PUBLIKOA EDO AURREKONTU DEFIZITA	
4	Egoera honetan, estatuaren gastuak sarrerek baino handiagoak dira.	BARNE-ONDASUNETAN GASTATZEKO JOERA MARJINALA	
5	Egoera honetan, estatuaren sarrerek gastuak baino handiagoak dira.	EGONKORTZAILE AUTOMATIKOAK	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Estatuak eskainitako gizarte-zerbitzuen multzoa, herriarrei gizarte-babeseko oinarritzko gutxiengoak bermatzen dizkiena.	ONGIZATE-ESTATUA	
2	Estatuak ondasun eta zerbitzuen arloan egindako erosketak, kontsumo zein kapital motakoak.	GASTU PUBLIKOA	
3	Eskari agregatuaren murrizketa lortzera eta, horrekin, BPGd-ren hazkundea mugatzera bideratutako neurri fiskal guztiak dira.	ESPORTAZIOAK	
4	Egoera honetan, inportazioen balioa esportazioen balioa baino txikiagoa da.	KANPO-SUPERABITA	
5	Herrialde bateko ondasunak eta zerbitzuak atzerrira saltzea.	POLITIKA FISKAL MURRIZTAILEA	

4. KAPITULUA. EREDU KEYNESTAR SINPLEA: POLITIKA FISKALA ETA KANPO-SEKTOREA

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Estatuko sarreren eta gastuen arteko aldea da.	SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU-SALDOA	
2	Parlamentuan onartutako dokumentu honetan, estatuak urte natural baterako aurreikusita dituen gastuak eta sarrerak jasotzen dira.	ZEHARKAKO ZERGAK	
3	Zerga hauek errenta lortzea edo aberastasuna izate hutsa kargatzen dute.	ESTATUKO AURREKONTU-LEGEA	
4	Zerga hauek pertsonen gastua kargatzen dute, oro har, ondasunak eta zerbitzuak erostean.	ZERGA GEHIKORRAK	
5	Zerga hauen kasuan, gizabanakoaren errenta handitzean, zergak gizabanakoaren errentaren barruan duen ehunekoak ere handitu egiten da.	ZERGA ZUZENAK	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Herrialde batek atzerrian ekoiztutako ondasunak erostea.	ZERGAK	
2	Esportazioen balioaren eta inportazioen balioaren arteko aldea da.	ESPORTAZIO GARBIAK	
3	0 eta 1en arteko zenbaki honek adierazten digu nola aldatzen diren herrialde bateko inportazioak errenta handitzen denean.	KANPO-DEFIZITA	
4	Estatuak gastu publikoari aurre egiteko funtsak bilitzeko ezartzen dituen tributu guztiak.	INPORTAZIOAK	
5	Egoera honetan, inportazioen balioak esportazioen balioa gainditzen du.	INPORTATZEKO JOERA MARJINALA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Gastu publikoak eta zergak kontrolatu eta aldatzea da, helburu makroekonomiko nazional jakin batzuk lortzeko.	POLITIKA FISKAL HEDATZAILEA	
2	Eskari agregatuaren hazkundera lortzera eta, horrekin, BPGd-ren hazkundera sustatzera bideratutako neurri fiskal guztiak dira.	JOHN MAYNARD KEYNES	
3	Estatuak jaulki eta gizabanakoen esku dauden zor-tituluz guztien balioa.	AURREKONTU OREKATUA	
4	Egoera honetan, estatuaren sarrerak eta gastuak berdinak dira.	POLITIKA FISKALA	
5	Ekonomialari britainiar honek proposatu zuen lehen aldiz eskari agregatuaren teoria. Hain zuzen ere, teoria horrek justifikatzen du politika fiskal hedatzailea krisialdi ekonomiko sakonean.	ZOR PUBLIKOA	

4. kapituluaren. AUTOEBALUAZIO PRAKTIKOA

1. Jo dezagun herrialde baten gobernurako hauteskondeetan alderdi politiko batek hauteskunde-programan aurrekontu-orekari eusteko konpromisoa duela beti ($T = G$), BPGd-ren hazkunde-tasa edozein izanda ere. Aitzitik, oposizioko alderdiak defendatzen du koiuntura ekonomikoaren arabera aurrekontu-saldo publikoa aldatzea: gastu publikoa handitzea eta zergak txikitzea ekonomiak geldialdia badu, eta, bestela, gastu publikoa txikitzea eta zergak handitzea hedapen indartsua badago. Aurrekontu publikoari buruzko bi aukeretako zein iruditzen zaizu egokiena? Zergatik?

2. Nola eragingo dute neurri hauek herrialde bateko gaur egungo defizit publikoan? Azaldu zergatik.

- a) Botiken koordainketarako legea onetsi da. Erretirodunek, iraganean botikengatik ordaindu behar ez zuten arren, kopuru sinbolikoa ordaindu behar dute orain.
- b) Erretiroa hartzeko adina hiru urte atzeratu da, 65 urtetik 68 urtera, pentsioaren % 100 kobratzeko.
- c) Funtzionarioen soldata handitzeko legea onetsi da, azken urteetan galdutako erosteko ahalmena berreskuratu ahal izateko.
- d) Gizarte-bazterketaren arriskua saihesteko, gobernuak sarrerak bermatzeko errenta sortu du gutxieneko beharriaz erantzun ezin dieten familientzat.
- e) Kutsadura-arazoak gero eta handiagoak direnez, kutsatze-jarduera guztietarako zerga multzoa sortu da, ibilgailuen trafikoari zein enpresen isurketei eragiten diena.

3. Jo dezagun ekonomia batean orekako ekoizpen-maila $Y_0 = 7.000$ dela, enplegu osoko ekoizpen-maila $Y_{EO} = 9.000$, eta gastu publikoa $G = 2.240$. Kalkulatu:

- a) Aurrekontu publikoa orekatuta badago ($AS = 0$), zein izango da ekonomiaren t zergatasa? Zein izango dira aurrekontuaren osagai estrukturala eta ziklikoa, kasu honetan?
- b) Jo dezagun orain ekonomiak atzeraldia duela, eta orekako errenta $Y_0 = 5.000$ izatera jaisiten dela. Zer defizit egiten du gobernuak a) ataleko zerga-sistemari eusten badio? Nola aldatuko dira osagai estrukturala eta koiunturala?

4. Gobernuak PIVE edo Ibilgailu Eraginkorren Pizgarrien Programa jarri du abian. Hori dela bide, 2.000 euroko diru-laguntza emango da ibilgailu berria erosteko. Programa horren aurrean, aldeko eta kontrako argudioak sortu dira:

- *Aldeko argudioa.* Automobil-sektoreari emandako diru-laguntzak gobernuaren gastu zuzena dira, baina azken efektua, atzeraldi handiko egoera batean, optimoa izan daiteke baliabide geldiak lanean jartzeko.
- *Kontrako argudioa.* Ibilgailuen erosketa diruz laguntzearen eraginez, atzeretik datozen ibilgailuen inportazioa sustatuko da, eta merkataritza-defizitak txarrera egingo du. Diru-laguntzetan egindako gastu hori herrialderako askoz errentagarriagoak diren beste jarduerak batzuetan erabili beharko litzateke.

Erabili gastu keynestarraren biderkatzailearen kontzeptua bi argudioetako bakoitza azaltzeko. Hau da, adierazi zer efektu biderkatzaile dagoen argudio bakoitzaren atzean.

5. Asmatu prentsako titular bat kasu hauetako bakoitzerako:

a) Politika fiskal diskrezional hedatzailea, gastuari dagokionez.

TITULARRA:

b) Politika fiskal diskrezional murriztailea, zergei dagokienez.

TITULARRA:

c) Egonkortzaile automatikoa, sarrera publikoei dagokienez.

TITULARRA:

d) Egonkortzaile automatikoa, gobernuak transferentzietan egindako gastuei dagokienez.

TITULARRA:

e) Politika ekonomikoaren neurria, fiskala ez dena.

TITULARRA:

6. Jo dezagun aldagai makroekonomiko hauek eta ereduaren jokabide-ekuazio hauek ditugula:

$$K = 10 + 0,90Y^e \quad I = 290 \quad G = 100 \quad t = 0,3 \quad X = 100 \quad N = 0,13Y \quad Y_{EO} = 1.500$$

- Ekonomia honetan, gastatzeko zer joera marjinal erabili beharko zenuke biderkatzailea kalkulatzeko: c , $z = (1 - t)$ edo $z_i = [c(1 - t) - n]$? Zergatik? Kalkulatu hautatu duzun joera, eta interpretatu. Orain, erabili lortutako balioa gastuaren biderkatzailea ere kentzeko, eta interpretatu lortutako balioa.
- Behin biderkatzailea kalkulatuta, bilatu orekako errenta (Y_O), errenta erabilgarria (Y^e), kontsumoa (K), inportazioak (N) eta esportazio garbiak (XN). Egiaztatu datu horiek zuzenak direla, Y_O deskonposatu eta gastuaren osagaiak lortuta ($K + I + G + X - N$).
- Aurreko orekako errentarekin (Y_O), lortu zerga-bilketa (T) eta aurrekontu-saldoa (AS). Deskonposatu aurrekontu-saldo hori, eta lortu osagai estruktural eta ziklikoa. Interpretatu lortutako emaitzak. Adierazi hiru aurrekontu-saldo horiek orekako errentaren ehuneko moduan.
- Biderkatzailearen teoria aplikatuz, ekonomia honetan zein izango da ekoizpen-maila berria (Y_O), inbertsioa 75 unitate handitzen bada ($DI = 75$)? Zein izango da ateratzen den arrail atzerakorra? Eta aurrekontu-saldoaren aldaketa?
- Enuntziatuko hasierako datuen arabera, gobernuak zenbat handitu beharko luke gastu publikoa (DG) enplegu osoa lortzeko? Zein izango da aurrekontu-saldoaren aldaketa?
- Jo dezagun esportazioek 50 behera egiten dutela ($\Delta X = -50$) eta gobernuak gastu publikoa zenbateko berean handitzen duela ($\Delta G = 50$). Ekonomian ekoizpen-maila berriak gora edo behera egingo du bi hazkunderen efektu biderkatzaileak kontuan izan ondoren? Zergatik?

5. kapitulua

Dirua eta banku-sistema

ARIKETAK, ATALEN ARABERA

5.1. Zer da dirua?

1. Errentaren eta aberastasunaren arteko bereizketa erabiliz, iruzkindu esaldi ezagun honen esanahia: «Txiroa ez da gutxi irabazten duena, asko gastatzen duena baino».

2. Jo dezagun herrialde jakin batek porrot egiten duela, eta fakturak ordaindu ezin dituenek, zor-agiri (edo ordainketa-konpromiso) batzuk igortzen dituela bankuentzat eta enpresa handientzat. Erakunde horiek onartzen badute eta zor-agiri horiek zorrak ezeztatzeke erabiltzen badituzte, herrialde horri begira dirutzat har ditzakegu?

3. Jo dezagun tribu jakin bateko biztanleek obsidiana karratuak erabiltzen dituztela diru moduan. Bat-batean harri bolkaniko horren kopuru agorrezinak dituzten hobiak agertzen badira, zer eragin izango du aurkikuntza horrek obsidiana diru moduan erabiltzeko? Azaldu erantzuna.

4. Errenazimentuan (XV. eta XVI. mendeetan), urregileek, metal preziatuen kopuru handien zaindariak eta gordailuzainak zirenez, banku-sistema modernoaren oinarriak ezarri zituzten. Zein dira gaur egunera arte iritsi diren ezaugarri edo jokabide-arau horiek? Azaldu labur-labur.

5. Jo dezagun Carlosek Mariari 1.000 €-ko mailegua itzultzen diola txeke baten bidez. Ekonomiaren diru kantitatea gutxitu da eragiketa horrekin? Zergatik? Eta Carlosen eta Mariaren aberastasunak?

5.2. Diru-eskaria

6. Jo dezagun errenta finkoko bonua daukagula, arriskurik gabea, urtean 60 euro ordaintzen dituen beti. Kalkulatu atal hauetako bakoitzean eskatzen zaizuna:

- a) Bonuaren errentagarritasuna (ordainduko duen interes-tasa), prezioak hauek badira:
 - i. 1.200 euro
 - ii. 2.400 euro
 - iii. 750 euro

- b) Errenta finkoko bonu horren truke ordainduko lukeen gehiengoa, merkatuko interes-tasak hauek badira:
- i. % 4
 - ii. % 2
 - iii. % 6
 - iv. % 5

7. Margaritak malenkoniaz oroitzen du, ezkondu zenean, aurrezkien libretan batez beste 600 euroko saldoa izaten zuela hilero (antzinako 100.000 pezeta gutxi gorabehera). Gaur, 25 urte geroago, bi seme-alaba eta gehiegizko pisua duen senarra dituela, aurrezki-libretaren batez beste saldoa 2.100 eurokoa da. Hala ere, Margaritak uste du, bankuan diru gehiago duen arren, erosteko ahalmena ia-ia ez zaiola aldatu 25 urte hauetan.

Inflazio-tasen arabera prezioen maila 3,5ekin biderkatu bada 25 urte hauetan, nola aldatu da Margaritaren bankuko diruaren eskari erreala? Arrazoia du Margaritak erosteko ahalmenari buruz duen iritzian? Eta prezioak 4rekin biderkatu izan balira?

5.3. Banku-diruaren sorrera

8. Bi anaia dira, Juanito eta Jaimito. Juanito ez da bankuez asko fidatzen eta, beraz, eskudiruzko gordailuaren koefizientea $e = 1,5$ da. Jaimito, aldiz, banku-sistemaren defendatzaile sutsua da, eta, beraz, eskudiruzko gordailuaren koefizientea oso txikia da bere kasuan: $e = 0,01$. Juanitok eskudirutan 3.000 euro baditu, eta Jaimitok 20 euro bakarrik, bietako nor dauka diru gehien bankuan sartuta?

9. Herrialde batean dagoen diru legalaren kantitatea (txanponak eta billeteak) 10.000 m.u. da. Kalkulatu kasu hauetako bakoitzean zein den diru-oinarriaren kantitatea (MO), diru-eskaintzaren kantitatea (M), banku-kredituaren bolumena (BK), e koefizientea eta diru-biderkatzailea (m_M):

- a) Jendeak diru guztia eskuan du, eta ez du ezer bankuan sartzen.
- b) Jendeak diru legal guztia bankuetan sartuta du, ez du ezer eskudirutan, baina erreserba-koefizientea % 100 da.
- c) Jendeak diru legalaren kantitate bera du eskuan zein bankuetan sartuta, eta erreserba-koefizienteak % 100 izaten jarraitzen du.
- d) Jendeak txanpon eta billete guztiak bankuetan sartuta ditu; orain, erreserba-koefizientea % 10 da.
- e) Jendeak diru legalaren kantitate bera du eskuan zein bankuetan sartuta, eta erreserba-koefizientea % 10 da.

10. Azaldu zer koefizientek (eskudiruzko gordailuak, *kutxako koefizientea* edo *legezko erreserba-koefizientea*) izango duen eragina, eta zein modutan, egoera hauetako bakoitzean. Atariko azterketa horren ostean, adierazi kasu bakoitzean nola aldatuko den biderkatzailea (handitu edo txikitu egingo da?)

- a) Jendeak kreditu-txartelak gero eta gehiago erabiltzen ditu transakzio txikiak egiteko.

- b) Banku Zentralak bankuei nahitaezko erreserbak murriztu dizkie, sektore publikoari kredituak ematen badizkiote.
- c) Atzeraldi ekonomiko indartsua dago eta, horren eraginez, bankuek bezero berankor eta kaudimengabe asko dituzte.
- d) Finantza-krisi indartsuak banku batzuen porrota eragin du, eta, horren eraginez, jendeak pesimismoa eta konfiantzarik eza sentitzen du banku-sistemaren aurrean.

TEST ERAKO GALDERAK

(Galdera bakoitzean bost erantzun daude; bakarra da zuzena.)

1. Prezioen maila orokorra asko hazi den aldietan (inflazio-tasa handiak)...

- a) Dirua da balio-gordailurik onena.
- b) Dirua ez da aberastasunari eusteko modu ona.
- c) Diruaren erosteko ahalmenak gora egiten du.
- d) Dirua da aktiborik errentagarriena.
- e) Aurreko guztiak okerrak dira.

2. Diruari buruzko baieztapen hauetatik, zein da EGIAZKOA?

- a) Dirua egoteak eragotzi egiten du inflaziorik ez egotea.
- b) Diruaren garapenak eraginkortasun ekonomikoari mesede egiten dio, lanaren zatiketaren bidez.
- c) Diruak trukeak oztopatzen ditu salgai moduan baliorik ez badu.
- d) Dirua balio-gordailu ona da inflazio-aldietan.
- e) Diruaren garapenak zaildu egiten du ekonomien hazkundera.

3. Nereak kontu-korrontean 3.000 € ditu. Diru hori hurrengo hilabeteetan behar ez duenez, 3.000 € horiek urtebeteko epe finkoa duen gordailuan jartzea erabaki du. Dirua gordailu batetik bestera aldatzearen ondorioz:

- a) Diru-eskaintzak gora egingo du.
- b) Diru-eskaintzak behera egingo du.
- c) Ekonomiako gordailuen kantitatean ez du eraginik.
- d) Diru-eskaintza likidoena (M1) gutxitu eta diru-eskaintza ez hain likidoa (M3) handituko da.
- e) c) eta d) erantzunak zuzenak dira.

4. Jo dezagun 2000. urtetik 2009. urtera prezioek % 20 egin dutela gora. Aldi horretan pertsona baten diru-ondasunak (eskudirua gehi gordailuak) % 18 handitu baidira, zer esan dezakegu?

- a) Pertsona horren saldo errealeen eskaria % 2 handitu da.
- b) Pertsona horren erosteko ahalmenak konstante eutsi dio.
- c) Pertsona horren diru-eskari errealak behera egin du.
- d) 2009. urtean, pertsona horrek 2000. urtean baino gutxiago irabazi du.
- e) Aurreko guztiak okerrak dira.

5. Erreserba-koefizientea % 100 bada ($r = 1$), 1.000 euroko gordailutik sortuko den banku-diru berria izango da...

- a) Infinitua.
- b) euro.
- c) Zero, bankuek ezin dutelako mailegurik eman.
- d) euro baino gutxiago.
- e) Aurreko guztiak okerrak dira.

6. Pertsona baten hileko eskudiruzko gordailuen koefizientea 0,25 bada, hau esan nahi du:

- a) Hileko diru kantitatearen % 20 billete eta txanpon moduan gordetzen du.
- b) Hilero, pertsona horrek erabiltzen duen eskudiruaren kantitatea gordailuen % 25 da.
- c) Hilean 1.000 € jasotzen baditu, bankuan 800 € sartuko ditu, eta gainerakoa eskudirutan izango du.
- d) Hileko diru kantitatearen % 80 bankuan sartuta izango du.
- e) Aurreko guztiak.

7. Adierazi erantzun ZUZENA:

- a) Diru-biderkatzaileak gora egingo du kutxa-koefizienteak gora egiten badu.
- b) Kutxa-koefizientea diru-eskaintzaren gain ezartzen den ehunekoa da.
- c) Kutxa-koefizienteak behera egingo du bankuek, gordailuen kantitate bererako, erreserba gutxiago mantentzen badituzte.
- d) Diru-biderkatzaileak gora egingo du jendeak eskudiru gehiago eta gordailu gutxiago izan nahi baditu.
- e) Erantzun guztiak zuzenak dira.

8. Gordailuen kantitate bererako bankuek erreserbak handitzea erabakitzen badute...

- a) Erreserba-koefizienteak behera egingo du.
- b) Ekonomian banku-kredituak gora egingo du.
- c) Bankuen likideziak behera egingo du.
- d) Bankuen errentagarritasuna handituko da.
- e) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

9. X banku pribatuan aurrezki-libreta bat ireki dugu 100 €-ko sarrera eginda...

- a) X bankuaren banku-erreserbak eta gordailuak 100 € handituko dira.
- b) X bankuaren banku-erreserbak 100 € handituko dira, baina gordailuak ez.
- c) X bankuaren gordailuak 100 € handituko dira, baina banku-erreserbak ez.
- d) X bankuaren banku-erreserbak eta gordailuak handitu daitezke, baina ez nahitaez.
- e) Aurreko guztiak okerrak dira.

10. Banku-dirua sortzeko prozesua handiagoa izango da...

- a) Jendeak eskuan zenbat eta eskudiru gehiago izan.
- b) Bankuek zenbat eta erreserba legal gutxiago mantendu.
- c) Bankuek bezeroei zenbat eta kreditu gutxiago eman.
- d) Bankuek borondatez soberazko erreserba zenbat eta gehiago gorde.
- e) Jendeak nahi duen eskudiruzko gordailuen koefizientea zenbat eta handiagoa izan.

EGIA ALA GEZURRA GALDERAK

1. Jendeak duen eskudirua (EMP) da jendeak (familiek eta banku ez diren enpresek) bankuetan sartuta duen diru legala.

 EGIA

 GEZURRA

2. Gaur egun, *diru* kontzeptua herrialde batean ordainbide moduan dauden txanpon eta billete legalak direla esan dezakegu.

 EGIA

 GEZURRA

3. Diru-merkantzia da soilik merkantziak erosteko erabiltzen dena.

 EGIA

 GEZURRA

4. *Diru* kontzeptua ikastetxeetako patioan erabiltzen da, umeez, adibidez, puxtarriak erabiltzen dituztenean beste objektu batzuk lortzeko (kromoak, gozokiak, litxarriak, arkatzak...).

 EGIA

 GEZURRA

5. Espainiarrek dauzkaten dolarrak Espainiako Bankuak egiten duen diru-eskaintzaren definizioan zenbatzen dira; izan ere, dolarra, Espainiako ekonomian, balio-gordailua da.

 EGIA

 GEZURRA

6. Bankuek Banku Zentralean gordetzen dituzten gordailuen zati txiki bat bakarrik erabiltzen da bankuen arteko eragiketak likidatzeko.

 EGIA

 GEZURRA

7. Oro har, txiroek edo bitarteko oso gutxi dituztenek eskudiruzko gordailuen koefiziente oso altuak dituzte (unitatea baino askoz gehiago).

 EGIA

 GEZURRA

8. Diru-eskaria pertsonak maileguan hartu nahi duten diru kantitatea da.

 EGIA

 GEZURRA

9. Banku bateko bezero guztiek gordailuak aldi berean likidatu nahi izango balituzte, erakundeak ez luke txanpon eta billete nahikorik izango eskaera guztiei erantzuteko.

 EGIA

 GEZURRA

10. *Ceteris paribus* kutxa-koefizienteak gora egiten badu, diru-biderkatzailea murriztu egiten da, baina diru-oinarria ez da aldatzen.

 EGIA

 GEZURRA

PAREKATZEAK: DEFINIZIOAK ETA KONTZEPTUAK

(Taula bakoitzeko azken zutabearen lehen zutabeko zenbakiak jarri behar dira. Horrela, definizio bakoitza bat etorriko da kontzeptu bakoitzarekin)

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Oro har onartzen den aldatzeko modua da, eta, gainera, kontu-unitate eta balio-gordailu moduan balio du.	TRUKEA	
2	Merkantzia batzuk beste batzuekin zuzenean trukatzea da.	DIRU LEGALA	
3	Diru mota honetan, merkantzia gisa duen balio intrintsekoa bat dator balio adierazgarriarekin.	DIRU FIDUZIARIOA	
4	Diru mota honetan, merkantzia gisa duen balio intrintsekoa balio adierazgarria baino txikiagoa da, eta, beraz, hau onartzea konfiantzan oinarritzen da.	DIRUA	
5	Erabilera legaleko txanpon eta billeteek osatzen duten dirua da.	DIRU-MERKANTZIA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Sistemaren oinarri-likidezia da, eta kutzako aktiboen (edo erreserben) eta jendearen esku dagoen eskudiruaren arteko batura moduan kalkula daiteke.	DIRU-ESKAINITZA	
2	Partikularrek bankuetan dituzten gordailu edo kontuek osatzen dute, eta, horiei esker, txanponak eta billeteak trukatu gabe egin daitezke transakzioak.	BANKU-DIRUA	
3	Bankuek modu likidoan atxiki eta kontserbatzen duten gordailuen zatia da.	BANKU-ERRESERBAK EDO KUTXA-AKTIBOAK	
4	Zirkulazioan dagoen diru kantitate osoa da, eta partikularrek bankuetan egin duten gordailuen kantitatea eta jendearen esku dagoen diru legalaren zatia biltzen ditu.	DIRU-OINARRIA	
5	Eskudiruaren eta gordailuen arteko zatidura da.	ESKUDIRUZKO GORDAILUEN KOEFIZIENTEA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Bankuek hala eskatzen duten partikularrei emandako maileguak dira.	DIRU-BIDERTKATZAILEA	
2	Bankuek kutzako aktibo edo erreserba gisa legez gorde behar dituzten gordailuen ehunekoa da.	SOBERAZKO ERRESERBEN KOEFIZIENTEA	
3	Bankuek kutzako aktibo edo erreserba gisa borondatez gordetzen dituzten gordailuen ehunekoa da.	BANKU-KREDITUAK	
4	Bankuek kutzako aktibo edo erreserba gisa (nahitaez eta borondatez) gordetzen dituzten gordailuen ehunekoa da.	KUTXA-KOEFIZIENTEA EDO KUTXA-NEURRIA	
5	Zenbaki honen bidez adierazten da diru-oinarriaren unitate bakoitzeko sor daitekeen diru-eskaintzaren kantitatea.	KUTXA-KOEFIZIENTE LEGALA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Tarte jakin batez dirua maileguan hartzeagatik ordaintzen den prezioa da.	LIKIDEZIAREN TRANPA	
2	Egoera honetan, interes-tasa hain da baxua pertsonak edozein diru-kantitate mantentzeko prest baitaude.	DIRU-ESKARI ERREALA	
3	Pertsonak erosteko ahalmenaren eskaria aldatu nahi dute (edo diru-eskari erreala) prezioek gora egiten dutenean, gainerako aldagai errealak aldatu ez arren.	AKTIBOA	
4	Pertsonak aberastasunari eusteko duten edozein modu da.	INTERES-TASA	
5	Erosteko ahalmenaren eskaria da ekonomian, eta diruaren eskari nominalaren eta prezio-mailaren arteko zatiketa ginda kalkulatzeko da.	DIRU-ILUSIOA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Aktibo batek diru bihurtzeko duen erraztasuna neurtzen du, kosturik edo galerarik eragin gabe.	DIRU-ESKARIA	
2	Aktibo batek eskaintzen duen interesa da, hau da, aktibo horri esleitutako euro bakoitzarengatik irabaz daitekeena.	AKTIBO BATEN ERRENTAGARRITASUNA	
3	Aktibo batek berari eta bere errendimenduari esleitutakoa berreskuratzeko duen segurtasunik eza neurtzen du.	AKTIBO BATEN LIKIDEZIA	
4	Erabaki honen bidez, aberastasuna egon dauden aktibo guztien artean esleitzen da, arriskatuena eta ez-arriskatuena artean.	AKTIBO BATEN ARRISKUA	
5	Gizabanakoek diru itxuran izan nahi duten aberastasuren kantitatea.	ZORROAREN HAUTAKETA	

5. kapituluaren. AUTOEBALUAZIO PRAKTIKOA

1. Gai hauetako zein izango dira diru Espainiako ekonomian, eta zein ez? Arrazoitu zure erantzuna, diruaren hiru eginkizunetako bakoitza aztertuz.

- a) Euroaren zentimoa.
- b) Dolar amerikarra.
- c) Picassoren koadro bat.
- d) Servired zordunketa-txartela.
- e) Corte Ingléseko txartel bat.
- f) Aurrezki-libreta bateko saldoa.
- g) Postako zigiluen bilduma bat.
- h) Telefónicako akzioak.

2. Egunero, Interneteko helbide batzuetan, eskaintzak agertzen dira, ondasun batzuk beste batzuekin trukatzeko. Adibidez, «aldatzen da senarraren erlaxatzeko besaulkia erreminta-kutxa osoaren truke». Zergatik izango litzateke zaila ekonomia bat kudeatzea mota horretako trukeak erabiliz dirua erabili beharrean? Zure erantzunaren argitan, zergatik daude trukeen iragarki horiek Interneten?

3. Komunikabide batzuetan «diru elektronikoa» edo «plastikozko dirua» jendeak erabiltzen duen diru mota berria dela esaten da. Baina dirua da hitzaren esangura hertsian? Zergatik?

4. Eskudirua behar duen pertsona bati esango diote «interes-tasak dirua lortzearen prezioa» direla, eta eskudiru asko duen beste pertsona askori esango diote «interes-tasak dirua mantentzearen prezioa dira». Azaldu zer esan nahi duen kasu bakoitzean *diruaren prezio* esapideak.

5. Hilean 2.100 euro irabazten dituen pertsona baten eskudiruzko gordailuen koefizientea % 5 bada ($e = 0,05$), zenbat diru izango du eskudirutan eta zenbat gordailuetan hil osoan?

6. Jendeak duen eskudirua 60.000 m.u. da, eta erreserba osoak (legalak eta soberazkoak) 100.000 m.u. Kutxa-koefiziente legala % 8 bada eta soberazko erreserba-koefizientea % 2:

- a) Kalkulatu diru-oinarria (MO), diru-eskaintza (M), banku-kreditua (BK), bankuko gordailuak (D), e koefizientea (eta horren interpretazioa), diru-biderkatzailea (m_M) (eta horren interpretazioa), banku-kredituaren biderkatzailea (m_{BK}), eta erreserba legalak (RL) eta erreserba-soberakinak (RE).
- b) Kalkulatu nola aldatuko diren diru-eskaintza (ΔM), banku-kreditua (ΔBK), gordailu osoak (ΔD) eta erreserba osoak (ΔR), diru-oinarria 1.600 m.u. aldatzen bada (ΔMO).

6. kapitulua

Banku Zentrala eta diru-politika

ARIKETAK, ATALEN ARABERA

6.1. Banku Zentrala eta diru-oinarria

1. Zein da arrazoi nagusia gaur egun Banku Zentrala gobernuetatik eta agintari politikoengandik independentea izatea bermatzen ahalegintzeko? Iruzkindu.

2. Hona hemen Banku Zentralaren balantzeari buruzko datuak:

Mailegu garbia banku-sistemari: 2.000
Zor publikoaren tituluak: 8.500
Dibisen erreserbak: 1.000
Sektore publikoaren gordailuaren saldoa: 1.500

- a) Lortu diru-oinarriaren balioa (MO) datu horiek oinarri hartuta.
Eskudiruzko gordailuen koefizientea (e) 0,15 bada, eta kutxa-koefizientea (r), 0,05:
- b) Lortu diru-eskaintzaren (M) eta diru-biderkatzailearen (m_M) balioa.
- c) Enuntziatuko datuak erabiliz, kalkulatu M horretan gertatzen diren efektuak, kasu haue-tan:
 - c.1) Banku Zentralak banku-sistemari 1.000 balioko kredituak eman dizkio.
 - c.2) Banku Zentralak 500 balioko zor publikoaren tituluak saldu dizkio banku-sistemari.
 - c.3) Banku Zentralak kutxa-koefizientea 0,1era igo du.

3. Jo dezagun ekonomia bateko diru-kantitatea (M) 300.000 m.u. dela, eskudiruzko gordailuen koefizientearen (e) balioa 0,35 dela, eta banku-sistemaren kutxa-koefizientea (r) % 10 dela.

- a) Kalkulatu diru-oinarria (MO) eta diru-biderkatzailea (m_M).
- b) Diru-eskaintza 330.000 m.u. izatea lortu nahi bada, Banku Zentralak zer norabidetan eta zenbatekotan aldatu behar du diru-oinarria helburu horretara egokitzeko, arrazoi kanpoko edo autonomoengatik diru-oinarria 15.000 diru-unitate handitzea espero bada? Zer tresna erabil ditzake Banku Zentralak proposatutako helburua lortzeko? Zure ustez, zergatik esaten zaie mota horretako eragiketei «diru-oinarriaren esterilizazio»?

- c) Jo dezagun Banku Zentralak aurreko ataleko helburu bera lortu nahi duela diru-eskaintzarako ($M = 330.000$ m.u.) diru-oinarria aldatu gabe ($\Delta MO = 0$). Zer tresna erabili beharko du orain? Zergatik? Kalkulatu, kasu honetan, zein izan behar den tresna horren balioa.

6.2. Diru-merkatua

4. Jo dezagun, batetik, Banku Zentralak interes-tasa baxua nahi duela ekonomian inbertsioa sustatzeko, eta, bestetik, diru kantitate handirik ez egotea nahi duela tentsio inflazionistak saihesteko. Helburua aldi berean lor daiteke bi aldagaiekin? Zergatik?

5. Jo dezagun ekonomia batean lotura hauek daudela:

EMP: 1.000 m.u.

Kutxa-koefiziente legala: 0,15

Soberakin-erreserben koefizientea: 0,05

Eskudiruzko gordailuen koefizientea: 0,1

- a) Kalkulatu diru-oinarria eta diru-eskaintza (MO eta M).
- b) Jo dezagun Espainiako Bankuak 1.000 m.u. balioko zor publikoa erosten duela. Kalkulatu diru-eskaintza nominal eta erreal berriak, prezioen maila bada $P = 2$ (oinarri-urtea: $P = 1$).
- c) Diru-eskari errealak transakzioak egiteko, zuhurtasunagatik eta espekulatzeko badira, hurrenez hurren, $LT = 900 + 0,8Y - 10i$, $LP = 600 + 0,4Y - 8i$, $LE = 0,3Y - 15i$, kalkulatu ekonomia horretako diru-eskari erreala edo likideziagatik lehentasuna (Y errenta-ekoizpenaren maila da, eta i interes-tasa, azken hori bateko hainbestean adierazita).
- d) b) ataleko diru-eskaintza erreala eta c) ataleko likideziagatik lehentasuna kontuan hartuta, kalkulatu ekonomiaren orekako interes-tasa, errenta erreala $Y = 4.000$ bada. Irudikatu grafikoki diru-merkatuaren egoera hori, eta adierazi interes-tasa ehunekotan).

6.3. Diru-politikaren diseinua eta tresnak

6. Banku Zentralak kutxako koefiziente legala handitzen badu, zer gertatuko zaio diru-oinarriari, *ceteris paribus* (hau da, ekonomian beste aldaketa bat gertatzen ez bada)? Eta diru-biderkatzailerari? Zergatik?

7. Diru-politikak aldi berean aurre egin diezaieke inflazio-arazoei eta ekoizpenaren beherakadari epe laburrean? Zergatik?

8. Azaldu nola eta zergatik duten eragina Europako ekonomia baten diru-eskaintzan (M) eragiketa hauetako bakoitzak, *ceteris paribus*:

- a) Banku Zentralak zor publikoaren tituluak erostea.
- b) Familiek altxorreko letrak erostea.
- c) Banku-erreserben nahitaezko koefiziente berria sortzea, gordailuen % 1eko balioa duena, berankortasun-arriskuei aurre egiteko.
- d) Banku Zentralak birdeskontu-tasa murriztea.
- e) X herrialdearen kanpoko merkataritza-defizita murriztea.
- f) Superabit publikoa handitzea.

- g) X herrialdetik atzerriko inbertsioa ateratzea.
- h) Billeteak jaulkitzearen bidez finantzatutako aurrekontu-defizita (hemen Banku Zentralarekiko independentziarik ez dagoela joko dugu).

9. Gaur egun, kreditu-erraztasun iraunkorrak diru-politikaren tresnetako bat dira. Azaldu noiz joko duten bankuek erraztasun horietara, eta zer efektu izango duen Banku Zentralaren baliabide horrek interes-tasan eta diru-oinarrian.

10. Azaldu diru-politikak diseinatzean atzerapenak izateak zer oztopo jarri ahal dizkien arazo ekonomiko baten aurrean nazio-ekoizpenaren maila egonkortzeko Banku Zentralak egiten dituen ahaleginei. Posible da atzerapen horien eraginez diru-politikaren asmo oneko neurri batzuekin ekonomia are gehiago desegonkortzea?

TEST ERAKO GALDERAK

(Galdera bakoitzean bost erantzun daude; bakarra da zuzena.)

1. Jendearen portaera aldatzen bada eta diru kantitate handiagoa gordetzen badu jendeak eskudirutan (hau da, e koefizienteak gora egiten badu), horrek diru-merkatuan eragingo du, *ceteris paribus*:

- a) Interes-tasak gora egitea.
- b) Aldaketarik ez ekonomiaren kredituetan.
- c) Diruaren eskaintza errealak behera egitea.
- d) Diruaren prezioak behera egitea.
- e) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

2. Banku Zentralak ekonomiako diru kantitatea handitu dezake...

- a) Kutxa-koefiziente legala murriztuta.
- b) Banku-sistemari zor publikoaren zorrak erosita.
- c) Bankuei mailegu merkeagoetara sarbidea erraztuta.
- d) Diru legalaren jaulkipena eta zirkulazioa handituta.
- e) Erantzun guztiak zuzenak dira.

3. Jo dezagun partida autonomoek diru-oinarriaren hazkundera eragiten dutela. Banku Zentralak diru-oinarriaren hazkunde hori neutraliza edo esteriliza dezake?

- a) Ez, ezin du ezer egin partida autonomoen aldaketaren kontra.
- b) Bai, kutxa-koefiziente legala murriztu.
- c) Bai, merkatu irekian tituluak saldu.
- d) Bai, merkatu irekian tituluak erosi.
- e) Erantzun guztiak okerrak dira.

4. Gertaera hauetatik zeinek eragin dezake diru-oinarriaren murrizketa?

- a) Sektore publikoak Banku Zentralean duen gordailuaren saldoa handitzea.
- b) Esportazioek gora egitea.
- c) Banku Zentralak banku-sistemari ematen dizkion maileguek gora egitea.
- d) Banku Zentralak banku-sistemari titulu gehiago erostea.
- e) Herrialdean atzerriko inbertsioek gora egitea.

- 5. Jo dezagun ekonomiak, atzeraldi indartsu baten ostean, hazkunde txikia duela, baina, horren ondorioz, interes-tasek ere gora egiten dutela. Banku Zentralak interes-tasen igoera hori neutralizatu nahi badu enpresei eta kontsumitzaileei finantzaketa ematen jarraitzeko, hau egin beharko luke:**
- Banku-sistemari errenta finkoko tituluak saldu.
 - Banku-sistemari kredituak murriztu.
 - Bankuen erreserba legalak handitu.
 - Sektore pribatuari zergak murriztu.
 - Erantzun guztiak okerrak dira.
- 6. Oro har, gertaera hauetako zein ez dago lotuta diru-politika hedatzailearekin, *ceteris paribus*?**
- Defizit publikoak interes-tasa txikiagoetan finantzatzea.
 - Esportazio lehiakorrak, diru nazionalak balioa galdu duelako.
 - Hazkunde-tasak handitzea.
 - Prezioek behera egitea.
 - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 7. Europako Banku Zentralak diru-politika murriztailea egingo du, kasu hauetan:**
- Kutxa-koefiziente legala gutxitzen denean.
 - Banku-sistemari emandako maileguen interes-tasa handitzen denean.
 - Banku-sistemari zor publikoaren tituluak erosten dizkionean.
 - Soberakin-erreserben koefizientea murrizten denean.
 - Diru-eskari erreala handitzen denean.
- 8. Ez da diru-politikari dagokion neurria:**
- Zirkulazioan dagoen diru kantitatea arautzea.
 - Kutxa-koefiziente legala aldatzea.
 - Zerga-tasak aldatzea.
 - Interes-tasen gain jardutea.
 - Merkatu irekiko eragiketak.
- 9. Europako Diru Batasuneko herrialdeetako edozein parlamentuk ekonomia-jarduera susper dezake, eta, horrela, enplegu gehiago sortu...**
- Diru-politika hedatzailea aplikatuta.
 - Diru-politika murriztailea aplikatuta.
 - Politika fiskal hedatzailea aplikatuta.
 - Politika fiskal murriztailea aplikatuta.
 - a) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 10. Diru-politika hedatzailea aplikatzean...**
- Interes-tasa jaitsi egingo da, inbertsioa handitu eta orekako errenta-mailak behera egingo du.
 - Interes-tasa, kontsumoa eta orekako errenta-maila jaitsi egingo dira.
 - Interes-tasa jaitsi egingo da, eta inbertsioa, kontsumoa eta orekako errenta-maila handituko dira.
 - Interes-tasa, gastu publikoa eta orekako errenta-maila jaitsiko dira.
 - Erantzun guztiak okerrak dira.

EGIA ALA GEZURRA GALDERAK

1. Diru-eskaintza handitzea neurri ona da inflazioari eusteko.
 EGIA GEZURRA
2. Dirua, Banku Zentralaren esku-hartzea dela-eta, zirkulaziotik ken daiteke.
 EGIA GEZURRA
3. Nahitaezko erreserba-koefizientea murriztuta, eskari agregatuak gora egin dezake.
 EGIA GEZURRA
4. Banku Zentralak banku-erakundeei titulu publikoak saltzen badizkie, diru-eskaintza murriztu egingo da.
 EGIA GEZURRA
5. *Ceteris paribus*, kutxa-koefiziente legala handitzean diru-eskaintza gutxitzen da, baina diru-oinarria ez da aldatzen.
 EGIA GEZURRA
6. Banku Zentralak zor publikoaren tituluak erostea neurri ona da interes-tasa murrizteko.
 EGIA GEZURRA
7. Diru-politika hedatzailearen efektuak (ekoizpenaren, prezioen eta interes-tasen gain) eta politika fiskal hedatzailearenak berdinak dira.
 EGIA GEZURRA
8. Finantza-aktiboen gainbalioei aplikatutako zergak diru-politikaren tresna dira.
 EGIA GEZURRA
9. Diru-oinarriak gora egiten du Banku Zentralak dibisak saltzen baditu.
 EGIA GEZURRA
10. Diru-politikak bitarteko helburu moduan balio batzuk ezartzen ditu diru-eskaintzarako eta interes-tasarako. Modu horretan, politika ekonomikoaren azken helburuetan eragin nahi da.
 EGIA GEZURRA

PAREKATZEAK: DEFINIZIOAK ETA KONTZEPTUAK

(Taula bakoitzeko azken zutabearen lehen zutabeko zenbakiak jarri behar dira. Horrela, definizio bakoitza bat etorriko da kontzeptu bakoitzarekin)

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Merkatu honetan, funtsak epe laburrean mailegatzten dira, eta orekako interes-tasa zehazten da.	DIRU-TRANSMISIOAREN MEKANISMOA	
2	Diru-agintaritzaren erabakien multzo honek diru-eskaintza eta interes-tasa aldatzen ditu, eta, horren bidez, politika ekonomikoaren azken helburuetan eragin nahi da.	DIRU-POLITIKA	
3	Merkatu honetan, banku-entitateek haien artean mailegu- edo kreditu-eragiketak egiten dituzte, eta epe oso laburretan gordailuak edo aktiboen beste mota batzuk uzten dizkiote elkarri.	EURIBORRA	
4	Egunero argitaratzen den erreferentziako indizea, finantza-entitateek euroaren bankuen arteko merkatuan dirua mailegatzeko erabiltzen duten batez besteko interes-tasa adierazten duena. Indizea kalkulatzeko, Europako 50 banku nagusien datuak erabiltzen dira, eta balio hori asko erabiltzen da banku-maileguetarako erreferentzia moduan.	BANKUEN ARTEKO MERKATUA	
5	Prozesu honen bidez, diru-eskaintzaren aldaketak diru-merkatutik ondasun eta zerbitzuen merkatura proiektatzen dira.	DIRU-MERKATUA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Mekanismo honen bidez, Banku Zentralak diru-eskaintza kontrolatu dezake, edo zuzenago, merkatuko interes-tasan eragina izan.	BANKU ZENTRALA	
2	Diru-politikako tresna honen bidez, Banku Zentralak finantza-merkatuetan esku hartzen du, banku pribatuei tituluak erosiz edo salduz.	ERRAZTASUN IRAUNKORRAK	
3	Banku Zentralak aktiboekin egindako aldi baterako eragiketetan merkataritza-bankuei kobratzen dien interes-tasa da, eta ekonomian erreferentziako interes-tasa moduan balio du.	MERKATU IREKIKO ERAGIKETAK (OPEN MARKET)	
4	Entitate honek billete legalak jaulkitzeko eta diru-politika egiteko pribilegioa du.	INTERES-TASA OFIZIALA	
5	Diru-politikako tresna honen bidez, finantza-bankuei likidezia doitzen uzten zaie edozein unetan.	DIRU-POLITIKAREN TRESNA	

6. KAPITULUA. BANKU ZENTRALA ETA DIRU-POLITIKA

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Naziokoa edo etxekoa ez den txanpon batean adierazitako trukerako bitartekoa.	EUROTALDEA	
2	Euroa osatzen duten herrialdeetako ekonomia- eta finantza-ministroek egindako bilera informala; normalean, hilean behin biltzen dira.	DIBISA	
3	Arrazoi hau ez du Banku Zentralak kontrolatzen, eta ekonomiaren diru-oinarria edo likidezia aldatzea eragiten du. Adibidez, dibisen erreserbak.	EUROGUNEA	
4	Diru-politikaren helburua. Optimotzat jotzen den inflazio-tasa definitzen da, eta hori lortu nahi da. Eurogunean, inflazio-tasa hori % 2 da.	PREZIOEN EGONKORTASUNA	
5	Europar Batasunean (EB) euroa ezarri duten herrialdeek osatutako ingurua. 2015ean, 19 herrialde zeuden gune horretan.	DIRU-OINARRIAREN FAKTORE AUTONOMOA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Europako diru-entitatea da, eta EBZk eta EBko estatu kide guztietako banku zentral nazionales osatzen dute, estatu horiek euroa ezarrita izan zein ez. Gaur egun, 28 estatu kidek osatzen dute.	EUROPAKO BATZORDEA	
2	Europako entitate hau osatzen dute Europako Banku Zentralak eta euroa ezarri duten estatu kideetako banku zentral nazionales.	EUROSISTEMA	
3	EB osoko interesak defendatu, Europako legeria berriaren proposamenak egin, eta Europako politikak praktikan ipintzeko eta funtsak erabiltzeko eguneroko eginkizuna kudeatzen du.	ECOFIN	
4	EBko herrialde guztietako ekonomia- eta ogasun-ministroek osatutako Ekonomia eta Finantza Kontseilua, EBko aurrekontua urtero prestatzeaz eta onartzeaz arduratzen dena.	BANKU ZENTRALEN EUROPAKO SISTEMA	
5	Euroguneako diru-politika erabiltzeaz arduratzen den administrazioa.	EUROPAKO BANKU ZENTRALA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Eragiketa hauen bidez, Europako Banku Zentralak aukera ematen die bankuei kreditua egun baterako lortzeko, behar den besteko bermeak badituzte, eta ezarritako interes-tasarekin.	BIRDESKONTUA	
2	Banku Zentralak bankuei egiten dien maileguzko interes-tasa, bankuek dituzten letrak eta beste efektu batzuk oinarri hartuta.	GORDAILU-ERRAZTASUNA	
3	<i>Herrialde bateko banku zentralak egiten dituen merkatu irekiko eragiketak, dibisa-mugimenduek diru-eskaintza dituzten nahi gabeko inpaktuak neutralizatzen.</i>	KREDITURAKO ERRAZTASUN MARJINALA	
4	Eragiketa hauen bidez, Europako Banku Zentralak aukera ematen die bankuei egun baterako gordailuak egiteko banku zentral nazionaletan, aurretik zehaztutako interes-tasa batean.	ESTERILIZAZIO-ERAGIKETAK	
5	Banku Zentralak merkataritza-bankuei ematen dizkien maileguzko interes-tasa.	DESKONTU-TASA	

6. kapituluaren. AUTOEBALUAZIOA

1. Ekonomia suspertzen denean, zer aldaketa gertatzen da diru-merkatuaren orekako balioetan, *ceteris paribus*? Jo dezagun, krisi-egoera honetan, Banku Zentralak ekonomiaren interes-tasari konstante eutsi nahi diola kontsumoari eta inbertsioari mesede egiteko. Zer diru-politika ezarri beharko luke? Irudikatu emaitza grafikoki.

2. Diru-merkatuari buruzko informazio hau daukagu:

- $M^D / P = 180 - 200i$ (Diru-eskari erreala)
- $M = 200$ (Diru-eskaintza nominala)
- $P = 2$ (Prezioen maila orokorra)

- a) Kalkulatu diru-eskaintza erreala eta orekako interes-tasa. Irudikatu diru-merkatuaren egoera hori grafikoki.
- b) Kalkulatu interes-tasa berria $M = 140$ balioraino gutxitzen bada. Irudikatu grafikoki egoera hori.
- c) Kalkulatu interes-tasa berria, a) ataleko orekatik abiatuz, prezioen maila orokorra ($P = 1,25$) jaisten bada. Irudikatu kasu hau berriro.
- d) Kalkulatu interes-tasa berria, a) ataleko orekatik abiatuz, $M = 240$ balioraino handitzen bada, eta $P = 2,4$ balioraino (hau da, biak % 20 handitzen badira).

3. Herrialde batean, Banku Zentralak aktibo hauek ditu:

- Mailegu garbia banku-sistemari: 2.000
- Zor publikoaren tituluak: 7.000
- Dibisen erreserbak: 1.000

Eskudiruzko gordailuen koefizientea (e) 0,15 da, eta kutxa-koefizientea (r), 0,05.

- a) Lortu diru-oinarriaren balioa (MO).
- b) Lortu balio hauek: diru-eskaintza (M), diru-biderkatzailea (m_M) eta banku-kreditua (BK).
- c) Kalkulatu sortuko diren gordailuak (D) eta jendeak izango duen eskudirua ($/EMP$).
- d) Kutxa-koefizientea 0,10era handitzen bada, lortu M eta m_M balio berriak. Kalkulatu BK, D eta EMP balioen aldaketak.
- e) Enuntziatuko datuak oinarri hartuta, kalkulatu MO eta M balioetan gertatzen diren efektuak, kasu hauetan:
 - e.1) Banku Zentralak 1.000 m.u. balioko zor publikoaren tituluak erosi ditu.
 - e.2) Banku Zentralak 500 m.u. balioko zor publikoaren tituluak saldu ditu.
 - e.3) Banku Zentralak 200 m.u. balioko dibisak erosi ditu.
 - e.4) Banku Zentralean, altxorraren kontuko saldoa 400 m.u. handitu da.

4. Ekonomia bateko datu monetario hauek ditugu, data jakin bati dagozkionak:

$$M = 116.000 \quad R = 4.000 \quad e = 0,45 \quad r = 0,05 \text{ (kutxa-koefizientea)}$$

$$r_L = 0,02 \text{ (kutxa-koefiziente legala)}$$

- a) Kalkulatu diru-biderkatzailea eta interpretatu.
- b) Kalkulatu MO, BK, EMP, D , RL eta RE balioak urte hasieran. Biderkatzailea aldatzen ez bada, kalkulatu zenbat aldatu beharko litzatekeen diru-oinarria (ΔMO) urte amaierako diru-eskaintza 34.800 m.u. handitzeko ($\Delta M = 34.800$).
- c) Aurreko atala kontuan hartuta, jo dezagun, arrazoi autonomoengatik, diru-oinarria 10.000 m.u. handitzen dela. Zenbat aldatu beharko litzateke Banku Zentralak banku-sistemari emandako kreditua diru-eskaintzaren helburu bera lortzeko? Zer tresna ditu Banku Zentralak eta nola erabili beharko lituzke?
- d) Diru-eskaintzaren helburua lortu ondoren ($\Delta M = 34.800$), nola aldatuko dira banku-kreditua (ΔBK), jendearen esku dagoen eskudirua (ΔEMP) eta gordailuak (ΔD)? Zer aldaketa gertatu dira banku-erreserbetan (ΔR) kutxa-koefizientea eta eskudiruzko gordailuen koefizientea aldatu ez badira? Adierazi banku-sistemaren balantze laburtu batean.

7. kapitulua

Eskari eta eskaintza agregatuaren eredua

ARIKETAK, ATALEN ARABERA

7.1. Eskari agregatuaren kurba

1. Adierazi zer efektu duten gertaera hauek eskari agregatuan. Azaldu eskari agregatuaren kurbaren luzetarako mugimendua den (gorantz edo beherantz) edo kurbaren lekualdatzea (ezkererantz edo eskuinerantz).

- a) Diru-politikan izan den aldaketak eragindako interes-tasaren igoera.
- b) Aberastasunaren balio erreala gutxitzea, prezioen maila igotzearen eraginez.
- c) Lan-merkatu prekarioaren igurikimenak hurrengo hilabeteetarako.
- d) Familiei ezartzen zaizkien zuzeneko zergen beherakada (PFEZ, ondarearen gaineko zerga, eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga).
- e) Prezioen mailak behera egiten badu, nazioko produktuen lehiakortasuna suspertzen da munduko gainerako lekuetatik datozen produktuen aurrean.
- f) Akzioen balioen beherakada, burtsako kotizazioak modu bortitzean erori direlako.

2. Komunikabideetan jakinarazi dute euroak balio-galera handia abiatu duela nazioarteko beste txanpon batzuekin alderatuta, batez ere dolarrarekin alderatuta. Ekonomia ikasten ari zaretenez, gaiaren inguruko interesa duzue, eta planteatzen duzuen lehenengo gauza da ea nola aplikatu dezakezuen gertaera hori eskaintza eta eskari agregatuaren eremuan. Komunikabideek diotenez, euroaren balio-galerak Espainiako salmentak hobetuko ditu atzerrian, Espainian prezioen maila agregatua berbera izan arren. Horrek aztarna bat ematen dizue balio-galerak eskari agregatuaren kurbaren eragina izango duela jakiteko. Baina nola jasoko da gastuaren aldaketa hori: kurbaren lekualdatzea edo mugimendua egongo da?

7.2. Eskaintza agregatuaren kurbak

3. Adierazi epe laburrean zer efektu duen eskaintza agregatuan gertaera hauetako bakoitzak, *ceteris paribus*. Azaldu eskaintza agregatuaren kurbaren lekualdatzea gertatzen den epe laburrean edo mugimendua kurba osoan, *ceteris paribus*.

- a) Azken sei hilabeteetan, prezioen gorakada leun baina jarraituarekin batera, ekoizpen agregatuak gora egin du.
- b) Petrolioaren prezioak lurra jo duenez, nazio-industriaren ekoizpena handitu egin da.
- c) Langilea babesteko lege berriak direla eta, enpresek gizarte-kotizazioen ordainketak handitu behar izan dituzte erretiro-pentsioak bermatzeko; horren eraginez, ekoizpenak behera egin du.
- d) Geldialdi baten ostean ekoizpenak izan duen bultzadaren arrazoia izan da soldata nominalen igoera lan-produktibitatearen gorakada baino txikiagoa izatea.
- e) Enpresen jarduera gehiago informatizatzek ekoizpen agregatua handituko du.

4. Jo dezagun ekonomia ekoizpen-maila potentzialean dagoela. Denbora bat igaro ondoren esaten badizute ekoizpen agregatua eta prezioen maila handitu direla, zer informazio behar duzu jakiteko hazkunde hori gertatu den prezioen gorakadak eskaintza agregatuaren kurban epe laburrean eragindako mugimenduarengatik edo eskaintza agregatuaren kurbaren epe luzerako lekualdatzearengatik?

7.3. Oreka makroekonomikoak

5. Oreka makroekonomikoaren erreminta erabiliz, deskribatu eta irudikatu gertaera ekonomiko hauetako bakoitzak prezio- eta ekoizpen-mailetan epe laburrean dituen efektuak, *ceteris paribus*.

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, gobernuak behartu du lanaldia ordubete murriztera, soldatak aldatu gabe.
- b) Gizartean energia garbien aldeko sentikortasun gero eta handiagoa dagoenez, energia berri-zagarrien enpresak inbertsio handiak egiten hasi dira.
- c) Defizit publikoa murrizteko, Parlamentuak, ezohiko saioan, zergak handitzea eta gastu publikoa murriztea erabaki du.
- d) Klima-aldaketak eragindako hondamendien eraginez, azken bi urteetan natura-baliabideak gutxiago aprobetxatu dira, eta, horren eraginez, ekoizpenak behera egin du.
- e) Kontsumitzaileek eta enpresek ekonomiaren ibilbidean duten konfiantza-indizeak argitaratu dira, eta etorkizuneko ekonomia-jardueran optimismo handia jarrita dagoela ikusi da.
- f) Gurekin merkataritza-tratuak dituzten naziorik aberatsenen hazkundeak gutxitzen hasi da, eta, horrekin batera, baita atzerrian egiten duten gastua ere.
- g) Gobernuak lan-arloko erreforma onetsi du, eta, horren bidez, askoz gehiago malgutu dira kontratazioko kostuak zein kaleratzeen ondoriozko kalte-ordainak.

6. Jo dezagun ziklo ekonomikoak sortu eta horiei jarraipena ematen dieten perturbazio motak (eskaintza eta eskaria, positiboak eta negatiboak) antolatzea eskatu dizutela. Gehien nahi dutenetik gutxien nahi dutenera antolatuta, makroekonomian lortu nahi diren helburuetan eragiten dituzten

desorekak edo desbideratzeak oinarri hartuta (hau da, hazkunde ekonomikoa, enplegu handia eta inflazio txikia). Nolakoa izango litzateke zure sailkapena? Zergatik?

7. Denboran gehiegi urrundu gabe, duela 30 edo 40 urte, Espainiako edozein eskualdetako herritarren ongizate materiala, ondasunen era zerbitzuen kantitate erabilgarrian neurtuta, gaur egungoa baino askoz txikiagoa zen (ibilgailu, telebista, telefono... gutxiago). Hala ere, garai hartako prezioen mailak gaur egungoak baino askoz txikiagoak ziren (adibidez, liburuen, zigarroen, edarien... prezioak merkeagoak ziren). Deskribatu eta irudikatu belaunaldien arteko alde ekonomiko hori SA-EA ereduko hiru kurbak erabiliz.

8. Epe labur eta luzeko eskari eta eskaintza agregatuaren kurbak erabiliz, azaldu nola mugituko den oreka epe laburrean Espainian, 2008an hasitako atzeraldiaren eta gastu publikoaren murrizketen (hezkuntzan, osasunean, azpiegituretan...) politika indartsuaren eraginez. Azaldu, merkatuari askatasunez funtzionatzen uzten bazaio, ekonomia epe luzean (iraupen zehaztugabeko aldia) enplegu osoko ekoizpen-maila potentzial edo naturalera itzuliko dela. Adierazi zein diren epe labur eta luzeko efektuak prezioen mailan eta ekoizpen agregatuan.

7.4. Politika makroekonomikoak

9. Norbaitek hau esaten dizu: «*Diru-politika edo politika fiskal hedatzaileek egiten duten gauza bakarra da ekonomia aldi baterako gehiegi suspertu. Ongialdi laburra lortzen da, baina gero inflazioa agertzen da*».

- Azaldu zer esan nahi duen baieztapen horrek eskaintza eta eskari agregatuaren ereduaren bidez.
- Egonkortze-politiken aurkako argudio baliagarria da? Zergatik bai eta zergatik ez?

10. Grafiko honetan, ekonomia epe laburreko oreka makroekonomikoaren puntuan dago, E_1 .

- Ekonomia atzeraldian dago, edo arrail inflazionistaren aurrean?
- Zein eskari-politika jar daitezke praktikan epe luzeko oreka makroekonomikora itzultzeko? Zer arazo dituzte? Irudikatu problema horiek grafiko batekin.
- Estatuak eskurik hartuko ez balu, ekonomia bere kabuz itzuliko litzateke epe luzeko oreka makroekonomikora? Azaldu eta irudikatu grafiko baten bidez.

TEST ERAKO GALDERAK

(Galdera bakoitzean bost erantzun daude; bakarra da zuzena.)

1. Epe luzeko eskaintza agregatuaren kurbak hau du oinarri:

- Soldatak eta prezioak guztiz malguak dira.
- Enpresak prest daude indarreko prezioetan edozein kopuru eskaintzeko.
- Soldatak ez dira malguak beherantz.
- Prezioak eta soldatak berdinak dira.
- Soldata nominalak ez dira aldatzen ekoizpen- edo enplegu-maila aldatzen denean.

2. Eskaintza agregatuaren kurba epe laburrean:

- a) Soldata nominalak aldatzen ez diren denbora-tarte baterako zehazten da.
- b) Ekonomiako prezioen mailak gora egiten duenean ekoizpen agregatua nola handitzen den adierazten du.
- c) Ekoiztako unitatearen irabaziaren eta ekoiztako unitatearen prezioaren arteko lotura oinarri hartuta lortzen da.
- d) Enpresak prezioak aldatzean kostu guztiak aldatzeko gai ez direla joz lortzen da.
- e) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

3. Kasu hauetako zeinetan, *ceteris paribus*, mugituko da epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba ezkererantz edo gorantz?

- a) Produktibitate agregatuak eta soldata nominalak % 2 egiten dute gora.
- b) Produktibitate agregatuak % 1 egiten du gora, baina soldata nominalak % 2.
- c) Produktibitate agregatuak % 1,5 egiten du gora, eta soldata nominalak % 0,5 baino ez.
- d) Petrolioaren prezioak % 3 egiten du gora, eta soldata nominalak % 4 jaisten dira.
- e) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

4. Zure ustez, kostu hauetako zein ez dira epe laburreko kostu finkoak, hau da, ez dira aldatzen ekoizpen-mailarekin aldi jakin batean (urte bat edo hiruhileko bat, adibidez)?

- a) Soldata nominalak.
- b) Instalazioen errentamendu-ordainketak.
- c) Ekoizpen-unitate bakoitzeko kontsumitutako lehengaiaren prezioa.
- d) Eskatutako maileguengatik ordaindutako interesak.
- e) Aseguru eta zerga finkoak ordaintzea, hala nola hiri-kontribuzioa.

5. Oreka makroekonomikoari lotutako esaldi hauetako zein da GEZURREZKOA, *ceteris paribus*?

- a) Gehiegizko eskari agregatuek inflazio-tasa handitu ohi dute.
- b) Oreka makroekonomikoa eta enplegu osoa ez dira sinonimoak.
- c) Enplegu osoak esan nahi du helburu makroekonomiko guztiak lortu egin direla.
- d) Epe luzeko orekak epe laburreko oreka inplikatzeko du.
- e) Arrail inflazionistak enplegu osoaren gainetik ekoiztea inplikatzeko du.

6. Gertaera hauetako zeinek ez du eraginik izango prozesu estanflazionistan?

- a) Petrolioaren prezioak gora egitea.
- b) Kontsumoak behera egitea hazkunde-igurikimen pesimistak daudelako.
- c) Natura-hondamendia.
- d) Soldata-aldarrikapenak produktibitatearen hazkundearen gainetik egotea.
- e) Berrikuntzarik ez egoteagatik lehiakortasuna galtzea.

7. Jo dezagun ekonomia enplegu osoko egoeran dagoela. Egoera horretan, eta epe laburrean, zer eragin izango du politika murriztaileak (fiskala edo monetarioa)?

- a) Arrail inflazionista eta langabezia handitzea.
- b) Arrail atzerakorra eta langabezia gutxitzea.
- c) Arrail inflazionista eta langabezia gutxitzea.
- d) Arrail atzerakorra eta langabezia handitzea.
- e) Ezin da ziur jakin.

8. Epe laburrean, familien aberastasun nominalaren murrizketa txikiak (adibidez, balore-burtsaren kotizazioek behera egiten dutelako) eta petrolioaren prezioa asko handitzeak eragingo du:

- a) Ekoizpen agregatua gutxitzea, eskaintza eta eskari agregatua txikitu egiten baitira.
- b) Prezioen maila orokorra handitzea, eskaintza agregatua eskari agregatua baino gehiago gutxitzen delako.
- c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- d) Prezioen maila orokorra handitzea eta ekoizpen agregatua gutxitzea, bi egoeren eraginez eskaintza agregatua gutxitzen baita.
- e) Efektu zehaztugabea ekoizpen agregatuan eta prezioen maila orokorrean.

9. Ereduez klasikoaren ezaugarria da (adierazi baieztapen OKERRA):

- a) Eskaintza agregatua guztiz bertikala da.
- b) Orekako ekoizpen-maila bat dator enplegu osokoarekin.
- c) Soldadak eta prezioak malguak dira epe luzean.
- d) Epe luzeko eskari-politiken eraginez, prezioen maila orokorra soilik aldatzen da.
- e) Lan-merkatuak inoiz ezin du orekan egon, ezta epe luzean ere.

10. Diru-politika hedatzailearen eraginez prezioen mailak gora egiten badu eta ekoizpen-mailan efektu nulua badu, hau esaten dugu:

- a) Eskola keynestarreko ekonomialari batek defendatutako neurria da.
- b) Dirua neutrala da.
- c) Kanporatze-efektua gertatzen da.
- d) Prezioak oso zurrinak dira, eta, horregatik, ekoizpen-mailan efektu nulua gertatzen da.
- e) Aurreko guztia zuzena da.

EGIA ALA GEZURRA GALDERAK

1. Enpresaren eta langileen artean etengabeko soldata-berrikuspenak eragozten dituzten hitzarmen kolektiboak sinatzeari esker, epe laburrean ekoizpena handitu daiteke prezioen maila orokorrak gora egiten duenean.
 EGIA GEZURRA
2. Politika monetario eta fiskaletatik abiatuta soilik izan dezake lekualdatzea eskari agregatuaren kurbak.
 EGIA GEZURRA
3. Produktibitatea handitzearen eraginez, eskaintza agregatuaren kurba epe laburrean eskuintzerantz lerratzen da, eta energiaren prezioa handitzearen eraginez, ezkererantz lerratzen da.
 EGIA GEZURRA
4. Eskaintzaren ekonomialariek (klasikoak) defendatzen dute zergak indarrez jaisten badira (politika fiskal hedatzailea), epe luzean inbertsio pribatua handitu eta eskari agregatua bultzatuko dela beti.
 EGIA GEZURRA
5. Epe laburrean, zergak gutxitzean, ekoizpena eta prezioen maila orokorra handituko dira.
 EGIA GEZURRA
6. Inbertsio pribatuaren kanporatze- edo lekualdatze-efektua, politika fiskal hedatzailearen defizit publikoak eragindakoa, txikiagoa izango da Banku Zentralak diru-eskaintza handitzen badu.
 EGIA GEZURRA
7. Egonkortze-politiken bidez, ziklo ekonomikoaren oszilazio-efektuak konpentsatu nahi dira.
 EGIA GEZURRA
8. Epe luzera, diru-politika murriztaileak prezioen maila orokorra txikituko du, besterik ez.
 EGIA GEZURRA
9. Epe laburreko eskaintza agregatuaren kurban goranzko mugimendua egoteak esan nahi du, prezioen maila orokorrak gora egiten duenean, herrialdeko enpresa guztien ekoizpenak gora egiten duela.
 EGIA GEZURRA
10. Ekoizpena maila naturalean edo enplegu osoko mailan kokatzen denean, ez dago erabili gabeko baliabiderik.
 EGIA GEZURRA

PAREKATZEAK: DEFINIZIOAK ETA KONTZEPTUAK

(Taula bakoitzeko azken zutabearen lehen zutabeko zenbakiak jarri behar dira. Horrela, definizio bakoitza bat etorriko da kontzeptu bakoitzarekin)

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Inbertsio pribatuak behera egitea, politika fiskal hedatzaileetako neurrien eraginez interes-tasek gora egiten dutelako.	ALDAKETA TEKNOLOGIKOA	
2	Prezio nazionalen maila orokorrak atzerriko prezioekin alderatuta gora egiten duenez, esportazio garbiak murriztu egingo dira, eta, horren ondorioz, baita eskari agregatua ere.	EKOIZPEN POTENTZIALA EDO ENPLEGU OSOKOA	
3	Ekoizpena egiteko faktore edo metodo berriak asmatzea edo aurkitzea esan nahi du.	KEYNES EFEKTUA EDO INTERES-TASARENA	
4	Langabezia-tasa natural izenekoarekin bat datorren ekoizpen-maila da.	KANPORATZE-EFEKTUA EDO <i>CROWDING-OUT</i>	
5	Prozesu honen bidez, prezioen maila orokorra handitzean, diru-eskaintza erreala gutxitu, interes-tasa handitu, inbertsioa gutxitu eta, beraz, eskari agregatua murrizten da.	NAZIOARTEKO MERKATARITZAREN EFEKTUA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Eragile ekonomikoak erosteko prest dauden ekoizpen agregatuaren bolumena irudikatzen du.	ESKAINTZAREN PERTURBAZIOAK	
2	Eskaintza agregatuaren gain jokabide kontrolaezin eta sumatu ezina duten aldagai jakin batzuek izaten dituzten aldaketak dira.	ESKARIAREN PERTURBAZIOAK	
3	Enpresak merkatura ateratzeko prest dauden ekoizpen agregatuaren bolumen osoa irudikatzen du.	EGONKORTZE-POLITIKA EDO POLITIKA ANTIZIKLIKOAK	
4	Agintariak hartutako neurriak edo jardunak dira, zikloaren kontrako efektuak konpentsatzeko edo motelatzeko.	ESKARI AGREGATUA	
5	Ekoizpenaren oszilazioak dira, eskari agregatuaren bilakaera ezegonkorak sortutakoak.	ESKAINTZA AGREGATUA	

MAKROEKONOMIA LANDUZ

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Propietate honen arabera, diru kantitatearen aldaketek prezioetan soilik daukate eragina (aldagai errealetan ez dute inolako eraginik).	EPE LABURRA	
2	Helburu makroekonomikoetan eragina duten eta agintariek kontrolatu ditzaketen aldagaiak dira.	POLITIKA EKONOMIKOAREN TRESNAK	
3	Egoera honetan, prezioen maila orokorra handitzeak aberastasun erreala gutxitzen du eta, horrekin, baita kontsumoa eta eskari agregatua ere.	DIRUAREN NEUTRALITASUNA	
4	Denbora-tarte honetan, faktoreen prezioak produktuen prezioen aldaketetara egokitu daitezke.	EPE LUZEA	
5	Denbora-tarte honetan, faktoreen prezioak ezin dira egokitu produktuen prezioen aldaketetara.	ABERASTASUN-EFEKTUA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Egoera honetan, ekoizpen agregatuak gainditu egiten du enplegu osoko ekoizpen-maila.	ESTANFLAZIOA	
2	Egoera honetan, herrialde bateko ekoizpen agregatua enplegu osoko ekoizpen-mailaren azpitik kokatzen da.	ARRAIL ATZERAKORRA	
3	Egoera honetan, inflazio handia eta langabezia handia batera agertzen dira.	ARRAIL INFLAZIONISTA	
4	Teknikoki, egoera honetan, ekonomiak hazkunde-tasa negatiboak ditu gutxienez ondoz ondoko bi hiruhilekotan (aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta).	ATZERALDIA	
5	Egoera hau gertatzen da atzeraldia luzarokoa denean eta hazkunde-tasa negatiboak ere oso handiak direnean.	DEPRESIOA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Teoria honek ekonomiaren epe laburreko doikuntza aztertzen du, prezioek merkatuetan duten zurruntasunaren eraginez.	TEORIA KLASIKOA	
2	Teoria honek ekoizpen agregatuaren oszilazioak aztertzen ditu epe laburrean.	ZIKLO EKONOMIKOAREN TEORIA	
3	Teoria honek ekonomiaren epe luzeko doikuntza aztertzen du egoera naturala edo enplegu osokoa lortzeko bidean.	TEORIA KEYNESTARRA	
4	Prezio hauek astiro-astiro doitzen dira orekarantz, eskariaren aldaketan aurrean.	PREZIO MALGUAK EDO ELASTIKOAK	
5	Prezio hauek azkar doitzen dira orekarantz, eskaintzan eta eskarian dauden aldaketan aurrean.	PREZIO ZURRUNAK	

7. kapituluaren. AUTOEBALUAZIOA

1. Egonkortze-politiken bidez, ziklo ekonomikoaren oszilazio-efektuak konpentsatu nahi dira.

2. Jo dezagun herrialde batean enpresen eta langileen arteko soldata-hitzarmenak urte hasieran berrikusten direla beti, eta, beraz, urtean inflazio-tasarekin gertatzen dena gorabehera, soldatetarako adostutako balioak konstante eusten diola abenduaren 31ra arte. Hala ere, jo dezagun urteko hil guztietan prezioak etenik gabe igotzen direla. Erantzun galderei, *ceteris paribus*:

- a) Epe laburreko eskaintza agregatuaren ikuspuntutik, nola irudikatuko zenuke prezioen igoera orokor hau? Zergatik?
- b) Jo dezagun orain, gainera, urte hasieran enplegu osoko egoera dugula (ekoizpen potentzialaren maila). Zer gertatuko da enpresek eta langileek urte hasieran soldatak berriro ere negoziatzen dituztenean? Irudikatu grafikoki egoera hau.

3. Azaldu kasu bakoitzean zer kurba dagoen inplikaturatuta (EA, SA epe lab. edo SA epe luz.), lekualdatzearen norabidea, eta oreka makroekonomikoen mailen gain duen efektua. Adierazi nola-koak izango liratekeen irudikapen grafikoak.

- a) Euroaren balioa beste dibisa batzuenarekin alderatuta handitzen denez, Europako ekoizleek gutxiago ordaintzen dute ekoizpen-faktore garrantzitsua den altzairu inportatuaren truke.
- b) Europako Banku Zentralak bonuen erosketa masiboa egin du eta, horren eraginez, zirkulazioan dagoen diru kantitateak gora egin du. Horrela, sektore pribaturako erabilgarri dagoen likidezia kantitatea handitu da, eta horrek interes-tasen beherakada eragin du.
- c) Etengabeko hobekuntzaren eta enpresa-trebakuntza eta -gaikuntza orokortzearen eraginez, ekonomia gero eta lehiakorragoa da.
- d) Gobernuarekin dauden negoziazioetan sindikatuak aldarrikatze-jarduera handia egiten badute, gutxieneko soldatak handitu egiten dira.
- e) Enpresen lehiakortasun handiagoaren eraginez prezioen maila erortzeak etxebizitzetako erosteko ahalmena handitzen du, eta etxebizitza horiek gehiago gastatzea erabakitzen dute.
- f) Azpiegiturak hondatzeak eta ez mantentzeak ekonomiaren etorkizuneko hazkundera mugatzen dute.
- g) Kontratazioak erraztu eta enpresei kaleratzea merkatzen dien lan-erreforma.
- h) Gobernuak datorren urterako partikularren zerga-tasak igoko dituela iragarri du, aurrekontu-defizita murrizteko.
- i) Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzan (I + G + b) egindako inbertsioak mesede egiten dio aurrerapen teknologikoari, eta, horrela, herrialdeko enpresa giltzarrien produktibitatea handitu egiten da.

4. Jo dezagun Espainiako Gobernuak gastu publikoa murriztu behar duela nazioarteko finantza-merkatuekin zuen zorra gutxitzeko. Imajinatu orain murrizketen politika horrek arrakasta izan duenez, kreditua eskuratzea errazagoa eta merkeagoa dela Espainiako enpresentzat eta kontsumitzaileentzat. Zure ustez, inguruabar horietan zein izango da Gobernuaren politika fiskal murriztailearen azken efektua hazkunde-tasaren gain, hau da, maileguez sektore pribatuan duten efektu

positiboa kontuan hartuta? Kasu honetan, estanflazio-egoera bat gerta daiteke? Grafikoak erabil ditzakezu azalpenen lagungarri.

5. Jo dezagun ekonomia baten abiapuntuko egoera enplegu osokoa dela, eta gertaera hauek aldi berean gertatzen direla:

- Kontsumitzaileen eta enpresen konfiantza-mailak behera egitea indarrez.
- Ekonomia honetan giltzarri diren lehengaien prezioak indarrez handitzea.

- a) Grafiko baten laguntzaz, azaldu zer gertatuko den epe laburrean ekonomia honetako ekoizpen-mailarekin, enplegu-mailarekin eta prezioen mailarekin.
- b) Azaldu zer iritzi izango luketen ekonomialari (neo)liberalek egonkortze-neurri aktiboak erabiltzearen aurrean. Zer neurri mota proposatuko lituzkete? Batzuk aipa ditzakezu?

6. Eredu klasiko edo liberalaren arabera, helburua giro ekonomiko seguru eta egonkorra sortzea da, enpresa-ekimenari esker produktibitateak eta baliabideen erabileraren efizientziak modu iraunkorrean gora egin dezaten; hau da, xedea da ekoizpen potentzialari modu jarraituan hazten laguntzea. Hala ere, planteamendu honetan beldurra da berrikuntza teknologikoei esker gehiago ekoitz daitekeen arren, erdiko klaseen kontsumoa agian ez dela behar den bestekoa gehiago ekoizpen-mailei eusteko. Zure ustez, zer estrategia defendatuko du eredu honek eskaria suspertzeko, ekonomialariak politika fiskal diskrezionalen aurkakoak direla kontuan hartuta?

7. Adierazi eskola klasikoaren ideia nagusiak modu eskematikoan.

8. kapitulua

Inflazioa eta langabezia

ARIKETAK, ATALEN ARABERA

8.1. Inflazioaren kontzeptua eta neurketa

1. Zure ustez, zerk du efektu handiagoa kontsumoko prezioen indizean, hau da, zer da inflazionistagoa: oilaskoaren prezioa % 10 igotzea edo kabiarraren prezioa % 10 igotzea? Zergatik?

2. Herrialde jakin batean, kontsumoko prezioen indizeak % 800 egin zuen gora 1940. eta 2010. urteen artean. Erabili gertaera hori 1940. urteko prezioak doitzeko, inflazioaren efektuak kontuan izateko. Zein produktuk balio dute gutxiago 2010ean 1940an baino, inflazioa kontuan hartuta? Eta zeinek balio dute gehiago?

Produktua	1940ko prezioa (txanpon nazionalen)	2010eko prezioa
Unibertsitatean matrikula egitea	150	2.500
Gasolina litroa	0,25	1,20
Probintzien arteko telefono-deia (minutua)	2,00	2,00
Tabako gorriaren paketea	0,10	1,00
Hanburgesa	0,20	1,80

3. Pertsona baten errenta nominala 1.000 euro bada, eta % 10 gehitzen bada eta prezioak % 5, zein izango litzateke pertsona horren errenta, igoera horien ostean?

8.2. Inflazioaren kostuak

4. Zer zentzutan esaten da inflazioa gobernuaren aliaturik onena dela kontu publikoetan?

5. Jo dezagun zerga-tasa % 40 dela. Kalkulatu interes-tasa erreala zergak kendu gabe, eta zerga-tasa erreala zergak kenduta; kasu honetan: interes-tasa nominala % 10 da, eta inflazio-tasa % 6.

8.3. Langabeziaren kontzeptua eta neurketa

6. Adierazi zein den gizabanako hauetako bakoitzaren egoera, ekonomia-jarduera kontuan hartuta:

- a) Maitanek bere finantza-aholkularitzan lan egiten du.
- b) Paula buru-belarri ari da ikasten unibertsitateko lehen mailan.
- c) Alvarok 10 urte ditu.
- d) Marta banku-sukurtsal bateko zuzendaria da.
- e) Hectorrek curriculumak bidali eta elkarrizketak egiten ditu.
- f) Isabel, lehen umea izan zuenetik, etxeakoandrea da.
- g) Jorgek erretiroa hartu zuen duela bi hilabete.
- h) 16 urteko nerabeak boluntario moduan lan egin nahi du GKE batean udako hilabeteetan, horren truke dirurik jaso gabe.
- i) Automobilen arloko langile bat duela bi urte kaleratu zuten; ez dabil lan bila, lana aurkitzeko itzaropena galdu baitu, baina lan egitea gustatuko litzaioke.
- j) Errentei esker bizi den pertsona bat Benidormera joan da bizitzera, baina egunero-egunero lan-eskaintzak irakurtzen ditu, eta udalerrri horretako establezimenduekin harremanetan jartzen da, lanaldi partzialean lan egiteko prest baitago.
- k) Aita batek lanaldi partziala du; lanaldi osoa nahi du, baina ez du astirik lan hobea bilatzeko.
- l) Irakasle batek lana du, eta aldi baterako ezintasuna jaso du, lan egiteko oso gaixo baitago.

7. Nola azal daiteke une jakin batzuetan ekonomia bateko okupatuen kopuruak gora egitea eta, aldi berean, langabezia-tasa handitzea? Arrazoitu zure erantzuna, edo jarri zenbakizko adibide bat hori egiaztatzeko.

8.4. Langabezia motak

8. Jo dezagun hiri batean kalkulatzen dutela hilabete batean 1.000 lanpostu huts daudela bete gabe, eta hilabete horretan lan bila ari direnak 2.000 direla. Azal dezakezu zergatik gertatzen den hori?

9. Zure ustez nolako eragina izan dezake langabezia-tasan langabeziaren ondoriozko prestazioen zenbatekoa eta iraupena handitzeak?

10. Jo dezagun urte amaieran datu hauek kalkulatu zirela (milaka pertsona):

16 urte edo gehiagoko biztanleak: 33.689

Biztanleria aktiboa: 17.815

Biztanleria langabea: 1.869

- a) Kalkulatu okupatuen kopurua, lan egiteko adinean dauden biztanle ez-aktiboak, langabezia-tasa eta jarduera-tasa.

- b) Kalkulatu biztanleria aktiboaren balio berriak, lan egiteko adinean dagoen biztanleria ez-aktiboa, okupatuak eta langabeak, mugimendu hauek gertatzen badira lehen hiruhilekoan (gogoan izan alde batetik batzen duzuna beste alde batetik kendu behar duzula):

Erretirodunak: 300

Baja edo gaixotasuna dela-eta ezindutako okupatuak: 50

Nahi gabeko enplegu-galerak: 175

Lan-merkatuan sartzen diren pertsona ez-aktiboak: 75

Langabeen kontratazioak: 100

Desanimatuak: 75

Ez-aktibo berriak borondatezko bajengatik: 35

Langabe berriak borondatezko bajengatik: 30

- c) Kalkulatu langabezia-tasa berria eta jarduera-tasa berria b) ataleko emaitzekin.

TEST ERAKO GALDERAK

(Galdera bakoitzean bost erantzun daude; bakarra da zuzena.)

- 1. Zure ustez, zer igoera da «inflazionistagoa» herrialde osorako: haragiaren prezioak % 15 gora egitea urtebetean, edo bonboiek ehuneko bera gora egitea denbora-tarte berean? (OHARRA: inflazionista dela ulertu behar duzue gizabanakoen erosteko ahalmena gehien ukitzen duen prezioaren hazkundera).**

- a) Bi igoerak inflazionistak dira berdin-berdin.
- b) Bonboien prezioaren igoera; izan ere, oro har, gizabanakoek aurrekontuaren zati txikiagoa gastatzen dute bonboietan haragitan baino.
- c) Haragiaren prezioa igotzea; izan ere, oro har, gizabanakoek aurrekontuaren zati handiagoa gastatzen dute haragitan bonboietan baino.
- d) Herrialdeko biztanleek duten gosearen arabera.
- e) Haragia eta bonboiak inoiz ezin dira inflazionistak izan, ehuneko berean igotzen baitira.

- 2. BPGd-ren deflatorearen eta KPIren arteko alde garrantzitsua hau da:**

- a) KPIk prezioak neurtzen ditu, eta deflatoreak, prezioez gain, ekoizpena neurtzen du.
- b) KPIk inflazioa neurtzen du, eta deflatoreak deflazioa.
- c) KPIren barruan ez da biltzen kapital-ondasunen prezioa, eta deflatorearen barruan bai.
- d) Deflatorea nazioarteko konparazioetan erabiltzen da, baina KPI ez.
- e) Deflatorearen barruan inportatutako ondasunen prezioak biltzen dira, baina KPI ez.

- 3. Zure ustez, egoera hauetako zeinetan ari da herrialde bat desinflazioa jasaten?**

- a) Prezioak gero eta handiagoak dira, baina prezioen hazkundera gero eta txikiagoa da.
- b) Ekonomiako prezioen beherakada iraunkor baina ez orokorra.
- c) Metatutako inflazio-tasa negatiboen segida.
- d) Inflazio-tasa positiboak eta negatiboak txandakatzea.
- e) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

4. Ekonomian inflazio indartsu eta luzea badago, zein da lekurik interesgarriena aurrezkiak kokatzeko?

- a) Koltxoiaren azpia.
- b) Aurrezki-libretak.
- c) Enpresen akzioak.
- d) Zor publikoa.
- e) Ondasun higiezinak eta ondasun materialak erostea, esaterako artelanak eta bitxiak.

5. Herrialde bateko biztanleria aktiboa handitzen laguntzen duen faktore bat da:

- a) Lan egiteko gutxieneko adina handitzea.
- b) Langabezia-tasa oso handiak.
- c) Enplegua aurkitzeko aukera gehiago izatea.
- d) Gaixotasunaren ondoriozko bajen kopurua handitzea.
- e) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

6. Jo dezagun herritarrek espero dutela inflazioa % 3 izatea, baina egiatan prezioak % 5 igotzen direla. Inflazio altu horren aurrean, adierazi zer baieztapen den GEZURRA:

- a) Estatuari mesede egingo dio, aurrekontu-saldoa handitu ahal izango du eta.
- b) Interes finkoko kreditua daukan etxebizitzaren jabeari mesede egingo dio.
- c) Zuzkiduraren zati bat estatuko bonuetan inbertitu duen unibertsitate pribatuari mesede egingo dio.
- d) Langileei kalte egingo die hitzarmen kolektiboaren lehen urtean.
- e) Zorrak kobratzeko dituzten guztiei kalte egingo die.

7. Langabezia-tasa naturala honekin identifikatzen da:

- a) Langabezia frikzionala.
- b) Langabezia ziklikoa.
- c) Langabezia estrukturala.
- d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- e) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

8. Langabezia koiuntural edo ziklikoa honek sortutakoarekin identifikatzen da:

- a) Lanpostuen aldaketak edo lehen enplegua bilatzea.
- b) Okupazioen, sektoreen edo eskualdeen arteko desoreka.
- c) Behar den bestekoa ez den eskari agregatua.
- d) Behar den bestekoa ez den eskaintza agregatua.
- e) Gutxieneko soldatak ezartzea.

9. Hedatze ekonomikoaren aldian, inflazioa aldagai proziklikoa da, eta langabezia aldagai kontraziklikoa; izan ere...

- a) Langabezia eta inflazioa handitzen dira.
- b) Langabezia eta inflazioa txikitzen dira.
- c) Langabezia txikitu eta inflazioa handitzen da.
- d) Langabezia handitu eta inflazioa txikitzen da.
- e) Langabezia txikitu eta inflazioa ez da aldatzen.

10. Zure ustez, lan-merkatuan zer izaera dute pertsona hauek: kultura-elkarte batean lan egiten dute, egindako jarduerengatik soldata jasotzen dute, baina ez dute lan-egoera formalizatzeko legezko kontraturik, hau da, Gizarte Segurantzaren ez daude altan emanda.

- a) Ezkutuko ekonomiako langileak.
- b) Okupatuak.
- c) Langabeak.
- d) Soldatapekoak.
- e) Aldi baterako langileak.

EGIA ALA GEZURRA GALDERAK

1. Soldatapekoentzat nahitaezko erretiro-adina 65 urtetik 68 urtera igotzen bada, *ceteris paribus*, langabeen kopurua ez da aldatuko, baina langabezia-tasa bai.

EGIA

GEZURRA

2. BPGd-ren deflatoreak ekonomia bateko prezio guztien batez besteko portaeraren zenbatespena ematen digu.

EGIA

GEZURRA

3. Atzeraldietan, enplegu-galeren kopuruak gora egiten du, lan-eskaria gutxitu egiten delako.

EGIA

GEZURRA

4. Prentsako titular hauek bateraezinak dira:

— «*Ekonomia-ministroa pozik dago, inflazio-tasak behera egin baitu abenduan*».

— «*Sindikatuak Gobernuari ohartarazi diote abenduko prezioen igoerak kalte handia egin duela*».

EGIA

GEZURRA

5. Langabezia-tasa da biztanleria aktibo osoaren eta egon dagoen langabe kopuruaren arteko zatidura.

EGIA

GEZURRA

6. Inflazioa da ekonomia bateko ondasun eta zerbitzuen prezioak modu orokor eta jarraituan handitzea edo txikitzea.

EGIA

GEZURRA

7. KPI kontsumo-ondasun eta kontsumo-zerbitzu guztien prezio guztien laburpen-neurria da.

EGIA

GEZURRA

8. Inflazioa positiboa eta altua izan arren, posible da ondasun edo zerbitzuren baten prezioak behera egitea.

EGIA

GEZURRA

9. Iturri estatistikoek herrialde bateko langabezia osoaren zifra bakarra emango dute beti, langabe bat langabe bat delako, alde batetik zein bestetik neurtu.

EGIA

GEZURRA

10. Inflazioak pertsona bakoitzaren erosteko ahalmenari ez dio berdin eragiten, pertsona bakoitzaren gastu-egitura kontuan hartuta.

EGIA

GEZURRA

PAREKATZEAK: DEFINIZIOAK ETA KONTZEPTUAK

(Taula bakoitzeko azken zutabearen lehen zutabeko zenbakiak jarri behar dira. Horrela, definizio bakoitza bat etorriko da kontzeptu bakoitzarekin)

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Ekonomia bateko ondasunen eta zerbitzuen prezioen maila modu orokor eta jarraituan jaitea (gutxienez, bi seihileko, NDFren arabera).	INFLAZIOA	
2	Ekonomiako prezioen indize adierazgarriaren aldaketa portzentuala (KPI) aldi batean, aurre-aurreko aldiarekin alderatuta.	INFLAZIO-TASA	
3	Inflazio-tasak oso azkar eta kontrolik gabe haztea.	DEFLAZIOA	
4	Dezelerazioa edo inflazio-tasak denboran apurka-apurka murriztea.	DESINFLAZIOA	
5	Ekonomia bateko prezioak modu orokor eta iraunkorrean haztea.	HIPERINFLAZIOA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Adierazle honek bizitzaren kostua neurtzen du etxebizitza adierazgarri batek kontsumitutako ondasunen eta zerbitzuen prezioen bidez.	AZPIKO INFLAZIOA	
2	Prezioen indize honek ekonomia batean ekoiztutako eta eskatutako azken ondasun eta zerbitzu guztien prezioak biltzen ditu.	KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA	
3	Mekanismo honen bidez, kontratu batean finkatutako errenta nominalak KPIren egindako aldaketaren arabera doitu edo eguneratzen dira.	BPGd-REN DEFLATOREA	
4	Egoera honetan, prezioak astiro handitzen dira eta, horren ondorioz, nahiko egonkor mantentzen dira.	INDIZIAZIOA	
5	Prezioen bilakaera KPIren arabera, baina landu gabeko jakiak eta energia-produktuak alde batera utzita.	INFLAZIO MODERATUA	

8. KAPITULUA. INFLAZIOA ETA LANGABEZIA

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Lanik gabe dagoen, lan bila ari den eta lan egiteko prest dagoen pertsona multzoa.	LANGABEA	
2	Lan egiteko adinean egonda, lan egin ezin duen edo lan egin nahi ez duen pertsonen multzoa.	BIZTANLERIA AKTIBOA	
3	Lan egiteko adinean egonda, ordaindutako okupazioa duen edo horrelakorik izan ez arren okupazio bat bilatzeko egoeran dagoen pertsonen multzoa.	BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA	
4	Erregistro, kontrol eta estatistika ofizialetatik kanpo egiten den jarduera ekonomikoaren atala. Ez da BPGd-n jasotzen.	BIZTANLERIA AZPIENPLEGATUA	
5	Pertsona aktiboen multzo honek okupazio bat du, baina normalean baino denbora gutxiago lan egiten du, eta gehiago lan egin nahiko luke.	EZKUTUKO EDO LURRAZPIKO EKONOMIA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Aktiboen kopuru osoaren eta lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren arteko zatiketa, ehunekin biderkatuta.	LANGABEZIA-TASA	
2	Okupatuaren kopuru osoaren eta lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren arteko zatidura, ehunekin biderkatuta. EBn, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriarentzat kalkulatu da.	JARDUERA-TASA	
3	Soldatapekoen (inoren konturako langileak) eta okupatuaren kopuru osoaren arteko zatidura, ehunekin biderkatuta.	OKUPAZIO-TASA	
4	Langabeen kopuruaren eta aktiboen kopuru osoaren arteko zatidura, ehunekin biderkatuta.	SOLDATAPEKOEN TASA	
5	Aldi baterako kontratua duten soldatapekoen eta soldatapekoen kopuru osoaren arteko zatidura, ehunekin biderkatuta.	ALDIKOTASUN-TASA	

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Lan-eskaintzaren eta -eskariaren arteko desdoikuntzak direla-eta azaltzen den langabezia.	LANGABEZIA FRIKZIONALA	
2	Ekonomian eskaria ez egoteagatik sortzen den langabezia. Ekonomia-jardueraren epe laburreko fluktuazioei lotutakoa da (krisi ekonomikoak edo atzeraldiak).	LANGABEZIA ESTRUKTURALA	
3	Aldi baterako langabezia saihestezina, ekonomia baten funtzionamendu arruntean lana bilatzearen ondorioa dena.	LANGABEZIA ZIKLIKO EDO KOIUNTURALA	
4	Eskari agregatuaren hazkundera dela-eta murriztu ezin den langabezia da. Langabezia frikzionala eta langabezia estrukturala biltzen ditu.	LANGABEZIA-TASA NATURALA	
5	Industria motarengatik edo urte-sasoirengatik lanekuaren eskarian dauden aldi baterako inguruabarrek eragindako langabezia.	LANGABEZIA ESTAZIONALA	

8. kapituluaren. AUTOEBALUAZIO PRAKTIKOA

1. Zure ustez, zein izango da ibilgailu militarren prezioa txikitzeak inflazio-tasan izango duen efektua, KPIren bidez neurtuta? Zergatik?

2. Bizitzaren kostu handiagoa (hau da, KPI handiagoa) duten eskualdeek inflazio-tasa handiagoak dituzte nahitaez? Azaldu zure erantzuna.

3. Denbora-tarte luze batean, txupatxusaren prezioa 15 zentimotik 45 zentimora igo da. Aldi berean, kontsumoko prezioen indizea 150etik 300era igo da. Adierazi prezioen igoera biak ehunekotan. Ehuneko horiei erreparatuz, zenbat garestitu dira txupatxusak inflazio-tasarekin alderatuta?

4. Jo dezagun 2014. urtean zure urteko soldata 40.000 € izan zela. 2014ko urteko inflazio-tasa % 4 izan bada, kalkulatu zure urteko soldataren balio erreala 2013ko prezioak kontuan hartuta (prozesu horri deflatatzea esaten zaio).

Jo dezagun orain zure lehengusua 35.000 euro irabazi zituela 2013an. 2014an inflazio-tasaren arabera igo bazioten soldata, zenbat irabazi duzu zuk berak baino gehiago 2014an? Inflazioaren arabera errentak igotzeko prozesu horri nola esaten zaio?

5. Esaldi hau Alfonso Novalesek 1989an egin eta *Moneda y Crédito* aldizkariaren 188. zenbakian argitaratutako ikerketa batekoa da: «*Espanian emakume aktiboen kopuruan izandako hazkundera hain garrantzitsua izateak modu partzialean justifikatzen du langabezia-tasa murrizteko zailtasuna, azken bi urteetan egon den enplegu-sorkuntzako erritmo handia gorabehera*». Nola azal dezakezu enplegu gehiago eta langabezia-tasa handiagoa itxurazko kontraesana?

6. Komunikabide batean, hau esan dute: «Gaur egun, langabezia-tasa % 14 da. Horrek esan nahi du lan egiteko adinean dauden 100 pertsonatik 14 lan bila ari direla, baina ez dutela ezer aurkitzen». Azaldu esaldia egia ala gezurra den.

7. BAI batetik datu hauek lortu dira:

Lan egiteko adinean dauden biztanleak = 25.000.000

Okupatuak = 9.000.000

Langabeak = 2.500.000

a) Kalkulatu langabezia-tasa (U) eta jarduera-tasa (JA).

b) Nola eragiten du ekonomia honen langabezia-tasan eta jarduera-tasan kasu hauetako bakoitzean 500.000 lanpostu berri sortzeak, *ceteris paribus* (hau da, enuntziatuko datuak bakarrik hartuta):

b.1. Lanpostu berri guztiak lehen langabe moduan sailkatutako pertsonak betetzen badituzte.

b.1. Lanpostu berri guztiak pertsona desanimatuek okupatzen badituzte.

8. Ekonomia bati buruz informazio hau daukagu:

— Lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren gaineko langabezia-tasa % 50 da.

— Biztanleria aktiboaren gaineko langabezia-tasa % 25 da.

— Lan egiteko adinean dagoen biztanleria biztanleria osoaren % 80 da.

Ekonomia horretako biztanleria osoa 40 milioi pertsonakoa bada, zehaztu langabeen kopurua, okupatuen kopurua, biztanleria aktiboa eta lan egiteko adinean dagoen biztanleria.

Soluzioak

1. kapituluko soluzioak

1.1. Makroekonomia: kontzeptua eta sorrera

1. Makroekonomia maila indibidualean ikastea garrantzitsua da, besteak beste, norberaren ongizatean ondorioak dituelako («interes pertsonalarengatik» esan izan duguna). Garatu ideia hori labur-labur, eta, ahal baduzu, aplikatu zure bizi-esperientzian.

Interes pertsonala da makroekonomia ikasteko arrazoirik garrantzitsuena. Aldagai makroekonomikoekin gertatzen denak modu esanguratsuan eragiten du pertsonen bizitza pertsonalean, lan-eta gizarte-arloetan. Komunikabideak asko garatu direnez, makroekonomia ekonomiaren atalik mediatikoena bihurtu da. Makroekonomiaren eragina beti agerian egon da, baina zenbait fenomenoren eraginez, besteak beste teknologia berriak eta herrialdeen arteko harremanak direla-eta, arrerapen pertsonalerako baldintzatzaile edo aukera handi moduan ikusten dugu gero eta gehiago.

Adibidez, mailegu bat eskatzea erabakitzen dugunean, ordaindu beharko dugun interes-tasa inflazio-tasen aurreikuspenen menpe egongo da. Ikasketak bukatzean lanpostu bat aurkitzeko aukerak ere herrialdeko langabezia-tasa orokorraren, hazkunde-igurikimenean eta gure herrialdeak nazioartean duen aitopenearen arabekoak izango dira. Laburbilduz, makroekonomiak eragin handia du gizabanakoen orainaldiko eta etorkizuneko ongizatean; hain zuzen ere, gaur egun eta etorkizunean ditugun planak aldagai makroekonomikoen bilakaerari eskaintzen diogun arretak zehaztuko ditu.

2. Adierazi atal hauetako zeinek ez dituen edo dituzten modu erabakigarrian zehazten edo baldintzatzen emaitza makroekonomikoak, eta azaldu zergatik:

- a) Herrialde bateko biztanleriaren hazkundera.
- b) Hirigintza-arrazoiengatik zenbait udaletan egon den ustelkeria.
- c) Herrialde baten zatirik handiengan eragina duen urakan baten ondorio suntsitzaileak.
- d) Petrolioaren esportatzen duen herrialde batean gertatutako gatazka, energia-iturri horren gutxitze mende dagoen ekonomia bati begira.
- e) Aholkularitza ekonomikoaren zerbitzuetan gehiegizko eskaintza egotea.
- f) Lehorreko, aireko eta itsasoko azpiegituren sare zabala eraikitzea.
- g) Kostako inguru mugatu batean ostalaritza-establezimenduak ixtea, errentagarriak izateari utzi diotelako.
- h) Ikuskizunen eta beste aisia-jarduera batzuen prezioak gora egitea.

Gorritz azaldutako atalek zehaztuko dituzte herrialde bateko emaitza makroekonomikoak.

Justifikazioa makroekonomiaren definizioan bilatu behar da. Horren arabera, makroekonomiak ekonomiaren funtzionamendua aztertzen du oro har, baina ez die erreparatzen kontsumitzaileek ez enpresek prezioei eta merkatu indibidualen kantitateei dagokienez dituzten jarreraren ondorioei. Ildo horretatik, makroekonomiak aldagai ekonomiko agregatuen bilakaera aztertzen du, azken finean, horiek zehazten baitute herrialde bateko bizitza-maila eta garapen-ahalmena. Hauek dira ongizate kolektiboan giltzarriak edo erabakigarriak diren aldagaiak: aldaketak barne-produktu gordinean (hazkunde-tasa), aldaketak prezioen indizean (inflazio-tasa) eta aldaketak langabezia-tasan. Eta, neurri txikiagoan, hauek ere eragina dute: defizit publikoak, kanpo-defizitak eta kanbio-tasak.

3. Esan argudio honekin ados zauden ala bat ez zatozen:

Makroekonomiak herrialde bateko herritarren bizi-kalitatean eragina duten aldagai ekonomiko nagusiak aztertu eta gobernuari aldagai horietan nola eragin adierazten die. Besteak beste, Makroekonomiak etxebizitzaren prezioaren bilakaera, automobil-sektoreko langabezia, petrolioaren prezioa igotzea eragiten duten arrazoiak... aztertzen ditu.

Argudioa ez da zuzena, makroekonomiaren ikerketa-helburua eta mikroekonomiaren analisi esparrua nahasten baitira.

Makroekonomiak jokabideak, egitura eta eskualde edo herrialde batean aberastasuna sortzeko aukerak deskribatu, taxutu eta baldintzatu dituzten fenomeno ekonomiko orokorrak aztertzen ditu. Horretarako, agregatu ekonomikoen definizioa, neurketa, zehaztapena, lotura eta bilakaera erabiltzen ditu, horiek espazio geografiko horren jarduera ekonomikoa laburtzen baitute. Hauek dira aldagai makroekonomikoak: BPGd, inflazio-tasa, langabezia-tasa, kanbio-tasa, defizit publikoa...

Mikroekonomiak beste arlo bat aztertzen du, orokorra barik partikularra. Mikroekonomiak merkatu zehatz edo indibidualak aztertzen ditu, hau da, kontsumitzaile eta enpresa jakin batzuen portaerak elkarri nola eragiten dioten aztertzen du, hainbat ondasunen prezioak eta horiek trukatzeko baldintzak finkatzeko. Beraz, mikroekonomiari dagozkion gaiak dira, besteak beste, etxebizitzaren merkatuko prezioen arrazoiak, automobil-sektoreko langabezia, gasolina garestitzearen ondorioak eta teknologia berrien ondorioak elektronikan.

1.2. Makroekonomiaren helburuak

4. Makroekonomiaren helburuei erreparatuz, adierazi edo ondorioztatu zein diren arazo makroekonomiko nagusiak. Eman azalpen labur bat bakoitzaren inguruan.

Hauek dira aipa daitezkeen arazo batzuk:

- a) *Hazkunde ekonomikoa epe luzera*, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenaren hazkunde iraunkorra funtsezkoa baita herritarren gehiengoaren bizitza-maila hobetzeko.
- b) Aurrekoari lotuta, *produktibitatea* hobetzea dago; izan ere, ondasunen erabilgarritasunean hazkunde luzeak edo jarraituak lor daitezke, bakar-bakarrik laneskua gehiago ekoizteko

gai bada. Hori aurrerapen-erritmoarekin edo berrikuntza teknologikoak agertzearekin lotuta dago zuzenean.

- c) *Epe laburreko gorabehera ziklikoak*; izan ere, bizitza-maila handiagoetarako eta txikia-goetarako bidean gorabeherak daude epe luzeko hazkunde-joeraren inguruan. Ekonomia-ren gastu agregatua une bakoitzean egon daiteke atzerapenen eta aurrerapenen sorreran eta luzapenean.
- d) *Langabezia*, lanasko okupatu gabe izateak kostu ekonomikoak eragingo baititu estatutarako (defizit publiko gehiago), gizarte-kostuak (gizarte-ezegonkortasun eta -gatazka gehiago) eta kostu pertsonalak (fisikoak eta psikikoak).
- e) *Inflazioa*, prezioen aldatetek, are gehiago bortitzak eta ustekabekoak direnean, ongizate-galera garrantzitsua eragingo baitute gizarte-talde batzuetarako, eta orokortzen badira eta denboran irauten badute, eragina izan dezakete herrialde baten hazkundera eta garapenean.
- f) *Defizit publikoa eta zor publikoaren bilakaera*; izan ere, aldagai honek, azken finean, sektore publikoak ekonomian duen pisua eta hazkunde ekonomikoan duen eragina zehazten ditu (zergen zenbatekoa, gastu publikoen motak eta bolumena, laguntzen eta transferentzien ezaugarriak...).
- g) *Merkataritza- eta finantza-harremanak kanpokoekin*; izan ere, eragiketa horien saldoak herrialde baten nazioarteko sinesgarritasuna eta hazkunde-gaitasuna zehaztuko dute, aldatuta-tasaren eta/edo interes nazionalaren tasaren gaineko presioak kontuan hartzen baititu.
- h) *Amaitzeko, finantza-merkatuen funtzionamendua aipatu behar da*. Izan ere, herrialde bat modu orekatuan hazteko eta garatzeko, ezinbestekoa da finantza-sistemak behar den moduan funtzionatzea. Banku Zentralak beharrezko likidezia emango du, ezarritako interes-tasa batzuen arabera.

5. Adierazi zer baldintza bete behar diren pertsona bat langabe moduan hartzeko, ikuspegi makroekonomikotik. Definizio horren arabera, adierazi kasu hauetako zeinetan izango duen pertsona batek langabe kategoria (*idatzi LANGABE hitza amaieran agertzen den parentesiaren barruan*):

- a) Leire unibertsitatean ikasten ari da, eta gradua amaitzen duenean lana bilatu nahi du, baina ez lehenago. (Ez da langabea.)
- b) Rosak 55 urte ditu, iaz kaleratu zuten, eta ordutik elkarrizketak egiten ari da beste lan bat aurkitzeko. (Langabea da.)
- c) Lukas maisua da, baina ez da lanean ari gaixotasunaren ondoriozko baja-egoeran dagoelako. (Ez da langabea.)
- d) Pedrok ez du lanik egiten, eta ez da lan bila ari, boluntariorz aritzen baita. (Ez da langabea.)
- e) Isabelek ez du lanik egiten, dibidenduetatik diru asko lortzen baitu. (Ez da langabea.)
- f) Jonek curriculum Internetetik bidaltzen die elektronika-enpresei, baina bitartean informatika-ikastaroak egiten ditu. (Ez da langabea.)
- g) Peru kartzelan dago, eta ateratzean lana bilatuko duela pentsatzen du (Ez da langabea.)
- h) Martak lan bat behar du gurasoen etxetik irteteko, baina, mementoz, aitari laguntzen dio soroko lanetan. (Ez da langabea.)

6. Lan-merkatuan helburuei buruz hitz egiten denean, gauza bera esan nahi du enplegu-tasa handia lortzeak eta langabezia-tasa txikia lortzeak? Zergatik?

Ez da gauza bera enplegu-tasa handia lortzea eta langabezia-tasa txikia lortzea.

Adibidez, lan-merkatuan laneskua handitzen bada, enpresek kontratazio gehiago egin dezakete (enplegua handitzen da), baina era berean gerta daiteke lan-merkatuan sartzen diren pertsona berri askok enplegurik ez lortzea (langabeziak gora egingo du). Egoera horretan, biztanleria aktiboa enplegua baino askoz gehiago handitzen bada, horren eragina izango litzateke langabezia-tasa modu paraleloan handitzea.

Ekonomiaren goraldietan gerta daitekeen kasua da hori, lan-igurikimen onek dei-efektua izan dezakete-eta hainbat kolektibotan, hala nola etorkinengan, etxeko andreengan, ikasleengan, etab. Askok eta askok lana bilatzea erabakitzen dute kontratazioen optimismoak bultzatuta, baina azkenean askok ez dute enplegurik lortzen.

1.3. Politika makroekonomikoak

7. Zer politika makroekonomiko (diru-arlokoa, fiskala edo estrukturala) gehi ditzake neurri hauetako bakoitzak? (*Idatzi zure erantzuna horretarako jarritako parentesiaren barruan*):

- a) Gobernuak enpresa baten eraketa formalizatzeko beharrezkoak diren izapide burokratikoak gutxitzeko hartu duen erabakia.

(Politika estrukturala)

- b) Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) igotzea kontsumitzaileen gastua murrizteko, prezioen gorakada murrizteko, prezioen hazkundea murrizteko.

(Politika fiskala)

- c) Banku Zentralak interes-tasa gutxitzea, sektore pribatuari mesede egiteko banku-kreditua lortu ahal izateko.

(Diru Politika)

- d) Turismo-sektorean gastu publikoa handitzea, BPGd-ren hazkundeari mesede egiteko.

(Politika fiskala)

- e) Gobernuak merkataritza-akordioei mesede egiteko duen ekimena, enpresa-sektore giltzarrietan lehiakortasuna handitzeko.

(Politika estrukturala)

- f) Gobernuak zerbitzu publikoen prestazioak murrizteko hartu duen erabakia, defizit publikoa gutxitzea helburu izanda.

(Politika fiskala)

8. Azaldu zein den hazkunde-politiken edo egiturazko politiken eta egonkortze-politiken edo politika antiziklikoen arteko aldea. Alde hori oinarri hartuta, sailkatu taula honetako neurriak, estukturalak edo antiziklikoak diren kontuan hartuta.

Hazkunde-politikak edo politika estukturalak epe luzean efektua izatera bideratutako neurri ekonomikoak dira. Ekonomiaren oinarriko egituraren errota dauden oztopo zehatzei aurre egin nahi diete; hain zuzen ere, oztopo horiek arazo sakon eta epe luzekoak eragiten dituzte harreman ekonomikoetan. Agintariak abian jarritako ekintza estukturalen bidez, merkatuen funtzionamenduak oinarri dituen zimenduak aldatu nahi dira, hala nola prezioak finkatzea, finantza publikoak antolatzea, lan-araudia, gizarte-babesa, finantza-arauketa, azpiegiturak eskura izatea, energia-eskaintza, etab. Modu horretan, epe luzera garapen ekonomikoari mesede egiteko baldintzak sortu nahi dira. Ez diote hazkunde ekonomikoari bakarrik mesede egiten; ekonomia sendoagoak egiten dituzte.

Egonkortze-politikak edo antiziklikoak, ordea, epe laburreko politikak dira, eta horietan eskari agregatuan eragin nahi da, ziklo ekonomikoaren oszilazio-mugimenduei aurre egiteko. Adibidez, desazelerazio baten aurrean, gobernuak gastua suspertu dezakete, bai kontsumoa pizteko zergak jaitsiz, bai sektore pribatuak gastatu ez duena gastatuz. Baina Banku Zentralak gastua susta dezake interes-tasak jaitsiz eta diru kantitatea handituz. Lehenengo kasuan, politika fiskalaren barruan sartzen da zergen eta gastu publikoaren erabilera. Bigarren kasuan, interes-tasen eta diru-eskaintzaren erabilerak diru-politikaren esparrua hartzen du barruan.

		Politika mota: estukturala edo antiziklikoa
1	Enpresa-ikerketak diruz laguntzea, herrialdeak petrolioaren mendekotasun gero eta gutxiago izan dezan.	POLITIKA ESTRUKTURALA
2	Funtzionarioen soldaten gastua aldi baterako jaitea, defizit publikoa murrizteko.	POLITIKA ANTIZIKLIKOAK
3	Banku-sistemari dirua ematea, kontsumorako kreditu gehiago egon dadin eta jendeak gehiago eros dezan.	POLITIKA ANTIZIKLIKOAK
4	Ikerketak zientifikoa erakargarriago egitea, ikerlariak ihes egitea saihesteko.	POLITIKA ESTRUKTURALA
5	Ospitaleen eta ikastetxeen sare indartsua sortzea, desberdintasuna eta txirotasuna saihesteko.	POLITIKA ESTRUKTURALA
6	Udaletan aldi baterako kontratuak sustatzea langabezia murrizteko.	POLITIKA ANTIZIKLIKOAK
7	Krisi ekonomikoak gogor astindutakoei emandako laguntzen zenbatekoa handitzea.	POLITIKA ANTIZIKLIKOAK
8	Azpiegituren multzoa eraikitzea, probintzia guztien arteko komunikazioari mesede egiteko.	POLITIKA ESTRUKTURALA

1.4. Eskaintza eta eskari agregatuak

9. Arrazoitu esaldi hauetako bakoitza modu independentean, eskaintza eta eskari agregatuaren kurben bidez (PISTA: *kasu bakoitzean, eskaintza agregatuaren edo eskari agregatuaren kurben lekualdatzea edo lekualdatzeak azaldu behar dituzu, emandako informazioa kontuan hartuta*).

- a) Barne-kontsumoak gora egin duenez eta esportazioak lehiakorrakoak direnez, hazkunde-tasak gora egin du, langabeziak behera, eta inflazio-tasek gorakada izan dute.

Ekonomiaren gastu agregatua handitzea. \Rightarrow Eskari agregatuaren kurba eskuinerantz lerratzea.

- b) Azpiegituretan eta funtzionarioei emandako prestazioetan egindako gastu publikoak behera egin duenez, langabezia-tasak gora egin du, eta ekonomiaren prezioek behera egin dute nabarmen.

Ekonomiaren gastu agregatua gutxitzea. \Rightarrow Eskari agregatuaren kurba ezkererantz lerratzea.

- c) Lan-erreformen eraginez, enpresen kostuak murriztu egin dira eta, horren eraginez, lehiakortasunak eta horrekin batera hazkunde ekonomikoak gora egin dute, prezio baxuagotan.

Ondasunen eta zerbitzuen eskaintza handitzea. \Rightarrow Eskaintza agregatuaren kurba eskuinerantz lerratzea.

- d) Lehengai energetikoen prezioaren gorakada handiak, batez ere petrolioaren kasuan, ekoizpen-kostuek nabarmen gora egitea eragin du herrialdeko enpresa guztietan, eta, horren eraginez, langabezia-tasak eta inflazio-tasak gora egin dute.

Ondasunen eta zerbitzuen eskaintza gutxitzea. \Rightarrow Eskaintza agregatuaren kurba ezkererantz lerratzea.

- e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia (IKT) berriak ekoizpen-sistemetan sartzeari esker, masako produkzioari mesede egin zaio eta errentagarritasun handiagoa lortu da. Hala ere, ondasun askoren prezioek behera egin dute.

Ondasunen eta zerbitzuen eskaintza handitzea. \Rightarrow Eskaintza agregatuaren kurba eskuinerantz lerratzea.

1. KAPITULUKO *TEST* ERAKO GALDEREN SOLUZIOAK

- | | | | | |
|------|------|------|------|-------|
| 1) b | 3) a | 5) b | 7) b | 9) c |
| 2) a | 4) c | 6) d | 8) d | 10) c |

1. KAPITULUKO **EGIA** ALA **GEZURRA** GALDEREN SOLUZIOAK

1. **Ziklo ekonomikoen ezaugarria da modu irregularrean edo ustekabean gertatzen direla.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Ziklo ekonomikoak aztertu eta aurreikusteko zailtasuna dago irregularrak direlako, bai arrazoiei edo iturriei erreparatuz, bai iraupenari eta intentsitateari erreparatuz ere.

2. **Ekoizpen-faktoreen zuzkidura bera duten bi ekonomia epe luzera antzera haziko dira, hartzen diren erabakiak gorabehera.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Herrialde baten epe luzerako hazkunde-bidea hauen arabera da: baliabide erabilgarriak, ezagutza teknologikoak, eta agintariak baliabide eta teknologia horiek erabili eta sustatzaren inguruan hartzen dituzten erabakiak. Hori bere garaian ikusi genuen Ekoizpen Aukeren Muga aztertzean. Horren ondorioz, bi herrialdek abiapuntu moduan baliabide berberak izan arren, bilakaera oso desberdina izan dezakete. Horren adibidea da Suediaren eta Argentinaren epe luzeko hazkundearen arteko konparazioa.

3. **BPGd potentziala da herrialde batean inflazioa bizkortu gabe eta langabezia-tasa iraunkor alaitzekin mantentzeko BPGd-ren gehieneko maila, industria- eta antolaketa-gaitasuna kontuan hartuta.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Enuntziatua egiazkoa da. BPGd potentziala ekonomia batek denboran zehar modu iraunkorrean mantentzeko gehieneko ekoizpen-maila da, ekoizpen-gaitasuna eta -egitura kontuan hartuta. Horrek inflazio-tasa gutxi gorabehera konstante eskatzen du, eta langabezia-tasa bateragarria izan behar du enplegu osoaren kontzeptuarekin.

4. **KPI ekonomia bateko ondasun eta zerbitzu guztien prezioa oinarri hartuta kalkulatzen da.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

KPIk (Kontsumoko Prezioen Indizea) inguru bateko familia esanguratsu edo batez besteko batek normalean erosten dituen ondasunen eta zerbitzuen prezioak biltzen ditu. Beraz, KPIIn sartzen diren ondasunak kontsumoari dagozkionak bakarrik dira, ez kapitalari dagozkionak. Eta kontsumo-ondasunen barruan ere, familien erosketa-saskian esanguratsuenak direnak bakarrik hautatuko dira.

5. Euroak dolarrarekin alderatuta duen truke-tasa dolar bakoitzeko 0,85 eurotik 0,80 eurora jaisten bada, euroaren balioak dolarrarekin alderatuta gora egin duela esan dezakegu.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Hasieran truke-tasa 0,85 €/€ bazen, horrek esan nahi zuen euro 1 aldatuta $1/0,85 = 1,176$ dolar eskuratzen zirela. Truke-tasa 0,80 €/€ denean, euro 1 aldatuta $1/0,80 = 1,25$ dolar eskuratuko ditugu.

Lortutako balioei erreparatzen badiegu, euroaren balioak gora egin du dolarrarekin alderatuta (1,176tik 1,25era aldatu da). Ekonomian, euroak dolarrarekiko balio-irabaztea izan duela esaten da (euroa indartu egin da dolarrarekin alderatuta). Eta, horrekin batera, dolarrek euroarekin alderatuta balio-galera izan duela esango dugu (edo ahuldu egin da dolarrarekin alderatuta).

6. Petrolio-ekoizlerik handiena den herrialdean gatazka dagoelako energia-iturri horren prezioak gora egiten badu, eskaintzaren perturbazio negatiboa gertatuko da, eta eskaintza-kurba ezkererantz lerratuko da.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Eskaintza eta eskari agregatuaren ereduaren arabera, nazioartean petrolioaren prezioa handitzearen eraginez, eskaintza agregatuaren kurba ezkererantz edo gorantz mugituko da: ekoizpen-kostuak modu orokorrean handitzen dira ekonomian. Eskaintza agregatuaren posizio berri honek oreka makroekonomikoa aldatzen du, eta eragiten ditu ekoizpen osoaren murrizketa (hazkunde txikiagoa eta langabezia handiagoa) eta prezioen maila orokorraren hazkundera (inflazio handiagoa).

7. Egonkortze-politiken adibideak dira administrazio zentralek (udalak, gobernu autonomikoak, gobernu zentrala) egindako azpiegitura-obrak krisi ekonomikoen ondorio negatiboak aurre egiteko.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Egonkortze-politikek epe laburreko BPGd-n eragina dute, ziklo ekonomikoen oszilazioak leuntzea helburu izanda. Politika horiek atzerapenen edo hedapenen larritasuna murriztu nahi dute.

Enuntziatuan aipatutakoak krisiaren aurkako neurriak dira argi eta garbi, langabeziari aurre egiteko eta jarduera ekonomikoa suspertzeko atzerapen egoera batean. Politika horien adibide bat dira Zapateroren gobernu sozialistak udal-mailan finantzatu zituen azpiegitura obrak E Plan izenekoan, edo, gaur egun, PIVE planak (Ibilgailu Eraginkorraren Sustapen Programa) edo ibilgailuak erosteko laguntzak.

8. Zergak dira sektore publikoan sarrerak eragingo dituzten politika fiskaleko tresna bakarrak.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Abiapuntu moduan hartuko dugu gobernu guztiek herrialde bateko hazkunde-tasaren bilakaeran eragiteko politika fiskaleko hiru tresna dituztela: gastu publikoa, zergak eta transferentziak.

Bada, zergak dira administrazio publikoetan sarrera «korronteak» eragiten dituzten tresna bakarrak. Izatez, aurrekontu publikoak egiten direnean, alderatu egiten dira gastuen partidak (gastu produktiboa edo gastu publikoa, eta gastu sozialak edo transferentziak) eta zergen partidak (zuzenak eta zeharkakoak).

9. Ondasun jakin baten merkatuko eskari-kurbaren eta eskari agregatuaren kurbaren arteko desberdintasuna da lehenengoak gizabanako guztiak hartzen dituela kontuan, eta bigarrenak ez.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Merkatuaren eskariaren eta eskari agregatuaren artean dagoen aldea da merkatuaren eskariak ondasun bakarra duela kontuan, eta eskari agregatuak ekonomiaren ondasun guztiak.

Bestela esanda, merkatuaren eskariak gizabanakoek ondasun jakin batekiko duten gastu desiratuari egiten dio aipamen, horren balizko prezioen aurrean. Beraz, ondasun jakin bati eta ondasun horren prezioari (merkatu mikroekonomikoa) aipamen egiten ari gara. Aitzitik, eskari agregatuak eragile ekonomikoek ekonomia batean ekoiztako ondasun eta zerbitzu guztietan egindako gastua irudikatzen du. Hemen, kontuan hartzen den prezioa ez da prezio zehatz bat, ekonomiaren prezioen indize osoa baino, hau da, ondasunen eta zerbitzuen prezio guztien batezbestekoa. Beraz, merkatu makroekonomikoa da.

10. Hazkunde-politikaren adibide bat diru-politika bat izango da, hain zuzen ere, interes-tasak baxu mantentzea inbertsio-proiektuak sustatzeko.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Gogoan izan dezagun hazkunde-politika dela agintariek neurriak hartzea epe luzeko hazkunde bizkortu edo geldiarazteko; hau da, herritarren bizitza-maila hobetzea lortu nahi da.

Enuntziatuari erreparatuz, interes-tasa baxuak mantentzeak inbertsioa sustatuko du, finantzaketa handiago horrek herrialdeko industria-ehuna handituko du, eta, horrekin batera, etorkizuneko ekoizpen potentziala. Lortu nahi den azken efektua da etorkizunean herritarrentzat ondasun gehiago erabilgarri egotea, eta horrek, oro har, bizitza-maila eta kalitate handiago eragingo du epe luzera.

1. KAPITULUKO *PAREKATZEEN* SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Agintariak ekonomian esku hartzeko dituzten erremintak, helburu zehatz batzuk lortu ahal izateko.	MAKROEKONOMIA	3
2	Errealitatearen deskripzio sinplifikatua, portaera ekonomikoari buruzko hipotesiak oinarri hartuta, egiaztatze moduko teoriak edo iragarpenak ezartzen dituena.	POLITIKA MAKROEKONOMIKOA	1
3	Ekonomia sistema global moduan aztertzen duen diziplina, alderdien harreman agregatuak azpimarratuz.	AGINTARI EKONOMIKOAK	5
4	Kontzeptu makroekonomiko baten neurtzeko moduko eta zenbakizko adierazpena da.	EREDU MAKROEKONOMIKOA	2
5	Errealitate ekonomikoaren analisia oinarri hartuta, politika ekonomikoen neurriak diseinatu, orientatu edo gauzatzeko ardura duten entitate edo erakunde nazionalak eta nazioartekoak.	ALDAGAI MAKROEKONOMIKOA	4

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Muga-zergak, kontingenteak eta kanpo-harremanetako beste mekanismo batzuk.	POLITIKA FISKALAREN TRESNAK	4
2	Prezioen eta soldaten kontrola, gizarte-eragileen artean erabakiak sustatzea, sektore jakin batzuk bultzatzea...	DIRU-POLITIKAREN TRESNAK	5
3	Enpresa-errenten eta lanaren gaineko zergak murriztea, burokrazia gutxitzea, berrikuntzari laguntzak ematea...	ESKAINITZA-POLITIKAREN NEURRIAK	3
4	Zergak, gastu publikoa eta transferentziak.	MERKATARITZA-POLITIKAREN TRESNAK	1
5	Ekonomiako kredituen kantitatea eta horien interes-tasa aldatzera bideratutako neurriak.	ERRENTA-POLITIKEN NEURRIAK	2

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Estatuaren esku-hartzea defendatzen duen doktrina ekonomikoa, langabezia-aldi luzeak saihesteko (errenta txiroenen alde birbanatzea).	LIBERALISMO EKONOMIKOA	3
2	Estatuaren esku-hartzea defendatzen duen eskola ekonomikoa, enplegu betea lortu arte. Hortik aurrera, ekonomiak klasikoek iradokitzen duten moduan jokatu du.	KEYNESIANISMOA	1
3	Doktrina ekonomiko honek merkatuen funtzionamendu askea defendatzen du, estatuaren esku-hartze minimoa eginda.	MONETARISMOA	5
4	Pentsamendu makroekonomikoaren eskola honen arabera, printzipio klasikoak berreskuratzen dira igurikimen arrazionalen kontzeptua erabiliz.	MAKROEKONOMIA KLASIKO BERRIA	4
5	Pentsamendu ekonomikoaren adar honen arabera, diruaren hazkundeak (edo diru-eskaintzak) inflazioa soilik eragiten du epe luzera.	SINTESI NEOKLASIKOA EDO NEOKEYNESIANISMOA	2

1. KAPITULUKO SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	BPGd-ren portzentajezko aldaketak, aurrerapenak eta atzerapenak eragiten dituztenak.	BPGd POTENTZIALA	4
2	Ekoizpen-mailaren joera edo bilakaera, normalean goranzkoa. Inguru bateko bizitza-mailak denboran zehar gora egin duela erakusten du.	PER CAPITA BPGd	3
3	Adierazle honek aberastasun nazionala neurtzen du biztanleriarekin alderatuta. Zeharka, biztanleen bizikaltatea irudikatu ohi du.	BPGd ERREALA	5
4	Teknologiarekin eta egon dauden baliabideekin lor daitekeen gehieneko ekoizpenaren balioa, inflazioa bizkortu gabe. Epe luzean, oreka-ekoizpena da.	HAZKUNDE EKONOMIKOA EPE LABURREAN	2
5	Ekoizpen osoaren balioa, inflazio-tasak kontuan hartu gabe, hau da, gertatu diren prezio-aldaketek zuzenduta dago.	HAZKUNDE EKONOMIKOA EPE LUZEAN	1

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Hainbat herrialdetako ondasunen prezio erlatiboa adierazten du, txanpon erkide batean konparatzen direnean; hau da, bi herrialdetako ondasunen truke-lotura zein den adierazten du, inflazio-tasak kontuan hartuta.	ALDAKETA NOMINALAREN TASA	5
2	Kontabilitateko dokumentu honetan, herrialde batean bizi direnen eta munduko gainerako lekuetan bizi direnen arteko merkataritza- eta finantza-transakzio guztiak erregistratzen dira.	DIRU NAZIONALAREN BALIO-GALERA	3
3	Txanpon baten balioa gutxitzea, beste txanpon batzuekin alderatuz neurtuta.	BALOREEN BURTSA	4
4	Merkatu espezializatu honetan, enpresek emandako balore-tituluen transakzioak egiten dira.	BONUA	1
5	Txanpon baten balioa, beste batekin alderatuz adierazia. Bi txanpon nazional trukatzeko prezioa da.	DIBISEN MERKATUA	2

1. kapituluaren. AUTOEBALUAZIORAKO GIDA

- 1. Lanaren itxurazko produktibitatearen bilakaera edo beste herrialde batzuetakoarekin konparatzea adierazletzat hartzen da, herrialde horretako laneskua zein eraginkorra den jakiteko ondasunak eta zerbitzuak lortzeko eginkizunetan. Era berean, per capita BPGd-ren hazkundera ere herrialde bateko ongizate materialaren hazkunderaren adierazletzat onartzen da. Arlo ekonomikoan oro har onartzen diren baieztapen horien arabera, zure ustez, lanaren batez besteko edo itxurazko produktibitatearen hazkunde guztiak desiragarriak dira? Per capita BPGd-ren hazkunde guztiak onak dira biztanleentzat? Egin gogoeta eta idatzi adierazle horiek islatzen ez dituzten balizko gizarte-errealitateak.**

Lanaren itxurazko produktibitatea ekonomia baten produktibitatea neurtzeko modurik ohikoena da, ekoizpen osoaren balioaren eta laneku okupatuaren kantitatearen arteko zatiduraren bidez. Modu horretan, langile edo lanordu bakoitzari egokituko litzaiokeen ekoizpen osoaren zatia (unitate kopurua) gutxi gorabehera ezarri nahi da. Logikoa denez, beste ekoizpen-faktore batzuk kontuan hartzen ez direnez, neurri hau ez da gutziz zehatza. Bi motatako eragozpen edo mugak esleitzen zaizkio.

Lehenengo eta behin, ez dira alderdi batzuk kontuan hartzen, hala nola gaitasunaren efizientzia edo erabilgarritasuna. Muga hori da, agian, garrantzitsuen. Adibidez, lanaren itxurazko produktibitatearen gorakada enplegua gutxitzeak eragin dezake, hazkunde-tasa aldatu ez arren. Hau da, atzerapen-egoera batean, enplegu asko sunsitu arren, produktibitateak gora egin dezake, paradoxa dirudien arren. Egoera hori ez da desiragarria. Desiragarria izango litzateke produktibitatearen hazkundearekin batera ekoizpenaren hazkunde-tasa igotzea, enplegua baino gehiago.

Bigarren, ezin dira ekoizpeneko kalitate-hobekuntzak bereizi. Adibidez, lanaren itxurazko produktibitate handia lor daiteke kalitate gutxi duten, gaizki amaituta dauden eta prestazio gutxi dituzten ondasun askorekin.

Per capita BPGd-ari dagokionez, herritarren ongizatearen adierazle moduan, kalkulatzeko erraza izan arren, hainbat eragozpen ditu, herritarrek alokatutako gizarte-alderdi asko ez baititu islatzen. Hauek dira muga batzuk: ez ditu kontuan hartzen ingurumen-kostuak, ez du informaziorik ematen errenta-banaketa alderdi buruz, ez du zenbatzen baliabideak agortzea eta narriatzea, ez ditu kontuan hartzen merkatutik kanpo egindako jarduerak, ongizaterako garrantzitsuak direnak, hala nola aisia-denbora edo boluntarioria-jarduerak, eta ez du kontuan hartzen etorkizuneko belaunaldietarako zorpetzea ere.

- 2. Parlamentu batean gobernu batek politika ekonomikoaren mota bat defendatzen badu eta oposizioak beste bat, makroekonomian politika ekonomikoaren helburu-gatazka esaten zaiona izango dugu?**


Politika ekonomikoaren helburuen arteko gatazkek ez dute zerikusirik Parlamentuan talde politikoen artean dauden eztabaidekin, arazo ekonomiko bati aurre egiteko zer neurri izan daitekeen eraginkorra erabakitzeko.

Politika ekonomikoaren helburuen arteko gatazkek aipamen egiten dio agregatu ekonomiko batean aldaketa desiratu bat lortzeko beste adierazle bat lortzea sakrifikatu behar izateari: A helburua lehentasunez lortzeko B helburuaren lorpena gutxitzea dakar.

Adibidez, gastu agregatua murrizteak inflazio-tasak gutxitzeko lotuta izan dezake jarduera ekonomikoa murriztea eta langabezia-tasa handiagoa. Beste batzuetan, agintariek hautatu behar dute epe laburreko helburuak lortzea etorkizun oparoari uko eginda, edo epe luzeko helburuak lortzea orainaldi latzagoa onartuta. Amaitzeko, gatazkak sor daitezke helburu ekonomikoen eta gizarte-helburuen artean: adibidez, defizit publikoa murriztea gizarte-prestazio txikiagoen kontura.

3. Irudikatu Espainiako ekonomiari buruzko testu zati hau, eskaintza eta eskari agregatuaren ereduaren bidez:

2008. urtearen hasieran, hirigintza-burbuilaren efektuak eragindako hazkunde etengabea bat-batean eten zen. Nazioarteko finantza-krisiak oso eragin negatiboa izan zuen ekonomiaren ekoizpen-sektoreko emaitzetan eta igurikimenean, baina baita kontsumitzaileen gastu-planetan ere. Horren emaitza moduan, atzeraldi bortitza hasi zen, eta, horrekin batera, deflazioa.



2. kapituluko soluzioak

2.1. BPGd: kontzeptua eta neurketa

1. Adierazi (adierazi bakarrik) kontzeptu hauetako zein EZ diren sartzen BPGd-ren kontabilitatean.

- Pepita amonak auzokoekin frutarekin trukatzeko egiten dituen gaileren balioa. (Ez da sartzen.)
- Esteban jaunak tailer ofizial batekin kontratatutako hobekuntzak bigarren eskuko autoa erosteko unean. (Sartzen da.)
- Estherren txerrien basetxeak eragindako ingurumen-kutsadura. (Ez da sartzen.)
- Sexuaren arloko langile batek eskainitako zerbitzuengatik etxean jasotzen dituen sarrerak. (Ez da sartzen.)
- Gustavo medikuak emazteari ordaintzen dion soldata (eta Gizarte Segurantzako kotizazioa) kontsultako pazienteak artatzeagatik. (Sartzen da.)
- Estatuak Francisco jaunaren enpresari zezen-plaza bat eraikitzeke ordaintzen dion dirua. (Sartzen da.)
- Teresa andereñoak jasotzen duen estatuaren beka, unibertsitatean ikasketak egiteko. (Ez da sartzen.)
- Antonio poliziak estatutik jasotzen duen soldata. (Sartzen da.)
- Vicente antikuariok biltegian dituen antigoaleko gauzen balioa. (Ez da sartzen.)

2. Erreparatu herrialde bateko ekoizpenaren datuei:

Urtea	Kapital-ondasunak		Kontsumo-ondasunak	
	Aleko prezioa	Ekoizitako kopurua	Aleko prezioa	Ekoizitako kopurua
0 (oinarri-urtea)	20	25	10	40
1	27	30	12	50
2	30	35	15	50

- a) Eragiketarik egin gabe, zergatik datoz bat BPGd nominala eta BPGd erreala oinarri-urtean?

Oinarri-urteko prezioak erabiltzen dira BPGd errealak ere kalkulatzeko. Beste modu batean esanda: oinarri-urtean, BPGd nominala eta BPGd erreala baloratzeko prezioak berdinak dira. BPGd nominalaren eta BPGd errealaren arteko berdintasun horren eraginez, oinarri-urteko deflatoarea 100 edo 1 da, 100eko eskalan edo unitateen eskalan baloratzen dugun kontuan hartuta, hurrenez hurren.

- b) Kalkulatu BPGd nominala eta BPGd erreala 1. eta 2. aldietarako, 0 aldia oinarri-urte moduan hartuta.

$$\text{BPGd nominala 1. urtean} = 25 \times 30 + 12 \times 50 = 1.410 \text{ m.u.}$$

$$\text{BPGd erreala 1. urtean} = 20 \times 30 + 10 \times 50 = 1.100 \text{ m.u.}$$

$$\text{BPGd nominala 2. urtean} = 30 \times 35 + 15 \times 50 = 1.800 \text{ m.u.}$$

$$\text{BPGd erreala 2. urtean} = 20 \times 35 + 10 \times 50 = 1.200 \text{ m.u.}$$

- c) Zer BPGd mota erabiliko zenuke herrialdeko hazkunde ekonomikoa neurtzeko? Zergatik? Zure erantzunaren arabera, zein izango da hazkunde ekonomikoren tasa 1. eta 2. aldien artean?

Hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den BPGd erreala da; izan ere, prezio berean baloratuta dagoenez beti (oinarri-urtekoa), aldaketek soil-soilik erakutsiko dute ekoiztiko azken ondasun eta zerbitzuen kantitateetan izandako aldaketa, hau da, nazio-aberastunaren balioaren hazkundera.

$$1. \text{ eta } 2. \text{ urteen arteko hazkunde-tasa: } [(1.200 - 1.100) / 1.100] \times 100 = 9,09 \approx \% 9,1$$

- d) a) atalean lortutako emaitzekin, kalkulatu 1. eta 2. aldien deflatoarea eta interpretatu horietakoren bat. Bi deflatoarea erabiliz, kalkulatu inflazio-tasa 2. aldian. Nola interpretatzen da inflazio-tasa hori?

Deflatoarearen formula aplikatuz:

$$\text{Deflatoarea} = (\text{BPGd nominala} / \text{BPGd erreala}) \times 100$$

Lortuko dugu:

1. aldiko deflatoarea $(1.410 / 1.100) \times 100 = 128,18 \Rightarrow$ Interpretazioa: oinarri-urtean (0 urtea) 1. urtera ekonomia osoaren prezioek gora egin dute, batez beste % 28,18.

2. aldiko deflatoarea $(1.800 / 1.200) \times 100 = 150 \Rightarrow$ Interpretazioa: oinarri-urtean (0 urtea) 2. urtera, ekonomia osoaren prezioek gora egin dute, batez beste % 50.

$$\text{Inflazio-tasa} = [(150 - 128,18) / 128,18] \times 100 = \% 17,02$$

Interpretazioa: 1. eta 2. urteen artean, ekonomia osoaren prezioek gora egin dute, batez beste % 17,02.

3. Jo dezagun urte batean bakarrik dakigula BPGd nominala hazi egin dela eta inflazio-tasa, deflatoarearen arabera, positiboa dela. Informazio bakar hori izanda, jakin dezakegu zer norabidetan aldatu den BPGd erreala? hau da, BPGd txikitu edo handitu egin da? Zergatik? Ipini adibide bat.

BPGd nominalaren eta BPGd errealaren aldaketen arteko gutxi gorabeherako lotura kontuan hartuko dugu:

$$\Delta\% \text{ BPGd nominala} \approx \Delta\% \text{ BPGd erreala (edo hazkunde-tasa)} + \Delta\% \text{ Deflatoarea (inflazioa)}$$

Inflazio-tasa positiboa eta BPGd nominalaren hazkunde positiboa bateragarriak dira BPGd errearen murrizketa, gorakada edo iraunkortasunarekin.

Hona hemen adibide bat:

Jo dezagun BPGd nominalak % 4 egin duela gora. Aldaketa portzental hori bateragarria da hiru kasu hauetako edozeinekin:

$\% 4 \approx \% 1$ (BPGd errearen hazkundera) + $\% 3$ (inflazio-tasa deflatorearen arabera)

$\% 4 \approx -\% 0,5$ (BPGd errearen murrizketa) + $\% 3,5$ (inflazio-tasa)

$\% 4 \approx \% 0$ (BPGd erreala ez da aldatzen) + $\% 4$ (inflazio-tasa)

Jo dezagun urte batean bakarrik dakigula BPGd nominala hazi egin dela, eta inflazio-tasa, deflatorearen arabera, positiboa dela. Informazio bakar hori izanda, jakin dezakegu zer norabidetan aldatu den BPGd erreala? Hau da, BPGd txikitu edo handitu egin da? Zergatik? Ipini adibide bat.

Aldaketak ikusita, kasu honetan, inflazio-tasa % 1,5 izango da deflatorearen arabera, BPGd nominalaren hazkunde-tasari BPGd errearen hazkunde-tasa kentzearen ondorioz (% 3,5 - % 2,5).

4. Eman bi argudio baieztapen hau gezurtatzeko: «Beti da ona BPGd-ren hazkundera al bait handiena izatea herrialde batean, hau da, zenbat eta gehiago hazi askoz hobeto izango da herritar guztientzat».

Aurkako argudio bat errenta-desberdintasuna izango litzateke eta, beste bat, adibidez, ingurumena narriatzea.

Batetik, hazkunde ekonomikoak ez du zertan guztiei modu berean mesede egin. Gerta daiteke herrialde batean, hazten den neurrian, gehiago irabazten dutenen eta gutxiago edo ezer ez irabazten dutenen arteko tartea handitzea. Ateratzen den errentaren banaketa oso desberdina izan daiteke, eta, beraz, herrialdearen barruan alde handia egongo litzateke herritarren bizitza-mailen artean.

Bestetik, ondasun material gehiago izateak ez du zertan esan nahi ingurumenak kalitate gehiago izango duenik. Ekoizpen batzuek kostu oso handiak ezar ditzakete, hala nola natura-baliabideak agortzea, natura narriatzea eta kutsadura-maila handia izatea. Eragin horien guztien loturak eta atzeraelikadurak eragina izango dute kliman eta izaki bizidun askoren bizi-zikloetan.

2.2. Nazio-errenta eta nazio-gastua

5. Jo dezagun nazio-kontabilitateko datu hauek ditugula ekonomia baterako:

NPGbmp = 3.500

Zeharkako zergak (ZZ) = 350

Faktore nazionalen errentak atzerrian (f.n.e.) = 125

Diru-laguntzak: 175

Atzerriko faktoreen errentak herrialdean (a.f.e.) = 50

Inbertsioa birjarpenean (D) = 200

- a) Kalkulatu BPGdmp, BPGbfk, NPGdfk eta nazio-errenta (NE)

$$\text{BPGdmp} = \text{BPGbmp} + D - \text{f.n.e.} + \text{a.f.e.} = 3.500 + 200 - 125 + 50 = 3.625$$

$$\text{BPGbfk} = \text{BPGdmp} - D - \text{ZZ} + \text{DL} = 3.625 - 200 - 350 + 175 = 3.250$$

$$\text{NPGdfk} = \text{BPGbfk} + D + \text{f.n.e.} - \text{a.f.e.} = 3.250 + 200 + 125 - 50 = 3.525$$

$$\text{NE} = \text{NPGbfk} = \text{NPGdfk} - D = 3.525 - 200 = 3.325$$

Jo dezagun orain errentari buruzko datu hauek gehitzen ditugula:

$$\text{Irabazien gaineko zergak (IGZ)} = 100$$

$$\text{Banatu gabeko irabaziak (BGI)} = 40$$

$$\text{Zuzeneko zergak (ZZuz)} = 300$$

$$\text{Atzerriko transferentzia garbiak (ATN)} = 200$$

$$\text{Kotizazioak Gizarte Segurantzari (GSK)} = 400$$

- b) Aurreko ataleko nazio-errentaren balioa erabiliz, lortu etxeko ekonomietako errenta pertsonalaren (EP) eta errenta pertsonal erabilgarriaren (EPE) balioak, eskura dituzun datuak bakarrik erabiliz.

$$\text{EP} = \text{NE} + \text{ATN} - \text{BGI} - \text{IGZ} - \text{GSK} = 3.325 + 200 - 40 - 100 - 400 = 4.985$$

$$\text{EPE} = \text{EP} - \text{ZZuz} = 4.985 - 300 = 4.685$$

Amaitzeko, jo dezagun gastuari buruzko datu guztiak gehitzen ditugula:

$$\text{Kontsumo pribatua (K)} = 2.100$$

$$\text{Kontsumo publikoa (K}_{\text{PUB}}) = 400$$

$$\text{Inbertsio gordin pribatua (I)} = 600$$

$$\text{Inbertsio gordin publikoa (I}_{\text{PUB}}) = 300$$

$$\text{Inportazioak (N)} = 100$$

$$\text{Esportazioak (X)} = 325$$

- c) Balio horiek erabiliz, kalkulatu gastu publikoa (G), kapitalaren eraketa gordina (KEG), eskari agregatua edo ekonomiaren gastu osoa (EA), barne-eskaria (BE), barne-eskaria barne-ekoizpenean, eta esportazio garbiak.

$$\text{G} = \text{K}_{\text{PUB}} + \text{I}_{\text{PUB}} = 400 + 300 = 700$$

$$\text{KEG} = \text{I} + \text{I}_{\text{PUB}} = 600 + 300 = 900$$

$$\text{EA} = \text{K} + \text{I} + \text{G} + \text{X} - \text{N} = 2.100 + 600 + 700 + 325 - 100 = 3.625$$

(EA eta BPGdmp berdinak direla egiaztatu da)

$$\text{BE} = \text{K} + \text{I} + \text{G} = 2.100 + 600 + 700 = 3.400$$

$$\text{Barne-eskaria barne-ekoizpenean} = \text{BE} - \text{N} = 3.400 - 100 = 3.300$$

$$\text{XN} = \text{X} - \text{N} = 325 - 100 = 225$$

$$\text{Kanpo-eskaria} = \text{X} = 325$$

2. KAPITULUKO *TEST* ERAKO GALDEREN SOLUZIOAK

- | | | | | |
|------|------|------|------|-------|
| 1) a | 3) d | 5) e | 7) c | 9) b |
| 2) e | 4) e | 6) d | 8) b | 10) e |

2. KAPITULUKO *EGIA* ALA *GEZURRA* GALDEREN SOLUZIOAK1. **Edozein herrialdetarako, NPG beti izan behar da BPGd baino magnitude handiagoa.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

BPGd eta NPGd lotzen dituen kontabilitateko identitatearen arabera ($NPGd = BPGd +$ + faktore nazionalen errentak atzerrian (f.n.e.) —herrialdearen barruan lortutako atzerriko faktoreen errentak (a.f.e.)—, enuntziatua egiazkoa izango litzateke soil-soilik $fne > afe$ balitz, hau da, herrialdera iristen diren errentak atzerrira doazenak baino handiagoak badira). Beraz, ezin dugu herrialde guztietarako orokortu NPGd BPGd baino handiagoa denik.

Oharra. Estatu Batuen kasuan, ekoizpen osorako erreferentziako magnitudea NPGd da (Ipar Amerikako egile baten edozein testuliburutan ikus daiteke). Arrazoia lehen esandakoa da: errenten eraginez (bereziki Amerikako multinazional handien irabazien itxurapean), NPGd BPGd baino diru-balio handiagoa da.

2. **Ekoizpenaren eta errentaren (edo sarreraren) ikuspegiaren arabera, BPGd-ren bi balio desberdin egongo dira, eta bakoitza ikuspegi bati egokituko zaio.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Kontuz! BPGd-ren balioa bakarra da eta izango da beti (Hirutasun Santuaren misterioa bezala: Jainkoa, Aita eta Espiritu Santua bat bera da).

Gertatzen dena da BPGd-ren balio bakar horretara iristeko hainbat bide erabil ditzakegula: edo balio erantsi guztiak batzen ditugu (ekoizpenaren ikuspegia), edo ekoizpenak sortzen dituen errenta guztiak batzen ditugu (errentaren ikuspegia), edo ekoizpen hori erosteko beharrezko gastu guztia batzen dugu (gastuaren ikuspegia).

3. **BPGd kalkulatzeko, azken ondasunak eta zerbitzuak soilik ekoizten dituzten enpresen balio erantsia gehitu behar da.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Kontabilitate bikoitzaren arazoa saihesteko, BPGd kalkulatzeko, azken ondasunera iritsi arteko ekoizpen-prozesu guztien balio erantsiak batzen dira. Horrek esan nahi du balio erantsietan gehitu behar direla bai bitarteko ondasunen enpresak bai azken ondasunen enpresak.

«Balio erantsi» adierazpenak dena esaten du: enpresa bakoitzak ekoizpenean gehitzen duen berria gehitu behar dugu, enpresa hori bitarteko ondasunena zein azken ondasunena izan.

Ez da nahasi behar balio erantsien kontabilizazio hori BPGd-ren definizioarekin. Kasu honetan, BPGd denbora-unitateka ekoiztutako azken ondasun eta zerbitzuen diru-balio moduan definitzen da.

4. Ekoizpen nominala handitzen da, soil-soilik, herrialdeak ekoizten dituen ondasun eta zerbitzuen kantitate fisikoak handitzen direnean.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Ekoizpen nominala ekoizpenaren balorazioa da, ekoizpena egiten den aldiaren indarrean dauden prezioak erabiliz.

Definizio horren arabera, aldi bakoitzean, BPGd nominalak prezioak eta kantitate desberdinak bilduko ditu. Beraz, BPGd nominalaren gorakada eragin dezakete ondasunen prezioen gorakadak, ondasun kantitateen gorakadak, edo bien gorakadak aldi berean.

5. Elikaduraren sektoreko euskal enpresa batek Melillan supermerkatu bat irekitzen badu, Espainiako BPGd-n eta euskal BPGd-n sartu behar den jarduera sortzen ari da.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Euskal enpresak Melillan eragindako errentak Espainiako BPGd-n hartuko dira kontuan (Melilla Espainiako hiri autonomo bat da), baina euskal NPGd-n ez, Melilla ez baitago Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan.

6. Martinez jauna industria-poligono baten jabea da Santander probintzian. Industria-nabeak alokatzen dizkie enpresei, eta, horren truke, hiru hilerik behin adostutako diru kantitatea jasotzen du. Diru hori kontuan hartu behar da nazio-errenta kalkulatzeko orduan.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Nazio-errenta dira ekoizpen-faktore nazional guztiek jasotzen dituzten ordainketak edo sarrerak, aldi batez ekoizpen-prozesu batean parte hartzeagatik.

Martinez jauna espainiarra dela jotzen badugu, industrialdean lortzen dituen alokairuak errentak edo sarrerak dira, eta Espainiako Errenta Nazionalaren magnitudean kontabilizatu behar dira. Hori guztia errentamendua justifikatzen duen legezko kontratu bat dagoela kontuan hartuta. Kontratu hori ez badago, Martinez jaunak jasotzen duen dirua ezkutuko ekonomia-jarduera batekoa izango litzateke, eta, beraz, ez litzateke estatistika ofizialetan agertuko.

7. **Herrialde bateko ekoizpen agregatua neur daiteke bai produktu-unitateetan (tonak, litroak...), bai moneta-unitateetan (euroak).**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Aldagai makroekonomiko guztiak (ekoizpena, esportazioak, inportazioak, kontsumoa, inbertsioa...) beti baloratzen dira moneta-unitateetan, ez unitate fisikoetan. Bestela, nola batu daitezke kiloak litroekin edo ondasunaren unitate zehatzekin? Guztia izendatzaile komun batera igaro behar dugu, eta izendatzaile hori diru-balioa izango da.

8. **Ekoizpen nominalaren eta ekoizpen errearen arteko aldea hau da: lehenengoa ekonomian ekoitzi nahi dena da, eta bigarrena, fabriketatik benetan ateratzen dena.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Kontuz horrekin! Ez da oker hori egin behar. Aldagai guztietan, nominalaren eta errearen arteko aldea, ez bakarrik ekoizpenari dagokionez, kalkulatzeko erabilitako prezioetan dago. Nominalak esan nahi du aldagaia jarduera gertatzen den unean indarrean dauden prezioetan baloratzen dela (horregatik esaten zaio, baita ere, prezio korranteetan baloratzea). Aitzitik, erreala kalkulatzeko prezio konstanteak erabiltzen dira beti, oinarri-urte edo oinarri-aldi bati dagokionak (balorazioa prezio konstanteetan). Aldagai baten bi balio erreal konparatzen ditugunean, inflazioaren eragin kaltegarria alde batera uzten ari gara; izan ere, hainbat kantitate baloratzeko erabili ditugun prezioak berdinak izan dira beti.

9. **BPGd-ren balorazioan kontuan hartuko balira ezkutuko ekonomiaren barruan egingako jarduera guztiak, BPGd-ren balioa askoz handiagoa izango litzateke.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Zer da ezkutuko ekonomia? Merkatuko legezko bideetatik kanpo-errentak eragiten dituzten jarduera guztiak dira, hau da, estatistika ofizialetatik ihes egiten duten truke guztiak (gehienetan, arrazoi fiskalengatik).

Beraz, ekoizpen hauen guztien balioa (edo errentetan duten baliokidea) kontuan hartuko balitz, BPGd-ren zenbatekoa (hau da, ekonomiaren aberastasun materiala) handiagoa izango litzateke.

10. Inportazioek BPGd osatzeaz gain, BPGd kalkulatzeko, inportazioak barne-eskariari kendu behar zaizkio (K + I + G), herrialdearen barruan ekoiztako ondasunen eta zerbitzuen zenbatekoa lortzeko.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Enuntziatuan deskribatzen zaiguna BPGd-ren kontabilitateko identitatea da, gastuaren ikuspegiaren arabera: $BPGd = K + I + G + X - N$.

BPGd ekonomiaren barne-gastu guztien bidez neurtu nahi badugu, herrialdearen barrura itzultzen ez den gastu osoaren zatia kendu behar dugu, atzerrira ihes egiten du eta (hau da, inportazioak).

2. KAPITULUKO PAREKATZEEN SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	BPGd-ren balioa kalkulatzeko, herrialde batean egingandako ekoizpen-jarduera guztiak eragiten duten balio erantsia batuta.	ERRENTAREN FLUXU ZIRKULARRA	4
2	BPGd-ren balioa kalkulatzeko, herrialde batean egingandako ekoizpen-jarduera guztien emaitzak lortzeko egindako erosketen balioa batuta.	ERRENTAREN IKUSPEGIA	5
3	Kontabilitateko sistema honek, herrialde bateko agregatu ekonomikoak definitu, neurtu eta lotzen ditu aldi jakin baterako.	GASTUAREN IKUSPEGIA	2
4	Enpresen eta familien artean baliabide errealen eta diru-baliabideen arteko trukea irudikatzen duen eredia.	PRODUKTUAREN BALIOAREN IKUSPEGIA	1
5	BPGd-ren balioa kalkulatzeko, herrialde batean egingandako ekoizpen-jarduera guztiek eragindako sarrera guztiak batuta.	NAZIO-KONTABILITATEA	3

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Enpresa batek eraldatzeko edo ekoizpen-prozesuan erabiltzeko eskuratzen duen faktorea edo baliabidea.	OUTPUTA	4
2	BPGd neurtzean egiten den kalkulu-errorea, enpresa guztien ekoizpenaren balioa kontuan hartzen denean.	INPUTA	1
3	Enpresa baten ekoizpenaren balioa ken bitarteko erosketen balioa.	KONTABILIZAZIO BIKOITZA	2
4	Ekoizpen-jarduera baten emaitza zenbait faktore edo baliabide konbinatzean.	BALIO ERANTSIA	3
5	BPGd nominala eta BPGd erreala konparatzean lortutako prezioen indizea, bien arteko zatidura oinarri hartuta.	BPGd-REN DEFLATOREA	5

2. KAPITULUKO SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Ekonomia batean urtebetez ekoiztako azken ondasunen eta zerbitzuen balio osoa.	BARNE-PRODUKTU GORDINA (BPGd)	1
2	Ekonomia batean urtebetez ekoiztako azken ondasunen eta zerbitzuen balio osoa, oinarri-urte baten edo erreferentzia-urte baten prezioak erabilita.	BPGd NOMINALA	4
3	Ekonomia batean urtebetez ekoiztako azken ondasunen eta zerbitzuen balio osoa, kalkuluan merkatuek zehaztutako erosketako edo salmentako prezioak erabilita.	BPGd ERREALA	2
4	Ekonomia batean urtebetez ekoiztako azken ondasunen eta zerbitzuen balio osoa, urte horretan indarrean dauden prezioak erabilita.	BPGd MERKATU-PREZIOETAN	3
5	Ekonomia batean urtebetez ekoiztako azken ondasunen eta zerbitzuen balio osoa, kalkulurako fabrikako irteera-prezioak erabilita (zergak eta diru-laguntzak aplikatu gabe).	BPGd FAKTOREEN KOSTUAN	5

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Kontzeptu ekonomiko honek kontabilitatean kapital-ondasun baten balio-galera itzulezina irudikatzen du.	INBERTSIO GORDINA	4
2	Kapital-ondasunen balio-galera teknologiak aurrera egin duelako edo eskarian aldaketak egon direlako.	INBERTSIO GARBIA	5
3	Aldi jakin batean dauden kapital-ondasunen balio osoa.	KAPITAL-STOCKA	3
4	Kapital fisiko produktiboaren (planta eta ekipoa) erosketetan egindako gastu osoa gehi aldaketa garbia izakinetan.	ZAHARKITZEA	2
5	Aldi jakin batean kapital produktiboaren ondasunetan egindako gastu osoa ken aldi horretan dauden kapital-ondasunen balio-galera.	AMORTIZAZIOA	1

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Herrialde bateko egoiliarrek izan dezaketen errenta, herrialdeko ekoizpenari egindako ekarpena zein atzerriko transferentzia garbiak.	NAZIO-ERRENTA	2
2	Herrialde bateko egoiliarren eskura dauden ekoizpen-faktore guztien ordainketa. Ekonomiaren nazio-produktu garbia da.	ERRENTA PERTSONALA	5
3	Familiek azkenean izan dezaketen errenta garbia, zergak ordaindu ondoren, gastatzeko edo aurrezteko.	NAZIO-ERRENTA ERABILGARRIA	1
4	Herrialde baten barruan jarduten duten ekoizpen-faktoreek jasotako sarrerak, horien bizilekua edozein izanda ere.	ERRENTA PERTSONAL ERABILGARRIA	3
5	Familiek jasotako sarrerak ekoizpen-jarduerei egindako ekarpenaren kontzeptuan, zergak ordaindu aurretik.	BARNE-ERRENTA GARBIA	4

2. kapituluaren. AUTOEBALUAZIORAKO GIDA

1. Aldi jakin batean, herrialde batean, hau ekoitzi da:

Kontsumo-ondasunak eta -zerbitzuak: 2.700 m.u.

Ekipo-ondasunak:

Lehengaiak:

Lehengaien ekoizpen osotik, 400 m.u. xurgatu dira kontsumo- eta ekipo-ondasunak ekoizten. Ekipo-ondasunen ekoizpenetik, 100 m.u. kapital finkoaren balio-galera estaltzeko erabili dira. Aldi horretako kontsumoa 2.400 m.u. izan da.

- a) Adierazi zer osagai sartzen diren inbertsio pribatuaren barruan. Kalkulatu inbertsio gordina adibide honetarako.

Inbertsio pribatuak biltzen ditu kapital finkoaren ekoizpena (ekipo-ondasunak eta instalazio berriak), izakinetan gertatutako aldaketak eta etxebizitza berriak eraikitzea.

Adibide honetan, hau daukagu: inbertsio gordina = ekipo-ondasunen ekoizpena + izakinetan gertatutako aldaketak = 1.000 + 300 = 1.300

- b) Azaldu zer den inbertsio garbia. Kalkulatu adibide honetarako.

Inbertsio garbia = kapital-stockaren balioaren gorakada birjartze-inbertsioa kendu ondoren = Inbertsio gordina – Balio-galera = 1.200

- c) Lortu BPGd herrialde horretako merkatuko prezioetan.

BPGdmp = ekoiztiko azken ondasunen ekoizpenaren balioa = 100 ekoizpenera gehitu ez diren lehengaietan + 1.000 ekipo-ondasunetan + 2.700 kontsumo-ondasun eta -zerbitzuetan = 3.800.

2. Adierazi, esaldi bakoitzaren amaieran BAI ala EZ idatzita, jarduera hauek Espainiako Barne Produktu Gordinean (BPGd) sartuko diren aurretik:

- a) Sukaldari profesional batek, hala nola Arguiñanok, bere etxean prestatzen dituen bazkariak. (EZ)
- b) Baserritar batek Mercabilbaon saldu duen kalabazen uzta. (BAI)
- c) Duela bost urte egindako bigarren eskuko autoa partikular batek beste bati saltzea. (EZ)
- d) Langabe batek jasotzen duen langabezia-asegurua. (EZ)
- e) Hoteletako animatzaileei ordaindutako soldata. (BAI)
- f) Estatu Batuetako Coca Cola enpresak Salamancako botilaratze-planta berri batean egin duen inbertsioa. (BAI)
- g) AirbusEspañak Getafen osagaiak ekoizten ditu Alemanian egiten den Airbus 380 hegazkinerako. (BAI)
- h) Josuk Telefónicaren 10 akzio erosi ditu Laurari oparitzeko. (EZ)
- i) Adrianek Gibraltarretik sartu duten kontrabandoko tabakoa erosi du. (EZ)
- j) Patriciak lurrin frantsesa erosi du Bilboko lurrin-denda batean. (BAI)
- k) Aritzek lantxoak egiten ditu bere etxean eta auzokoen etxean. (EZ)

3. Ekonomia bateko hazkunde-tasa hauek kontuan hartuta:

	2011. urtea	2012. urtea
BPGd nominalaren hazkunde-tasa	6,3	7,7
Inflazio-tasa (deflatorearen arabera)	4,1	10,0
BPGd errearen hazkunde-tasa	2,2	-2,3

- a) Osatu taula. Horretarako, urte bakoitzerako, BPGd errearen gutxi gorabeherako hazkunde-tasa kalkulatu beharko duzu. Hurrengo espazioan, adierazi kalkulua egiteko erabili duzun adierazpena.

$$\Delta\% \text{ BPGd nominala} \approx \Delta\% \text{ BPGd erreala (edo hazkunde-tasa)} + \Delta\% \text{ Deflatorea (inflazioa)}$$

- b) Taulan agertzen diren hiru adierazleetatik, zein erabiltzen dira eskualde baten hazkunde ekonomikoa eta, beraz, ongizate ekonomikoa neurtzeko? Azaldu zergatik.

BPGd errearen hazkunde-tasa da hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazlea. Horren arrazoa BPGd errearen definizioan bertan bilatu behar da.

BPGd errearen kalkuluan prezio berberak erabiltzen ditu beti, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena hainbat alditan baloratzeko. Prezio horiek oinarri-urte bati dagozkio. Beraz, BPGd errearen gertatutako aldaketek soil-soilik biltzen dituzte ekoizpenean izandako aldaketak, ez prezioetan izandako aldaketak. Hori dela eta, BPGd erreari BPGd prezio konstantetan ere esaten zaio; izan ere, neurtzerakoan, inflazioaren eragina alde batera uzten da. Laburbilduz, BPGd errearen hazkunde-tasak herrialde bateko aberastasuna adierazten du, eta herritarren ongizate ekonomikoaren adierazle moduan erabiltzen da.

4. Ekonomia baten kontabilitate nazionalak datu makroekonomiko hauek biltzen ditu:

$$\text{BPGdmp} = 1.200$$

$$\text{BPGbmp} = 1.130$$

$$\text{Zeharkako zergak (ZZ)} = 100$$

$$\text{Diru-laguntzak (DL)} = 10$$

$$\text{Faktore nazionalen errentak (f.n.e.)} = 30$$

$$\text{Atzerriko faktoreen errentak (a.f.e.)} = 40$$

- a) Kalkulatu barne-errenta gordina (BEG), balio-galera (BG) eta nazio-errenta (NE). Nola definitzen da nazio-errenta?

$$\text{BEG} = \text{BPGfk} = 1.110$$

$$\text{BG} = 70$$

$$\text{NE} = \text{NPGbfgk} = 1.030$$

- b) Jo dezagun herrialdeko kanpoko merkataritza-saldoa orekatuta dagoela. Kontsumo pribatua (K) = 720 eta gastu publikoa (G) = 280. Kalkulatu inbertsio garbiaren balioa (IG). Inbertsio publikoa 150 bada, zein izan da kapitalaren eraketa gordina (KEG)?

$$\text{IG} = 130$$

$$\text{KEG} = 350$$

- c) a) ataleko aurreko EN oinarri hartuta, kalkulatu errenta pertsonal erabilgarria (EPE) eta aurrezkoa (A), balio hauek izanda:

Atzerriko transferentzia garbiak (ATN) = -150
 Irabazien gaineko zergak (IGZ) = 75
 Banatu gabeko irabaziak (BGI) = 250
 Estatuaren transferentziak (TR) = 25
 Familiek ordaindutako zergak (ZZuz + SSF) = 40
 Dibidenduak = 10

$$\text{EPE} = 840$$

$$\text{A} = 120$$

5. Herrialde batean, hiru azken ondasun soilik ekoizten dira: A, B eta C. Taula honetan jaso dira ekoiztako kantitateak eta hiru urtetako prezioak:

		A ondasuna	B ondasuna	C ondasuna
0 urtea (oinarria)	Prezioa	40	30	60
	Kantitatea	400	1.200	120
1. urtea	Prezioa	44	36	56
	Kantitatea	440	1.060	140
2. urtea	Prezioa	50	40	60
	Kantitatea	460	1.220	140

- a) 0 urteko prezioak oinarri moduan erabiliz, kalkulatu Barne Produktu Gordin erreala 1. eta 2. urteetarako.

$$\text{BPGd erreala 1. urterako} = 57.800 \text{ m.u.}$$

$$\text{BPGd erreala 2. urterako} = 63.400 \text{ m.u.}$$

- b) Bi emaitza horiek erabiliz, kalkulatu hazkunde-tasa 1. eta 2. urteen artean, eta inflazio-tasa.

$$\text{Hazkunde-tasa 1. eta 2. urteen artean} = \% 9,68$$

$$\text{Inflazio-tasa (deflatorea)} = \% 14,51$$

Non:

$$\text{BPGd nominala 1} = 65.360$$

$$\text{BPGd nominala 2} = 80.200$$

$$\text{Deflatorea 1} = 113,079$$

$$\text{Deflatorea 2} = 126,498$$

3. kapituluko soluzioak

3.1. Kontsumoa, errenta eta inbertsioa


1. Jo dezagun herrialde bateko biztanleria honela sailkatzen dugula: kontsumitzeko joera marjinal (KJMj) handia dutenak eta kontsumitzeko joera marjinal (KJMj) txikia dutenak. Sailkapen horretan, zer sarrera-maila izango du pertsona talde bakoitzak? Informazio hori izanda, zure ustez, nola banatu beharko litzateke errenta, ekonomiaren kontsumo osoa handitu nahi bada? Eta aurrezkoa handitu nahi bada? Iruzkindu ateratzen den gastuaren egitura, kasu bakoitzean.

Oro har, KJMj txikiak dituzten pertsonak sarrera handiak izango dituzte (aberatsak); izan ere, lehen mailako beharrianak estalita dituztenez, errenta gehigarria jasotzen dutenean, errenta berri horretako ehuneko handiagoa (edo osoa) aurrezteko erabiliko dute. Aitzitik, sarrera txikiak dituztenek (txiroak) errenta-gehikuntzak premiazko beharrianak estaltzeko erabiliko dituzte, eta, beraz, aurrezteko duten gaitasuna txikia edo deuseza da.

Aberatsen errenta txiroei eskualdatzen bazaie, ekonomiaren kontsumo osoa handitu egingo da, batez ere oinarrizko edo premia biziko produktuetan. Aitzitik, errenta txiroengandik aberatsengana eskualdatzen bada, aurrezkoa gehiago eta kontsumoa gutxiago sustatuko dugu (normalean, KJMj aberatsentzat txikia eta txiroentzat handia dela joz).

2. Familiak eta enpresak soilik dituen ekonomian, kontsumo-funtzioa ekuazio honetara egokitzen da: $K = 125 + 0,75Yd$. Erantzun galdera hauei:

- a) Egin irudikapen grafikoa eta kokatu berdinketa- edo orekatze-puntua.



- b) Kalkulatu matematikoki berdinketa-maila, eta adierazi errenta erabilgarriaren zer baloretan egongo den aurrezkoa eta zeinetan desaurrezkia.

Berdinketa-puntua lortzen da kontsumoa eta errenta erabilgarria berdinak diren puntuan ($K = Y^e$). Kontsumo-funtzioa ordeztzen badugu:

$$125 + 0,75 Y^e = Y^e \quad \Rightarrow \quad 125 = 0,25 Y^e \quad \Rightarrow \quad Y^e = 500 \text{ m.u.}$$

500 m.u.-tik beherako errenta-mailetan desaurrezkia egongo da ekonomian (kontsumoak errenta erabilgarria gaitzen du), eta 500 m.u.-tik gorako mailetan aurrezkoa positiboa izango da (irabazten dena baino gutxiago kontsumitzen da).

- c) Errenta erabilgarriaren maila $Y^e = 800$ bada, kalkulatu ekonomiaren kontsumo osoa, kontsumo autonomoa eta errenta-maila horrek eragindako kontsumoa.

Kontsumo-funtzioan hauek ordeztuko ditugu:

$$K = 125 + 0,75 \cdot 800 = 125 + 600 = 725 \text{ m.u.}$$

Emaitza honen arabera, $Y^e = 800$ mailarako kontsumo osoa $K = 725$ m.u. da, eta balio hori honela deskonposatzen da: balio autonomoa 125 ($K_0 = 125$), eta induzitutako kontsumoa edo errentaren mendeko kontsumoa 600 ($cY^e = 600$).

- d) Lortu aurrezki-funtzioaren ekuazioa eta marraztu grafiko batean, kontsumo-funtzioaren azpian.


Aurrezki-funtzioa kontsumo-funtzioa oinarri hartuta bilatzen da:

$$S = Y^e - K = Y^e - (125 - 0,75 Y^e) = -125 + 0,25 Y^e$$

- e) Kalkulatu eta irudikatu aurrezki-mailak errenta erabilgarriaren balio hauetarako: $Y^e = 400$ eta $Y^e = 750$.

$Y^e = 400$ bada, desaurrezkia 25 m.u. da:

$$S = -125 + 0,25 Y^e = -125 + 0,25 \cdot 400 = -25 \text{ m.u.}$$



$Y^e = 750$ bada, desaurrezkia 62,5 m.u. da:

$$S = -125 + 0,25 Y^e = -125 + 0,25 \cdot 750 = -62,5 \text{ m.u.}$$

Aurreko ataleko grafikoa ikusten denez, $Y^e = 400$ errenta-maila berdinketa-puntuaren azpitik dago (A puntua), eta $Y^e = 750$ gainetik kokatzen da (B puntua).

- f) Bilatu kontsumitzeko batez besteko joera (KJMe) eta aurrezteko batez besteko joera (SJMe), $Y^e = 400$ izanda.

Aurreko atalean aurrezkoa kalkulatu dugunez, datu hori aprobetxatuko dugu lehenengo SJMe bilatzeko. KJMe lortzeko, propietate hau aplikatuko dugu: batez besteko bi joeren batura unitatea da:

$$SJMe = S / Y^e = -25 / 400 = -0,0625$$

$$KJMe = 1 - SJMe = 1 - (-0,0625) = 1,0625$$

$Y^e = 400$ denean, desaurrezkia errenta erabilgarriaren % 6,25 da, edo beste modu batean esanda, kontsumoa errenta erabilgarriaren % 106,25 da.

- g) Aurreko ataletan kalkulaturako kontsumo- eta aurrezki-funtzioen irudikapenei erreparatuz, azaldu hiru baieztapen hauek zergatik diren gezurrezkoak:
- Errenta erabilgarria gutxitzen denean, desaurrezkia murriztu egiten da.
GEZURRA. Bi modutan argudia daiteke. Lehenengo eta behin, berdinketa-puntuaren gaintik gaudela jotzen badugu, errenta erabilgarriaren beherapenak aurrezkoa murriztu du, ez desaurrezkia. Bigarren, errenta erabilgarria murrizten bada, berdinketa-puntuaren azpitik egonda, desaurrezkia handitu egiten da, ez da gutxitzen.
 - Errenta erabilgarria gutxitzen denean, kontsumoaren kantitatea murriztu eta aurrezkiaren kantitatea handitu egiten da.
GEZURRA. Errenta erabilgarria gutxitzen bada, kontsumoak eta aurrezkiak behera egingo dute; izan ere, kontsumo- eta aurrezki-funtzioen arabera, errenta erabilgarriarekin duten lotura positiboa da. Hau da, familien sarrerak handitzen (gutxitzen) badira, gehiago (gutxiago) kontsumitu eta aurreztu ahal izango dute.
 - Berdinketa-puntuaren azpitik, KJMe bat baino handiagoa da.
EGIA. Berdinketa-puntuaren azpitik, kontsumoak errenta erabilgarria gaintitzen du ($K > Y^e$), eta kontsumitzeko batez besteko joera unitatea baino handiagoa izatea eragiten du.

3.2. Inbertsioa

3. Zein izango litzateke gertaera hauetako bakoitzaren efektua inbertsio-eskariaren kurban, *ceteris paribus*? (hau da, nola aldatuko da I_e kurba?)

- a) *Sarrera garbi handiagoak inbertsio-proiektuetan erabilitako edozein diru kantitatetarako.*
Inbertsio-eskariaren kurba eskuinerantz edo gorantz mugituko da; izan ere, orain, interes-tasa berarentzat, errentagarritasun garbia handiagoa izango da. Horren eraginez, eragile gehiagok erabakitzen du haien diruarekin inbertsio-proiektuak egitea.
- b) *Interes-tasaren gorakada ekonomian.*
Hemen, inbertsio-eskariaren kurba ez da mugitzen; horren ordez, kurban bertan goranzko mugimendua gertatzen da. Hau da, kurba egiteko oinarri hartu dugun *ceteris paribus* ez da aldatzen (ez ekoizpena, ez kostuak, ez igurikimenak...).
- c) *Enpresek lortutako irabazi garbien gaineko zergaren gorakada.*
Etekinen gaineko zergak handitzeak inbertsioen errentagarritasuna murrizten du, interes-tasa guztien kasuan. Inbertsio-eskariaren kurbaren gain duen efektu grafikoa ezkererantz edo beherantz mugitzea da.
- d) *Inbertsio-proiektu berriak agertzea interes-tasa baxuetan.*
Kasu honetan, inbertsio-eskariaren kurba eskuinerantz mugitzen da, baina interes-tasa baxuen kasuan bakarrik. Interes-tasa altuen kasuan, kurbak berbera izaten jarraituko luke. Inbertsio-eskariaren kurba goitik abaniko baten antzera irekiko balitz bezala.
- e) *Gizarte-bakearen giroa sindikatuen, enpresaburuen eta politikarien artean egindako akordioei esker.*
Inbertsioaren inguruko ingurune ekonomikoa onuragarria bada, kasu honetan bezala, enpresaburuek edo ekintzaileek igurikimen optimistekin egingo dituzte inbertsio-planak. Dirua eta denbora jokatu dituzte negoziotetan etorkizun oparoa izateko. Inbertsio-eskariaren kurba gorantz edo eskuinerantz mugituko da.

4. Gobernu batek, hala nola Espainiako Gobernuak, gure herrialdean konfiantza-, segurtasun- eta optimismo-maila handitzeko kanpaina egiten duenean, zer lortu nahi du? Hau da, eskari agregatuaren zer osagaitan eragin nahi du batez ere (kontsumoa, inbertsioa, gastu publikoa, esportazioak edo inportazioak), eta zer helbururekin? Azaldu labur-labur. (Gogoan izan, hemen, «Dirua beldurtia da» esaldi famatua eta *hegakortasun* kontzeptua).

Kontsumitzaileen gastuari lotutako erabakiak, baina, batez ere, zenbat inbertitu erabakitzeke enpresa-planak etorkizuneko ziurgabetasunari aurre egiteko igurikimen ekonomikoen arabera dira. Igurikimen horiek ekoizpen-jarduerak hartuko dituzten herrialdeko edo eskualdeko testuinguru edo ingurune sozial, politiko eta juridikoekin lotuta egongo dira. Hori dela eta, herrialde baten egonkortasunean konfiantza izatea ekoizpenak gora egiteko segurtasunaren eta optimismoaren sinonimoa da, eta hazkunde hori, oro har, gastuan eta sektore pribatuaren zorpetzean oinarrituta dago (kontsumoa eta inbertsioa). Aitzitik, ezegonkortasunaren eta kaos politiko eta sozialaren eraginez, inbertsioak atera egingo dira, herrialdea txirotuko da, eta herritarren erosteko ahalmena gutxituko da.

5. Jo dezagun 30.000 euro dituzula inbertitzeke, eta zure diruaren errentagarritasunik onena bilatzeko bi inbertsio eskaintzen dizkizutela. A inbertsioan gaur egun 28.000 euro gastatu behar dira, eta urtean 1.120 euro emango ditu. B inbertsioan 19.500 euro gastatu behar dira, eta urtean 780 euro bermatzen dizkizu. Bi inbertsioetako zein da erakargarriena errentagarritasunari begira? Jo dezagun bankuek zure dirua sartzegatik eskaintzen dizuten interes-tasa % 3 dela. Nola inbertituko zenuke zure dirua errentagarritasunik handiena lortzeko? Eta bankuek eskaintako interes-tasa % 5 balitz?

A inbertsioaren errentagarritasuna:

$$(1.120 / 28.000) \cdot 100 = \% 4$$

B inbertsioaren errentagarritasuna:

$$(780 / 19.500) \cdot 100 = \% 4$$

Bi inbertsioak errentagarriak dira, moneta-unitateko etekin bera ematen baitute: % 4. Ikus dezagun orain nola irabaz dezakegun gehiago eskura dugun diru guztia erabiliz, bankuek eskaintako interes-tasa % 3 bada.

— Lehenengo aukera. Diruaren erabilgarritasuna: 30.000 €, A inbertsioa, interes-tasa % 3:

$$28.000 \cdot 1,04 + 2.000 \cdot 1,03 = 31.180 \text{ €}$$

— Bigarren aukera. Erabilgarritasun-dirua Diruaren erabilgarritasuna: 30.000 €, B inbertsioa, interes-tasa % 3:

$$19.500 \cdot 1,04 + 10.500 \cdot 1,03 = 31.095 \text{ €}$$

Oro har, lehenengo aukera da errentagarriena. Lehen aukera errentagarriena da, oro har.

Interes-tasa % 5 aplikatzen badugu, ikus dezagun zer gertatzen den:

— Lehenengo aukera. Diruaren erabilgarritasuna: 30.000 €, A inbertsioa, interes-tasa % 5

$$28.000 \cdot 1,04 + 2.000 \cdot 1,05 = 31.220 \text{ €}$$

— Bigarren aukera. Diruaren erabilgarritasuna: 30.000 €, B inbertsioa, interes-tasa % 5

$$19.500 \cdot 1,04 + 10.500 \cdot 1,05 = 31.305 \text{ €}$$

Orain, bigarren aukera da errentagarriena.

3.3. Orekako ekoizpena

6. Har dezagun ez sektore publikorik ez kanpo-sektoerik ez duen ekonomia.

a) Osatu taula honetako espazio hutsak, nazio-errentari, kontsumoari eta aurrezkiari dagozkionak.

Nazio-errenta (€)	Kontsumoa (€)	Aurrezkia (€)	Inbertsioa (€)
2.000	2.200	-200	400
4.000	4.000	0	400
6.000	5.800	200	400
8.000	7.600	400	400

b) Kalkulatu orekako errenta, eta deskonposatu eskari agregatuaren osagaiak.

Taulan ikusten da orekako errenta $Y_E = 8.000$ dela, balioa bat datorrelako kontsumoaren eta inbertsioaren baturarekin. Hala ere, balio hori zenbakien bidez kalkulatu dugu, orekako ekuazioa oinarri hartuta:

$$Y_O = [1 / (1 - c)] \cdot (K_o + I_o)$$

Aurreko berdintasuna aplikatzeko, aurretik, kontsumitzeko joera marjinala eta kontsumo autonomoa kalkulatu behar dira.

Kontsumitzeko joera marjinala kontsumoaren eta errenta erabilgarriaren aldaketan zati-dura oinarri hartuta aurkituko dugu. Taulan ikusiko dugu beti betetzen direla $\Delta K = 1.800$ eta $\Delta Y = 2.000$ (hau da, kontsumoa 1.800etik 1.800era aldatzen da, eta errenta 2.000tik 2.000ra).

$$c = 1.800 / 2.000 = 0,9$$

Kontsumo autonomoa bilatzeko ere aurreko bi aldaketak aplikatu behar dira. Taularen arabera, nazio-errenta 2.000 gutxitzen bada eta kontsumoa 1.800, bada, errenta 0 denean, kontsumoa 400 da; hau da, $K_o = 400$.

Orain orekako ekuazioa aplikatu dezakegu:

$$Y_O = [1 / (1 - c)] \cdot (K_o + I_o) \Rightarrow Y_O = [1 / (1 - 0,9)] \cdot (400 + 400) = 8.000 \text{ m.u.}$$

Orekako balioa deskonposatu eta gastuaren osagaiak aterako ditugu:

$$K = 400 + 0,9 \cdot 8.000 = 7.600$$

$$I = 400$$

Deskonposizioa egiaztatuko dugu:

$$EA = K + I = 7.600 + 400 = Y_O = 8.000 \text{ m.u.}$$

c) Zein dira KJMe eta SJMe ekoizpenaren eta errentaren orekako mailan?

$$KJMe = K / Y = 7.600 / 8.000 = 0,95$$

(Errentaren % 95 kontsumora bideratzen da).

$$SJMe = 1 - KJMe = 1 - 0,95 = 0,05$$

(Errentaren % 5 aurrezkira bideratzen da).

d) Egiaztatu aurreko orekako mailan bete egiten dela aurrezkia eta planeatutako inbertsioa berdinak direla. Irudikatu grafikoki berdintasun hori.


Aurrezkia bi modutan kalkula dezakegu:

1. Errenta eta kontsumoa oinarri hartuta: $S = Y - K = 8.000 - 7.600 = 400 \text{ m.u.}$

2. Aurrezki-funtzioa oinarri hartuta: $S = -400 + 0,1 \cdot 8.000 = 400 \text{ m.u.}$

Bi kasuetan egiaztatzen da aurrezkia bat datorrela planeatutako inbertsioaren balioarekin ($S = I_p = 400$).

Grafikoki:



- e) Itzul gaitezen enuntziatuko datuetara. Errenta-maila 5.000 ($Y = 5.000$) izango balitz, zein desoreka-maila egongo litzateke ekonomian? Zein izango litzateke hemen planeatu gabeko inbertsio-mailaren balioa?

Eskari agregatuaren balioa kalkulatu dugu $Y = 5.000$ denean, kontsumoaren eta inbertsioaren balioak oinarri hartuta:

$$K = 400 + 0,9 \cdot 5.000 = 4.500 \text{ m.u.}$$

$$I = 400 \text{ m.u.}$$

Hau izango da eskari agregatua:

$$EA = K + I = 4.500 + 400 = 4.900 < Y = 5.000$$

$Y = 5.000$ kasuan, eskari agregatua 4.900 da, 5.000 baino gutxiago. Ekonomiak gehiegizko eskaintza agregatua du, 100 gehiago. Hain zuzen ere, balio hori bat dator izakinen planeatu gabeko inbertsioaren balioarekin.

3.4. Biderkatzailea

7. Saiatu deskribatzen *gastuaren biderkatzaile* edo *biderkatzaile keynestar* kontzeptua inguruabar hauetako bakoitzean:


- a) Lagunekin bazkalondoan zaude, eta hori azaltzen ahalegintzen zara, intuizioa edo sena oinarri hartuta ulertuko dutelakoan.

Gastuaren biderkatzailea da erosketatik erosketara gehiago eragiteko duen gaitasuna dirua eskuz aldatzen delako. Horren eraginez, gehiago ekoizten da eta gizabanakoentzat aberastasun gehiago sortzen da. Egiatan, gastuaren handitze-efektua da.

Adibidez, jo dezagun zinemarako sarrera bat erosten dugula 8 euroan. Zinemako jabeak euro 1 aurreztu du, eta gainerako 7 euroak fruta-dendan gastatu ditu. Fruta-dendaren jabeak euro 1 aurreztu du, eta gainerako 6 euroak merkatuko kafetegian gastatu ditu. Kafetegiaren jabeak euro bat aurreztu du, eta gainerako 5 euroak okindegian gastatu ditu. Horrela, zirkulu bertutetsu baina finitua sortzen da: zenbat eta gastu gehiago ekoizpen gehiago, gastu gehiago, eta horrela etengabe. Efektu biderkatzaile horrek berdin balio du gastua zabaltzeko erosketak handitzen direnean, zein eskari osoaren gaineko uzkur-tze-efektuak azaltzeko. Efektu horiek hasten dira gizabanakoek dirua gastatzeko gogo gutxiago izaten dutelako.

- b) Zure entzuleei geometria gustatzen zaie, eta efektu biderkatzailea grafikoren baten bidez irudikatzea nahi dute.

Honako grafiko honetan inbertsioaren efektu biderkatzailea irudikatzen dugu, eta inbertsio-gastuaren hasierako hazkundeak kontsumoaren hazkunde gehigarrien sekuentzia ematen duela adierazten dugu, kontsumo induzitu izeneko $\Delta Y = \Delta I + \Delta K$ induzitua.



- c) Zure entzuleei ekuazioak eta zenbakizko adibideak gustatzen zaizkie.

Jo dezagun inbertsioa 100 m.u. handitzen dela ($\Delta I_p = 100$). Kontsumitzeko joera marjinala 0,8 ($c = 0,8$) bada, inbertsioaren hasierako hazkundeak eragindako gastu-txanda bakoitza aurrekoaren % 80 izango da. Horren eraginez, 0,8ko gastu-balioen segida geometrikoa izango dugu. Ekuazio honetan labur daiteke:

Gastuaren biderkatzailea: $m = 1 / (1 - c) = 1 / (1 - 0,8) = 5$

Horren eraginez, ekonomiaren ekoizpenaren eta errentaren gaineko efektu osoa izango da.

$$\Delta Y = m \cdot \Delta I_p$$

8. Kalkulatu biderkatzailea kasu hauetan:

- a) $SJM_j = 0,25$

Gastuaren biderkatzailea: $m = 1 / s = 1 / 0,25 = 4$

- b) $KJM_j = 5/6$

Gastuaren biderkatzailea: $m = 1 / (1 - c) = 1 / (1 - 5/6) = 6$

- c) $K = 200 + 0,85Y_e$

Gastuaren biderkatzailea: $m = 1 / s = 1 / 0,125 = 8$

3.5. Aurrezkiaren paradoxa

9. Azaldu zergatik ezin den izan zuzena arrazonamendu hau: «Ekonomiak atzeraldia badu, eta hazkunderari mesede egin nahi bazaio, jendea gehiago aurreztera motibatu behar da. Modu horretan bakarrik handituko da inbertsioa, eta, horrekin batera, baita ekoizpena eta kontsumoa ere».

Arrazonamendu hori ez da zuzena, ekonomiak austeritatearen edo aurrezkiaren edo urritasunaren paradoxa izeneko aplika dezakeelako. Paradoxa edo kontraesan horren arabera, herri-tarrek aurrezteko gogo gehiago izateak kontsumo txikiagoa eragin dezake; horren eraginez, azkenean ekoizpenak behera egin dezake eta, horrekin batera, ekonomian aurrezkiak behera egin dezake hazkunderik ez dagoelako. Hori guztia, gizabanakoek hasieran aurrezteko gogoia izan arren.

10. Egiaztatu aurrezkiaren paradoxa zenbakien eta grafikoen bidez, datu hauetarako:

- a) Hasierako aurrezki-funtzioa: $S = -150 + 0,1Y$
- b) Amaierako aurrezki-funtzioa: $S = -100 + 0,1 Y$
- c) Planeatutako inbertsioa: $I_p = 75$

Kasu honetan, ikusten da aurrezteko gogorik handienak desaurrezki autonomo txikiagoa eragingo duela: -150 izatetik -100 izatera igaroko da.

Hasierako zein amaierako orekako ekoizpenaren maila kalkulatu dugu:

$$Y_0 = 1 / s \cdot (-S_0 + I_0) = 1 / 0,1 \cdot (150 + 75) = 2.250 \text{ m.u.}$$

$$Y_1 = 1 / s \cdot (-S_1 + I_1) = 1 / 0,1 \cdot (100 + 75) = 1.750 \text{ m.u.}$$

Ekoizpenak 500 m.u. behera egin duela ikusten dugu.


Orain egiaztatuko dugu, aurrezteko gogo handiagoa egon arren, aurrezki osoa ez dela aldatzen:

Lehen: $S = -150 + 0,1 \cdot 2.250 = 75 \text{ m.u.}$

Gero: $S' = -100 + 0,1 \cdot 1.750 = 75 \text{ m.u.}$

Aurrezkiak berdina izaten jarraitzen du.

Hurrengo orrialdean, grafikoki egiaztatzen da kasu hori.



3. KAPITULUKO *TEST* ERAKO GALDEREN SOLUZIOAK

- | | | | | |
|------|------|------|------|-------|
| 1) d | 3) c | 5) a | 7) c | 9) b |
| 2) e | 4) d | 6) e | 8) b | 10) a |

3. KAPITULUKO *EGIA* ALA *GEZURRA* GALDEREN SOLUZIOAK

1. **Arrail atzerakorra ekonomia enplegu osoko ekoizpen-mailaren gainetik kokatzeko beharrezko «jauzi» moduan uler daiteke.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Arrail atzerakorra da enplegu osoko ekoizpen-mailaren eta enplegu osoko mailatik behera dagoen ekoizpen-maila efektiboaren edo orekako mailaren arteko aldea ($Y_{EO} - Y_E$). Hori dela eta, arrail edo zulo hori ekonomiari enplegu osora iristeko eta ez enplegu osoaren gainetik kokatzeko falta zaion ibilbidea dela ulertu behar da.

2. **Efektu biderkatzaileak ekoizpen- eta errenta-mailari lotuta duen definizioaren arabera, berdin dio 20.000 euroko balioa duen automobil bat familia batek edo enpresa batek erosteak.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Ekoizpen- eta errenta-mailaren gaineko efektu biderkatzailean, garrantzitsuen da gastuaren hasierako aldaketaren zenbatekoa, ez hasierako gastu hori egiten duten pertsonak edo erakundeak.

Kontsumo-gastua (familiek egindakoa) zein inbertsio-gastua (enpresek egindakoa) izan, zenbatekoa bera bada (gure kasuan, 20.000 euro), ekoizpen- eta errenta-mailaren gaineko azken efektuak berdina izaten jarraituko du (20.000 euro, biderkatzailearen efektua dela eta).

3. **Eredu keynestarraren funtsezko ezaugarrietako bat da ekonomiaren epe luzerako analisia dela, eta prezioak oreka lortu arte aldatuko direla.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Eredu keynestarraren oinarritzko kasua guztiz kontrakoa da. Epe laburreko analisia da, eta eskari agregatuak orekako ekoizpenaren maila zehazten du, ekonomiaren prezioak finko edo konstante mantentzen direla joz (**aldaketa hain txikia denez, nulua dela jotzen da**).

Hori dela eta, Keynesen arabera, ekonomia baten epe laburreko hazkundean erabakigarriak dira eskari agregatuaren osagaiak (kontsumoa, inbertsioa, gastu publikoa eta esportazio garbiak).

4. **Inbertsioak 100 milioi euro gora egiten duenean ekoizpen- eta errenta-mailak 500 milioi euro gora egiten badu, gastuaren biderkatzailea 5 milioi euro dela esango dugu. Hau da, milioi bat euro bakoitzeko, 4 milioi euro gehiago sortzen dira. Beraz, horrela lortzen ditugu 5 milioi.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Erantzuna hemen oso sinplea da: biderkatzailea neurri-unitaterik ez duen zenbaki bat da. Hau da, gastuaren biderkatzailea zenbaki positiboa da, normalean bat baino handiagoa. **Hori bai, zenbaki horrek adieraziko digu gastu autonomo baten (kasu honetan, inbertsioa) eta ekoizpen- eta errenta-mailaren aldaketaren arteko lotura.**

Enuntziatuko kasuan, biderkatzailea 5 da (ez 5 milioi!). Horrek esan nahi du gastu gehigarriaren milioi bat eurori esker, 5 milioi euroko ekoizpen-maila finantzatu daitekeela. Baina, kontuz! Euroak ez dira biderkatzen. Euroak berdinak izango dira beti. Gertatzen dena da, eskuz aldatzean, diruari esker hasierako gastua baino gehiago finantzatu daitekeela. Hori da efektu biderkatzailea.

5. **Jo dezagun enpresa-igurikimen onen eraginez burtsako akzioak azkar eta modu iraunkorrean egiten dutela gora. Aberastasun kontzeptuari erreparatuz, esan dezakegu, burtsaren hazkunde horren ondorioz, planeatutako kontsumoan gastuak behera egingo duela.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Aberastasun-efektua da aktiboen (akzioak, etxebizitza, zor publikoa...) prezioen aldaketek familien planeatutako kontsumoan daukaten eragina. Aktibo horien balioa aldatzen denean, gizabanakoek sentitzen dute haien aberastasuna aldatu egiten dela eta, horren eraginez, gastu-jokabidea aldatu egiten dute.

Kasu honetan, akzioen kotizazioak igotzen badira, diruaren zati bat burtsan inbertituta daukaten gizabanako askok bat-batean pentsatuko dute aberatsagoak direla (izatez, akzioek gehiago balio dute), eta errenta edo sarrera erabilgarrien maila bera izan arren, ondasun eta zerbitzu gehiago erosi nahi izango dituzte. Beraz, planeatutako gastuak gora egingo du, ez behera. Egiatan, aberastasun-efektuak kontsumoan duen eraginak osagai psikologiko handia du, gizabanakoek haien aberastasunaren aldaketa ikusteko duten moduak eragin handia izango baitu.

6. **Aurrezki- eta kontsumo-funtzioen arabera, aurrezki negatiboa (edo desasurezkoa) egongo da errenta-maila txikiarako, eta aurrezki positiboa errenta-maila handietarako.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Kontsumo- eta aurrezki-funtzioetan berdinketa- edo oreka-puntua dago, eta horretan kontsumoa bat dator errenta erabilgarriaren mailarekin ($K = Y^e$). Horrek era berean esan nahi du aurrezkoa zero dela ($S = 0$).

Kontsumo-funtzioaren berdinketa-puntu horren eraginez, ekoizpen-mailak bi taldetan zatitzen dira: azpitik daudenak eta gainetik daudenak. Berdinketa-puntuaren azpitik dauden ekoizpen-mailetan (edo errenta-maila baxuetan) desaurrezkia egongo da, sarrerak baino gehiago gastatzen baita. Berdinketa-puntuaren gainetik dauden ekoizpen-mailetan (edo errenta-maila altuetan) aurrezki positiboa egongo da, sartzen dena baino gehiago gastatzen baita.

- 7. Makroekonomian, joera marjinalen eta batez besteko joeren arteko alde kontzeptuala hau da: marjinalak aldagaien balio osoak lotzen ditu, eta batezbestekoak, aldagai horien aldaketak.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Joera marjinalak bi aldagairen aldaketan arteko zatidura biltzen dute: izendatzailean, aldagai esplikatzailea edo independentea, eta zenbakitzailean, mendeko aldagaia. Adibidez, kontsumitzeko joera marjinala da kontsumoaren aldaketaren eta errenta erabilgarriaren aldaketaren arteko zatidura; kontsumoa errenta erabilgarriaren mendekoa dela jotzen da.

Aitzitik, batez besteko joera da bi aldagairen balio osoen zatidura; lehen bezala, izendatzailean aldagai independentea jartzen dugu, eta zenbakitzailean, mendeko aldagaia. Horrela kalkulatu dira kontsumitzeko eta aurrezteko batez besteko joerak, adibidez.

- 8. Sarrera gutxi dituztenek («jende txiroa» esango diegu) kontsumitzeko joera marjinal oso handia izango dute (unitatetik hurbil edo parean agian), eta sarrera asko dituzten pertsonak («jende aberatsa» esango diegu) kontsumitzeko joera marjinal oso txikia izango dute (zerotik hurbil edo parean agian).**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Kontsumitzeko joera marjinalak adierazten digu zenbat aldatzen den kontsumoa errenta erabilgarria aldatzen denean. Definizio horren arabera, logikoki, aberatsek eta txiroek ez dute modu berean jokatu errenta erabilgarria kopuru bera aldatzen ikusten dutenean. Jar dezagun adibide bat:

Pentsatu 1.000 euro ematen dizkiegula aberatsari eta txiroari. Txiroak kopuru horretako zati handi bat kontsumora bideratuko du (diru berri horretatik gutxi edo ezer ez du bideratuko aurrezkira). Aberatsak, aldiz, kopuru horretatik zati txikia bideratuko du kontsumora (diru nahiko duenez, sarrera berriaren zati handia edo guztia aurrezkira bideratuko du). Horregatik, KJMj errenta-maila baxuetarako handiak dira, eta KJMj errenta-maila handietarako txikiak dira.

9. **Eredu keynestarraren arabera, ekoizpen- eta errenta-maila orekako ez bada, bete egi- ten da familiek planeatutako aurrezkiak ez datorrela bat enpresek planeatutako inber- tsioarekin.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Errenta-gastu ikuspegiak gain ($EA = Y$), eredu keynestarrean oreka beste modu batean bila eta interpreta daiteke: planeatutako inbertsioaren eta planeatutako aurrezkiaren arteko loturaren bidez. Beste ikuspegi honen arabera, bi sektoreko eredu batean oreka egon dadin, bete egin behar da familiek aurrezki nahi dutena eta enpresek inbertitu nahi dutena berdina izatea ($S = I_p$). Bestela esanda, enpresek nahi duten inbertsioa egiteko behar duten finantza- keta familiek egin nahi duten aurrezkitik etorri behar da.

Inbertsioaren eta aurrezkiaren artean baldintza hau betetzen ez bada, ekonomia desore- kan egongo da (edo gehiegizko eskaintza edo gehiegizko eskaria izango ditu); izan ere, kon- tsumo-planak (eta aurrezki-planak bateraezinak izango dira inbertsio-planekin).

10. **Enpresa batek pentsatzen zuena baino gutxiago saltzen badu, inbertsio efektiboa pla- neatuta zeukana baino txikiagoa izango da.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Enpresa batek espero zuena baino gutxiago saltzen badu, izakinen pilaketa ez-aurreiku- sia edo nahi gabekoa egongo da: saltzen ez diren artikulak biltegietan pilatzen dira.

Kontabilitate Nazionalean izakinak kapital-ondasun moduan zenbatzen direnez (orain- dik enpresen esku dauden ondasunak baitira), izakinen nahi gabeko pilaketa inbertsio ez-pla- neatu edo nahi gabeko moduan identifikatzen da.

Ondorioz, espero zena baino gutxiago saltzen bada, inbertsio efektiboa (planeatutakoa eta planeatu gabekoa) planeatutakoa baino handiagoa izango da, ez txikiagoa.

3. KAPITULUKO **PAREKATZEEN** SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Egoera honetan, familien gastua bete-betean bat dator errenta erabilgarriaren mailarekin ($K = Y^c$).	ENPRESA-IGURIKIMENAK	3
2	Enpresek kapital-ondasunetan planeatutako gastua (makineria, ekipoa, softwarea eta izakinak).	PLANEATUTAKO INBERTSIO PRIBATUA	2
3	Enpresaburuek etorkizunean gertatuko denari buruz duten iritzi subjektiboa.	KONTSUMO-FUNTZIOAREN BERDINKETA-PUNTUA	1
4	Mailegu-kontratuetan iragarri edo jasotzen den inte- res-tasa.	INTERES-TASA ERREALA	5
5	Erosteko ahalmenaren arabera baloratzen den interes- tasa, inflazioa kendu ondoren.	INTERES-TASA NOMINALA	4

3. KAPITULUKO SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Egoera honetan, ekonomiaren planeatutako eskari agregatua bat dator ekoizpen-mailarekin ($EA = Y$).	ARRAIL ATZERAKORRA	5
2	Desoreka-egoera honetan, ekonomiaren ekoizpen-maila orekako mailaren azpitik dago ($Y < Y_0$).	GEHIEGIZKO ESKAINTZA AGREGATUA	3
3	Desoreka-egoera honetan, ekonomiaren ekoizpen-maila orekako mailaren gainetik dago ($Y > Y_0$).	GEHIEGIZKO ESKARI AGREGATUA	2
4	Zenbaki honen bidez, ekonomiaren ekoizpen-mailaren azken hazkundera neurtzen da gastu autonomoaren hasierako hazkundera dagoenean.	BIDERKATZAILEA	4
5	Enplegu osoko ekoizpen-mailaren eta ekonomiaren ekoizpen efektiboaren mailaren arteko aldea.	OREKA KEYNESTARRA	1

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Kontsumitzen ez den errenta erabilgarriaren zatia da.	AURREZTEKO BATEZ BESTEKO JOERA	3
2	Zenbaki honen bidez adierazten da nola aldatzen den aurrezki errenta erabilgarria aldatzen denean.	AURREZTEKO JOERA MARJINALA	2
3	Zenbaki honen bidez adierazten da zer ehunekok irudikatzen duen aurrezki pribatua errenta erabilgarriarekin alderatuta.	AURREZKI INDUZITUA	5
4	Etxeko ekonomien aurrezkiaren zati bat, errenta erabilgarriaren mailaren arabera ez dena.	AURREZKI PRIBATUA	1
5	Etxeko ekonomiaren aurrezkiaren zati bat, errenta erabilgarriaren arabera edo horrekin aldatzen dena.	AURREZKI AUTONOMOA	4

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Kontsumoaren gastu hau ez da errenta erabilgarriaren arabera, beste faktore batzuen arabera baino.	KONTSUMO INDUZITUA	5
2	Etxeko ekonomiek azken ondasun eta zerbitzuetan egiten duten gastu agregatua da.	KONTSUMO PRIBATUA	2
3	Zenbaki honen bidez adierazten da nola aldatzen den kontsumoa errenta erabilgarria aldatzen denean.	KONTSUMITZEKO BATEZ BESTEKO JOERA	4
4	Zenbaki honen bidez adierazten da zer ehunekok irudikatzen duen kontsumo agregatu pribatua errenta erabilgarriarekin alderatuta.	KONTSUMITZEKO JOERA MARJINALA	3
5	Kontsumoaren gastu hau errenta erabilgarriaren mailaren arabera da, edo horren arabera aldatzen da.	KONTSUMO AUTONOMOA	1

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Enpresen planeatutako inbertsioa gehi izakinen nahi gabeko aldaketa.	AURREZKI AGREGATUAREN FUNTZIOA	3
2	Ekonomian lor daitekeen gehieneko ekoizpen-maila, eskura dauden ekoizpen-baliabide guztiak erabilia.	KONTSUMO AGREGATUAREN FUNTZIOA	5
3	Ekuazio matematiko honek adierazten digu zein izango den familiek planeatutako aurrezki errenta-maila bakoitzerako.	EKOIZPEN POTENTZIALAREN EDO ENPLEGU OSOAREN MAILA	2
4	Etxeko ekonomien aurrezki gutxitzea edo zorpetzea, irabazten dena baino gehiago gastatzeko nahiak eraginda.	INBERTSIO EFEKTIBO PRIBATUA	1
5	Ekuazio matematiko honek adierazten digu zein izango den familiek planeatutako gastua errenta esku-ragarriaren maila bakoitzerako.	DESAURREZKIA	4

3. kapituluaren. AUTOEBALUAZIORAKO GIDA

- 1. Etxebizitzaren prezioak oso azkar gora egiteak zein burtsak modu ikusgarrian gora egiteak kontsumo-gastuaren hazkunde handia eragin dezakete. Azaldu zer argudio dagoen baieztapen horren atzean, eta adierazi zer izen ematen zaion egoera horri ekonomian.**

Galdera honi erantzuteko, aberastasun-efektuaren kontzeptua erabiliko dugu. Horren arabera, aktiboen prezioak aldatzeak kontsumo-ildoak aldatzea eragiten du.

- 2. Aztertu errenta erabilgarriari, aurrezkiari eta kontsumoari dagokien taula:**

Errenta erabilgarria	Aurrezki	Kontsumoa	SJMeS	KJMe
0	-80	80	—	—
400	0	400	0,00	1,00
800	80	720	0,10	0,90
1.200	160	1.040	0,13	0,87
1.600	240	1.360	0,15	0,85

- a) Bete hutsuneak.
 b) Zein da kontsumo autonomoa, K_o ? Eta aurrezki autonomoa?

$$K_o = 80, S_o = -80$$

- c) Kontsumo-funtzioa lineala dela jotzen badugu, kalkulatu errenta erabilgarriaren, kontsumoaren eta aurrezkiaren aldaketen bidez zein diren kontsumitzeko joera marjinalaren (KJMj) eta aurrezteko joera marjinalaren (SJMj) balioak. Interpretatu bi balioak.

$$KJMj = 0,9, SJMj = 0,1$$

Bi balioak interpretatzean, kontuan hartu behar da, batetik, kontsumoaren aldaketaren eta errenta erabilgarriaren aldaketaren arteko lotura, eta, bestetik, aurrezkiaren aldaketaren eta errenta erabilgarriaren aldaketaren arteko lotura.

- d) Irudikatu grafikoki taula horretatik ateratzen den kontsumo-funtzioa.

Irudikapen grafiko honetarako, jo kontsumo-funtzioaren teoriara.

- e) Kontsumo- eta aurrezki-aula honen arabera, badago kontsumo-funtzioaren berdinketa-puntu izenekoala ala ez? Non egongo da kokatuta?

Taula honetan, berdinketa-puntua errenta erabilgarriaren mailan kokatuta dago: 400.

3. Azaldu esaldi hau: «Izakinetan egindako inbertsioa planeatuta egon daiteke ala ez, enpresen igurikimenean eta hazkunde ekonomikoaren arabera (BPGd-ren aldaketa).»

Baieztapen hau zuzena da, enpresen ekoizpen-planak bete egingo baitira ala ez, hazkunde ekonomikoari buruzko igurikimenean asmatzen duten ala ez kontuan hartuta, hurrenez hurren.

4. Keynesen teoriaren arabera, gastuaren efektu biderkatzailea zergatik hurbiltzen da balio finitura eta ez infinitura?

Erantzuteko, kontsumitzeko joera marjinalaren balioa hartu behar da kontuan. Bat baino handiagoa ez bada, efektu biderkatzaileak muga izango du, eta ez da leherkorra izango.

5. Jo dezagun bi sektoreko ekonomia daukagula, jokabide-ekuazio hauekin:

$$K = 50 + 0,75Y^e, I_p = 150, Y_{EO} = 2.000$$

- a) Kalkulatu orekako errenta eta deskonposatu eskari agregatuaren osagaietan.

$$\text{Orekako errenta: } Y_O = 800$$

$$\text{Kontsumoa: } K = 650$$

$$\text{Eskari agregatua: } K + I = 650 + 150 = 800$$

- b) Errenta-maila 1.000 izan balitz ($Y = 1.000$), zein izango litzateke desoreka? Zein izango litzateke planeatu gabeko inbertsio-maila?

$$Y = 1.000 \text{ bada, } K = 800 \Rightarrow EA = K + I = 800 + 150 = 950$$

Gehiegizko eskaintza agregatua egongo da, 50 m.u. \Rightarrow Planeatu gabeko inbertsioa da 50 ($I_p = 50$) \Rightarrow Izakinen pilaketa ez-planeatua edo nahi gabekoa.

- c) Bilatu biderkatzailearen zenbakizko balioa, eta interpretatu.

$$\text{Biderkatzailea: } m = 4$$

Interpretazio zuzenak ekonomiaren gastu autonomoaren aldaketa eta ekoizpen osoaren aldaketa lotu behar ditu.

- d) Kalkulatu orekako zer ekoizpen edo errenta lortuko litzatekeen kontsumo autonomoa 10 ($\Delta K_o = 10$) handituko balitz.

$$\Delta Y = 40 \Rightarrow \text{Orekako errenta berria: } Y_{O'} = 840$$

- e) Enuntziatuko datuak hartuta, zein da planeatutako inbertsioan egin beharreko hazkundera, orekako errenta potentzialera hurbildu dadin?

$$\text{Arrail atzerakorra: } \Delta Y = 1.200 \Rightarrow \Delta I_p = 300$$

4. kapituluko soluzioak

4.1. Gastu publikoa eta sarrera publikoak

1. Presio fiskal egokia finkatzea (hau da, zergen kantitatea eta mota) ez da zeregin erraza gobernuentzat. Azaldu labur-labur zerga handiek zein zerga txikiek zergatik izan ditzaketen ondorio txarrak gizartean.

Zerga txikiek hazkunde ekonomikoari mesede egiten diote, familien artean kontsumo-plan gehiago eta enpresen artean inbertsio-plan gehiago egin daitezkeelako. Hala ere, zerga-bilketa txikiagoak gizabanakoen arteko errenta-aldeak handitu eta zerbitzu publikoen kopuru handiagoa eskaintzeko gaitasuna gutxitzen du. Azken finean, horrek gizarte-bazterketarako arriskua handitzen du beharrianik handiena duten pertsonen kasuan.

Aitzitik, zerga handiek pertsonen lan egiteko eta enpresei inbertitzeko motibazioa kentzen diete; izan ere, sarreraren zati handi bat estatuaren esku geratzen dela ikusten dute. Presio fiskal handiago horrek mesede egingo die ezkutuko ekonomiari eta kontrol ofizialetik kanpo dauden jarduerari. Aitzitik, zerga-bilketa handiagoak, ondo kudeatuak, herritarrei prestazio publiko handiagoak eta hobeak eman ahal dizkie, eta, horrela, herritarren aukera-berdintasuna hobetzen da.

2. Herrialde bateko defizit publikoa modu jarraituan jaitsi da azken urteetan (adibidez, Espainian 2012tik aurrera). Boterean dagoen alderdi politikoaren ustez, aurrekontu-saldo negatiboaren murrizketaren arrazoia koiuntura mesedegarria da, ekonomia hazi egiten baita. Hala ere, oposizioan dauden alderdientzat eta sindikatuentzat, kontu publikoen saneamendu horren jatorria politika fiskal indartsua eta murriztailea da. Azaldu talde bakoitzak egiten duen arrazonamendua defizit publikoaren beharakada azaltzeko. Aurrekontu-saldoarekin lotutako zer bi adierazle erabili beharko genituzke arrazoia bi taldeetako zeinek daukan egiaztatzeko? Azaldu nola kalkulatu diren adierazle horiek eta zer lotura dagoen haien artean. Jarri zenbakizko adibide bat, ahal baduzu.

Bi arrazonamenduak onargarriak dira informazio gehiago ez dagoelako; hain zuzen ere, aurrekontu-saldoa aldatzen duten bi arrazoiak dira hazkunde ekonomikoa (ekoizpen- eta errenta-maila aldatzea) eta politika fiskala (zergen eta gastu publikoaren aldaketa): $AS = tY - G$.

Ekonomiaren hazkundera eragin dezakeen koiuntura mesedegarriari esker ($\Delta Y > 0$) zerga gehiago bil daiteke $[\Delta(t \cdot Y)]$, eta horrek kontu publikoak hobetuko ditu, aurrekontu-saldoak gora

egingo baitu ($\Delta AS > 0$). Era berean, politika fiskal murriztailearen ($\Delta G < 0$) eraginez ere saldo publikoak gora egiten du, gastua zenbat eta txikiagoa izan zorpetzea ere txikiagoa izango baita.

Arrazoa zein taldek duen egiaztatzeko, aurrekontu-saldoaren aldaketa deskonposatu eta osagai estruktural eta ziklikoa atera beharko genituzke.

Saldo estrukturala (AS_{EO}) da enplegu osoko ekoizpen-mailan sarreren eta gastu publikoen arteko aldea ebaluatzea. Ekoizpen-mailari konstante eusten zaionez, AS_{EO} horretan gertatzen diren aldaketa guztiak politika fiskalaren aldaketek eragindakoak izango dira.

ΔAS_{EO} horren bidez azaltzen ez den AS ren aldaketa ziklo ekonomikoaren edo ekoizpen-mailaren ondorioa izango da. Saldo horri zikliko esaten zaio (AS_{zik}).

Zenbakizko adibidea.

Jo dezagun defizit publikoaren murrizketa 200 ($\Delta AS = -200$) izan dela. Aldaketa hau deskonposatzean lortzen bada, adibidez, $\Delta AS_{EO} = -180$ eta $\Delta AS_{zik} = -20$, defizit txikiagoaren arrazoa politika fiskal murriztailearen murrizketak izango dira. Hala ere, deskonposiziotik $\Delta AS_{EO} = -50$ eta $\Delta AS_{zik} = -150$ lortu bagenu, defizit publikoaren murrizketaren jatorria hazkunde ekonomikoa izango litzateke.

3. Defizit publikoa eta zor publikoa. Zer motatako aldagai ekonomikoak dira: fluxu erako aldagaiak edo stock erako aldagaiak? Zer lotura dago haien artean? Beti betetzen da defizita zenbat eta handiagoa izan zorra handiagoa dela? Edo ez dago lotura finkorik bien artean? Azaldu zure erantzuna.

Defizit publikoa fluxu erako aldagaia da, herrialde edo eskualde baten zorpetzea neurtzen baitu denbora-tarte batean. Zor publikoa stock erako aldagaia da, herrialde edo eskualde horrek metatuta eta ordaindu gabe duen zorpetzea biltzen duelako une jakin batera arte (hau da, data jakin horretara arte metatutako defizit eta superabiten segida da). Beraz, defizit publikoa zenbat eta handiagoa izan, defizit hori estatuak bonoak jaulkita finantzatzen bada, zor publikoak gora egingo du.

Hala ere, defizitaren hazkundeak ez du zertan izan zor publikoaren zenbateko bereko hazkundea, defizitaren zati bat zergak handituta finantzatzen bada. Banku zentrala gobernutik independentea ez den herrialdeetan ere, defizit publikoa dirua jaulkita finantzatu daiteke osorik, gobernuak zor publikoaren tituluak saldu gabe.

4.2. Oreako nazio-errenta sektore publikoarekin

4. Hazkunde ekonomikoaren hedatze-koiuntura batean, gobernuak gastu publikoa eta zerga-bilketa zenbateko berean murrizteko konpromisoa hartu du (jo dezagun, adibidez, proposamena 1.000 milioi euro murriztea dela). Zer eragin izango du erabaki horrek aurrekontu-saldoan? Neutrala da politika fiskal hori ekoizpen- eta errenta-mailaren gain? Hau da, politika fiskal horrek eskari agregatuan eragina izango du ala ez? Nolako eragina? Zergatik?

Zergak eta gastu publikoa zenbateko berean aldatzen diren kasuei aurrekontu orekatuko politika esaten zaie, hau da, aurrekontu-saldoak ez du ez gora ez behera egiten, bi aldaketak konpentsatu egiten direlako (edo defizit bera egongo da, edo superabitari eutsiko zaio). Hala ere, politika fiskalaren mota honek ekoizpen-mailan eragina izango du, aldatu egingo du.

Gastu publikoaren efektu biderkatzailea zergena baino handiagoa denez (lehenengoa eskari agregatuaren osagaia da, eta bigarrenak kontsumoaren determinatzaileak) beti beteko da, *ceteris paribus*, aurrekontu orekatuko politika batean ekoizpen-maila aldatuko dela gastu publikoa aldatzen den norabide berean. Kasu honetan, G-k behera egiten duenez, ekoizpen-maila txikituko da.

5. Jo dezagun prezio finkoak eta langabezia handia dituen ekonomia. Ekuazio hauek ditu ezaugarri:

$$\begin{array}{ll} \text{Kontsumo pribatua:} & K = 700 + 0,8Y^e \\ \text{Inbertsioa:} & I_p = 800 \\ \text{Gastu publikoa:} & G = 300 \\ \text{Zerga-tasa:} & t = 0,25 \\ \text{Enplegu osoa:} & Y_{EO} = 6.000 \end{array}$$

a) Kalkulatu gastatzeko joera marjinala (z) eta interpretatu.

$$z = c(1 - t) = 0,8 \cdot (1 - 0,25) = 0,6$$

Interpretazioa. *Ceteris paribus*, ekonomiaren ekoizpen- eta errenta-maila handitzen (txikitzen) den 100 m.u. bakoitzeko, kontsumoa 60 m.u. handituko (txikituko) da, zerga zuzenak kendu ondoren. Bestela esanda, kontsumoaren aldaketa ekoizpen- eta errenta-mailaren aldaketaren % 60 izango da beti.

b) Lortu orekako errenta edo ekoizpena (Y_O), arrail atzerakorra eta ekoizpenaren deskonposizioa eskari agregatuaren osagaietan. Irudikatu grafikoki soluzio hau.


Orekako errenta:

$$Y_O = 1 / (1 - z) \cdot (K_o + I_o + G_o) = 1 / (1 - 0,6) \cdot (700 + 800 + 300) \Rightarrow Y_O = 4.500 \text{ m.u.}$$

Arrail atzerakorra: $\Delta Y = Y_{EO} - Y_O = 6.000 - 4.500 = 1.500 \text{ m.u.}$

Deskonposizioa:

$$\begin{array}{l} K = K_o + z Y_O = 700 + 0,6 \cdot 4.500 = 3.400 \text{ (} Y_O\text{-tik \% 75,55)} \\ I = 800 \text{ (} Y_O\text{-tik \% 17,77)} \\ G = 300 \text{ (} Y_O\text{-tik \% 6,66)} \end{array}$$



- c) Kalkulatu etxeen errenta erabilgarriaren maila (Y^e) eta aurrezki osoa (S). Datu horiek oinarri hartuta, bilatu aurrezteko eta kontsumitzeko batez besteko joerak (SJMe eta KJMe), eta interpretatu lortutako emaitzak. Familiak, oro har, ekonomiako kontsumo-funtzioaren berdinketa-puntuaren gainetik edo azpitik daude?

$$Y^e = (1 - t) \cdot Y_O = 0,75 \cdot 4.500 = 3.375 \text{ m.u.}$$

$$S = Y^e - K = 3.375 - 3.400 = -25 \text{ m.u. (Desaurrezkia)}$$

$$SJMe = S / Y^e = -25 / 3.375 = -0,0074$$

$$KJMe = 1 - SJMe = 1 - (-0,0074) = 1,0074$$

Interpretazioa. Sortutako errentaren 4.500 m.u. bakoitzeko, estatuak laurdena biltzen du ($t = 0,25$), eta gainerako hiru laurdenak familiengana iristen dira. Familiek irabazten dutena baino gehiago gastatzen dute, eta 25 m.u.-ko desaurrezkia egiten dute. Ehunekotan, desaurrezki hori errenta erabilgarriaren % 0,74 da, edo, bestela esanda, familien kontsumoa haien errenta erabilgarriaren % 100,74 da.

Ekonomia honetan desaurrezkia dagoenez, kontsumo agregatuaren funtzioaren berdinketa-puntutik behera egongo gara.

- d) Kalkulatu zerga-bilketa (T) eta aurrekontu-saldoa (AS) oreka-mailan. Deskonposatu AS , lortu osagai estruktural eta ziklikoa, eta interpretatu emaitzak.

$$T = t Y_O = 0,25 \cdot 4.500 = 1.125 \text{ m.u.}$$

$$AS = T - G = 1.125 - 300 = 825 \text{ m.u.}$$

Aurrekontu-saldo estrukturala:

$$AS_{OE} = t \cdot Y_{EO} - G = 0,25 \cdot 6.000 - 300 = 1.500 - 300 = 1.200 \text{ m.u.}$$

Aurrekontu-saldo ziklikoa:

$$AS_{ZIK.} = AS - AS_{EO} = 825 - 1.200 = -375 \text{ m.u.}$$

Interpretazioa. Zergen ondoriozko sarrerak eta estatuaren gastuak kontuan hartuta, kontu publikoek 825 m.u. balioko superabita dute, hau da, sektore publikoak beste eragile ekonomiko batzuen aurrean duen finantzatzeko ahalmena 825 m.u. da. Superabit hori politika fiskalak eragin du oso-osorik (zergen eta gastu publikoen egitura eta banaketa), enplegu osoko aurrekontu-saldoak erakusten duen moduan. Aurrekontu-saldo ziklikoa negatiboa da, ekonomia arrail atzerakorrean baitago enplegu osoko mailari dagokionez.

- e) Kalkulatu ekonomiak izango lukeen desoreka, errenta-maila 5.000 balitz. Nolakoa izango litzateke planeatu gabeko inbertsioa (I_e) kasu honetan: positiboa edo negatiboa? Zergatik? Irudikatu desoreka hori a) ataleko grafikoa.

EA kalkulatu dugu $Y = 5.000$ bada:

$$K = 700 + 0,6 \cdot 5.000 = 3.700, I = 800, G = 300 \Rightarrow EA = 4.800 \text{ m.u.}$$

Ekonomiak gehiegizko eskaintza agregatua du, ekoizpen-maila eragiten duen EA baino handiagoa baita ($5.000 > 4.800$). Izakinen nahi gabeko metaketa egongo da, 200 baliokoa. Horrek esan nahi du balio bereko planeatu gabeko inbertsio positiboa egongo dela ($I_p = 200$).

4.3. Biderkatzaile fiskalak

6. Irudikatu taula honetan gastuaren lehenengo lau etapen efektu biderkatzailea, gastu publiko 5.000 handitzen denean ($\Delta G = 5.000$). Horretarako, jo dezagun kontsumitzeko joera marjinala 0,9 ($c = 0,9$) dela, eta zerga-tasa 0,2 ($t = 0,2$). (Ejektu biderkatzailearen lehen balioa eta taulako azkenak nik emango dizkizut).

Etapa kopurua	Gastu publikoaren hazkundera	Kontsumoaren hazkundera ($c = 0,9$)	Zerga-bilketaren hazkundera ($t = 0,2$)	Ekoizpen-mailaren hazkundera metatua
1	5.000	—	—	5.000
2	—	3.600	1.000	8.600
3	—	2.592	720	11.192
4	—	1.866,624	518,4	13.058,624

Idatzi beharrezko eragiketak ordenan.

Bigarren etapa:

$$\Delta G = \Delta EA = \Delta Y = 5.000$$

$$\Delta T = t \Delta Y = 0,2 \cdot 5.000 = 1.000$$

$$\Delta K = c (1 - t) \cdot \Delta Y = 0,9 \cdot (1 - 0,2) \cdot 5.000 = 3.600$$

$$\Delta EA \text{ metatua} = 5.000 + 3.600 = 8.600$$

Hirugarren etapa:

$$\begin{aligned}\Delta K &= \Delta EA = \Delta Y = 3.600 \\ \Delta T &= t \Delta Y = 0,2 \cdot 3.600 = 720 \\ \Delta K &= c (1 - t) \cdot \Delta Y = 0,9 \cdot (1 - 0,2) \cdot 3.600 = 2.592 \\ \Delta EA \text{ metatua} &= 5.000 + 3.600 + 2.592 = 11.192\end{aligned}$$

Laugarren etapa:

$$\begin{aligned}\Delta K &= \Delta EA = \Delta Y = 2.592 \\ \Delta T &= t \Delta Y = 0,2 \cdot 2.592 = 518,4 \\ \Delta K &= c (1 - t) \cdot \Delta Y = 0,9 \cdot (1 - 0,2) \cdot 2.592 = 1.866,24 \\ \Delta EA \text{ metatua} &= 5.000 + 3.600 + 2.592 + 1.866,24 = 13.058,624\end{aligned}$$

7. Zergatik dago efektu biderkatzailea ekonomiako ekoizpen- eta errenta-mailan gastu publiko aldatzen denean? Hau da, zein da justifikazio logikoa ekoizpen-mailaren aldaketa gastu publikoaren aldaketa baino handiagoa izateko?

Gastu publikoa edo gastuaren beste edozein osagai autonomo aldatzean efektu biderkatzailea egotearen arrazoia da «gastua-ekoizpena-errenta-gastua-ekoizpena-errenta...» zirkulu bertutetsua egotea. Adibidez, ekonomian ondasunak eta zerbitzuak erosteko nahia zenbat eta handiagoa izan, enpresek ekoizpena handitu egiten dute eskari horri aurre egiteko, ekoizpen berrian inplikaturako eragileek errenta gehiago jasotzen dute, errenta horren zati bat kontsumo berrira bideratzen da eta horri ekoizpen berriarekin aurre egiten zaio, eta horrela etengabe.

8. (5. problemaren jarraipena)

a) Kalkulatu gastu publikoaren biderkatzailea eta interpretatu.

$$\text{Biderkatzailea: } m = 1 / (1 - z) = 1 / (1 - 0,6) = 2,5$$

Ekonomiaren gastu autonomoa (kontsumoa, inbertsioa edo gastu publikoa) handitzen (txikitzen) den m.u. bakoitzeko, ekoizpen- eta errenta-maila 2,5 m.u. handituko da, *ceteris paribus*.

b) Zenbat handitu beharko litzateke gastu publikoa (ΔG) enplegu osoa lortu ahal izateko? Zein izango litzateke efektu biderkatzaileak eragindako kontsumoaren hazkundera (ΔK) kasu honetan? Zer motatako politika fiskalaz ari gara: hedatzailea edo murriztailea? Nola aldatuko litzateke aurrekontu-saldoa (ΔAS) politika fiskal horren aurrean?

Aurretik arrail atzerakorra kalkulatu dugu:

$$\Delta Y = Y_{EO} - Y_O = 6.000 - 4.500 = 1.500 \text{ m.u.}$$

Biderkatzailearen teoria aplikatu dugu:

$$\Delta Y = m \cdot \Delta G \Rightarrow \Delta G = \Delta Y / m = 1.500 / 2,5 = 600 \text{ m.u.}$$

$$\Delta K = \Delta Y - \Delta G = 1.500 - 600 = 900 \text{ m.u.}$$

Gastu publikoa handitzen dugunez, arrail atzerakorra gainditu eta enplegu osoan kokatu arte, aplikaturako politika fiskala hedatzailea izango da.

Aurrekontu-saldoaren aldaketa:

$$\Delta AS = t \cdot \Delta Y - \Delta G = 0,25 \cdot 1.500 - 600 = -225 \text{ m.u.}$$

Emaitza teorikoekin bat etorritik, politika fiskal hedatzaileak aurrekontu-saldoa gutxitzea ekarriko du (defizit publikoa). Gutxitze horren balioa 225 m.u. da.

- c) Zerga-tasa $t = 0,3$ mailaraino igoko balitz eta gastu publikoa ere handituko balitz eta 500ean kokatu, zein izango litzateke orekako ekoizpen-maila berria? Nolakoa izango da kasu honetan politika fiskala: hedatzailea edo murriztailea?

Berriro ere ekoizpen-maila kalkulatu eta hasierakoarekin konparatuko dugu.

$$z' = c(1 - t') = 0,8(1 - 0,3) = 0,56$$

Orekako errenta berria:

$$Y_0 = 1 / (1 - z') \cdot (K_0 + I_0 + G'_0) = 1 / (1 - 0,56) \cdot (700 + 800 + 500) \Rightarrow Y_0 = 4.545,45 \text{ m.u.}$$

Ekoizpen-maila eta orekako errenta 4.500etik 4.545,45era handitzen da. Zerga-tasaren hazkundearen eta gastu publiko handiagoaren efektu osoa hedatzailea izango da. Politika fiskal hedatzailea da.

9. Gastu publikoa 25 m.u. handitzen bada, eta inbertsioa zenbateko berean txikitzen bada ($\Delta G = 25$ eta $\Delta I = -25$), zein izango da efektu biderkatzailea ekoizpen- eta errenta-mailaren gain? Zergatik? Jo dezagun orain gastu publikoak 25 egiten duela gora, eta oraingoan zergek zenbateko berean gora egiten dutela ($\Delta G = 25$ eta $\Delta T = 25$). Zer gertatuko da orain efektu biderkatzailearekin? Nola esaten zaio fenomeno horri?

$\Delta G = 25$ bada, eta $\Delta I = -25 \Rightarrow \Delta EA = \Delta G + \Delta I = 25 - 25 = 0 \Rightarrow EA$ aldatzen ez denez, ez da gastuaren efektu biderkatzailearik egongo.

$\Delta G = 25$ bada, eta $\Delta T = 25 \Rightarrow \Delta EA > 0$, gastu publikoaren efektu biderkatzailea zergena baino handiagoa baita (G-k zuzenean eragiten du EA-n, eta T-k zeharka, errenta erabilgarriaren eta, beraz, kontsumoaren bidez). Fenomeno horri aurrekontu orekatuaren biderkatzaile esaten zaio.

4.4. Orekako nazio-errenta sektore publikoarekin eta kanpo-sektorearekin

10. Jo dezagun orain, aurreko bi funtzioekin batera (K eta t), ekonomia ireki batekin lotutako gainerako aldagaiak sartzen ditugula:

$$K = 90 + 0,85Y^e \quad I_p = 250 \quad G = 100 \quad t = 0,2 \quad X = 100 \quad N = 0,18Y$$

- a) Identifikatu zein ekuazio dagozkion sektore pribatuari (familiak eta enpresak), zein sektore publikoari, eta zein kanpo-sektoreari.

Sektore pribatuko ekuazioak dira kontsumoarena (K) eta planeatutako inbertsioarena (Ip). Sektore publikoari dagozkionak gastu publikoarena (G) eta zuzeneko zergena (t) dira. Eta kanpo-sektorearenak esportazioak (X) eta inportazioak (N) dira.

- b) Kalkulatu kontsumitzeko joera marjinala zergak kenduta (z) eta barne-ondasunetan kontsumitzeko joera marjinala zergak kenduta (zi). Zergatik dago balio-aldea bien artean? Agian ekonomiak orain esportazioak dituelako eta lehen ez? Kalkulatu ekonomia ireki honetako gastu publikoaren biderkatzailea.

$$z = c(1 - t) = 0,85 \cdot (1 - 0,2) = 0,68$$

$$z_i = c(1 - t) - n = 0,85 \cdot (1 - 0,2) - 0,18 = 0,5$$

Bien arteko aldea inportatzeko joera marjinalari dagokio bakar-bakarrik. Gure ereduaren arabera, berdin dio esportazioak egotea ala ez, zi kalkulatzeko.

Ekonomia irekia denez, zi joera erabili behar da:

$$\text{Biderkatzailea: } m = 1 / (1 - z_i) = 1 / (1 - 0,5) = 2$$

- c) Behin biderkatzailea kalkulaturik, bilatu orekako errenta (Y_0). Eta datu hori oinarri hartuta, lortu zerga-bilketa (T), errenta erabilgarria (Y^e), kontsumoa (K) eta inportazioak (N). Informazio horrekin, eskari agregatuaren deskonposizioa oinarri hartuta, egiaztatu kalkuluan ez duzula akatsik egin.

$$Y_0 = m \cdot (K_0 + I_0 + G_0 + X_0) = 2 \cdot (90 + 250 + 100 + 100) = 1.080 \Rightarrow Y_0 = 1.080 \text{ m.u.}$$

$$T = t \cdot Y_0 = 0,2 \cdot 1.080 = 216 \text{ m.u.}$$

$$Y^e = (1 - t) \cdot Y_0 = 0,8 \cdot 1.080 = 864 \text{ m.u.}$$


$$K = 90 + 0,85 \cdot Y^e = 90 + 0,85 \cdot 864 = 824,4 \text{ m.u.}$$

$$N = 0,18 \cdot Y_0 = 0,18 \cdot 1.080 = 194,4 \text{ m.u.}$$

Deskonposizioa:

$$Y_0 = EA = K + I + G + X - N = 824,4 + 250 + 100 + 100 - 194,4 = 1.080 \text{ m.u.}$$

- d) 45°-ko zuzena abiapuntu hartuta, irudikatu grafikoki aurreko atalean lortutako orekako errenta-maila. Grafiko hau erabiliz, azaldu non egongo diren izakinen nahi gabeko meta-keta duten ekoizpen-mailak ($Iep > 0$): oreka-mailaren gainetik edo azpitik egongo dira? Zergatik?



Izakinen nahi gabeko metaketa izango duten ekoizpen-mailak dira orekako ekoizpenaren gainetik daudenak ($Y > 1.080$).

- e) Eredu honetako orekako errenta, e) atalean lortutakoa, oinarri hartuta, ekonomian desorekaren bat egongo da? Hau da, kontu publikoak (AS) eta kanpoko kontuak (XN) orekatuta egongo dira, edo superabita edo defizita izango dute? Egiaztatu zenbakiak erabiliz, eta azaldu emaitza kasu bakoitzean.

$$AS = T - G = t \cdot Y_0 - G = 216 - 100 = 116 \text{ m.u.} > 0$$

$$XN = X_0 - N = 100 - 194,4 = -94,4 < 0$$

Sektore publikoak kontuetan superabita du, zergen ondoriozko sarrerak gobernuaren gastuak gainditzen baitituzte. Kasu honetan, esaten da sektore publikoak finantzatzeko ahalmena duela. Aitzitik, kanpo-sektoreak finantzaketa behar du, esportazioen eta inportazioen arteko saldoa negatiboa baita (merkataritza-defizita).

- f) Enplegu osoko errenta 2.200 ($Y_{EO} = 2.200$) bada, kalkulatu arrail atzerakorra (ΔY) eta enplegu osoa lortzeko beharrezko inbertsioa (ΔI). Zenbakizko kalkulurik egin gabe, ereduaren formulak bakarrik erabiliz: aurrekontu-saldoa (ΔAS) handitu edo txikitu egingo da I-k gora egiten badu? Zergatik? Eta zer gertatuko da esportazio garbiekin (ΔXN)?

Arrail atzerakorra:

$$\Delta Y = Y_{EO} - Y_0 = 2.200 - 1.080 = 1.120 \text{ m.u.}$$

Biderkatzailearen teoria aplikatuko dugu:

$$\Delta Y = m \cdot \Delta I \Rightarrow \Delta I = \Delta Y / m = 1.120 / 2 = 560 \text{ m.u.}$$

Beharrezkoa da inbertsioa 560 m.u. handitzea.

Aurrekontu-saldoa handituko da ($\Delta AS > 0$), ekoizpen- eta errenta-mailak enplegu osoko mailara iritsi arte handitzen direnez, zerga-bilketa ere handitu egingo baita.

Aitzitik, esportazio garbiak gutxitu egingo dira ($\Delta XN < 0$), errenta zenbat eta handiagoa izan ondasan eta zerbitzu gehiago inportatuko baitira. Horrek kanpoko merkataritza-saldok okerrera egitea ekarriko du.

- g) Jo dezagun natura-hondamendi baten eraginez 40 ($\Delta I = -40$) balioko enpresak suntsitzen direla, eta, suntsitze hori konpentsatzeko, estatuak kopuru bera gastatzen duela galdutakoa berreskuratzeko ($\Delta G = 40$). Ekonomiako ekoizpen-maila berria handitu edo txikitu egingo da bi hazkunderen efektu biderkatzaileak kontuan hartu ondoren? Azaldu. Eta estatuak gastu publikoa handitu beharrean zerga-bilketa kopuru berean murriztu izan balu ($\Delta T = -40$), Y_E horren gaineko azken eragina berdina izango litzateke?

Lehenengo kasuan, estatuak inbertsioak behera egitea konpentsatzen du, gastu publikoa handituta. Bi efektuak elkarrekin kontuan hartuz gero, EA ez litzateke aldatuko (alde batetik jaisten den gastua beste alde batetik igotzen da), eta efektu biderkatzailea nulua izango litzateke gure eremuan. Praktikan, gerta daiteke efektu biderkatzailea nulua ez izatea, suntsitzen den inbertsioaren egituraren eta gastu publiko berriaren banaketaren arabera.

Bigarren kasuan, efektu biderkatzailea positiboa izango da, gastu publikoak zuzenean eragiten baitu eskari agregatuan (gastu osoaren osagaia da); zergek, aldiz, zeharka eragiten dute gastu agregatuan (familien kontsumoaren determinatzaileak dira).

4. KAPITULUKO **TEST** ERAKO GALDEREN SOLUZIOAK

- | | | | | |
|------|------|------|------|-------|
| 1) b | 3) d | 5) b | 7) a | 9) b |
| 2) b | 4) e | 6) e | 8) b | 10) a |

4. KAPITULUKO **EGIA** ALA **GEZURRA** GALDEREN SOLUZIOAK

1. **Gobernuak gastu publikoa kantitate jakin bat handitzen badu, denboraldi bat igaro ondoren, *ceteris paribus*, ekoizpenaren arrail atzerakorra kantitate bera murriztuko da.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Baieztapen hau gezurrezkoa da, gastu publikoak ekonomiaren ekoizpen- eta errenta-mailan duen efektu biderkatzailea erabat ahazten baitugu.

Biderkatzailearen eraginez, gastu publikoa kopuru jakin bat handitzen bada, ekonomian ekoizpena kopuru handiagoan handituko da (gogoan izan $m > 1$ baino handiagoa dela beti). Beraz, ekonomiaren arrail atzerakorra murriztu egingo da, baina gastu publikoa baino zenbateko handiagoa.

2. Esportazioak eta inportatzeko joera marjinala eskari agregatuaren osagaiak dira, eta kanpo-sektorearekin lotuta daude.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Zein dira eskari agregatuaren osagaiak? Berrikus dezagun hau, argi geratzeko.

Eskari agregatua erosi nahi duten eta azkenean herrialdearen barruan ekoiztako ondasunak erosten dituzten eragile ekonomikoek egiten dute. Lehenik, kontsumo pribatua egiten duten familiak daude (K hizkiarekin identifikatzen duguna). Bigarrenik, inbertsio pribatua egiten duten enpresa pribatuak daude (I hizkiarekin sinbolizatzen duguna). Hirugarrenik, estatua dago, erosketak gastu publikoaren bidez egiten dituen (G hizkiarekin laburtzen duguna). Eta, azkenik, kanpo-sektorea dago; azken horrek barruko ekonomiaren gain duen gastu-nahia esportazio garbien bidez laburtzen dugu (X-N), hots, esportazioen eta inportazioen arteko aldearen bidez.

Laburbilduz eta enuntziatuari estu-estu lotuta, esportazioak eskari agregatuaren osagaiak dira. Hala ere, inportatzeko joera marjinala eskari agregatuaren osagaia barik determinatzailea da, inportazioen bidez. Hau da, inportatzeko joera marjinalak inportazioen balioa zehaztuko du errentaren bidez.

3. Gastu publikoaren eraginkortasunari begira, ekonomiaren tresna aktibatzailea den aldetik, komenigarria izango litzateke inportatzeko joera marjinal albait txikiena egotea.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Gastu publikoak ekoizpena aldatzeko duen eraginkortasuna biderkatzailearen balioaren araberakoa da. Beraz, hemen planteatzen zaizuen galdera hau da: noiz da handiagoa biderkatzailea, inportatzeko joera marjinala handia denean edo inportatzeko joera marjinala txikia denean?

Ekonomia bat kanpora zenbat eta itxiago egon, inportatzeko joera marjinala txikiagoa izango da. Horrek esan nahi du gastu publikoa handitzen denean, errentaren ehuneko txikiagoak egingo duela ihes kanpora inportazioak ordaintzeko. Inguruabar horietan, gastu publikoak ekonomiaren ekoizpenaren gain duen eraginkortasuna handiagoa izango da, biderkatzailearen balioa handiagoa izango delako.

4. Politika fiskal baten bidez, posible da aldi berean inflazioaren eta atzeraldiaren aurka borroka egitea.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Ekonomiaren ekoizpen-maila handitzea eta inflazio-tasa txikitzea, printzipioz, helburu bateraezinak dira makroekonomia keynestarrean. Hori dela eta, horiei aurre egiteko, aurkako politika fiskalak erabiltzen dira.

Politika fiskal hedatzailea erabiltzen da atzeraldi ekonomikoei aurre egiteko eta hazkunde ekonomikoa sustatzeko. Gastu publikoa handituta eta zergak murriztuta, eskari agregatua handitu nahi da eta, beraz, baita jarduera-maila ere. Zernahi gisaz, BPGd-ren hazkunde horren eraginez, prezioek gora egiten dute, eta ez behera.

Aitzitik, politika fiskal murriztaileak, antiinflazionista ere esaten zaionak, prezioen gorakadari aurre egin nahi dio ekonomia hoztuta. Hau da, inflazio-tasei eutsi nahi zaie eskari agregatua gutxituta, gastu publikoa murriztearen eta zergak handitzearen bidez.

5. Efektu biderkatzaileak alderantzizko lotura du ekonomiaren zerga-tasarekin. Beraz, zerga-tasa zenbat eta handiagoa izan, txikiagoa izango da biderkatzailea.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Baieztapen hau egiazkoa da, eta logikaren zein zenbakien bidez arrazoitu daiteke.

Arrazonamendu logikoa jarraian azalduko dizuet. Zerga-tasa zenbat eta handiagoa izan, errenta-igoeren kopuru handiagoa estatuak eramango du zerga itxuran. Beraz, familien errenta erabilgarriaren hazkundera txikiagoa izango da. Horrek kontsumoaren aldaketa txikiagoa ekarriko du eta, horren ondorioz, efektu biderkatzaile txikiagoa.

Zenbakien bidez egiazta daiteke, biderkatzailearen formulatan t parametroa handituta zer gertatuko litzatekeen ikusiko bagenu. t parametroak gora egiten badu, $c(1-t)$ adierazpenaren emaitzak behera egiten du. Adierazpen horren balioa gutxituta, biderkatzailearen izendatzaileak gora egiten du: $1 - c(1-t)$. Eta izendatzaile horren igoeraren ondorioz, biderkatzailea txikiagoa izango da.

Matematikoki egiaztatzeko, biderkatzailearen adierazpena t parametroarekiko deribatu eta emaitza zero baino txikiagoa dela egiaztatzen da.

6. Egonkortzaile fiskal automatikoaren adibide bat enpresek teknologian egindako inbertsioa izan daiteke.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Egonkortzaile automatikoak mekanismo fiskalak dira (zergak edo gobernuaren gastuak), eta existitze hutsagatik eta agintariek zuzeneko aldaketarik egin gabe, modu antiziklikoan jarduten dute. Hau da, batez ere zerga aurrerakorrak eta mota sozialeko gastuak (transferentziak) dira, BPGd errearen fluktuazioak modu automatikoan murriztea lortzen dutenak: hedatzeak mugatu eta atzeraldiak leuntzen dituzte.

Definizio horren arabera, teknologian egindako inbertsioa ez da egonkortzaile automatikoa, ez baita tresna fiskala. Ez dira zerga progresiboak ez transferentzia arruntak, hala nola langabezia-asegurua.

7. Politika fiskalak inflazio-ondorioak ditu beti. EGIA GEZURRA***Azalpena***

Inflazioak ekonomia bateko prezioen gorakada orokor eta jarraitua esan nahi badu, politika fiskalak prezio gehienen goranzko hazkundea ekarriko du beti? Erantzuna, argi dago, EZ da.

Politika fiskal murriztaileak kontrako efektua du: politika antiinflazionista da, eta inflazio-tasak murriztu nahi dira (prezioek behera egitea edo horrenbeste ez igotzea). Politika fiskal hedatzaileak ere, enplegu osoko mailatik oso urrun gaudenean (geldialdi handiko egoerak), ia-ia ez du efekturik prezioetan, ekoizpenean baino ez (hau da eredu keynestarraren oinarritzko kasua).

8. Ekonomiaren jarduera-mailan duen inpaktuaren ikuspuntutik, berdin da gobernuak 10 milioi euro gastatzea edo zerga-bilketa 10 milioi euro murriztea. EGIA GEZURRA***Azalpena***

Biderkatzaile orekatuaren aurrekontuaren teoriaren arabera, gastu publikoaren aldaketak eskari agregatuan duen efektua zergen zenbateko bereko aldaketa baino handiagoa da.

Gastu publikoa eskari agregatuaren osagaia da ($EA = K + I + G + X - N$). Beraz, adibidez, G 10 milioi euro handitzeak 10 milioi horietan efektu biderkatzailea abiatzen du, ez gehiago ez gutxiago.

Aitzitik, zergak ez dira eskari agregatuaren osagaia, horren determinatzailea baino, kontsumo pribatuaren bidez. Zergak 10 milioi murrizteak printzipioz ez du esan nahi eskari agregatua 10 handituko denik: jendeak zergen murrizketa horren zati bat aurrezteak erabaki dezake. Aurrezki hori egiten bada, efektu biderkatzailea 10 baino kopuru txikiagoaren gain abiatuko da.

9. Atzeraldian defizit publikoak gora egitea (edo superabita murriztea) itxaron behar dugu, sektore publikoak atzeraldiaren aurkako politika fiskalik hartu ez arren. EGIA GEZURRA***Azalpena***

Aurrekontu-saldoa bi arrazoi independente direla-eta alda daiteke: tresna fisikaletan aldaketak daudelako (zergak eta gastu publikoa) eta koiuntura ekonomikoan aldaketak daudelako (ekoizpen-maila). Enuntziatuan azken kasu hori aipatzen da.

t eta G aldatu ez arren, atzeraldi batean ekoizpen-maila murrizten bada, zerga gutxiago bilduko dira, jendearen sarrerak txikiagoak izango direlako. Horrek esan nahi du gobernuaren zerga-bilketa txikiagoa izango dela, eta aurrekontu-saldoak behera egingo duela.

10. Ekonomian biderkatzaile bakarra dago. Hala ere, biderkatzaile horren azpiindizea zehaztuko du aldatzean orekako errenta-mailan aldaketak eragiten dituen aldagai induzituak.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Egia da ekonomian biderkatzaile bakarra dagoela. Hala ere, horrekin batera dagoen azpiindizeak ez du adierazten orekako errentan aldaketak eragiten dituen aldagai induzitua, ez-pada zein den aldatzean Y_E horretan aldaketak eragiten dituen aldagai autonomoa.

4. KAPITULUKO PAREKATZEEN SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Mekanismo fiskal hauek modu automatikoa jartzen dira martxan, agintariek ekintza kontzienterik egin gabe.	GASTU PUBLIKOAREN BIDERKATZAILE KEYNESTARRA	3
2	Zenbaki honen bidez adierazten da nazio-errentaren zein ehuneko gastatuko den barne-ondasun eta zerbitzuetan soilik.	SUPERABIT PUBLIKOA EDO AURREKONTU-SUPERABITA	5
3	Zenbaki honen bidez neurtzen da gastu publikoaren hasierako aldaketaren eta gastu publiko horrek eragindako ekoizpen-mailaren azken aldaketaren artean dagoen lotura.	DEFIZIT PUBLIKOA EDO AURREKONTU-DEFIZITA	4
4	Egoera honetan, estatuaren gastuak sarrerak baino handiagoak dira.	BARNE-ONDASUNETAN GASTATZEKO JOERA MARJINALA	2
5	Egoera honetan, estatuaren sarrerak gastuak baino handiagoak dira.	EGONKORTZAILE AUTOMATIKOAK	1

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Estatuak eskainitako gizarte-zerbitzuen multzoa, herritarrei gizarte-babeseko oinarritzko gutxiengoak bermatzen dizkiena.	ONGIZATE-ESTATUA	1
2	Estatuak ondasun eta zerbitzuen arloan egindako erosketak, kontsumo zein kapital motakoak.	GASTU PUBLIKOA	2
3	Eskari agregatuaren murrizketa lortzera eta, horrekin, BPGd-ren hazkundea mugatzera bideratutako neurri fiskal guztiak dira.	ESPORTAZIOAK	5
4	Egoera honetan, inportazioen balioa esportazioen balioa baino txikiagoa da.	KANPO-SUPERABITA	4
5	Herrialde bateko ondasunak eta zerbitzuak atzerrira saltzea.	POLITIKA FISKAL MURRIZTAILEA	3

4. KAPITULUKO SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Estatuko sarreren eta gastuen arteko aldea da.	SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU-SALDOA	1
2	Parlamentuan onartutako dokumentu honetan, estatuak urte natural baterako aurreikusita dituen gastuak eta sarrerak jasotzen dira.	ZEHARKAKO ZERGAK	4
3	Zerga hauek errenta lortzea edo aberastasuna izate hutsa kargatzen dute.	ESTATUKO AURREKONTU-LEGEA	2
4	Zerga hauek pertsonen gastua kargatzen dute, oro har, ondasunak eta zerbitzuak erostean.	ZERGA GEHIKORRAK	5
5	Zerga hauen kasuan, gizabanakoaren errenta handitzean, zergak gizabanakoaren errentaren barruan duen ehunekoa ere handitu egiten da.	ZERGA ZUZENAK	3

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Herrialde batek atzerrian ekoiztutako ondasunak erostea.	ZERGAK	4
2	Esportazioen balioaren eta inportazioen balioaren arteko aldea da.	ESPORTAZIO GARBIAK	2
3	0 eta 1en arteko zenbaki honek adierazten digu nola aldatzen diren herrialde bateko inportazioak errenta handitzen denean.	KANPO-DEFIZITA	5
4	Estatuak gastu publikoari aurre egiteko funtsak bilitzeko ezartzen dituen tributu guztiak.	INPORTAZIOAK	1
5	Egoera honetan, inportazioen balioak esportazioen balioa gainditzen du.	INPORTATZEKO JOERA MARJINALA	3

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Gastu publikoak eta zergak kontrolatu eta aldatzea da, helburu makroekonomiko nazional jakin batzuk lortzeko.	POLITIKA FISKAL HEDATZAILEA	2
2	Eskari agregatuaren hazkundera lortzera eta, horrekin, BPGd-ren hazkundera sustatzera bideratutako neurri fiskal guztiak dira.	JOHN MAYNARD KEYNES	5
3	Estatuak jaulki eta gizabanakoen esku dauden zor-tituluz guztien balioa.	AURREKONTU OREKATUA	4
4	Egoera honetan, estatuaren sarrerak eta gastuak berdinak dira.	POLITIKA FISKALA	1
5	Ekonomialari britainiar honek proposatu zuen lehen aldiz eskari agregatuaren teoria. Hain zuzen ere, teoria horrek justifikatzen du politika fiskal hedatzailea krisialdi ekonomiko sakonean.	ZOR PUBLIKOA	3

4. kapituluaren. AUTOEBALUAZIORAKO GIDA

- 1. Jo dezagun herrialde baten gobernurako hauteskunderetan alderdi politiko batek hauteskunde-programan aurrekontu-orekari eusteko konpromisoa duela beti ($T = G$), BPGd-ren hazkunde-tasa edozein izanda ere. Aitzitik, oposizioko alderdiak koiuntura ekonomikoaren arabera aurrekontu-saldo publikoa aldatzea defendatzen du: gastu publikoa handitzea eta zergak txikitzea ekonomiak geldialdia badu, eta, bestela, gastu publikoa txikitzea eta zergak handitzea hedapen indartsua badago. Aurrekontu publikoari buruzko bi aukeretako zein iruditzen zaizu egokiena? Zergatik?**

Beti aurrekontu-orekari eustekak esan nahi du ekoizpen-mailak behera egiten duenean gastu publikoak ere behera egin behar duela, zerga-bilketa txikiagoa izango baita ($\Delta T = \Delta G$). Eta kontrako kasuan, ekoizpenak gora egiten badu, gastu publikoak ere gora egin beharko luke, kasu honetan zergen ondoriozko sarrerak handiagoak izango baitira. Bi kasuetan, efektua hazkunde ekonomikoaren igoerak zein jaitsierak areagotzea izango litzateke, eta horren eraginez arazok okerrera egingo lukete, hala nola langabezia atzeraldietan eta inflazioa ekonomia-goraldietan.

Bigarren aukera Keynesek defendatutakoa izan zen: atzeraldietan defizita izatea jarduera ekonomikoa bultzatzen duten politika fiskal hedatzaileen bidez, eta hazkunderako aldeko koiunturak aprobetxatzea superabit publikoak sustatzeko politika fiskal murriztaileen bidez. Oro har, aldi makurretako defizitak aldi onetako superabitekin konpentsatuko lirateke. Modu horretan, aurrekontu-orekari buruz hitz egingo genuke, baina ez une guztietan, epe luzeko batez besteko moduan baino.

- 2. Nola eragingo dute neurri hauek herrialde bateko gaur egungo defizit publikoan? Azaldu zergatik.**

- a) Botiken koordainketarako legea onetsi da. Erretirodunek, iraganean botikengatik ordaindu behar ez zuten arren, kopuru sinbolikoa ordaindu behar dute orain.

Defizit publikoa gutxitzea...

- b) Erretiroa hartzeko adina hiru urte atzeratu da, 65 urtetik 68 urtera, pentsioaren % 100 kobratzeko.

Defizit publikoa gutxitzea...

- c) Funtzionarioen soldata handitzeko legea onetsi da, azken urteetan galdutako erosteko ahalmena berreskuratu ahal izateko.

Defizit publikoa handitzea...

- d) Gizarte-bazterketaren arriskua saihesteko, gobernuak sarrerak bermatzeko errenta sortu du gutxieneko beharrezanez erantzun ezin dieten familientzat.

Defizit publikoa handitzea...

- e) Kutsadura-arazoak gero eta handiagoak direnez, kutsatze-jarduera guztietarako zerga multzoa sortu da, ibilgailuen trafikoari zein enpresen isurketei eragiten diena.

Defizit publikoa gutxitzea...

3. Jo dezagun ekonomia batean orekako ekoizpen-maila $Y_O = 7.000$ dela, enplegu osoko ekoizpen-maila $Y_{EO} = 9.000$, eta gastu publikoa $G = 2.240$. Kalkulatu:

- a) Aurrekontu publikoa orekatuta badago ($AS = 0$), zein izango da ekonomiaren t zerga-tasa? Zein izango dira aurrekontuaren osagai estruktural eta ziklikoa, kasu honetan?

$$\begin{aligned} AS = 0 &\Rightarrow t = 0,32 \\ AS_{EO} &= 640 \\ AS_{ZIK.} &= -640 \end{aligned}$$

- b) Jo dezagun orain ekonomiak atzeraldia duela, eta orekako errenta $Y_O = 5.000$ izatera jais-ten dela. Zer defizit egiten du gobernuak a) ataleko zerga-sistemari eusten badio? Nola al-datuko dira osagai estrukturala eta koiunturala?

$$\begin{aligned} \Delta AS &= -640 \\ \Delta AS_{EO} &= 640 \\ \Delta AS_{ZIK.} &= -1.280 \end{aligned}$$

4. Gobernuak PIVE edo Ibilgailu Eraginkorretzako Pizgarrien Programa jarri du abian. Hori dela bide, 2.000 euroko diru-laguntza emango da ibilgailu berria erosteko. Programa horren aurrean, aldeko eta kontrako argudioak sortu dira:

- *Aldeko argudioa.* Automobil-sektoreari emandako diru-laguntzak gobernuaren gastu zuzena dira, baina azken efektua, atzeraldi handiko egoera batean, optimoa izan daiteke baliabide geldiak lanean jartzeko.
- *Kontrako argudioa.* Ibilgailuen erosketak diruz laguntzearen eraginez, atzerritik datozen ibilgailuen inportazioa sustatuko da eta merkataritza-defizitak txarrera egingo du. Diru-laguntzetan egindako gastu hori herrialderako askoz errentagarriagoak diren beste jarduerak batzuetan erabili beharko litzateke.

Erabili gastu keynestarraren biderkatzailearen kontzeptua bi argudioetako bakoitza azaltzeko. Hau da, adierazi zer efektu biderkatzaile dagoen argudio bakoitzaren atzean.

Aldeko argudioak aipatzen du politika fiskal hedatzaileak ekonomia suspertzeko duen indarra (kasu honetan, ibilgailuen sektoreari laguntza publikoak emanda), gastuaren gorakadaren handitze efektuaren bidez (espazioan zein denboran), gehiegizko ekoizpen-ahalmena dagoenean eta baliabideak oso gutxi erabiltzen direnean. Hau da, gastua zenbat eta handiagoa izan, ekoizpena handiagoa izango da, gastua handiagoa, ekoizpena handiagoa, eta horrela etengabe, sekuentzia infinitu baina konbergentean.

Aurkako argudioak oinarri du gastuaren efektu biderkatzailearen muga, kanpoarekin dituen merkataritza-harremanetan ekonomia oso irekita dagoenean. Zehatz esanda, nazio-gastuaren zati handi bat atzerrira desbidera daiteke kontsumoa (kasu honetan, ibilgailu berriak diruz lagunduta erostea) herrialdetik kanpo egindako ekoizpenetara bideratzen bada. Kasu honetan, argi dago hasieran hazkundearen motor moduan ezarritako efektu biderkatzaileak nabarmen behera egingo lukeela.

5. Asmatu prentsako titular bat kasu hauetako bakoitzerako:

- a) Politika fiskal diskrezional hedatzailea, gastuari dagokionez.
TITULARRA: (Gastu publiko mota bat handitzen laguntzen duen neurri bat onartzea)
- b) Politika fiskal diskrezional murriztailea, zergei dagokienez.
TITULARRA: (Zerga mota bat handitzen laguntzen duen neurri bat onartzea)
- c) Egonkortzaile automatikoa, sarrera publikoei dagokienez.
TITULARRA: (Zikloarekin zerga-bilketa nola aldatzen den deskribatzea)
- d) Egonkortzaile automatikoa, gobernuak transferentzietan egindako gastuei dagokienez.
TITULARRA: (Zikloarekin laguntza publikoak nola aldatzen diren deskribatzea)
- e) Politika ekonomikoaren neurria, fiskala ez dena.
TITULARRA: (Zergekin eta gastu publikoarekin loturarik ez duen edozein neurri)

6. Jo dezagun aldagai makroekonomiko hauek eta ereduaren jokabide-ekuazio hauek ditugula:

- a) Ekonomia honetan, gastatzeko zer joera marjinal erabili beharko zenuke biderkatzailea kalkulatzeko: c , $z = (1 - t)$ edo $z_i = [c(1 - t) - n]$? Zergatik? Kalkulatu hautatu duzun joera eta interpretatu. Orain, erabili lortutako balioa gastuaren biderkatzailea ere kentzeko, eta interpretatu lortutako balioa.

z_i hautatuko dugu.

$$z_i = 0,63$$

z_i horren interpretazioan jaso behar da, *ceteris paribus*, ekoizpen-mailaren aldaketaren eta barruko ondasunen kontsumoaren aldaketaren arteko lotura, zergak kendu ondoren.

$$m = 2$$

m horren interpretazioan jaso behar da, *ceteris paribus*, gastu autonomoaren mailaren aldaketaren eta ekonomiaren ekoizpen-mailaren arteko lotura.

- b) Behin biderkatzailea kalkulatuta, bilatu orekako errenta (Y_0), errenta erabilgarria (Y^e), kontsumoa (K), inportazioak (N) eta esportazio garbiak (XN). Egiaztatu datu horiek zuzenak direla Y_0 deskonposatu eta gastuaren osagaiak lortuta ($K + I + G + X - N$).

$$Y_0 = 1.000 \text{ m.u.}$$

$$Y^e = 700 \text{ m.u.}$$

$$K = 640 \text{ m.u.}$$

$$N = 130 \text{ m.u.}$$

$$XN = -30 \text{ m.u.}$$

- c) Aurreko orekako errentarekin (Y_O), lortu zerga-bilketa (T) eta aurrekontu-saldoa (AS). Deskonposatu aurrekontu-saldo hori, eta lortu osagai estruktural eta ziklikoa. Interpretatu lortutako emaitzak. Adierazi hiru aurrekontu-saldo horiek orekako errentaren ehuneko moduan.

$$T = 300 \text{ m.u.}$$

$$AS = 200 \text{ m.u.} \quad (\text{BPGd-ren } \% 20\text{ko superabit publikoa})$$

$$AS_{EO} = 350 \text{ m.u.} \quad (\text{BPGd-ren } \% 35\text{eko superabit estrukturala})$$

$$AS_{ZIK.} = -150 \text{ m.u.} \quad (\text{BPGd-ren } \% 15\text{eko defizit ziklikoa})$$

- d) Biderkatzailearen teoria aplikatuz, ekonomia honetan zein izango da ekoizpen-maila berria (Y_O) inbertsioa 75 unitate handitzen bada ($DI = 75$)? Zein izango da ateratzen den arrail atzerakorra? Eta aurrekontu-saldoaren aldaketa?

$$\Delta Y = 150 \text{ m.u.} \Rightarrow Y_O = 1.150 \text{ m.u.}$$

Arrail atzerakorra: 350 m.u.

$$\Delta AS = 45 \text{ m.u.}$$

- e) Enuntziatuko hasierako datuen arabera, gobernuak zenbat handitu beharko luke gastu publikoa (DG) enplegu osoa lortzeko? Zein izango da aurrekontu-saldoaren aldaketa?

$$\Delta G = 250 \text{ m.u.} \Rightarrow \Delta AS = -100$$

- f) Jo dezagun esportazioek 50 behera egiten dutela ($\Delta X = -50$) eta gobernuak gastu publikoa zenbateko berean handitzen duela ($\Delta G = 50$). Ekonomian ekoizpen-maila berriak gora edo behera egingo du bi hazkunderen efektu biderkatzaileak kontuan izan ondoren? Zergatik?

$$\Delta Y = 0 \text{ (Gastu agregatuaren konpentsazio osoa)}$$

5. kapituluko soluzioak

5.1. Zer da dirua?

1. Errentaren eta aberastasunaren arteko bereizketa erabiliz, iruzkindu esaldi ezagun honen esanahia: «Txiroa ez da gutxi irabazten duena, asko gastatzen duena baino».

Hemen fluxu erako aldagaia eta stock erako aldagaia bereizi behar dira. Errenta fluxu erako aldagaia da, hots, denbora-unitate bakoitzeko jasotako sarrera kopurua (soldatak, dibidenduak, etekinak interesengatik, alokairuak...). Aitzitik, aberastasuna data batera arte metatutako aktibo guztien (errealak eta finantzarioak) balioa da, normalean, jasotako sarrereren zati batekin eskuratutakoa.

Bereizketa horren arabera, errenta txikia duen (gutxi irabazten duen) eta sarrera horietatik nahiko aurrezten duen (gutxi gastatzen duen) pertsonak, urte batzuk igaro ondoren, aberastasun garbi handia izan dezake, errenta handia duen (asko irabazten duen) eta aurreztu edo irabaziak beste aktibo batzuetan materializatu ez dituen (asko gastatu duen) pertsona batek baino handiagoa.

2. Jo dezagun herrialde jakin batek porrot egiten duela, eta fakturak ordaindu ezin dituzenez, zor-agiri (edo ordainketa-konpromiso) batzuk igortzen dituela bankuentzat eta enpresa handientzat. Erakunde horiek onartzen badute eta zor-agiri horiek zorrak ezeztatzeke erabiltzen badituzte, dirutzat har ditzakegu herrialde horri begira?

Ez. Dirua da ondasunen eta zerbitzuen edozein transakzio egiteko eta zorrak kitatzeko oro har aitortuta eta onartuta dagoen ordainbidea. Kasu honetan, zor-agiriak edo ordainketa-konpromisoak ekonomiako erakunde jakin batzuen artean soilik onartuko dira (bankuak eta enpresak). Ez da izango herrialde horretako herritar guztiek onartu eta erabilitako ordainbidea.

3. Jo dezagun tribu jakin bateko biztanleek obsidiana karratuak erabiltzen dituztela diru moduan. Bat-batean harri bolkaniko horren kopuru agorrezinak dituzten hobiak agertzen badira, zer eragin izango du aurkikuntza horrek obsidiana diru moduan erabiltzeko? Azaldu erantzuna.

Diru moduan erabilitako merkantziaren ezaugarri bat da, balio ekonomikoa izateko, urria dela edo eskaintza mugatua duela, eta horregatik aitortzen dute pertsonak ondasunen eta zerbitzuen trukeetan. Obsidiana ugaria izango balitz, kopuru mugagabea, ez litzateke ordainbide egoia izango tribuarentzat eta material berria bilatu beharko litzateke diru moduan erabiltzeko. Hala ere, agintari politikoak ahalegindu daitezke obsidianari ezaugarri partikular berriak ematen, faltsu-

tzeko zailak direnak, berriro ere urria izan dadin (adibidez, grabazio bat, diseinu jakin bat, nahastea metal edo mineralen batekin, etab.), eta diru moduan erabiltzen jarraitu ahal izateko.

4. Errenazimentuan (xv. eta xvi. mendeetan), urregileek, metal preziatuen kopuru handien zaindariak eta gordailuzainak zirenez, banku-sistema modernoaren oinarriak ezarri zituzten. Zein dira gaur egunera arte iritsi diren ezaugarri edo jokabide-arau horiek? Azaldu labur-labur.

Hauek dira aipa daitezkeen ezaugarri batzuk:

- a) Urregileekin, bi diru mota elkarrekin egoten hasi ziren: txanpon metalikoa (diru-agintarien kontrolpean jaulkia) eta zor-agiria edo paper-dirua (urregileek jaulkia, mailegu-emai-leak ziren neurrian).
- b) Urregileek jaulkitako dirua gaur egun merkataritza-bankuek sortutako banku-diruaren parekoa da, kredituak emateko ahalmena baitute.
- c) Banku-diruak likidezia apur bat izan behar du merkataritza-bankua kaudimengabea izan ez dadin, bezeroen funtsak kentzen baldin badira.
- d) Banku-diruaren sorrerak mailegu-emaielen (bankuak edo urregileak) jardun ona du oinarri: ospe ona izan behar da, eta kredituak ematerakoan ez da arriskurik hartu behar. Hori dela eta, balizko porrotak saihesteko, Banku Zentralak kreditu-bolumenari mugak jartzen dizkio; izan ere, irekitako gordailuen zati bat aktibo likidoen erreserba moduan gordetzea ezartzen du.
- e) Diru-jaulkipen guztiek kontrapartida izan behar dute. Ezin da dirurik jaulki norberaren erabakimenez edo ekimenez.

5. Jo dezagun Carlosek Mariari 1.000 €-ko mailegua itzultzen diola txeke baten bidez. Ekonomiaren diru kantitatea gutxitu da eragiketa horrekin? Zergatik? Eta Carlosen eta Mariaren aberastasunak?

Carlosek Mariari mailegua itzultzen dionean, diru kantitatea ez da aldatu, eskuak edo titular-tasuna aldatu ditu, besterik ez. Txekearen bidez, dirua Carlosen banku-kontutik Mariaren kontura transferitzen da. Gogoan izan behar da hemen txekeek ez dutela dirurik ez sortzen ez suntsitzen.

Hala ere, Carlosek Mariari zorra ordaintzean, Carlosen aberastasuna murriztuko da Mariarena handitzen den neurri berean. Hau da, Carlos 1.000 euro txiroagoa da eta Maria 1.000 euro aberatsagoa.

5.2. Diru-eskaria

6. Jo dezagun errenta finkoko bonua daukagula, arriskurik gabea, urtean 60 euro ordaintzen dituen beti. Kalkulatu atal hauetako bakoitzean eskatzen zaizuna:

- a) Bonuaren errentagarritasuna (ordainduko duen interes-tasa), prezioak hauek badira:

i. 1.200 euro

$$\text{Errentagarritasuna} = 60 / 1.200 \cdot 100 = \% 5$$

ii. 2.400 euro

$$\text{Errentagarritasuna} = 60 / 2.400 \cdot 100 = \% 2,5$$

iii. 750 euro

$$\text{Errentagarritasuna} = 60 / 750 \cdot 100 = \% 8$$

- b) Errenta finkoko bonu horren truke ordainduko lukeen gehiengoa, merkatuko interes-tasak hauek badira:

iv. % 4

$$\text{Bonuaren prezioa} = 60 / 0,04 = 1.500 \text{ €}$$

v. % 2

$$\text{Bonuaren prezioa} = 60 / 0,02 = 3.000 \text{ €}$$

vi. % 6

$$\text{Bonuaren prezioa} = 60 / 0,06 = 1.000 \text{ €}$$

vii. % 5

$$\text{Bonuaren prezioa} = 60 / 0,05 = 1.200 \text{ €}$$

7. Margaritak malenkoniaz oroitzen du, ezkondu zenean, aurrezkien libretan batez beste 600 euroko saldoa izaten zuela hileroko (antzinako 100.000 pezeta gutxi gorabehera). Gaur, 25 urte geroago, bi seme-alaba eta gehiegizko pisua duen senarra dituela, aurrezki-libretaren batez besteko saldoa 2.100 eurokoa da. Hala ere, Margaritak uste du, bankuan diru gehiago duen arren, erosteko ahalmena ia-ia ez zaiola aldatu 25 urte hauetan.

Inflazio-tasen arabera prezioen maila 3,5ekin biderkatu bada 25 urte hauetan, nola aldatu da Margaritaren bankuko diruaren eskari erreala? Arrazoa du Margaritak erosteko ahalmenari buruz duen iritzian? Eta prezioak 4rekin biderkatu izan balira?

Margaritaren diru-eskari erreala kalkulatu ditugu gaur egun eta duela 25 urte. Horretarako, une horietako prezio-mailak eta diru-eskari nominalak zatitu ditugu. Horretarako, oinarri- edo erreferentzia-urte moduan hartzen baditugu duela 25 urteko prezioak ($P_0 = 1$) eta prezioak 3,5ekin biderkatu direla jotzen badugu ($P_1 = 3,5$), hau lortuko dugu:

$$\text{Diru-eskari erreala duela 25 urte (oinarri-urtea)} = M^D_1 / P_1 = 600 / 1 = 600 \text{ €}$$

$$\text{Gaur egungo diru-eskari erreala} = M^D_1 / P_1 = 2.100 / 3,5 = 600 \text{ €}$$

Margaritaren ustea zuzena da: diru-eskari erreala edo bankuko kontuko batez besteko saldoaren erosteko ahalmena ez da aldatu: gaur egungo 2.100 euroekin, batez beste, duela 25 urteko 600 euroekin eros zitezkeen ondasun eta zerbitzu berberak eskura ditzake. Bestela esanda, bankuko batez besteko saldoa handitu da prezio-mailaren proportzio berean.

Prezioak 4rekin biderkatu direla jotzen badugu, kalkulu bera egingo dugu, baina orain, $P_2 = 4$:

$$\text{Diru-eskari erreala duela 25 urte (oinarri-urtea)} = M^D_1 / P_2 = 600 / 1 = 600 \text{ €}$$

$$\text{Gaur egungo diru-eskari erreala} = M^D_1 / P_2 = 2.100 / 4 = 525 \text{ €}$$

Orain, diru-eskari erreala behera egin du (prezioek bankuko batez besteko saldoa baino ehuneko handiagoan egin dute gora). Margaritaren erosteko ahalmena txikiagoa da. Zehatz esanda,

gaur egungo 2.100 euroekin, duela 25 urteko 525 euroekin eros zitezkeen gauza berberak eskura daitezke, hau da, lehen aurrezten zituen 600 euro baino 75 euro gutxiago. Ehunekotan, diru-eskari errealak % 12,5 egin du behera ($75/600 \cdot 100$).

5.3. Banku-diruaren sorrera

8. Bi anaia dira, Juanito eta Jaimito. Juanito ez da bankuez asko fidatzen eta, beraz, eskudiruzko gordailuen koefizientea $e = 1,5$ da. Jaimito, aldiz, banku-sistemaren defendatzaile sutsua da, eta, beraz, eskudiruzko gordailuen koefizientea oso txikia da bere kasuan: $e = 0,01$. Juanitok eskudirutan 3.000 euro baditu, eta Jaimitok 20 euro bakarrik, bietako nork dauka diru gehien bankuan sartuta?

Eskudiruzko gordailuen koefizientearen formula erabiliko dugu.

$$e = \text{EMP} / D$$

Juanitoren kasua:

$$e = 1,5 \Rightarrow 1,5 = 3.000 / D \Rightarrow D = 3.000 / 1,5 = 2.000 \text{ €}$$

Jaimitoren kasua:

$$e = 0,01 \Rightarrow 0,01 = 20 / D \Rightarrow D = 20 / 0,01 = 2.000 \text{ €}$$

Banku-sektorean jarritako konfiantzan dituzten aldeak gorabehera, bi anaiek diru kantitate bera dute gordailu eran. Eskudiruzko gordailuen koefizienteetan duten aldea eskudiruaren kantitateen artean duten aldearen proportzionalki berdina da.

9. Herrialde batean dagoen diru legalaren kantitatea (txanponak eta billeteak) 10.000 m.u. da. Kalkulatu kasu hauetako bakoitzean zein den diru-oinarriaren kantitatea (MO), diru-eskaintzaren kantitatea (M), banku-kredituaren bolumena (BK), e koefizientea eta diru-biderkatzailea (m_M):

a) Jendeak diru guztia eskuan du, eta ez du ezer bankuan sartzen.

$$\text{EMP} = 10.000 \text{ eta } R = 0 \Rightarrow D = 0 \text{ (} r = 0 \text{)}$$

$$\text{MO} = \text{EMP} + R = 10.000 \text{ m.u.}$$

$$M = \text{EMP} + D = 10.000 \text{ m.u.}$$

$$\text{BK} = M - \text{MO} = 0$$

$$e = \text{EMP} / D = 10.000 / 0 = \infty$$

$$m_M = (1 + e) / (r + e) = (1 + \infty) / (0 + \infty) \Rightarrow \text{Mugak aplikatuz } m = 1$$

b) Jendeak diru legal guztia bankuetan sartua du, ez du ezer eskudirutan, baina erreserba-koefizientea % 100 da.

$$\text{EMP} = 0 \text{ eta } R = 10.000 \Rightarrow D = 10.000 \text{ (} r = 1 \text{)}$$

$$\text{MO} = \text{EMP} + R = 10.000 \text{ m.u.}$$

$$M = \text{EMP} + D = 10.000 \text{ m.u.}$$

$$\text{BK} = M - \text{MO} = 0$$

$$e = \text{EMP} / D = 0 / 10.000 = 0$$

$$m_M = (1 + e) / (r + e) = (1 + 0) / (1 + 0) \Rightarrow m = 1$$

- c) Jendeak diru legalaren kantitate bera du eskuan zein bankuetan sartuta, eta erreserba-koefizienteak % 100 izaten jarraitzen du.

$$\text{EMP} = 5.000 \text{ eta } R = 5.000 \Rightarrow D = 5.000 \text{ (} r = 1 \text{)}$$

$$\text{MO} = \text{EMP} + R = 10.000 \text{ m.u.}$$

$$M = \text{EMP} + D = 10.000 \text{ m.u.}$$

$$\text{BK} = M - \text{MO} = 0$$

$$e = \text{EMP} / D = 5.000 / 5.000 = 1$$

$$m_M = (1 + e) / (r + e) = (1 + 1) / (1 + 1) \Rightarrow m = 1$$

- d) Jendeak txanpon eta billete guztiak bankuetan sartuta ditu; orain, erreserba-koefizientea % 10 da.

$$\text{EMP} = 0, R = 10.000, r = 0,1 \Rightarrow D = R / r = 100.000 \text{ m.u.}$$

$$\text{MO} = \text{EMP} + R = 10.000 \text{ m.u.}$$

$$M = \text{EMP} + D = 100.000 \text{ m.u.}$$

$$\text{BK} = M - \text{MO} = 90.000$$

$$e = \text{EMP} / D = 0 / 100.000 = 0$$

$$m_M = (1 + e) / (r + e) = (1 + 0) / (0,1 + 0) \Rightarrow m = 10$$

- e) Jendeak diru legalaren kantitate bera du eskuan zein bankuetan sartuta, eta erreserba-koefizientea % 10 da.

$$\text{EMP} = 5.000, R = 5.000, r = 0,1 \Rightarrow D = R / r = 50.000 \text{ m.u.}$$

$$\text{MO} = \text{EMP} + R = 10.000 \text{ m.u.}$$

$$M = \text{EMP} + D = 55.000 \text{ m.u.}$$

$$\text{BK} = M - \text{MO} = 45.000 \text{ m.u.}$$

$$e = \text{EMP} / D = 5.000 / 50.000 = 0,1$$

$$m_M = (1 + e) / (r + e) = (1 + 0,1) / (0,1 + 0,1) \Rightarrow m = 5,5$$

10. Azaldu zer koefizientek (eskudiruzko gordailuak, *kutxako koefizientea* edo *legezko erreserba-koefizientea*) izango duen eragina eta zein modutan, egoera hauetako bakoitzean. Atariko azterketa horren ostean, adierazi kasu bakoitzean nola aldatuko den biderkatzailea (handitu edo txikitu egingo da?)

- a) Jendeak kreditu-txartelak gero eta gehiago erabiltzen ditu transakzio txikiak egiteko.

Jendearen esku dagoen eskudirua gutxitu (\downarrow EMP) eta banku-erreserbak zenbateko berean handitzen dira (\uparrow R). Diruaren efektu biderkatzailearengatik (hau da, banku-kredituarengatik), gordailuek erreserbek baino proportzio handiagoan egiten dute gora ($\uparrow D > \uparrow R$), eta, horren eraginez, azkenean, eskudiruzko gordailuen koefizienteak behera egiten du ($\downarrow e$). Hau da, EMP horrek pisu gutxiago izango du ekonomiako diru osoaren (M) barruan.

Esan dugun moduan, erreserbek gora egitean, herrialde osorako kreditu-hedapena handitzen du (\uparrow BK), eta hori diru-biderkatzaile handiagoaren baliokidea da ($\uparrow m_M$).

- b) Banku Zentralak bankuei nahitaezko erreserbak murriztu dizkie, sektore publikoari kredituak ematen badizkiote.

Bankuek gordailuen gain nahitaez atxiki behar duten likidezia-ehunekoak behera egiten du, edo, bestela esanda, kutxa-koefiziente legalak edo kutxa-neurriak behera egiten du

($\downarrow r_L$). Ekonomian kredituak sortzeko eta emateko ahalmenak gora egingo du ($\uparrow BK$), eta horrela mesede egingo zaio gordailu berriak irekitzeari, diru-oinarri bera izanda ($\uparrow D$). Diru-biderkatzaileak gora egiten du ($\uparrow m_M$).

- c) Atzeraldi ekonomiko indartsua dago eta, horren eraginez, bankuek bezero berankor eta kaudimengabe asko dituzte.

Bezero berankorren ordainketarik ezari aurre egiteko likidezia izateko, bankuek soberakin-erreserbak handituko dituzte gordailuen bolumen bererako. Horren eraginez, soberakin-erreserben koefizienteak gora egingo du ($\uparrow r_E$), banku-sistemak, borondatez, kreditu gehiago emateko aukera mugatzen baitu ($\downarrow BK$). Diru-biderkatzaileak behera egiten du ($\downarrow m_M$).

- d) Finantza-krisi indartsuak banku batzuen porrota eragin du, eta, horren eraginez, jendeak pesimismoa eta konfiantzarik eza sentitzen du banku-sistemaren aurrean.

Banku-sisteman konfiantzarik ez izateak eragin dezake jendeak eskudiru gehiago izatea, kontuetan edo libretetan jarritako aurrezki guztiak galtzeko arriskua ikusten dutelako ($\uparrow EMP$). a) ataleko kasuaren kontrakoa izango litzateke. Banku-erreserbek behera egiten dute ($\downarrow R$), eta kredituaren nahitaezko murrizketa dela-eta, ($\downarrow BK$), gordailuak proportzio handiagoan murrizten dira ($\downarrow D > \downarrow R$). Eskudiruzko gordailuen koefizienteak gora egingo du ($\uparrow e$), eta diru-biderkatzaileak behera ($\downarrow m_M$).

5. KAPITULUKO *TEST* ERAKO GALDEREN SOLUZIOAK

- | | | | | |
|------|------|------|------|-------|
| 1) b | 3) e | 5) c | 7) c | 9) a |
| 2) b | 4) c | 6) e | 8) e | 10) b |

5. KAPITULUKO *EGIA* ALA *GEZURRA* GALDEREN SOLUZIOAK

1. **Jendeak duen eskudirua (EMP) da jendeak (familiek eta banku ez diren enpresek) bankuetan sartuta duen diru legala.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Adierazpenak guztia esaten du: «Eskudirua jendearen ESKUETAN». EMP da banku-entitateetatik kanpo zirkulatzen ari den diru legala (billeteak eta txanponak), hau da, gizabana-koen eta gainerako enpresen esku dagoena transakzioak egiteko eta zorrak kitatzeko.

2. **Gaur egun, diru kontzeptua herrialde batean ordainbide moduan dauden txanpon eta billete legalak direla esan dezakegu.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Gaur egun, diruak bi forma hartzen ditu: diru legala (Banku Zentral nazionalak jaulkitako txanponak eta billeteak) eta banku-dirua (bankuetan irekitako gordailuen saldoak). Funtsean, praktikan erabiltzen den diru gehiena banku-dirua da, edozein unetan erabiltzeko erraza eta erosoa delako.

3. Diru-merkantzia merkantziak soilik erosteko erabiltzen dena da.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Merkantzia-diruaren definizioak esaten du ordainbide moduan zein beste erabilera bazuetarako erabil daitekeen edozein merkantzia dela. Hau da, balio intrintsekoa duen ondasun bat da, eta diru moduan zein beste desira batzuk asetzeko merkantzia moduan erabil daiteke.

4. Diru kontzeptua ikastetxeetako patioan erabiltzen da, umeek, adibidez, puxtarriak erabiltzen dituztenean beste objektu batzuk lortzeko (kromoak, gozokiak, litxarrerriak, arkatzak...).

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Dirua beste ondasun batzuekin trukatzeko edo zorrak ordaintzeko oro har onartzen den edozer gauza edo objektu izan daiteke. Diruak konfiantza du oinarri eta, beraz, umeen artean, puxtarriek diru eginkizuna izan dezakete.

5. Espainiarrek dauzkaten dolarrak Espainiako Bankuak egiten duen diru-eskaintzaren definizioan zenbatzen dira; izan ere, dolarra, Espainiako ekonomian, balio-gordailua da.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Espainiako ekonomian dolarra EZ da zenbatzen diru-eskaintzaren barruko ordainbide moduan. Hau da, dolarra ez da dirua Europako herrialde batean ere. Gogoan izan dezagun diruak hiru eginkizun bete behar dituela: ordainbidea, kontu-unitatea eta balore-gordailua izatea. Egia da dolarrak balore-gordailuaren eginkizuna bete dezakeela espainiarrentzat lurralde nazionalaren barruan, baina ez da oro har onartutako ordainbidea ez kontu-unitatea herrialdearen barruan egindako transakzio gehienetan.

6. Bankuek Banku Zentralean gordetzen dituzten gordailuen zati txiki bat bakarrik erabiltzen da bankuen arteko eragiketarako likidatzeko.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Bankuek Banku Zentralean dituzten gordailuek bi faktoreri erantzuten diete: batetik, gordailu horiek (erreserba legalak) mantentzeko betebeharrak legala eta, bestetik, bezeroek ateratzen duten eskudiruari aurre egiteko eta bankuen artean zorrak konpentsatzeko eragiketarak egiteko (soberakin-erreserba) beharrezakoa.

7. **Oro har, txiroek edo bitarteko oso gutxi dituztenek eskudiruzko gordailuaren koefiziente oso altuak dituzte (unitatea baino askoz gehiago).**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Pertsona txiroek edo baliabide gutxi dituztenek, oro har, transakzioetan erabiltzen duten eskudiruaren kantitatea bankuko saldoa baino handiagoa izaten da. Horrek esan nahi du, ziu-rrenik, EMP balioa (eskudirua jendearen eskuetan) nahiko handia izango dela D balioarekin alderatuz gero (banku-gordailuak). Horren eraginez, e koefizientea (EMP/D zatidura) handia izango da.

8. **Diru-eskaria pertsonen maileguan hartu nahi duten diru kantitatea da.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Diru-eskaria diru eran mantendu nahi den aberastasun osoaren zati moduan definitzen da, bai eskudirutan, bai banku-gordailuetan. Eta berdin dio diru hori mailegu batetik, jaraunspen batetik edo errenta sortzeko beste edozein iturritatik datorren (soldata, dibidenduak, alokairuak...).

9. **Banku bateko bezero guztiek gordailuak aldi berean likidatu nahi izango balituzte, erakundeak ez luke txanpon eta billete nahikorik izango eskaera guztiei erantzuteko.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Erantzuna banku-negozioaren kontzeptuan bertan dago eta, hedaturaz, kutxa-koefizientearen definizioan. Bankuek erreserba eran jasotzen duten diruaren zati txiki bat bakarrik gordetzen dute; gainerakoa maileguan ematen dute, eta horren truke interes-tasa bat eskatzen dute. Horrek esan nahi du banku-gordailu guztien zati txiki batek bakarrik duela likideziaren babesak. Banku-diruaren zatirik handienak, erreserba-koefizienteak oso txikiak direnean diru ia guztiak ez esatearren, ez du inolako babesik, kontuko idatzohar hutsak dira.

10. **Ceteris paribus, kutxa-koefizienteak gora egiten badu, diru-biderkatzailea murriztu egiten da, baina diru-oinarria ez da aldatzen.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Kutxa-koefizientearen aldaketak diru-biderkatzailean bakarrik du eragina. Hau da, *ceteris paribus*, kutxa-koefizienteak diru-oinarrian jarduten du, eta, horri esker, erreserba-bolumen berarekin banku-mailegu gehiago edo gutxiago eman daitezke.

Kasu honetan, kutxa-koefizienteak gora egiteak ekonomian kredituak emateko ahalmena mugatzen du, bankuek gordailuen eskaintza (eta horrekin batera kredituen eskaintza) murriztu behar dutelako, erreserba kantitate berak irudikatu behar duen ehuneko handiagora egokitzeko.

5. KAPITULUKO **PAREKATZEEN** SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Oro har onartzen den aldatzeko modua da, eta, gainera, kontu-unitate eta balio-gordailu moduan balio du.	TRUKEA	2
2	Merkantzia batzuk beste batzuekin zuzenean trukatzea da.	DIRU LEGALA	5
3	Diru mota honetan, merkantzia gisa duen balio intrintsekoa bat dator balio adierazgarriarekin.	DIRU FIDUZIARIOA	4
4	Diru mota honetan, merkantzia gisa duen balio intrintsekoa balio adierazgarria baino txikiagoa da, eta, beraz, hau onartzea konfiantzan oinarritzen da.	DIRUA	1
5	Erabilera legaleko txanpon eta billeteek osatzen duten dirua da.	DIRU-MERKANTZIA	3

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Sistemaren oinarri-likidezia da, eta kutzako aktiboen (edo erreserben) eta jendearen esku dagoen eskudiruaren arteko batura moduan kalkula daiteke.	DIRU-ESKAINNTZA	4
2	Partikularrek bankuetan dituzten gordailu edo kontuek osatzen dute, eta, horiei esker, txanponak eta billeteak trukatu gabe egin daitezke transakzioak.	BANKU-DIRUA	2
3	Bankuek modu likidoan atxiki eta kontserbatzen duten gordailuen zatia da.	BANKU-ERRESERBAK EDO KUTXA-AKTIBOAK	3
4	Zirkulazioan dagoen diru kantitate osoa da, eta partikularrek bankuetan egin duten gordailuen kantitatea eta jendearen esku dagoen diru legalaren zatia biltzen ditu.	DIRU-OINARRIA	1
5	Eskudiruaren eta gordailuen arteko zatidura da.	ESKUDIRUZKO GORDAILUEN KOEFIZIENTEA	5

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Bankuek hala eskatzen duten partikularrei emandako maileguak dira.	DIRU-BIDERKATZAILEA	5
2	Bankuek kutxako aktibo edo erreserba gisa legez gorde behar dituzten gordailuen ehunekoa da.	SOBERAZKO ERRESERBEN KOEFIZIENTEA	3
3	Bankuek kutxako aktibo edo erreserba gisa borondatez gordetzen dituzten gordailuen ehunekoa da.	BANKU-KREDITUAK	1
4	Bankuek kutxako aktibo edo erreserba gisa (nahitaez eta borondatez) gordetzen dituzten gordailuen ehunekoa da.	KUTXA-KOEFIZIENTEA EDO KUTXA-NEURRIA	4
5	Zenbaki honen bidez adierazten da diru-oinarriaren unitate bakoitzeko sor daitekeen diru-eskaintzaren kantitatea.	KUTXA-KOEFIZIENTE LEGALA	2

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Tarte jakin batez dirua maileguan hartzeagatik ordaintzen den prezioa da.	LIKIDEZIAREN TRANPA	2
2	Egoera honetan, interes-tasa hain da baxua, pertsonak edozein diru kantitate mantentzeko prest baitaude.	DIRU-ESKARI ERREALA	5
3	Pertsonak erosteko ahalmenaren eskaria aldatu nahi dute (edo diru-eskari erreala) prezioek gora egiten dutenean, gainerako aldagai errealak aldatu ez arren.	AKTIBOA	4
4	Pertsonak aberastasunari eusteko duten edozein modu da.	INTERES-TASA	1
5	Erosteko ahalmenaren eskaria da ekonomian, eta diruaren eskari nominalaren eta prezio-mailaren arteko zatiketa ginda kalkulatzen da.	DIRU-ILUSIOA	3

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Aktibo batek diru bihurtzeko duen erraztasuna neurtzen du, kosturik edo galerarik eragin gabe.	DIRU-ESKARIA	5
2	Aktibo batek eskaintzen duen interesa da, hau da, aktibo horri esleitutako euro bakoitzarengatik irabaz daitekeena.	AKTIBO BATEN ERRENTAGARRITASUNA	2
3	Aktibo batek berari eta bere errendimenduari esleitutakoa berreskuratzeko duen segurtasunik eza neurtzen du.	AKTIBO BATEN LIKIDEZIA	1
4	Erabaki honen bidez, aberastasuna egon dauden aktibo guztien artean esleitzen da, arriskatuena eta ez-arriskatuena.	AKTIBO BATEN ARRISKUA	3
5	Gizabanakoek diru itxuran izan nahi duten aberastasunaren kantitatea.	ZORROAREN HAUTAKETA	4

5. kapituluaren. AUTOEBALUAZIORAKO GIDA

1. Gai hauetako zein izango dira diru Espainiako ekonomian, eta zein ez? Arrazoitu zure erantzuna, diruaren hiru eginkizunetako bakoitza aztertuz.

- a) Euroaren zentimoa.
Bai, dirua da. Hiru eginkizunak betetzen ditu
- b) Dolar amerikarra.
Ez da dirua. Ez da kontu-unitatea ez ordainbide orokorra.
- c) Picassoren koadro bat.
Ez da dirua. Ez da kontu-unitatea ez ordainbide orokorra.
- d) Servired zordunketa-txartela.
Ez da dirua. Dirua da transferitzeko ahalmena ematen duen gordailuaren saldoa.
- e) Corte Ingléseko txartel bat.
Ez da dirua. Dirua da ordainketak babesten dituen gordailuaren saldoa.
- f) Aurrezki-libreta bateko saldoa.
Bai, dirua da. Hiru eginkizunak betetzen ditu.
- g) Postako zigiluen bilduma bat.
Ez da dirua. Ez da kontu-unitatea ez ordainbide orokorra.
- h) Telefónicako akzioak.
Ez da dirua. Ez da kontu-unitatea ez ordainbide orokorra.

2. Egunero, Interneteko helbide batzuetan, eskaintzak agertzen dira, ondasun batzuk beste batzuekin trukatzeko. Adibidez, «aldatzen da senarraren erlaxatzeko besaulkia erreminta-kutxa osoaren truke». Zergatik izango litzateke zaila ekonomia bat kudeatzea mota horretako trukeak erabiliz dirua erabili beharrean? Zure erantzunaren argitan, zergatik daude trukeen iragarki horiek Interneten?

Trukatzea da ondasun batzuk beste batzuen orde ematea. Negoziazio mota hori erabiltzea zaila da, inplikaturako bi alderdien artean nahiek modu bikoitzean bat egin behar baitute. Hau da, pertsona batek behar duena besteak eskaintzen duena izan behar da nahitaez, eta alderantziz. Horrek denbora-galera eragin dezake, gure nahien eta gure ondasun-eskaintzaren osagarri den pertsona aurkitu arte. Eta, gainera, batzuetan, merkantzia jakin batzuk ezin dira zatitu (adibidez, animaliak edo neurri handiko gauzak), eta, beraz, zaila edo ezinezkoa izan daiteke traturen bat egitea. Edo tratua egiten bada, baliteke trukean adostutakoak ez islatzea ondasunen balio ekonomiko zehatza. Adibidez, telefono mugikorra izateko beharraren aurrean, familia bat prest egon daiteke trukean erabiltzen ez duen ibilgailu bat edo etxe bat emateko.

Interneten trukeari buruz dauden iragarkiak bideragarriak izan daitezke, batez ere, erosle-saltzailearen bila fisikoki mugitu beharrean eta eskaintzen erakusleihen handia ahalegin handirik egin

gabe aurkitzeko aukera izanda, egingarria izan daitekeelako pertsonen artean nahien bat-etortze bikoitzak egotea, eta, horrela, guztientzat denbora asko aurreztea.

3. Komunikabide batzuetan esaten da «diru elektronikoa» edo «plastikozko dirua» jendeak erabiltzen duen diru mota berria dela. Baina dirua da hitzaren esangura hertsian? Zergatik?

Ez da dirua esangura hertsian, diru legala (txanponak eta billeteak) eta banku-dirua (bankuko gordailuen saldoak: aurrezki-libretak, aurrezki-kontuak edo eperako gordailuak) soilik direlako dirua. Hau da, gure zorrak kitatzeko edo gure erosketak egiteko, eskudirua edo banku-saldoak erabiltzen ditugu.

Diru elektronikoa edo plastikozko diru deritzona ordaintzeko modu bat besterik ez da, hau da, erosketen zenbatekoak bankuko kontu batzuetatik beste batzuetara telematikoki transferitzeko modua. Txartel bati edo horren identifikazio-zenbaki bati esker (debitukoa, merkataritza-establezimendu batekoa zein kreditukoa izan) ordainketa bat egin ahal izango da, soil-soilik erosketaren balioa babesten duen banku-saldo nahikoa badago (kreditu-txartelen kasuan, ordainketa geroratua da). Bestela, plastikozko diru hori plastikoa besterik ez da.

4. Eskudirua behar duen pertsona bati esango diote «interes-tasak dirua lortzearen prezioa» direla; eta eskudiru asko duen beste pertsona askok esango diote «interes-tasak dirua mantentzearen prezioa dira». Azaldu zer esan nahi duen kasu bakoitzean «diruaren prezioa» esapideak.

Lehenengo kasuan, finantzaketa eskatzearen kostuari aipamen egiten zaio, hau da, zenbat kostatuko zaigun mailegu bat eskatzea proiektu bat egiteko dirurik ez daukagunean. Hemen, interes-tasak adierazten du maileguan eskatutako kopuruarekin alderatuta (nagusia) itzuli behar den diru gehiagarriaren ehunekoa (interesak).

Bigarren kasuan, dirua mantentzearen aukera-kostuari aipamen egiten zaio, diru hori ez inbertitzeagatik edo jarduera errentagarriagoetan maileguan emateagatik. Interes-tasak lortu ahal izango litzatekeen edo lortzeari uko egin zaion diruaren ehuneko gehigarria biltzen du hemen, adibidez, bankuko kontu batean ibilgeturik izan ez balitz. Bestela esanda, «dirua gelditu uzteagatik» galdutako errentagarritasuna da.

5. Hilean 2.100 euro irabazten dituen pertsona baten eskudiruzko gordailuen koefizientea % 5 bada ($e = 0,05$), zenbat diru izango du eskudirutan eta zenbat gordailuetan hileko osoan?

Zenbakizko problema hau bi modutan kalkula daiteke: (1) eskudiruzko gordailuen koefizientea aplikatuz, hiruko erregelaren bidez, ematen diguten diru kopuruaren gain, edo (2) bi ezezaguneko ekuazioen sistema bat erabiliz.

Ebazteko lehen modua:

$e = 0,05 \Rightarrow e = 5 / 100 \Rightarrow 105$ euro bakoitzetik, 5 eskudirutan gordetzen dira (% 4,76), eta gainerakoa, 100 euro, bankuan gordailu moduan sartzen da (% 95,23) \Rightarrow Proporzio horiek hileko sarrerari aplikatuko dizkiogu \Rightarrow Eskudirua eta Gordailuak.

Ebazteko bigarren modua:

Ekuazioen sistema: $0,05 = \text{EMP} / D$ eta $2.100 = \text{EMP} + D \Rightarrow$ Ebatzi egingo dugu: $2.100 = 0,05 \cdot D + D \Rightarrow 2.100 = 1,05 \cdot D \Rightarrow D = 2.000$ eta $\text{EMP} = 100$

6. Jendeak duen eskudirua 60.000 m.u. da, eta erreserba osoak (legalak eta soberazkoak) 100.000 m.u. Kutxa-koefiziente legala % 8 bada eta soberazko erreserba-koefizientea % 2:

- a) Kalkulatu diru-oinarria (MO), diru-eskaintza (M), banku-kreditua (BK), bankuko gordailuak (D), e koefizientea (eta horren interpretazioa), diru-biderkatzailea (m_M) (eta horren interpretazioa), banku-kredituaren biderkatzailea (m_{BK}), eta erreserba legalak (RL) eta erreserba-soberakinak (RE).

$$\begin{aligned} \text{MO} &= \text{EMP} + R = 60.000 + 100.000 = 160.000 \text{ m.u.} \\ r &= r_L + r_E = 0,08 + 0,02 = 0,1 \text{ (\%10)} \\ D &= R / r = 100.000 / 0,1 = 1.000.000 \text{ m.u.} \\ e &= \text{EMP} / D = 60.000 / 1.000.000 = 0,06 \end{aligned}$$

Jendearen esku dagoen eskudirua bankuko gordailuen balioaren % 6 da: bankuetan sartutako 100 euro bakoitzeko 6 euro bankuetatik kanpo mantentzen da eskudirutan.

$$\begin{aligned} M &= \text{EMP} + D = 60.000 + 1.000.000 = 1.060.000 \text{ m.u.} \\ \text{BK} &= M - \text{MO} = 1.060.000 - 160.000 = 900.000 \text{ m.u.} \\ m_M &= M / \text{MO} = 1.060.000 / 160.000 = 6,625 \text{ edo} \\ m_M &= (1 + e) / (r + e) = (1 + 0,06) / (0,1 + 0,06) = 1,06 / 0,16 = 6,625 \end{aligned}$$

Ekonomian likidezia emateko sartzen den euro bakoitza, banku-kredituak emanda, 6,625 euroko ordainbide bihurtzen da, edo ekonomian ordainbide moduan erabilitako 6,625 euro bakoitzeko euro bat bakarrik dago babestuta eskudiruarekin; gainerakoa banku-kreditua da.

$$\begin{aligned} m_{BK} &= m_M - 1 = 6,625 - 1 = 5,625 \text{ m.u.} \\ \text{RL} &= r_L \cdot D = 0,08 \cdot 1.000.000 = 80.000 \text{ m.u.} \\ \text{RE} &= r_E \cdot D = 0,02 \cdot 1.000.000 = 20.000 \text{ m.u.} \end{aligned}$$

- b) Kalkulatu nola aldatuko diren diru-eskaintza (ΔM), banku-kreditua (ΔBK), gordailu osoak (ΔD) eta erreserba osoak (ΔR), diru-oinarria 1.600 m.u. aldatzen bada (ΔMO).

$$\begin{aligned} \Delta M &= m_M \cdot \Delta MO = 6,625 \cdot 1.600 = 10.600 \text{ m.u.} \\ \Delta BK &= \Delta M - \Delta MO = 10.600 - 1.600 = 9.000 \text{ m.u.} \\ \Delta D &= \Delta M - \Delta \text{EMP} = 10.600 - \Delta \text{EMP} & \Delta \text{EMP} &= e \cdot \Delta D = 0,06 \cdot \Delta D \end{aligned}$$

$$\Delta D = 10.600 - 0,06 \cdot \Delta D \Rightarrow \Delta D = 10.000 \text{ m.u.}$$

$$\begin{aligned} \Delta \text{EMP} &= \Delta M - \Delta D = 10.600 - 10.000 = 600 \text{ m.u.} \\ \Delta \text{RL} &= r_L \cdot \Delta D = 0,08 \cdot 10.000 = 800 \text{ m.u.} \\ \Delta \text{RE} &= r_E \cdot \Delta D = 0,02 \cdot 10.000 = 200 \text{ m.u.} \end{aligned}$$

$$\left\{ \begin{array}{l} \Delta R = r \cdot \Delta D = 0,1 \cdot 10.000 = 1.000 \text{ m.u.} \text{ edo} \\ \Delta R = \Delta \text{RL} + \Delta \text{RE} = 800 + 200 = 1.000 \text{ m.u.} \end{array} \right.$$

6. kapituluko soluzioak

6.1. Banku Zentrala eta diru-oinarria

1. Zein da arrazoi nagusia gaur egun Banku Zentrala gobernuetatik eta agintari politikoen-gandik independentea izatea bermatzen ahalegintzeko? Iruzkindu.

Banku Zentrala botere politikotik autonomia edo independentea izateko arrazoi nagusia da diru-politika sinesgarria izan behar dela prezioen bilakaera edo inflazio-tasak kontrolatzeko helburuari begira.

Banku Zentralak gobernuak erabakiak hartzeko beste organo bat balira, diru-eskaintzaren al-daketak edo banku-sistemaren kreditu-agertokia baldintzatuta egongo lirateke boterean dagoen alderdi politikoaren helburuen arabera. Modu horretan, diru-politikaren bidez defizit publikoak finantzatu ahal izango lirateke hauteskunde-xede hutsekin. Interes-tasa txikiak ezarri eta mantentzea tentazio erakargarria izango litzateke herritarrak pozik izateko, barruko gastua suspertzeko eta epe laburrean hazkunde ekonomikoa sustatzeko, baina etorkizunean prezio handiagoak izatearen kontura («gaurko ogia, biharko gosea»).

Horrez gain, diruaren jaulkipena gai politiko bihurtuko litzatekeenez, gobernuak tentazioa izango lukete defizit publikoak ez zuzentzeko; izan ere, ikuspuntu horretatik, teknikoki inoiz ez lukete porrot egingo. Balizko likidezirik ezaren aurrean, beti inprima dezakete nahi duten diru zenbatekoa zorpeko edo zenbaki gorri horiek ezabatzeko. Diru-jaulkipenera behin eta berriro jo-tzea historia modernoaren hiperinflazio handien jatorrian edo atzeraelikaduran egon da (Alema-nian joan den mendearen hogeiko hamarkadan, eta Latinoamerikako herrialdeetan joan den men-dearen laurogeiko hamarkadan).

2. Hona hemen Banku Zentralaren balantzeari buruzko datuak:

Mailegu garbia banku-sistemari: 2.000
Zor publikoaren tituluak: 8.500
Dibisen erreserbak: 1.000
Sektore publikoaren gordailuaren saldoa: 1.500

- a) Lortu diru-oinarriaren balioa (MO) datu horiek oinarri hartuta.

$$MO = 2.000 + 8.500 + 1.000 - 1.500 = 10.000 \text{ m.u.}$$

Eskudiruzko gordailuen koefizientea (e) 0,15 bada, eta kutxa-koefizientea (r), 0,05:

- b) Lortu diru-eskaintzaren (M) eta diru-biderkatzailearen (m_M) balioa.

$$m_M = [(1 + e) / (e + r)] = [(1 + 0,15) / (0,15 + 0,05)] = 5,75$$

$$M = m_M \cdot MO = 5,75 \cdot 10.000 = 57.500 \text{ m.u.}$$

- c) Enuntziatuko datuak erabiliz, kalkulatu M horretan gertatzen diren efektuak, kasu hauetan:

- c.1) Banku Zentralak banku-sistemari 1.000 balioko kredituak eman dizkio.

Diru-oinarria 1.000 handituko da.

$$\Delta MO = 1.000 \Rightarrow \Delta M = m_M \cdot \Delta MO = 5,75 \cdot 1.000 = 5.750 \Rightarrow$$

$$\Rightarrow M \text{ berria} = 57.500 + 5.750 = 63.250 \text{ m.u.}$$

- c.2) Banku Zentralak 500 balioko zor publikoaren tituluak saldu dizkio banku-sistemari.

Diru-oinarria 1.000 txikituko da.

$$\Delta MO = -500 \Rightarrow \Delta M = m_M \cdot \Delta MO = 5,75 \cdot (-500) = -2.875 \Rightarrow$$

$$\Rightarrow M \text{ berria} = 57.500 - 2.875 = 54.625 \text{ m.u.}$$

- c.3) Banku Zentralak kutxa-koefizientea 0,1era igo du.

Diru-oinarria ez da aldatuko. Diru-biderkatzailea da aldatzen dena:

$$m_{M'} = [(1 + 0,15) / (0,15 + 0,1)] = 4,6$$

$$M \text{ berria} = m_{M'} \cdot MO = 4,6 \cdot 10.000 = 46.000 \text{ m.u.}$$

3. Jo dezagun ekonomia bateko diru kantitatea (M) 300.000 m.u. dela, eskudiruzko gordailuen koefizientearen (e) balioa 0,35 dela, eta banku-sistemaren kutxa-koefizientea (r) % 10 dela.

- a) Kalkulatu diru-oinarria (MO) eta diru-biderkatzailea (m_M).

$$m_M = [(1 + e) / (e + r)] = [(1 + 0,35) / (0,35 + 0,1)] = 3$$

$$M = m_M \cdot MO \Rightarrow MO = M / m_M = 300.000 / 3 = 100.000 \text{ m.u.}$$

- b) Diru-eskaintza 330.000 m.u. izatea lortu nahi bada, Banku Zentralak zer norabidetan eta zenbatekotan aldatu behar du diru-oinarria helburu horretara egokitzeko, arrazoi kanpoko edo autonomoengatik diru-oinarria 15.000 diru-unitate handitzea espero bada? Zer tresna erabil ditzake Banku Zentralak proposatutako helburua lortzeko? Zure ustez, zergatik deritze mota horretako eragiketei «diru-oinarriaren esterilizazio»?

Helburua bada M 30.000 m.u. handitzea ($\Delta M = 30.000$), diru-biderkatzailearen teoriaren-gatik, beharrezko MO berria hau izango da:

$$\text{Beharrezko } \Delta MO = \Delta M / m_M = 30.000 / 3 = 10.000 \text{ m.u.}$$

Arrazoi autonomoengatik MO 15.000 m.u. handitzen bada, M horren helburua lortuko da ekonomian ustekabeen edo planifikatu gabe sartu den likidezia berri horretatik 5.000 m.u. kenduta. Beraz, soluzioak hau bete behar du:

$$\begin{aligned}\Delta MO \text{ beharrezkoa} &= \Delta MO \text{ autonomoa} - \Delta MO \text{ kontrolatzeko modukoa} = \\ &= 15.000 - 5.000 = 10.000\end{aligned}$$

Banku Zentralak gehiegizko likideziaren (edo soberako diru-oinarriaren) 5.000 m.u. drainatzeko erabil ditzakeen tresnak hauek izango dira: (1) banku-sistemari errenta finkoko tituluak saltzea (merkatu irekiko eragiketak) eta (2) bankuei kreditu-baldintzak gogortzea (birdeskontu-tasa edo azken aukerako interes-tasa handituta), bankuek Banku Zentralari egindako finantzaketa-eskaerak murriztu ditzaten (krediturako erraztasun marjinala garestitzea).

Atal honetan deskribatutako eragiketei «diru-oinarriaren esterilizazio» deritze; horien bidez lortu nahi da ezusteko gertaerek edo diru-agintaritzaren kontrolatik kanpoko gertaerek diru-eskaintzan izan ditzaketan inpaktuak neutralizatzea edo ezabatzea. Normalean, dibisen nazioarteko merkatuetako aldaketak neutralizatu nahi dira, moneta nazionalen nahi gabeko efektuak izan baititzaizkete, hala nola diruak balioa irabaztea, inflazioak gora egitea, lehiakortasuna galtzea eta merkataritza-defizitak gora egitea.

- c) Jo dezagun Banku Zentralak aurreko ataleko helburu bera lortu nahi duela diru-eskaintzarako ($M = 330.000$ m.u.) diru-oinarria aldatu gabe ($\Delta MO = 0$). Zer tresna erabili beharko du orain? Zergatik? Kalkulatu, kasu honetan, zein izan behar den tresna honen balioa.

Orain M baliorako helburu bera lortu nahi bada (30.000 m.u. handitzea), MO aldatu gabe ($\Delta MO = 0$), Banku Zentralak kutxa-koefiziente legala aldatu beharko du (r_L), eskura dituen beste bi tresnek (merkatu irekiko eragiketak eta erraztasun iraunkorrak) MO balioaren bidez jarduten baitute beti, *ceteris paribus*.

Kutxa-koefiziente legalaren aldaketak banku-sistemako gordailu guztiei eragingo dienez, biderkatzailearen teoria aplikatuko dugu M eta MO balio osoetarako, ez gehikuntzetarako bakarrik:

$$\begin{aligned}M &= m_M \cdot MO \Rightarrow M = [(1 + e) / (e + r)] \cdot MO \Rightarrow 330.000 = \\ &= [(1 + 0,35) / (0,35 + r')] \cdot 100.000 \\ \Rightarrow 3,3 &= 1,35 / (0,35 + r') \Rightarrow 1,155 + 3,3 r' = 1,35 \Rightarrow r' = 0,059 \text{ (} r' = \% 5,9\text{)}\end{aligned}$$

Kutxa-koefiziente legala % 4,1 puntu jaitsi beharko litzateke, eta, beraz, kutxa-koefizientea % 10etik % 5,9ra igaroko litzateke.

6.2. Diru-merkatua

4. Jo dezagun, batetik, Banku Zentralak interes-tasa baxua nahi duela ekonomian inbertsioa sustatzeko, eta, bestetik, diru kantitate handirik ez egotea nahi duela tentsio inflazionistak saihesteko. Helburua aldi berean lor daiteke bi aldagaiekin? Zergatik?

Diru-eskaintza txikia eta interes-tasa txikia eta diru-eskaintza handia eta interes-tasa handiak bitarteko helburu bateraezinak dira Banku Zentral guztietarako. Bi aldagaien arteko lotura beti

da negatiboa edo alderantzizkoa: M zenbat eta handiagoa (txikiagoa) izan, interes-tasa txikiagoa (handiagoa) izango da. Grafikoki, lotura hori erraz ondoriozta daiteke diru-merkatuaren oreka oinarri hartuta. *Ceteris paribus*, diru-eskaintzak gora egiten badu, oreka berria interes-tasa txikietarako soilik lortuko da, eta alderantziz diru-eskaintza murrizten bada.

Egia esan, galderaren enuntziatuan dagoen bateraezintasun horretan, ekonomia-politikako azken helburuen artean gatazken ideia biltzen ari da. Kasu zehatz honetan, gatazka hazkunde ekonomikoaren eta inflazio-tasa txikien artean sortzen da. Ekonomia-jarduera suspertzearekin batera (diru-politika hedatzaileari esker hemen), neurri handiagoan edo txikiagoan, tentsio inflazionistak egongo dira. Aitzitik, inflazio-tasek behera egiteak (diru-politika murriztaileak presionatuta edo behartuta) dinamismo ekonomiko txikiagoa ekarriko du, hazkunde-tasa txikiak eta langabeziaren hazkundera.

5. Jo dezagun ekonomia batean lotura hauek daudela:

EMP: 1.000 m.u.

Kutxa-koefiziente legala: 0,15

Soberakin-erreserben koefizientea: 0,05

Eskudiruzko gordailuen koefizientea: 0,1

a) Kalkulatu diru-oinarria eta diru-eskaintza (MO eta M).

$$e = \text{EMP} / D \Rightarrow D = \text{EMP} / e \Rightarrow D = 1.000 / 0,1 = 10.000 \text{ m.u.}$$

$$R = r \cdot D = (r_L + r_E) \cdot D = (0,15 + 0,05) \cdot 10.000 = 0,2 \cdot 10.000 = 2.000 \text{ m.u.}$$

$$\text{MO} = \text{EMP} + R = 1.000 + 2.000 = 3.000 \text{ m.u.}$$

$$M = \text{EMP} + D = 1.000 + 10.000 = 11.000 \text{ m.u.}$$

b) Jo dezagun Espainiako Bankuak 1.000 m.u. balioko zor publikoa erosten duela. Kalkulatu diru-eskaintza nominal eta erreal berriak, prezioen maila bada $P = 2$ (oinarri-urtea: $P = 1$).

Aurretik, diru-biderkatzailea kalkulatu dugu:

$$m_M = M / \text{MO} = 11.000 / 3.000 = 3,67$$

$$\Delta \text{MO} = 1.000 \Rightarrow \Delta M = m_M \cdot \Delta \text{MO} = 3,67 \cdot 1.000 = 3.670 \Rightarrow$$

$$\Rightarrow M \text{ berria} = 11.000 + 3.670 = 14.670 \text{ m.u.}$$

Diru-eskaintza erreal, kasu honetan: $P = 2 \Rightarrow M / P = 14.670 / 2 = 7.335 \text{ m.u.}$

c) Diru-eskari errealak transakzioak egiteko, zuhurtasunagatik eta espekulatzeko badira, hurrenez hurren, $LT = 900 + 0,8Y - 10i$, $LP = 600 + 0,4Y - 8i$, $LE = 0,3Y - 15i$, kalkulatu ekonomia horretako diru-eskari erreal edo likideziagatiko lehentasuna (Y errenta-ekoizpenaren maila da, eta i interes-tasa, azken hori bateko hainbestean adierazita).

$$\text{Diru-eskari erreal: } L = L_T + L_P + L_E = 1.500 + 1,5 Y - 33 i$$


d) b) ataleko diru-eskaintza erreal edo c) ataleko likideziagatiko lehentasuna kontuan hartuta, kalkulatu ekonomiaren orekako interes-tasa, errenta erreal $Y = 4.000$ bada. Irudikatu grafikoki diru-merkatuaren egoera hori, eta adierazi interes-tasa ehunekotan).

$$\text{Kasu honetan: } Y = 4.000 \Rightarrow L = 1.500 + 1,5 \cdot 4.000 - 33 i = 7.500 - 33 i$$

Orekan betetzen da diru-eskaintza erreal bat datorrela likideziaren aldeko lehentasunarekin ($M / P = L$):

$$7.335 = 7.500 - 33 i \Rightarrow i_E = 0,05 \text{ (orekako interes-tasa \% 5 da)}$$

Grafikoki:



6.3. Diru-politikaren diseinua eta tresnak

6. Banku Zentralak kutxako koefiziente legala handitzen badu, zer gertatuko zaio diru-oinarriari, *ceteris paribus* (hau da, ekonomian beste aldaketa bat gertatzen ez bada)? Eta diru-biderkatzaileari? Zergatik?

Ceteris paribus, kutxa-koefiziente legalak diru-biderkatzailean soilik eragiten du. Hori horrela da kutxa-koefiziente legalaren aldaketek kreditu-ahalmena aldatzen dutelako diru-oinarri bera izanda, hau da, baldintzatu egiten dute gutxieneko erreserben zer kantitate izan behar duten bankuek egon dagoen likideziaren gain. Beraz, printzipioz, kutxa-koefiziente legalaren aldaketak ez du zertan aldatu diru-oinarria.

7. Diru-politikak aldi berean aurre egin ahal die inflazio-arazoei eta ekoizpenaren beherakadari epe laburrean? Zergatik?

Diru-politika da eskari agregatuan eragiten duen ziklo ekonomikoa egonkortzeko politika. Ekonomiaren gastu osoan duen efektua eta, horren ondorioz, ekoizpenean duen efektua kontuan hartuta, izan daiteke hedatzailea (interes-tasa baxuagoak izanda banku-krediturako sarbidea erraztuz) edo murriztailea (banku-finantzaketa mugatuz interes-tasa handiagoekin).

Prezioen gaineko efektua kontuan hartzen bada, epe laburrean, diru-politikak eta politika fiskalak (beste eskari-politika) helburuen gatazka izaten dute inflazioaren eta hazkundearen artean. Zehatz esanda, izaera hedatzaileko neurriak hartzen badira, ekoizpen-maila handituko da, baina tentsio inflazionistak ere handituko dira (ekoizpen gehiago, enplegu gehiago, baina prezio handiagoa). Aitzitik, ekintzak izaera murriztailekoak badira inflazioari eusteko, ekonomian eskaria txikiagoa izanda, ondorioa hazkunde txikiagoa izango da, eta, ziurrenik, langabezia-tasa handiagoa.

8. Azaldu nola eta zergatik duten eragina Europako ekonomia baten diru-eskaintzan (M) eragiketa hauetako bakoitzak, *ceteris paribus*:

a) Banku Zentralak zor publikoaren tituluak erostea.

Merkatu irekiko eragiketa honetan, Banku Zentralean zor-tituluekin geratzen da, eta, horren truke, ekonomiari likidezia ematen dio banku-sistemaren bidez. Azken hori, erreserba kantitate handiagoa duenez, kutxa-koefizientera egokitzen ahaleginduko da, eta, horretarako, kreditua hedatzeari mesede egingo dio, batez ere baldintza ekonomikoak txarrak ez badira. Horren emaitza diru-eskaintza handitzea izango da ($\uparrow M$).

b) Familiek altxorreko letrak erostea.

Familiek letren titulartasunari eusten diote, eta diru horrek Banku Zentralean gordailututako altxorraren kontuko saldoa handituko du. Likidezia hori gobernuak erabiltzen ez badu ondasunak edo zerbitzuak ordaintzeko edo zorren bat kitatzeko, sistematik aterako da, eta horrek diru-eskaintza gutxitzea ekarriko du ($\downarrow M$).

c) Banku-erreserben nahitaezko koefiziente berria sortzea, gordailuen % 1eko balioa duena, berankortasun-arriskuei aurre egiteko.

Erreserba-koefizienteak gora egiten duenez, erreserben kantitate handiagoa ibilgetu behar da gordailuen bolumen bererako. Kontabilitateko doikuntza horren eraginez, bankuek aktiboak askatuko dituzte eta kreditu-politika murriztaileagoa egingo dute. Banku-maileguak ezeztatzen diren neurrian, diru-eskaintza zenbateko berean gutxituko da ($\downarrow M$).

d) Banku Zentralak birdeskontu-tasa murriztea.

Banku Zentraleko kreditura sarbide merkeagoa dagoenez, bankuek krediturako erraztasun marjinal gehiago erabiliko dituzte: orain, azken aukerako maileguen ondoriozko interes-tasa zigortzailea txikiagoa izango da. Likidezia-eskaera handiago horrek ekarriko du bankuek kredituak eskaintzeko ahalmen handiagoa izango dutela. Diru-eskaintzak gora egingo du ($\uparrow M$).

e) X herrialdearen kanpoko merkataritza-defizita murriztea.

Merkataritza-defizita murriztu egiten da inportazioak gutxitzen direlako eta/edo esportazioak handitzen direlako. Arrazoia edozein izanda ere, herrialdean dibisen sarrera garbiak gora egingo du, dibisa horiek moneta nazionalarekin aldatuko dira, eta, azkenean, herrialdeko diru-oinarriak gora egingo du. Banku-kredituaren efektu biderkatzailea oinarri hartuta diru-oinarriak gora egitearen eraginez, diru-eskaintzak ere gora egingo du ($\uparrow M$).

f) Superabit publikoa handitzea.

Superabit publikoa handitzeak esan nahi du estatuak gastatzen duena baino gehiago biltzen duela ($T > G$). Sarrera publikoetako gerakin hori altxorraren kontuan gordailutzen da. Kontabilitatearen ikuspegitik, horrek Banku Zentralean pasiboa handitzea dakar, eta, horren eraginez, diru-oinarriak behera egiten du (sistemari likidezia kentzea), gobernuak egindako gastu baten kontrapartida moduan berriro ere sartzen den arte. Beraz, superabit publikoa handitzearen efektua, hasieran, diru-eskaintza murriztea izango da, banku-maileguen gain duen uzkurdura-efektuarengatik ($\downarrow M$).

- g) X herrialdetik atzerriko inbertsioa ateratzea.

Atzerriko inbertsiogileak herrialde batetik joaten badira, inbertsioen edo sarreren salmentaren zenbatekoa (edo moneta nazionala) nazioarteko merkatuetan negoziatzeko errazagoa den beste dibisa batekin aldatu eta herrialdetik aterako dute (txanpon nazionala nazioartean entzutea duen dibisa bada, ez da beharrezkoa izango dibisak aldatzeko eragiketarik). Likidezia atzerrirantz ateratzeak herrialdeko diru-oinarria murrizten du, eta gutxitu egiten dira banku-erreserbak, kreditua, eta, azken finean, diru-eskaintza ($\downarrow M$).

- h) Billeteak jaulkitzearen bidez finantzatutako aurrekontu-defizita (hemen Banku Zentralarekiko independentziarik ez dagoela joko dugu).

Banku Zentralarekiko independentziarik ez badago, defizit guztiak monetiza daitezke, hau da, estatuak zorrak ordaintzeko beharrezko diru kantitatea inprimatzea agindu dezake. MO balioak gora egingo luke, defizit publikoekin bat etorriz. Likidezia merkatuetara iritsiko litzateke, eta banku-negozioak maileguak interes oso txikiarekin eman beharko lituzke. Diru-eskaintzak gora egingo luke ($\uparrow M$).

9. Gaur egun, kreditu-erraztasun iraunkorrak diru-politikaren tresnetako bat dira. Azaldu noiz joko duten bankuek erraztasun horietara, eta zer efektu izango duen Banku Zentralaren baliabide horrek interes-tasan eta diru-oinarrian.

Bankuek eguneroko eragiketak egiteko likideziaz ez dutenez, haien artean dirua mailegatzten ahalegintzen dira (*bankuen arteko merkatu* esaten zaio horri). Finantzaketa-bide horrek huts egiten duenean edo nahiko ez denean, bankuek Banku Zentralera jo dezakete beti beharrezko likidezia maileguan eskatzeko (horregatik erabiltzen da *erraztasun iraunkorrak* kalifikatzailea). Erraztasun horiek egun baterako maileguak dira, baina interes-tasa zigortzailea dute, hau da, bankuen arteko merkatuan indarrean dagoena baino handiagoa.

Kreditu-erraztasunen interes-tasa txikia denean (edo zigorra txikia denean), bankuek baliabide hau gehiago erabiliko dute finantzaketa-era osagarri moduan, eta horrek efektu hedatzailea izango du diru-oinarrian (diru-politika hedatzailea).

Aitzitik, kreditu-erraztasunen interes-tasa handia bada (zigor handia), bankuek asko zainduko dute finantzaketa-bide horretara jo behar ez izatea, kostu handiak baititu haientzat. Horren eraginez, Banku Zentralak banku-sistemari azken aukerako mailegu kantitate txikiagoa emango dio maileguan eta, logikoa denez, diru-oinarrian uzkurte-efektua izango du (diru-politika uzkurte-efektua).

10. Azaldu diru-politikak diseinatzean atzerapenak izateak zer oztupo jar diezazkiekeen nazio-ekoizpenaren maila arazo ekonomiko baten aurrean egonkortzeko Banku Zentralak egiten dituen ahaleginei. Posible da atzerapen horien eraginez diru-politikaren asmo oneko neurri batzuekin ekonomia are gehiago desegonkortzea?

Atzerapenak ez dagozkio diru-politikari soilik, baita politika fiskalari ere, ekoizpen-mailaren fluktuazioak egonkortzeko helburua baitu.

Atzerapen horiek eragina dute arazo bat identifikatzeko eta aitortzeko orduan (kasu honetan, arazoia datuen edo aurreikuspenen ziurgabetasuna edo zehaztugabetasuna da), arazoari aurre egiteko egokitzen hartzen den erabakia hartzen den unean (atzerapen horren arazoak izaten dira aukera politiko-ekonomiko desberdinen arteko gatazka-prozesua eta horren osteko delibera-

zio, negoziazio eta adostasun faseak), eta, amaitzeko, praktikan jarritako neurriek eraginkorrak izan behar duten unean (adibidez, moneta-arloko ekintzen gehieneko eraginkortasunerako gutxi gorabeherako denbora urte bat eta urte eta erdi izaten da, herrialde bakoitzeko inguruabar berezien arabera; politika fiskalean, hirugarren atzerapen hori txikiagoa izan ohi da; baina bigarrena, Parlamentuan erabakiak hartzekoa, handiagoa izaten da).

Logikoa den moduan, hirugarren atzerapenaren eraginez, arazo bati aurre egiteko praktikan jarritako neurrien efektuak hasieran gogoan izan den koiunturarekin zerikusi gutxi duen beste koiuntura batean ager daitezke azkenean. Agertoki ekonomiko bat hilabete askoko tartearekin aurreratzea zeregin zaila da, ezinezkoa ez esateagatik, bereziki neurriak, diru-arlokoak zein arlo fiskalekoak izan, gehieneko efektua lortzen ari direnean. Kasurik okerreanean, egonkortze-politika bat, oso ondo pentsatua eta ondo gauzatua, desegonkortze-politika bihur daiteke, une jakin batean, ezusteko gertaerengatik, atzeraldia leundu beharrean gehiago areagotzen badu; edo, guztiz kontrakoa, berreskuratze leun batek baliteke prozesu hedatzaile inflazionista indartsua eragitea.

6. KAPITULUKO *TEST* ERAKO GALDEREN SOLUZIOAK

- | | | | | |
|------|------|------|------|-------|
| 1) e | 3) c | 5) e | 7) b | 9) c |
| 2) e | 4) a | 6) d | 8) c | 10) c |

6. KAPITULUKO *EGIA* ALA *GEZURRA* GALDEREN SOLUZIOAK

1. Diru-eskaintza handitzea inflazioari eusteko neurri ona da.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Gutziz kontrakoa da. Diru-eskaintza gutxitzea edo, bestela esanda, diru-politika murriztailea edo uzkurtailea da inflazioari aurre egiteko erabaki egokia. Diru-kantitatea murrizten bada, eta horrekin, interes-tasa handitzen bada, ekonomian egindako gastua desanimatuko da eta prezioen gaineko presioa txikiagoa izango da. Horregatik, diru-politika murriztaileari politika antiinflazionista edo prezioak egonkortzekoa ere esaten zaio.

2. Dirua, Banku Zentralaren esku-hartzea dela-eta, zirkulaziotik ken daiteke.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Gaur egun, herrialde bateko Banku Zentralak (Europaren kasuan, Europako Banku Zentralak, EBZ) kontrolatu eta arautzen du ekonomiako diru likido guztia, diru-oinarria, jaulkitzea. Diru-oinarria kontrolatzeko hainbat tresna erabiltzen ditu, hala nola merkatu irekiko eragiketak eta azken aukerako maileguak (erraztasun iraunkorrak Eurogunearen testuinguruan).

3. Nahitaezko erreserba-koefizientea murriztuta, eskari agregatuak gora egin dezake. EGIA GEZURRA***Azalpena***

Kutxa-koefiziente legala murriztea diru-politika hedatzailea da. Erreserba legalak murrizten badira, bankuek kreditu gehiago emateko aukera dute, diru-eskaintza handituko da, interes-tasak behera egingo du, finantzaketa ekonomian merkeagoa izango da, inbertsioak eta kontsumo-ondasunetan egindako gastua handituko dira, eta horrek, azkenean, eskari agregatuak eta ekoizpenak gora egitea dakar.

4. Banku Zentralak banku-erakundeei titulu publikoak saltzen badizkie, diru-eskaintza murriztu egingo da. EGIA GEZURRA***Azalpena***

Banku Zentralak bankuei tituluak saltzen badizkie, Banku Zentralak dirua biltzen du eta bankuak tituluekin geratzen dira. Horrek esan nahi du bankuek erreserba gutxiago izango dutela (diru-oinarria gutxitzen da), eta, horren ondorioz, murriztaileagoak izan behar dutela maileguak ematerakoan. Efektu biderkatzailea dela-eta, diru-eskaintza gutxitu egingo da azkenean.

5. *Ceteris paribus*, kutxa-koefiziente legala handitzean diru-eskaintza gutxitzen da, baina diru-oinarria ez da aldatzen. EGIA GEZURRA***Azalpena***

Kutxa-koefiziente legala diru-biderkatzailearen determinatzailea da, ez diru-oinarriarena. Horrez gain, kutxa-koefiziente legalaren eta diru-biderkatzailearen arteko lotura negatiboa da: kutxa-koefiziente legala zenbat eta handiagoa izan, diru-biderkatzailea txikiagoa izango da, eta alderantziz.

Hau da azalpen zehatzagoa. Kutxa-koefiziente legalak gora egitean, bankuek erreserba gehiago mantendu behar dituzte gordailuen kantitate bererako. Bestela esanda, diru-oinarriko kantitate handiagoa ibilgetu behar da erreserba eran. Egoera berri horren aurrean, bankuek mailegu gutxiago eman ahal izango dituzte, eta, beraz, diru-eskaintza txikiagoa izango da.

6. Banku Zentralak zor publikoaren tituluak erostea neurri ona da interes-tasa murrizteko. EGIA GEZURRA***Azalpena***

Banku Zentralak tituluak erostea diru-politika hedatzailearen neurri bat da: Banku Zentralak tituluak gordetzen ditu, eta, horren orde, ekonomiari diru-oinarri gehiago ateratzen zaio. Zirkulazioan diru gehiago badago, prezioak behera egiten du edo, bestela esanda, interes-tasa murriztu egiten da.

7. Diru-politika hedatzailearen efektuak (ekoizpenaren, prezioen eta interes-tasen gain) eta politika fiskal hedatzailearenak berdinak dira.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Politika hedatzaileak, diru-arlokoa zein arlo fiskalekoa izan, hazkunde-efektu bera izango du prezioen mailan eta ekoizpen-mailan, eskari agregatua dela bide. Izatez, hedatzaile esaten zaio jarduera ekonomikoan ondorio dinamizatzaileak edo goranzkoak dituelako.

Hala ere, bien arteko aldea da, eta horregatik da gezurra baieztapena, interes-tasan duten inpaktua. Neurri monetario hedatzaileen eraginez interes-tasak gutxitzen dira, batez ere ekonomian diru kantitate handiagoa dagoelako; baina politika fiskal hedatzaileen eraginez interes-tasek gora egiten dute, sektore publikoak finantzaketa handiagoa eskatzen baitu, adibidez, zor publiko gehiago jaulkitzeko.

8. Finantza-aktiboen gainbalioei aplikatutako zergak diru-politikaren tresna dira.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Zergak inoiz ez dira diru-politikaren tresnak. Aitzitik, zergak, gastu publikoarekin batera, politika fiskalaren oinarritzko tresnak dira. Gogoan izan beti diru-politikaren tresnak hiru direla: kutxa-koefiziente legala, merkatu irekiko eragiketak, eta azken aukerako maileguak bankuei edo erraztasun iraunkor deritzenak.

9. Diru-oinarriak gora egiten du Banku Zentralak dibisak saltzen baditu.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Banku Zentralak dibisak saltzen baditu moneta nazionalaren truke (adibidez, dolarrak saltzen baditu euroen truke Europako inportatzaileei nazioarteko likidezia emateko), ekonomiatik eskudirua kentzen ibiliko da (adibideko kasuan, euroak zirkulaziotik desagertzen dira, eta horren ordez dolarrak ateratzen dira atzerrirantz). Bestela esanda, herrialdeko diru-oinarria murriztu egingo da, Banku Zentrala txanpon nazionalarekin (euroak) geratzen baita.

10. Diru-politikak bitarteko helburu moduan balio batzuk ezartzen ditu diru-eskaintzarako eta interes-tasarako. Modu horretan, politika ekonomikoaren azken helburuetan eragin nahi da.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Diru-politikaren diseinuak eskema honi jarraitzen dio: *Politika ekonomikoaren azken helburuak = >Diru-politikaren bitarteko helburuak (diru kantitatea eta interes-tasa) = >Di-*

ru-politikaren tresnak (merkatu irekiko eragiketak, kutxa-koefiziente legala eta azken auke-rako mailegua).

Hau da, lehenengo, garrantziari erreparatuz, helburu ekonomiko garrantzitsuenak zein diren finkatzen da, une horretan bizi den koiunturaren arabera (prezioen egonkortasuna, hazkunde ekonomikoa, langabezia-tasa murriztea, enplegu-maila handitzea, defizit publikoa murriztea...). Jarraian, azken helburu horiekin bateragarriak diren diru kantitatearen balioak eta interes-tasaren balioak zehaztuko dira. Eta, amaitzeko, Banku Zentrala diru-eskaintzaren eta interes-tasaren bitarteko helburu horiek lortzen ahaleginduko da, eskura dituen tresnak erabiliz.

6. KAPITULUKO *PAREKATZEEN* SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Merkatu honetan, funtsak epe laburrean mailegatzen dira, eta orekako interes-tasa zehazten da.	DIRU-TRANSMISIOAREN MEKANISMOA	5
2	Diru-agintaritzaren erabakien multzo honek diru-eskaintza eta interes-tasa aldatzen ditu, eta, horren bidez, politika ekonomikoaren azken helburuetan eragin nahi da.	DIRU-POLITIKA	2
3	Merkatu honetan, banku-entitateek haien artean mailegu- edo kreditu-eragiketak egiten dituzte, eta epe oso laburretan gordailuak edo aktiboen beste mota batzuk uzten dizkiote elkarri.	EURIBORRA	4
4	Egunero argitaratzen den erreferentziako indizea, finantza-entitateek euroaren bankuen arteko merkatuan dirua mailegatzeko erabiltzen duten batez besteko interes-tasa adierazten duena. Indizea kalkulatzeko, Europako 50 banku nagusien datuak erabiltzen dira, eta balio hori asko erabiltzen da banku-maileguetarako erreferentzia moduan.	BANKUEN ARTEKO MERKATUA	3
5	Prozesu honen bidez, diru-merkatutik ondasun eta zerbitzuen merkatura proiektatzen dira diru-eskaintzaren aldaketak.	DIRU-MERKATUA	1

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Mekanismo honen bidez, Banku Zentralak diru-eskaintza kontrolatu dezake, edo, zuzenago, merkatuko interes-tasan eragina izan.	BANKU ZENTRALA	4
2	Diru-politikako tresna honen bidez, Banku Zentralak finantza-merkatuetan esku hartzen du, banku pribatuei tituluak erosiz edo salduz.	ERRAZTASUN IRAUNKORRAK	5
3	Banku Zentralak aktiboekin egindako aldi baterako eragiketetan merkataritza-bankuei kobratzen dien interes-tasa da, eta ekonomian erreferentziako interes-tasa moduan balio du.	MERKATU IREKIKO ERAGIKETAK (<i>OPEN MARKET</i>)	2
4	Entitate honek billete legalak jaulkitzeko eta diru-politika egiteko pribilegioa du.	INTERES-TASA OFIZIALA	3
5	Diru-politikako tresna honen bidez, finantza-bankuei likidezia doitzen uzten zaie edozein unetan.	DIRU-POLITIKAREN TRESNA	1

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Naziokoa edo etxekoa ez den txanpon batean adierazitako trukerako bitartekoa.	EUROTALDEA	2
2	Euroa osatzen duten herrialdeetako ekonomia- eta finantza-ministroek egindako bilera informala; normalean, hilean behin biltzen dira.	DIBISA	1
3	Arrazoi hau ez du Banku Zentralak kontrolatzen, eta ekonomiaren diru-oinarria edo likidezia aldatzea eragiten du. Adibidez, dibisen erreserbak.	EUROGUNEA	5
4	Diru-politikaren helburua. Optimotzat jotzen den inflazio-tasa definitzen da, eta hori lortu nahi da. Eurogunean, % 2 da inflazio-tasa hori.	PREZIOEN EGONKORTASUNA	4
5	Europar Batasunean (EB) euroa ezarri duten herrialdeek osatutako ingurua. 2015ean, 19 herrialde zeuden gune horretan.	DIRU-OINARRIAREN FAKTORE AUTONOMOA	3

6. KAPITULUKO SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Europako diru-entitatea da, eta EBZk eta EBko estatu kide guztietako banku zentral nazionalak osatzen dute, estatu horiek euroa ezarrita izan zein ez. Gaur egun, 28 estatu kidek osatzen dute.	EUROPAKO BATZORDEA	3
2	Europako entitate hau osatzen dute Europako Banku Zentralak eta euroa ezarri duten estatu kideetako banku zentral nazionalak.	EUROSISTEMA	2
3	EB osoko interesak defendatu, Europako legeria berriarren proposamenak egin, eta Europako politikak praktikan ipintzeko eta funtsak erabiltzeko eguneroko eginkizuna kudeatzen du.	ECOFIN	4
4	EBko herrialde guztietako ekonomia- eta ogasun-ministroek osatutako Ekonomia eta Finantza Kontseilua, EBko aurrekontua urtero prestatzeaz eta onartzeaz arduratzen dena.	BANKU ZENTRALEN EUROPAKO SISTEMA	1
5	Euroguneko diru-politika erabiltzeaz arduratzen den administrazioa.	EUROPAKO BANKU ZENTRALA	5

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Eragiketa hauen bidez, Europako Banku Zentralak aukera ematen die bankuei kreditua egun baterako lortzeko, behar den besteko bermeak badituzte, eta ezarritako interes-tasarekin.	BIRDESKONTUA	4
2	Banku Zentralak bankuei egiten dien maileguren interes-tasa, bankuek dituzten letrak eta beste efektu batzuk oinarri hartuta.	GORDAILU-ERRAZTASUNA	2
3	Herrialde bateko banku zentralak egiten dituen merkatu irekiko eragiketak, dibisa-mugimenduek diru-eskaintzan dituzten nahi gabeko inpaktuak neutralizatzeko.	KREDITURAKO ERRAZTASUN MARJINALA	1
4	Eragiketa hauen bidez, Europako Banku Zentralak aukera ematen die bankuei egun baterako gordailuak egiteko banku zentral nazionaletan, aurretik zehaztutako interes-tasa batean.	ESTERILIZAZIO-ERAGIKETAK	3
5	Banku Zentralak merkataritza-bankuei ematen dizkien maileguren interes-tasa.	DESKONTU-TASA	5


6. kapituluaren. AUTOEBALUAZIORAKO GIDA

1. **Ekonomia suspertzen denean, zer aldaketa gertatzen da diru-merkatuaren orekako balioetan, *ceteris paribus*? Jo dezagun, krisi-egoera honetan, Banku Zentralak ekonomia-
ren interes-tasari konstante eutsi nahi diola kontsumoari eta inbertsioari mesede egiteko. Zer diru-politika ezarri beharko luke? Irudikatu emaitza grafikoki.**

Ekonomiaren susperraldia ekoizpen-jardueraren geldialdi edo ahulezia baten ostean datorren hazkunde-tasa txikien sinonimoa da. BPGd-ren hazkunde horrek ($\uparrow Y$), ondasun eta zerbitzuen eskaintza handiagoan islatuak, ekonomian errenten hazkundera eragiten du, eta, horren ondorioz, herriarren artean, gehiago gastatzeko nahia edo beharra. Prozesu horretan, erosteko ahalmenaren eskaria edo saldo errealeko eskaria gora egiten hasiko da [$\uparrow(M^D/P)$], produktuen erabilgarritasun handiagoa lortzeko.

Diru-merkatuaren ikuspegi sinplifikatuan, erosteko nahien aurrerapen edo zabalkunde hori likideziarengatik lehentasun-kurba lekualdatzearen bidez irudikatzen da [$\uparrow L(Y)$], gorantz edo eskuinerantz. Hasierako orekako interes-tasan, gehiegizko diru-eskaria sortzen da (bankuek eman dezaketean finantzaketa baino handiagoa eskatzen da), horrek interes-tasari gorantz indar egiten dio, eta, azkenean, orekako balio handiagoan kokatzen du.

Banku Zentralak nahi badu interes-tasak gora ez egitea, hau da, hasierako egoeran mantentzea, ekonomian eskatzen dioten likidezia eman beharko du, kreditu-urritasuna saihesteko (hori «jaira edaria ekartzea» esaten zaio). Bestela esanda, Banku Zentralak diru-politika hedatzailea ezarri beharko luke, hazkunde ekonomikoarekin bat datorrena. Horrela, banku-sistemak mailegu-eskaera berriei baldintza berberetan erantzuniko die, interes-tasak handitu beharrik gabe.



Aurreko grafikoan ikus daiteke, Banku Zentralak interes-tasa aldatu gabe mantentzeko egiten duen konpentsazio-ekintzaren eraginez, bi kurbak zenbateko berean mugituko direla eskuinerantz: erosteko ahalmena (M/P) ekonomian soilik handituko da.

Mota honetako neurriak hazkundera bultzatzeko duen traba da epe ertain eta luzera sor daitezkeen tentsio inflazionistak.

2. Diru-merkatuari buruzko informazio hau daukagu:

– $M^D / P = 180 - 200 i$ (Diru-eskari erreala)

– $M = 200$ (Diru-eskaintza nominala)


– $P = 2$ (Prezioen maila orokorra)

- a) Kalkulatu diru-eskaintza erreala eta orekako interes-tasa. Irudikatu diru-merkatuaren egoera hori grafikoki.

Diru-eskaintza erreala: $M / P = 100$

Orekako interes-tasa nominala: $M^D / P = M / P \Rightarrow i_O = 0,4$

Grafikoki:




- b) Kalkulatu interes-tasa berria, M 140 balioraino gutxitzen bada. Irudikatu grafikoki egoera hori.

Diru-eskaintza berria: $M / P = 70$

Orekako interes-tasa nominal berria: $M^D / P = M / P \Rightarrow i_O = 0,55$

Grafikoki:




Interes-tasak gora egiten du, diru-eskaintza nominala gutxitzen denean.

- c) Kalkulatu interes-tasa berria, a) ataleko orekatik abiatuz, prezioen maila orokorra (P) 1,25eraino jaisten bada. Irudikatu kasu hau berriro.

Diru-eskaintza erreal berria: $M / P = 160$

Orekako interes-tasa nominal berria: $M^D / P = M / P \Rightarrow i_O = 0,1$

Grafikoki:




Interes-tasak behera egiten du, ekonomiako prezioek behera egiten dutenean.

- d) Kalkulatu interes-tasa berria, a) ataleko orekatik abiatuz, M 240 balioraino handitzen bada, eta P 2,4 balioraino (hau da, biak % 20 handitzen badira).

Diru-eskaintza erreal berria: $M / P = 240 / 2,4 = 100$

Orekako interes-tasa nominal berria: $M^D / P = M / P \Rightarrow i_O = 0,4$

Grafikoki:



Orekako interes-tasa ez da aldatzen, diru-eskaintza erreala konstante mantentzen delako: prezioen mailak eta diru-eskaintzak ehuneko berean egiten dute gora.

3. Herrialde batean, Banku Zentralak aktibo hauek ditu:

- Mailegu garbia banku-sistemari: 2.000
- Zor publikoaren tituluak: 7.000
- Dibisen erreserbak: 1.000

Eskudiruzko gordailuen koefizientea (e) 0,15 da, eta kutxa-koefizientea (r), 0,05.

a) Lortu diru-oinarriaren balioa (MO).

$$MO = 10.000 \text{ m.u.}$$

b) Lortu balio hauek: diru-eskaintza (M), diru-biderkatzailea (m_M) eta banku-kreditua (BK).

$$m_M = 5,75, \quad M = 57.500 \text{ m.u.}, \quad BK = 47.500$$

c) Kalkulatu sortuko diren gordailuak (D) eta jendeak izango duen eskudirua (EMP).

D eta EMP kalkulatzeko dira M eta m_M adierazpenetatik ondorioztatzen den ekuazio-sistema oinarri hartuta.

$$D = 50.000 \text{ m.u.}, \quad EMP = 7.500 \text{ m.u.}$$

d) Kutxa-koefizientea 0,10era handitzen bada, lortu M eta m_M balio berriak. Kalkulatu BK, D eta EMP balioen aldaketak.

$$m_M \text{ berria} = m_M' = 4,6$$

$$M \text{ berria} = 46.000 \text{ m.u.}, \quad BK = 36.000 \text{ m.u.} \Rightarrow \Delta BK = -11.500 \text{ m.u.}$$

$$D \text{ berria} = 40.000 \text{ m.u.} \Rightarrow \Delta D = -10.000 \text{ m.u.}$$

$$EMP \text{ berria} = 6.000 \text{ m.u.} \Rightarrow \Delta EMP = -1.500 \text{ m.u.}$$

e) Enuntziatuko datuak oinarri hartuta, kalkulatu MO eta M balioetan gertatzen diren efektuak, kasu hauetan:

e.1) Banku Zentralak 1.000 m.u. balioko zor publikoaren tituluak erosi ditu.

$$\Delta MO = 1.000 \text{ m.u.} \Rightarrow \Delta M = 5.750 \text{ m.u.}$$

e.2) Banku Zentralak 500 m.u. balioko zor publikoaren tituluak saldu ditu.

$$\Delta MO = -500 \text{ m.u.} \Rightarrow \Delta M = -2.875 \text{ m.u.}$$

e.3) Banku Zentralak 200 m.u. balioko dibisak erosi ditu.

$$\Delta MO = 200 \text{ m.u.} \Rightarrow \Delta M = 1.150 \text{ m.u.}$$

e.4) Banku Zentralean, altxorren kontuko saldoa 400 m.u. handitu da.

$$\Delta MO = -400 \text{ m.u.} \Rightarrow \Delta M = -2.300 \text{ m.u.}$$

4. Ekonomia bateko datu monetario hauek ditugu, data jakin bati dagozkionak:

$$M = 116.000 \quad R = 4.000 \quad e = 0,45 \quad r = 0,05 \text{ (kutxa-koefizientea)}$$

$$r_L = 0,02 \text{ (kutxa-koefiziente legala)}$$

- a) Kalkulatu diru-biderkatzailea, eta interpretatu.

$$m_M = 2,9$$

Interpretazioan jaso behar da zein den diru-oinarriaren eta diru-eskaintzaren arteko lotura.

- b) Kalkulatu MO, BK, EMP, D, RL eta RE balioak urte hasieran. Biderkatzailea aldatzen ez bada, kalkulatu zenbat aldatu beharko litzatekeen diru-oinarria (ΔMO) urte amaierako diru-eskaintza 34.800 m.u. handitzeko ($\Delta M = 34.800$).

$$D = 80.000 \text{ m.u.}, EMP = 36.000 \text{ m.u.}, MO = 40.000 \text{ m.u.}$$

$$BK = 76.000 \text{ m.u.}, RL = 1.600 \text{ m.u.}, RE = 2.400 \text{ m.u.}, \Delta MO = 12.000 \text{ m.u.}$$

- c) Aurreko atala kontuan hartuta, jo dezagun, arrazoi autonomoengatik, diru-oinarria 10.000 m.u. handitzen dela. Zenbat aldatu beharko litzateke Banku Zentralak banku-sistemari emandako kreditua, diru-eskaintzaren helburu bera lortzeko? Zer tresna ditu Banku Zentralak, eta nola erabili beharko lituzke?

$$\Delta MO \text{ kreditu eran} = 2.000 \text{ m.u.}$$

Tresnak: merkatu irekiko eragiketak (errenta finkoko tituluak erostea) eta krediturako erraztasun marjinalak (birdeskontu-tasa gutxitzea).

- d) Diru-eskaintzaren helburua lortu ondoren ($\Delta M = 34.800$), nola aldatuko dira banku-kreditua (ΔBK), jendearen esku dagoen eskudirua (ΔEMP) eta gordailuak (ΔD)? Zer aldaketa gertatu dira banku-erreserbetan (ΔR) kutxa-koefizientea eta eskudiruzko gordailuen koefizientea aldatu ez badira? Adierazi banku-sistemaren balantze laburtu batean.

$$\Delta BK = 22.800 \text{ m.u.},$$

ΔD eta ΔEMP kalkulatzeko, ekuazioen sistema erabiliko dugu:

$$\Rightarrow \Delta D = 24.000 \text{ eta } \Delta EMP = 10.800$$

$$\Delta R = 1.200 \text{ m.u.}$$

BANKU-SISTEMA	
Aktiboa	Pasiboa
$\Delta R = 1.200$ $\Delta BK = 22.800$	$\Delta D = 24.000$


7. kapituluko soluzioak

7.1. Eskari agregatuaren kurba

1. Adierazi zer efektu duten gertaera hauek eskari agregatuan. Azaldu eskari agregatuaren kurbaren luzetarako mugimendua den (gorantz edo beherantz) edo kurbaren lekualdatzea (ezkererantz edo eskuinerantz).

- a) Diru-politikan izan den aldaketak eragindako interes-tasaren igoera.


Diru-politikak eskari agregatuaren kurbaren lekualdatzea dakar, diru-eskaintzaren aldaketak, interes-tasaren bidez, ekonomia errealerara mugitzen baitira (kontsumoa, inbertsioa...). Interes-tasak gora egiten badu, diru-politika murriztailearen aurrean gaude, eta eskari agregatua beherantz edo ezkererantz lerratuko da.



- b) Aberastasunaren balio erreala gutxitzea, prezioen maila igoztearen eraginez.

Prezioen maila orokorraren aldaketak ekonomiako gastu agregatuan edo gastu osoan duen eraginari, gizabanakoen aberastasunaren erosteko ahalmenean dituen ondorioak kontuan hartuta, aberastasun-efektu esaten zaio. Kasu zehatz honetan, prezioek gora egiten dute-

nean, kontsumitzaileak txiroago bihurtzen dira, haien aktiboen balioaren erosteko ahalmenak behera egiten duelako, eta hautemate horrek haien kontsumoa gutxitzea dakarrelako. Grafikoki, eskari agregatuaren kurban goranzko mugimendu baten bidez irudikatzen da.




- c) Lan-merkatu prekarioaren igurikimenak hurrengo hilabeteetarako.

Lan-merkatuarekiko igurikimenak txarrak badira, enplegua daukatenak beldur izango dira kaleratuko ote dituzten edo soldata gutxituko ote dieten, eta lanik gabe daudenek pentsatuko dute lanpostua aurkitzeko dituzten aukerak are okerragoak izango direla. Etorkizuneko sarreren inguruko panorama ilun horren eraginez, herritarrek erosketak murriztuko dituzte eta garai hobekak noiz etorriko zain geratuko dira. Eskari agregatua ezkererantz edo gorantz lerratuko da. Kasu honetan, hori guztia irudikatzen duen grafikoa a) ataleko berbera da.


- d) Familiei ezartzen zaizkien zuzeneko zergen beherakada (PFEZ, ondarearen gaineko zerga, eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga).

Familien zerga-tasek behera egiten badute, politika fiskal hedatzailearen aurrean gaude. Ekonomiaren gastu agregatua handitu egiten da, familiek orain errenta erabilgarri gehiago izango baitute, eta sarrera gehigarri horien zati bat ondasun eta zerbitzu gehiago erosteko erabiliko baitute. Eskari agregatuaren kurba eskuinerantz edo gorantz lerratuko da.



- e) Prezioen mailak behera egiten badu, nazioko produktuen lehiakortasuna suspertzen da munduko gainerako lekuetatik datozen produktuen aurrean.

Kasu honetan, eskari agregatuaren kurba beherantz lerratuko da, prezioek behera egiteak nazioarteko merkataritzan duen efektuaren eraginez. Prezio txikiagoek ondasunak atzerrian lehiakorrago egiten dituzte (esportazioek gora egiten dute) eta atzerriko ondasunak herrialdearen barruan garestitzen dituzte (inportazioak gutxitzen dira). Horren eraginez, esportazio garbiek gora egiten dute, eta, horrela, barruko ondasunetan egindako gastuak gora egiten du.



- f) Akzioen balioen beherakada, burtsako kotizazioak modu bortitzean erori direlako.


Burtsa erortzean, akzioen balorazioak galerak dakartza finantza-inbertsiogileen aberastasunean. Inbertsiogile horiek enpresak eta familiak dira, eta, haien aktiboen erosteko ahalmena modu bortitzean murrizten dela ikusita, gastuak mugatu edo gutxituko dituzte, inbertsio-arlokoak eta kontsumo-arlokoak, hurrenez hurren. Eskari agregatuaren kurba ezkererantz edo beherantz lerratuko da, a) ataleko grafikoan ikusten den moduan.

2. Komunikabideetan jakinarazi dute euroak balio-galera handia abiatu duela nazioarteko beste txanpon batzuekin alderatuta, batez ere dolarrarekin alderatuta. Ekonomia ikasten ari zaretenez, gaiaren inguruko interesa duzue, eta planteatzen duzuen lehenengo gauza da ea nola aplikatu dezakezuen gertaera hori eskaintza eta eskari agregatuaren eremuan. Komunikabideek diotenez, euroaren balio-galerak Espainiako salmentak hobetuko ditu atzerrian, Espainian prezioen maila agregatua berbera izan arren. Horrek aztarna bat ematen dizue balio-galerak eskari agregatuaren kurban eragina izango duela jakiteko. Baina nola jasoko da gastuaren aldaketa hori: kurban lekualdatzea edo mugimendua egongo da?

Erantzun zuzena eskari agregatuaren kurba lekualdatzea da. Zehatz esanda, enuntziatuan deskribatzen dena eskari agregatuaren kurbaren lerratzea da, eskuinerantz edo gorantz.

Hau da arrazonamendua. Aldaketa-tasaren aldaketak esan nahi du, herrialde bakoitzak ekotzitako ondasunen prezioak nazio-txanponari dagokionez aldatu ez diren arren, ondasun horien prezioa aldatu egingo dela beste txanpon bat duten herrialde batzuetan. Enuntziatuko kasuan, euroak dolarraren aurrean balioa galtzeak eragiten du euroetan baloratutako Espainiako ondasunak

EEBBn prezio baxuagoetan saldu ahal izatea (euro batek dolar gutxiago balio du), eta Estatu Batuetako ondasunak Espainian garestiago saldu behar izatea (dolar batek euro gehiago balio du). Amaierako efektu garbia izango da Espainiako ondasunetan gastu handiagoa egitea.




7.2. Eskaintza agregatuaren kurbak

3. Adierazi epe laburrean zer efektu duen eskaintza agregatua gertaera hauetako bakoitzak, *ceteris paribus*. Azaldu eskaintza agregatuaren kurbaren lekualdatzea gertatzen den epe laburrean edo mugimendua kurba osoan, *ceteris paribus*.


- a) Azken sei hilabeteetan, prezioen gorakada leun baina jarraituarekin batera, ekoizpen agregatuak gora egin du.

Hori da eskaintza agregatuaren kurbak epe laburrean gorantz mugitzea. Prezioen maila igotzeak, epe laburrean enpresen kostuek duten izaera finkoarekin batera (kostu nagusia, lan-arlokoa, hitzarmen kolektiboek finkatzen dute), eragin du ekoiztutako unitatearen irabazia handiagoa izatea, eta, horren eraginez, enpresaburuek ekonomian ondasun eta zerbitzu gehiago ekoitzi eta eskaini dituzte.




- b) Petrolioaren prezioak lurra jo duenez, nazio-industriaren ekoizpena handitu egin da.

Epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba beherantz edo eskuinerantz lerratu da. Oinarrizko energia-lehengai baten prezioa murrizteak, esaterako petrolioaren prezioa murrizteak, enpresentzat aleko irabazien marjina handitzen du, ekoizpen-kostuak orain txikiagoak direlako. Enpresek eskaintzako kopurua handituko dute, ekonomiako prezioen maila edozein izanda ere.



- c) Langilea babesteko lege berriak direla eta, enpresek gizarte-kotizazioen ordainketak handitu behar izan dituzte erretiro-pentsioak bermatzeko; horren eraginez, ekoizpenak behera egin du.

Epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba gorantz edo ezkererantz lerratu da. Langileen baldintzak hobetzen dituzten (jubilatzeke unean bada ere) klausula batzuk nahitaez sartzeak langileen kontratazioa eta mantentzea garestitzen du. Kostuak handitzen direnez eta aleko irabaziak murriztu, enpresaburuak ekoizpena murrizten ahalgintzen dira. Ekoizpenaren birdoitze horrek epe laburrean langile gutxiago egotea ekarriko du.



- d) Geldialdi baten ostean ekoizpenak izan duen bultzadaren arrazoia izan da soldata nominalen igoera lan-produktibitatearen gorakada baino txikiagoa izatea.

Lan-kostuak langileen produktibitatearen hazkundera baino gutxiago hazten badira, epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba beherantz edo ezkerrerantz lerratuko da, b) ataleko grafikoan bezala. Hemen, argudioa oso erraza da. Langile bakoitzak, enpresa-eginkizunetan, kontratazio-kostuaren gaintik dagoen sarrera sortzen du, eta horrek enpresaburuari etekin positiboa ematen dio. Aleko irabaziaren hazkundera horrek bultzatu du gehiago ekoiztera eta eskaintzera.

- e) Enpresen jarduera gehiago informatizatzeak ekoizpen agregatua handituko du.


Enpresa-jarduerak gehiago informatizatzea da teknologia berriak aplikatzea lan egiteko moduan efizientzia handiagoa lortzeko, hau da, produktibitate gehiago lortzeko. Produktiboagoa izateak esan nahi du baliabideen kantitate berarekin langile batek gehiago ekoiz dezakeela edo produktu kantitate bera lortzeko baliabideen kantitate txikiagoa behar dela. Hori da berrikuntza teknologikoen efektua: epe laburreko eskaintza agregatua modu iraunkorrean handitzea. Egoera honetan, buruan izan behar dugun grafikoa b) atalean marraztu dugu, aurreko atalarekin ere lotuta dagoena.


4. Jo dezagun ekonomia ekoizpen-maila potentzialean dagoela. Denbora bat igaro ondoren esaten badizute ekoizpen agregatua eta prezioen maila handitu direla, zer informazio behar duzu jakiteko hazkundera hori gertatu den prezioen gorakadak eskaintza agregatuaren kurban epe laburrean eragindako mugimendurengatik edo eskaintza agregatuaren kurbaren epe luzerako lekualdatzearengatik?

Jakin beharko genuke aipatzen den ekoizpen-maila potentziala edo naturala den (Y_{EO}) edo, aitzitik, epe luzeko bilakaera honez bestelako ekoizpen-maila den ($Y \square Y_{EO}$). Lehen kasuan, ekoizpena potentziala bada, eskaintza agregatuaren kurbaren epe luzeko lekualdatzeari buruz arituko ginatke; bigarren kasuan, eskaintza agregatuaren kurbaren epe luzeko mugimenduari buruz.

Egiantan, hemen bereizi nahi dena da ziklo ekonomikoan dagoen goranzko mugimendua (berreskuratzea edo hedatzea) eta hazkunderaren bide historikoaren bilakaera (BPGd potentzialaren joera).

Grafikoki:






7.3. Oreka makroekonomikoak

5. Oreka makroekonomikoaren erreminta erabiliz, deskribatu eta irudikatu gertaera ekonomiko hauetako bakoitzak prezio- eta ekoizpen-mailetan epe laburrean dituen efektuak, *ceteris paribus*.


- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, gobernuak behartu du lanaldia ordubete murriztera, soldatak aldatu gabe.

Lan-kostuen hazkundera \Rightarrow Eskaintza agregatuaren kurba gorantz lekualdatzea (\downarrow SA epe lab.) \Rightarrow Oreka makroekonomiko berria: prezioen mailak gora egitea (\uparrow P) eta ekoizpena murriztea (\downarrow Y).




- b) Gizartean energia garbien aldeko sentikortasun gero eta handiagoa dagoenez, energia berri-erregeneratzaileen enpresak inbertsio handiak egiten hasi dira.

Inbertsioaren hazkundea \Rightarrow Eskari agregatuaren kurba gorantz lekualdatzea ($\uparrow EA$) \Rightarrow Oreka makroekonomiko berria: prezioen mailak gora egitea ($\uparrow P$) eta ekoizpena handitzea ($\uparrow Y$)



- c) Defizit publikoa murrizteko, Parlamentuak, ezohiko saioan, zergak handitzea eta gastu publikoa murriztea erabaki du.

Politika fiskal murriztailea \Rightarrow Eskari agregatuaren kurbaren lekualdatzea beherantz ($\downarrow EA$) \Rightarrow Oreka makroekonomiko berria: prezioen maila gutxitzea ($\downarrow P$) eta ekoizpena murriztea ($\downarrow Y$)



- d) Klima-aldaketak eragindako hondamendien eraginez, azken bi urteetan natura-baliabi-deak gutxiago aprobetxatu dira, eta, horren eraginez, ekoizpenak behera egin du.

Nekazaritzako ekoizpen-egitura murriztea \Rightarrow Jaki eta lehengai gutxiago erabilgarri \Rightarrow Eskaintza agregatuaren kurba gorantz lekualdatzea ($\uparrow SA$ epe lab.) \Rightarrow Oreka makroekonomiko berria: prezioen maila handitzea ($\uparrow P$) eta ekoizpena murriztea ($\downarrow Y$)

a) ataleko grafiko bera.

- e) Kontsumitzaileek eta enpresek ekonomiaren ibilbidean duten konfiantza-indizeak argitaratu dira, eta etorkizuneko ekonomia-jardueran optimismo handia jarrita dagoela ikusi da.

Inbertsioak eta kontsumoak gora egitea \Rightarrow Printzipioz, etorkizunerako aurreikusitako erosketak orainaldira aurreratzen dira \Rightarrow Eskari agregatuaren kurba gorantz lekualdatzea ($\uparrow EA$) \Rightarrow Oreka makroekonomiko berria: prezioen maila handitzea ($\uparrow P$) eta ekoizpena handitzea ($\uparrow Y$)

b) ataleko grafiko bera.


- f) Gurekin merkataritza-tratuak dituzten naziorik aberatsenen hazkundera gutxitzen hasi da, eta, horrekin batera, baita atzerrian egiten duten gastua ere.

Esportazioak gutxitzea \Rightarrow Kanpoko gastua barruko produktuetan gutxitzea \Rightarrow Eskari agregatuaren kurba beherantz lekualdatzea ($\downarrow EA$) \Rightarrow Oreka makroekonomiko berria: prezioen maila gutxitzea ($\downarrow P$) eta ekoizpena murriztea ($\downarrow Y$).

c) ataleko grafiko bera.

- g) Gobernuak lan-arloko erreforma onetsi du, eta, horren bidez, askoz gehiago malgutu dira kontratazioko kostuak zein kaleratzeen ondoriozko kalte-ordainak.

Enpresentzako lan-zamak murriztea (kostu gutxiago) \Rightarrow Eskaintza agregatuaren kurba beherantz lekualdatzea ($\uparrow SA$ epe lab.) \Rightarrow Oreka makroekonomiko berria: prezioen maila gutxitzea ($\downarrow P$) eta ekoizpena handitzea ($\uparrow Y$)



6. Jo dezagun ziklo ekonomikoak sortu eta horiei jarraipena ematen dieten perturbazio motak (eskaintza eta eskaria, positiboak eta negatiboak) antolatzea eskatu dizutela. Gehien nahi dutenetik gutxien nahi dutenera antolatuta, makroekonomian lortu nahi diren helburuetan eragiten dituzten desorekak edo desbideratzeak oinarri hartuta (hau da, hazkunde ekonomikoa, enplegu handia eta inflazio txikia). Nolakoa izango litzateke zure sailkapena? Zergatik?

Hau izango litzateke perturbazio ekonomikoen sailkapena, lehenetsun-ordenaren arabera:


- Lehenengo eta behin, eskaintza-perturbazio positiboak kokatuko genituzke, modu positiboan eragiten baitute ekonomiako prezioetan eta ekoizpen-mailan ($\downarrow P$ eta $\uparrow Y$). Normalean, perturbazio horiek teknologia berrien laguntzaz datoz, eta horiek produktu berriak eta hobek sortzea eta zabaltzea sustatzen dute.
- Bigarren, beste perturbazio positiboa kokatuko genuke, eskariarena, jotzen baldin badugu eskari agregatua handitzea ekoizpenaren (eta enpleguaren) hazkunde garrantzitsuei lotuta dagoela, prezioak gehiegi igo gabe ($\uparrow P$ eta $\uparrow Y$). Perturbazio desiragarria da, adibidez, ekonomiak enplegu oso urrun dauden koiunturak abiapuntu dituenean, eskari agregatuak ekonomia hazteko dituen indarra eta marjina oso zabalak direnean.
- Hirugarren, lehenengo perturbazio negatiboa jarriko genuke, eskari agregatuak ekoizpen-eta enplegu-mailetan eragiten duena ($\downarrow P$ eta $\downarrow Y$). Kasu honetan, ekonomian gastatzeko nahien beherapen nabarmenak atzeraldi indartsuak eragin ditzake, edo krisiak luzatu ekonomia-jardueran geldialdi luzeak eginda. Perturbazio horiek kontsumoaren apatiarekin eta inbertsioa bertan behera uztearekin atzera elikatzen dira. Prezioen beherakadak (deflazioa) atonia hori handitu dezake gizabanakoek erosketak atzeratzen badituzte, prezioak gehiago noiz jaitsiko zain.

Amaitzeko, perturbaziorik okerrenak eskaintzarenak dira. Suntsitzaileenak dira, larrienak, kalterik handienak eragiten dituztenak, indarrean dauden ekoizpen-ereduak hondatzen dituztelako. Industria-sektore asko birmoldatu beharko dira berriro ere efizienteak eta lehiakorragoak izan daitezten, kostuen egitura berriekin. Ekoizpen-sistema berri horiei esker, lehengaien edo baliabide giltzarrien prezioen gorakada eutsiak leundu ahal izango dira, adibidez, petrolioaren prezioa. Perturbazio horiek ekarri zuten *estanflazio* kontzeptua (geldialdia + inflazioa: $\uparrow P$ eta $\downarrow Y$).

7. Denboran gehiegi urrundu gabe, duela 30 edo 40 urte, Espainiako edozein eskualdetako herritarren ongizate materiala, ondasunen eta zerbitzuen kantitate erabilgarrian neurtuta, gaur egungoa baino askoz txikiagoa zen (ibilgailu, telebista, telefono... gutxiago). Hala ere, garai hartako prezioen mailak gaur egungoak baino askoz txikiagoak ziren (adibidez, liburuen, zigarroen, edarien... prezioak merkeagoak ziren). Deskribatu eta irudikatu belaunaldien arteko alde ekonomiko hori, SA-EA eredu hiru kurbak erabiliz.


Enuntziatuan herrialde bateko bizi-kalitate materialari aipamen egiten zaio, denboran urrundu dauden bi unetan. Bi egoera, epe luzeko bi orekari dagozkionak, ekoizpenean zein prezioetan urrundu daudenak.

Duela hiru edo lau hamarkada, eskari agregatuaren kurba orain baino baxuagoa zen, familien, enpresen edo gobernuen gastatzeko ahalmena ere horrelakoa zelako (sarrerak txikiagoak ziren). Bestalde, denborak aurrera egin ahala, aurrerapen teknologikoei eta berrikuntzei esker, ekoizpen potentziala eta horren kalitatea asko handitu dira. Bi ezaugarriak lotzen baditugu (eskari txikia / ekoizpen potentzial txikia duela hamarkada batzuk eta eskari handia / ekoizpen potentzial handia gaur egun), grafikoki azal dezakegu belaunaldien arteko kontraste hori.




8. Epe labur eta luzeko eskari eta eskaintza agregatuen kurbak erabiliz, azaldu nola mugituko den oreka epe laburrean Espainian 2008an hasitako atzeraldiaren eta gastu publikoaren murrizketen (hezkuntzan, osasunean, azpiegiturretan...) politika indartsuaren eraginez. Azaldu, merkatuari askatasunez funtzionatzen uzten bazaio, ekonomia epe luzean (iraupen zehaztugabeko aldia) enplegu osoko ekoizpen-maila potentzial edo naturalera itzuliko dela. Adierazi zein diren epe labur eta luzeko efektuak prezioen mailan eta ekoizpen agregatuan.

Epe laburreko eragina: $\downarrow P$ eta $\downarrow Y$



Epe luzerako eragina: $\downarrow P$ eta $\uparrow Y$



Lehenengo grafikoan, 2008ko atzeraldiak hasieran eragin zuen eskariaren perturbazio negatiboaren efektua epe laburrean ikus daiteke (Espainian bat egin zuten hirigintza-burbuilaren boomen amaierak eragindako desazelerazioak eta sektore pribatuaren kreditua oso zorrotz murriztu zuen nazioarteko banku-krisiak), eta, ondoren, gastu publikoaren murrizketa-politika. Eskaera agregatua gutxitzeak, apurka-apurka, prezioak txikitzea ekarri zuen, eta, horren eraginez, enpresek errentagarritasuna galdu zuten. Epe laburreko soldaten zurruntasunaren aurrean, enpresaburuek irabazien beherakada horri lehenengo eta galeren orokortzeari gero aurre egiteko alternatibak izan ziren negozioak bertan behera uztea edo jarduera murriztea langile gutxiago erabiliz. Edozein kasutan, horren eraginez, ekoizpen-mailak modu bortitzean egin zuen behera, eta langabezia-tasak gora.

Bigarren grafikoan erakusten da epe luzeko doikuntza nolakoa izan ohi den merkatuen funtzionamendu askeari uzten bazaio prozesu autoerregulatzailerak zuzentzen. Langabeziak gora egitea, denboran irautea eta lanpostu askotan kaleratzeko beldurra izatea direla bide, langileak prest egongo dira gero eta gehiago soldatak eta lan-baldintzak murriztea onartzeko (horri soldata-debaldazioa esaten zaio). Kostuen apurka-apurkako gutxitze hori grafikoan irudikatzen da, eskaintza agregatuaren kurba epe laburrean beherantz lekualdatuta. Enpresaburuek apurka-apurka irabazien inertziari berriro heltzea lortzen dute, eta ekonomia enplegu osoko ekoizpen-mailara itzultzen da, baina prezioen maila txikiagoekin, soldatak ere txikiagoak direlako.

7.4. Politika makroekonomikoak

9. Norbaitek hau esaten dizu: *«Diru-politika edo politika fiskal hedatzaileek egiten duten gauza bakarra da ekonomia aldi baterako gehiegi suspertu. Ongialdi laburra lortzen da, baina gero inflazioa agertzen da».*


- a) Azaldu zer esan nahi duen baieztapen horrek, eskaintza eta eskari agregatuaren ereduaren bidez.

Horrek esan nahi du ekonomia ekoizpen-maila potentzian badago, eskari politika hedatzaile batek eragindako estimularen eraginez, hazkunde ekonomikoa epe laburrean egoera natural edo potentzialaren gainetik kokatuko dela. Hala ere, inguruabar horietan, ekoizpen-faktoreetatik ateratzen den gehiegizko erabilerak (adibidez, langabezia-tasa tasa naturalaren azpitik kokatuko da) arrail inflazionista eragingo du, eta hori prezioak/soldatak kiribilak elikatuko du. Apurka-apurka, inflazioaren hazkunde etengabearen eraginez, lehiakortasuna galdu eta herritarren bizitza-maila garestituko da, ekonomia berriro ere maila potentzian kokatu arte. Testuinguru horretan, diru-politika edo politika fiskal hedatzaileen azken emaitza izango da prezioak (inflazio-tasak) epe luzera handitzea, eta ekoizpen-maila egoera potentzian aldatu gabe geratuko da.

- b) Egonkortze-politiken aurkako argudio baliagarria da? Zergatik bai eta zergatik ez?

Lehen esan dugun moduan, ziklo ekonomikoaren egonkortze-politiken aurkako argudio baliagarria da bakar-bakarrik ekonomia maila potentzialetik abiatzen bada. Depresioaren edo atzeraldi larriaren kasuan, arrail atzerakor indartsua dagoenean, politika hedatzaileak efektiboak izango dira epe laburrean hazkunde ekonomikoa sustatzeko, inflazio-tasen gaineko ondorioak txikiak edo deusezak izango direlako.

10. Grafiko honetan, ekonomia epe laburreko oreka makroekonomikoaren puntuan dago, E_1 .




a) Ekonomia atzeraldian dago edo arrail inflazionistaren aurrean?

Orekako ekoizpen-maila maila potentzialaren azpitik dagoenez, arraila atzerakorra da, ez inflazionista.

b) Zein eskari-politika jar daitezke praktikan epe luzeko oreka makroekonomikora itzultzeko? Zer arazo dituzte? Irudikatu problema horiek grafiko batekin.

Diru-politika eta politika fiskal hedatzaileen eraginez, eskari agregatua handituko da oreka berria epe luzeko eskaintza agregatuaren kurbaren gain kokatu arte. Arazoa da inflazioa eragiten dutela.



c) Estatuak eskurik hartuko ez balu, ekonomia bere kabuz itzuliko litzateke epe luzeko oreka makroekonomikora? Azaldu eta irudikatu grafiko baten bidez.

Eskariaren perturbazio negatiboak epe luzera duen doikuntza azaltzeko, 8. galderan aipatu den berbera da arrazonamendua (8. galderaren erantzuneko bigarren grafikoa).

7. KAPITULUKO *TEST* ERAKO GALDEREN SOLUZIOAK

- | | | | | |
|------|------|------|------|-------|
| 1) a | 3) b | 5) c | 7) d | 9) e |
| 2) e | 4) c | 6) b | 8) c | 10) c |

7. KAPITULUKO *EGIA* ALA *GEZURRA* GALDEREN SOLUZIOAK

1. Enpresaren eta langileen artean etengabeko soldata-berrikuspenak eragozten dituzten hitzarmen kolektiboak sinatzeari esker, epe laburrean ekoizpena handitu daiteke prezioen maila orokorrak gora egiten duenean.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Argudio hau eskaintza agregatuaren kurbaren epe luzeko hazkundearen oinarrian dago. Lan-kostuak enpresen ekoizpen-kostu nagusiak dira, eta epe laburrean finkoak direla jotzen da enpresen eta langileen artean hitzarmen kolektiboak sinatzen direlako (hitzarmen horietan, bi alderdiek bete behar dituzten soldata-baldintzak ezartzen dira, kasu askotan, hurrengo hiru urteetan).

Soldata nominalak epe laburrean mugitzen ez badira, prezioen gorakada guztiek enpresei irabazia emango die ekoiztiko unitate bakoitzeko, eta, horren eraginez, ekoizpena handituko dute. Hori dela eta, lotura positiboa dago prezioen maila orokorraren (P) eta ekoizpen-maila agregatuaren (Y) artean epe laburrean, *ceteris paribus*.

2. Politika monetario eta fiskaletatik abiatuta soilik izan dezake lekualdatzea eskari agregatuaren kurbak.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Eskari agregatuaren kurba lekualdatzeko arrazoiak izan daitezke eskari agregatuaren osagai batean edo batzuetan nola edo hala eragingo duten aldagai, egoera edo jardun guztiak (hau da, kontsumoa, inbertsioa, gastu publikoa edo esportazio garbiak). Eta horretan diru-politikan eta politika fiskaletan baino gehiago sartzen da. Modu horretan, EA kurbaren lekualdatzerako beste arrazoi batzuk hauek dira: igurikimenak, aberastasunaren aldaketa, kapital fisikoaren bolumena eta nazioarteko koiuntura (munduko gainerako herrialdeen aldaketa-tasaren eta errenta-mailen aldaketaren bidez).

3. Produktibitatea handitzearen eraginez, eskaintza agregatuaren kurba epe laburrean eskuinerantz lerratzen da, eta energiaren prezioa handitzearen eraginez, ezkererantz lerratzen da.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Eskaintza agregatuaren kurbaren epe laburreko lekualdatzeak gertatzen dira ekonomia bateko ekoizpen-gastuak oro har aldatzen dituzten aldagai edo gertaera guztiak abiapuntu hartuta.

Ekoizpen-kostuak handitzen dituen gertaera bat badago, SA kurba epe lab. gorantz edo ezkererantz lerratzen da (prezioen maila bererako gutxiago ekoitzi nahi izango da, edo, bestela esanda, ekoizpen-maila bera prezio handiagoetan soilik eskainiko da). Lekualdatze horren arrazoien artean, energiaren prezioa handitzea dago, energia (adibidez, elektrikoa) enpresentzat inputa delako.

Aitzitik, ekoizpen-kostuak gutxitzen badira, EA kurba epe lab. beherantz edo eskuinerantz lerratzen da (prezioen maila bererako gehiago ekoitzi nahi izango da, edo, gauza bera dena, ekoizpen-maila bera eskaini ahal izango da prezio baxuagoetan). Produktibitatea handitzea, *ceteris paribus*, lekualdatze horien arrazoien barruan sartzen da, produktibitate handiagoa lehiakortasun handiagoaren sinonimoa baita; izan ere, kostu gutxiagorekin ekoitz daiteke.

4. **Eskaintzaren ekonomialariek (klasikoak) defendatzen dute zergak indarrez jaisten badira (politika fiskal hedatzailea), epe luzean inbertsio pribatua handitu eta eskari agregatua bultzatuko dela beti.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Ekonomialari klasikoek (*eskaintzaren ekonomialari* ere esaten zaie) enuntziatuan esaten denaren kontrakoa defendatzen dute. Pentsamendu-ildo liberal edo klasikoaren ustez, politika fiskal hedatzaileak (gastu publikoa handituta edo zergak gutxituta) epe luzean enpresa-esparruan ekimen pribatua kanporatzea eragiten du, eskari agregatuan aldaketa handirik egon gabe.

Inbertsio pribatuaren kanporatze-efektu horren arrazoia, funtsean, sektore publikoaren zorpetzeak interes-tasa handitzea da. Sekuentzia hau izango litzateke: zenbat eta defizit gehiago egon, hori finantzatzeko zor publiko gehiago jaulkitzea, gobernuak zor hori finantzatzeko interes-tasa gehiago, mailegu garestiagoak enpresen inbertsioa finantzatzeko, inbertsio pribatuaren eskari gutxiago, eskari agregatu gutxiago, eta, amaitzeko, hazkunde ekonomiko txikiagoa.

5. **Epe laburrean, zergak gutxitzean, ekoizpena eta prezioen maila orokorra handituko dira.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Zergak gutxitzea politika fiskal hedatzailearen neurri edo jardun diskrezionala da. Politika fiskalek edo diru-politikek eskari agregatuan eragiten dutenez, ukitutako kurba eskari agregatuarena da. Horrez gain, izaera hedatzailea duenez, EA kurba eskuinerantz edo gorantz lerratuko da.

SA-EA ereduaren arabera, EA kurbaren lekualdatze horrek, SA kurba epe laburrean erreferentzia moduan hartuta, prezioen (P) maila orokorra eta ekoizpen-maila (Y) handitzea ekarriko du. Termino dinamikoetan, inflazioak eta hazkunde ekonomikoak gora egingo dute.

6. **Inbertsio pribatuaren kanporatze- edo lekualdatze-efektua, politika fiskal hedatzailearen defizit publikoak eragindakoa, txikiagoa izango da Banku Zentralak diru-eskaintza handitzen badu.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Inbertsio pribatuaren kanporatze-efektua ekarriko du politika fiskal hedatzaileak eragindako interes-tasaren hazkundeak. Hain zuzen ere, gastu publikoa zenbat eta handiagoa izan edo zergen murrizketa zenbat eta handiagoa izan, estatuaren zorpetzea eta defizit publikoa handiagoak izango dira. Panorama horren aurrean, interes-tasa handitzea (eta, horren ondorioz, likidezia gutxitzea) bi bidetatik etorriko da: (1) gobernuak zor publiko gehiago jaulki behar du, eta balizko kaudimengabezia dela-eta finantza-merkatuetan sortutako zalantzen aurrean, gobernuak interes-tasa gehiago handitu beharko du; eta (2) gobernuak defizita likidatzeko gero eta finantza-baliabide gehiago xurgatzen baditu, sektore pribatuari baliabide gutxiago geratuko zaizkio inbertsio-proiektuetarako, eta, gainera, enpresei emandako maileguen kantitate txikiago horrek interes-tasa handiagoak izango ditu.

Beraz, politika fiskal hedatzailearen aurrean, Banku Zentralak diru-eskaintza handitzen badu, interes-tasa handitzea neutralizatuta egongo da (leku batetik handitzen dena beste batetik gutxituko da), eta ekonomian sektore pribaturako ez da horrenbeste likidezia-urritasun egongo. Ildo horretatik, inbertsio pribatuaren kanporatze-efektua murriztu egingo litzateke.

7. **Egonkortze-politiken bidez, ziklo ekonomikoaren oszilazio-efektuak konpentsatu nahi dira.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Egonkortze-politikak edo politika antiziklikoak eskariaren politikak dira (fiskala edo monetarioa); horien bidez, kapitalismoaren errealitateari nahitaez lotutako ekonomia-jardueraren fluktuazio bortitzak saihestu nahi dira.

Egonkortze-politika esaten zaie leundu nahi dituztelako atzeraldiek eragindako BPGd-ren erorketak eta gehiegizko optimismoak eragindako BPGd-ren hedatze azeleratuak (edo ekonomia berriz berotzea). Lehen kasuan, politika hedatzaileak aplikatu beharko lirateke (adibidez, gastu publikoa handitzea edo interes-tasa gutxitzea) jarduera berriz aktibatzeke eta atzeraldi guztiek arlo sozial, ekonomiko eta politikoa ekartzen dituzten nahigabeko ondorio guztiak saihesteko. Bigarren kasuan, ezarri beharreko politikek izaera murriztailea dute (gastu publikoa gutxitzea edo interes-tasa handitzea) inflazioari aurre egiteko eta, modu horretan, alderdi interesgarri batzuk berreskuratzeke, hala nola lehiakortasuna eta etorkizunean konfiantza izatea.

8. Epe luzera, diru-politika murriztaileak prezioen maila orokorra txikituko du, besterik ez.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Diru-politika murriztaileak eskari agregatua gutxituko du interes-tasa handituko delako edo ekonomian likidezia gutxituko delako. Eskari agregatuaren kurba gutxitzen bada (ezkererantz edo beherantz lerratzea) epe luzeko efektua prezioen maila orokorra gutxitzea izango da, eta ekoizpen-mailak aldatu gabe jarraituko du.

Berriro ere esango dugu hori epe luzeko efektua izango dela, denbora-tartetxoa igaro ondoren, diru-politika murriztaileak hasieran eragindako atzeraldiak eragingo baitu langileek soldata-eskaera gero eta gutxiago egitea (eta, horrekin batera, lan-kostuak gutxitzea). Horri esker, apurka-apurka ekonomia hazi egingo da, berriro ere enplegu osoko mailan kokatu arte.

9. Epe laburreko eskaintza agregatuaren kurban goranzko mugimendua egoteak esan nahi du, prezioen maila orokorrak gora egiten duenean, herrialdeko enpresa guztien ekoizpenak gora egiten duela.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Eskaintza agregatuaren kurbak epe laburrean hauen arteko lotura biltzen du: batetik, ekonomiako prezioen maila orokorra edo indizea P (ohikoena KPI da: gehien kontsumitzen diren ondasunen eta zerbitzuen prezioen batez besteko haztatua), eta, bestetik, ekoizpen agregatuaren maila Y (edo BPGd: herrialde bateko mugen barruan azken ondasun eta zerbitzuen ekoizpena).

Prezioen indizea handitzen bada (P), epe laburrean BPGd-ren eskaintza handituko da (Y), baina horrek ez du esan nahi herrialdeko enpresa guztien ekoizpena handituko denik. BPGd edo ekoizpen agregatua handitzeak esan nahi du, oro har, herrialdean ezarritako enpresek gehiago ekoitziko dutela, ez enpresa guztien ekoizpena handituko dela. Batzuen asko handituko da, beste batzuen gutxiago; baina beste batzuen ekoizpena gutxitu egingo da, haien produktuen eskariaren edo eskaintzaren eraginez, eta agian itxi egingo dira.

10. Ekoizpena maila naturalean edo enplegu osoko mailan kokatzen denean, ez dago erabili gabeko baliabiderik.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Baieztapena zuzena da azken hiru hitzetara arte. Hau da, eskaintza agregatuaren kurban definizioak esaten digu konstante mantentzen direnak direla finkotzat hartzen diren edo enpresek erraz aldatu ezin dituzten kostuen determinatzaile guztiak. Hau da, hitzarmen ko-

lektiboetan finkatutako soldata nominalak (eta gainerako lan-baldintzak), enpresen eta hornitzaileen arteko kontratuetan zehaztutako lehengaien prezioak, eta enpresen barruan apurka-apurka aplikatzen diren teknologia eta berrikuntzak. Determinatzaile horien baldintzetan edo inguruabarretan edozein aldaketa gertatzen bada, SA kurba epe lab. lekualdatuko da, eskuinerantz (kostuak gutxitzen badira) edo ezkerrerantz (kostuak handitzen badira). Beraz, lekualdatzeak beti ez dira eskuinerantz.

7. KAPITULUKO *PAREKATZEEN* SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Inbertsio pribatuak behera egitea, politika fiskal hedatzaileetako neurrien eraginez interes-tasek gora egiten dutelako.	ALDAKETA TEKNOLOGIKOA	3
2	Prezio nazionalen maila orokorrak atzerriko prezioekin alderatuta gora egiten duenez, esportazio garbiak murriztu egingo dira, eta, horren ondorioz, baita eskari agregatua ere.	EKOIZPEN POTENTZIALA EDO ENPLEGU OSOKOA	4
3	Ekoizpena egiteko faktore edo metodo berriak asmatzea edo aurkitzea esan nahi du.	KEYNES EFEKTUA EDO INTERES-TASARENA	5
4	Langabezia-tasa natural izenekoarekin bat datorren ekoizpen-maila da.	KANPORATZE EFEKTUA EDO <i>CROWDING-OUT</i>	1
5	Prozesu honen bidez, prezioen maila orokorra handitzean, diru-eskaintza erreala gutxitu, interes-tasa handitu, inbertsioa gutxitu eta, beraz, eskari agregatua murrizten da.	NAZIOARTEKO MERKATARITZAREN EFEKTUA	2

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Eragile ekonomikoak irudikatzen du erosteko prest dauden ekoizpen agregatuaren bolumena.	ESKAINTZAREN PERTURBAZIOAK	2
2	Eskaintza agregatuaren gain jokabide kontrolaezin eta sumatu ezina duten aldagai jakin batzuek izaten dituzten aldaketak dira.	ESKARIAREN PERTURBAZIOAK	5
3	Enpresak merkatura ateratzeko prest dauden ekoizpen agregatuaren bolumen osoa irudikatzen du.	EGONKORTZE-POLITIKA EDO POLITIKA ANTIZIKLIKOAK	4
4	Agintariak hartutako neurriak edo jardunak dira, zikloaren kontrako efektuak konpentsatzeko edo moteltzeko.	ESKARI AGREGATUA	1
5	Ekoizpenaren oszilazioak dira, eskari agregatuaren bilakaera ezegonkorak sortutakoak.	ESKAINTZA AGREGATUA	3

7. KAPITULUKO SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Propietate honen arabera, diru kantitatearen aldaketek prezioetan soilik daukate eragina (aldagai errealetan ez dute inolako eraginik).	EPE LABURRA	5
2	Helburu makroekonomikoetan eragina duten eta agintariek kontrola ditzaketen aldagaiak dira.	POLITIKA EKONOMIKOAREN TRESNAK	2
3	Egoera honetan, prezioen maila orokorra handitzeak aberastasun erreala gutxitzen du eta, horrekin, baita kontsumoa eta eskari agregatua ere.	DIRUAREN NEUTRALITASUNA	1
4	Denbora-tarte honetan, faktoreen prezioak produktuen prezioen aldaketetara egokitu daitezke.	EPE LUZEA	4
5	Denbora-tarte honetan, faktoreen prezioak ezin dira egokitu produktuen prezioen aldaketetara.	ABERASTASUN-EFEKTUA	3

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Egoera honetan, ekoizpen agregatuak gainditu egiten du enplegu osoko ekoizpen-maila.	ESTANFLAZIOA	3
2	Egoera honetan, herrialde bateko ekoizpen agregatua enplegu osoko ekoizpen-mailaren azpitik kokatzen da.	ARRAIL ATZERAKORRA	2
3	Egoera honetan, inflazio handia eta langabezia handia batera agertzen dira.	ARRAIL INFLAZIONISTA	1
4	Teknikoki, egoera honetan, ekonomiak hazkunde-tasa negatiboak ditu gutxienez ondoz ondoko bi hiruherikotan (aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta).	ATZERALDIA	4
5	Egoera hau gertatzen da atzeraldia luzarokoa denean eta hazkunde-tasa negatiboak ere oso handiak direnean.	DEPRESIOA	5

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Teoria honek ekonomiaren epe laburreko doikuntza aztertzen du, prezioek merkatuetan duten zurruntasunaren eraginez.	TEORIA KLASIKOA	3
2	Teoria honek ekoizpen agregatuaren oszilazioak aztertzen ditu epe laburrean.	ZIKLO EKONOMIKOAREN TEORIA	2
3	Teoria honek ekonomiaren epe luzeko doikuntza aztertzen du egoera naturala edo enplegu osokoa lortzeko bidean.	TEORIA KEYNESTARRA	1
4	Prezio hauek astiro-astiro doitzen dira orekarantz, eskariaren aldaketan aurrean.	PREZIO MALGUAK EDO ELASTIKOAK	5
5	Prezio hauek azkar doitzen dira orekarantz, eskaintzan eta eskarian dauden aldaketan aurrean.	PREZIO ZURRUNAK	4

7. kapituluaren. AUTOEBALUAZIORAKO GIDA

1. Egonkortze-politiken bidez, ziklo ekonomikoaren oszilazio-efektuak konpentsatu nahi dira.

Egonkortze-politikak edo politika antiziklikoak eskariaren politikak dira (fiskala edo moneterioa); horien bidez, kapitalismoaren errealitateari nahitaez lotutako ekonomia-jardueraren fluktuazio bortitzak saihestu nahi dira.

Egonkortze-politika esaten zaie leundu nahi dituztelako atzeraldiek eragindako BPGd-ren erorketak eta gehiegizko optimismoak eragindako BPGd-ren hedatze azeleratuak (edo ekonomia berriz berotzea). Lehen kasuan (atzeraldiak), politika hedatzaileak aplikatu beharko lirатеke (adibidez, G handitzea edo interes-tasa gutxitzea) jarduera berriz aktibatzeke eta atzeraldi guztiek arlo sozial, ekonomiko eta politikoan ekartzen dituzten nahigabeko ondorio guztiak saihesteko. Bigarren kasuan (hedatzeak), ezarri beharreko politikek izaera murriztailea dute (G gutxitzea edo interes-tasa handitzea) inflazioari aurre egiteko eta, modu horretan, alderdi interesgarri batzuk berreskuratzeko, hala nola lehiakortasuna eta etorkizunean konfiantza izatea.

2. Jo dezagun herrialde batean enpresen eta langileen arteko soldata-hitzarmenak urte hasieran berrikusten direla beti, eta, beraz, urtean inflazio-tasarekin gertatzen dena gorabehera, soldatetarako adostutako balioak konstante eusten diola abenduaren 31ra arte. Hala ere, jo dezagun urteko hil guztietan prezioak etenik gabe igotzen direla. Erantzun galderei, *ceteris paribus*:

- a) Epe laburreko eskaintza agregatuaren ikuspuntutik, nola irudikatuko zenuke prezioen igoera orokor hau? Zergatik?

Kurban goranzko mugimendua eginda \Rightarrow Ekoizpen-maila handitzea \Rightarrow Langileak edo lan egindako orduak handitzea, ziurrenik.

- b) Jo dezagun orain, gainera, urte hasieran enplegu osoko egoera dugula (ekoizpen potentzialaren maila). Zer gertatuko da enpresek eta langileek urte hasieran soldatak berriro ere negoziatzen dituztenean? Irudikatu grafikoki egoera hori.

Soldata nominalak handitzea \Rightarrow Eskaintza agregatuaren kurba epe laburrean gorantz lekualdatzea \Rightarrow Ekoizpenaren doikuntza, lan-kostuak handitzearen aurrean \Rightarrow Lan-kontratuak desegitea edo lan egindako orduak gutxitzea.

3. Azaldu kasu bakoitzean zer kurba dagoen inplikaturata (EA, SA epe lab. edo SA epe luz.), lekualdatzearen norabidea, eta oreka makroekonomikoen mailen gain duen efektua. Adierazi nolakoak izango lirатеkeen irudikapen grafikoak.

- a) Euroaren balioa beste dibisa batzuenarekin alderatuta handitzen denez, Europako ekoizleek gutxiago ordaintzen dute ekoizpen-faktore garrantzitsua den altzairu inportatuaren truke.

Ekoizpen-kostuak gutxitzea \Rightarrow SA epe lab. kurba beherantz lekualdatzea \Rightarrow Prezioen maila gutxitzea eta ekoizpena handitzea.

- b) Europako Banku Zentralak bonuen erosketa masiboa egin du, eta, horren eraginez, zirkulazioan dagoen diru kantitateak gora egin du. Horrela, sektore pribaturako erabilgarri dagoen likidezia kantitatea handitu da, eta horrek interes-tasen beherakada eragin du.

Diru-politika hedatzailea \Rightarrow EA kurba gorantz lekualdatzea \Rightarrow Prezioen maila handitzea eta ekoizpena handitzea.

- c) Etengabeko hobekuntzaren eta enpresa-trebakuntza eta -gaikuntza orokortzearen eraginez, ekonomia gero eta lehiakorragoa da.

Efizientziaren eta produktibitatearen hobekuntza potentziala \Rightarrow Kostuak murriztea \Rightarrow SA epe lab. eta SA epe luz. kurbak eskuinerantz lerratzea \Rightarrow Prezioen maila gutxitzea eta ekoizpena handitzea ($\downarrow P$ eta $\uparrow Y$) epe laburrean zein epe luzean (hobekuntza estrukturala).

- d) Gobernuarekin dauden negoziazioetan sindikatuak aldarrikatze-jarduera handia egiten badute, gutxieneko soldatak handitu egiten dira.

Ekoizpen-kostuak handitzea \Rightarrow SA epe lab. kurba gorantz lekualdatzea \Rightarrow Prezioen maila handitzea eta ekoizpena gutxitzea.

- e) Enpresen lehiakortasun handiagoaren eraginez prezioen maila erortzeak etxebizitzetako erosteko ahalmena handitzen du, eta etxebizitza horiek gehiago gastatzea erabakitzen dute.

Enpresen kostuak gutxitzea \Rightarrow SA kurba epe lab. beherantz lekualdatzea eta beheranzko mugimendua EA kurban \Rightarrow Prezioen maila gutxitzea eta ekoizpena handitzea.

- f) Azpiegiturak hondatzeak eta ez mantentzeak ekonomiaren etorkizuneko hazkundera mugatzen dute.

Ekonomiaren etorkizuneko ekoizpen-aukerak gutxitzea \Rightarrow SA epe luz. ezkererantz lekualdatzea \Rightarrow Prezioen maila handitzea eta ekoizpena gutxitzea ($\uparrow P$ eta $\downarrow Y$) epe luzean.

- g) Kontratazioak erraztu eta enpresei kaleratzea merkatzen dien lan-erreforma.

Enpresen kostuak gutxitzea \Rightarrow SA epe lab. eta SA epe luz. kurbak beherantz lekualdatzea \Rightarrow Prezioen maila gutxitzea eta ekoizpena handitzea ($\downarrow P$ eta $\uparrow Y$) epe laburrean eta epe luzean, neurri estrukturala baita.

- h) Gobernuak datorren urterako partikularren zerga-tasak igoko dituela iragarri du, aurrekontu-defizita murrizteko.

Politika fiskal murriztailearen igurikimenak \Rightarrow Kontsumitzaileek gastuak orainaldira aurreratzen dituzte \Rightarrow EA gorantz lekualdatzea \Rightarrow Prezioen mailak eta ekoizpenak gora egitea.

- i) Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzan (I + G + b) egindako inbertsioak mesede egiten dio aurrerapen teknologikoari, eta, horrela, herrialdeko enpresa giltzarrien produktibitatea handitzen da.

Ekoizpen-gastuak murriztea \Rightarrow SA epe lab. eta SA epe luz. eskuinerantz lerratzea \Rightarrow Prezioen maila gutxitzea eta ekoizpena handitzea ($\downarrow P$ eta $\uparrow Y$) epe luzean, hobekuntza estrukturala baita.

- 4. Jo dezagun Espainiako Gobernuak gastu publikoa murriztu behar duela nazioarteko finantza-merkatuekin zuen zorra gutxitzeko. Imajinatu orain murrizketen politika horrek arrakasta izan duenez, kreditua eskuratzea errazagoa eta merkeagoa dela Espainiako enpresentzat eta kontsumitzaileentzat. Zure ustez, inguruabar horietan zein izango da Gobernuaren politika fiskal murriztailearen azken efektua hazkunde-tasan gain, hau da, maileguk sektore pribatuan duten efektu positiboa kontuan hartuta? Kasu honetan, estanflazio-egoera bat gerta daiteke? Grafikoak erabil ditzakezu azalpenen lagungarri.**

Hazkunde-tasan duen azken efektua zehaztugabea da. \Rightarrow Interes baxuagoetan dagoen eskari agregatuaren hazkundera nolakoa den ikusi behar da, politika fiskal murriztaileak eragindako gastu-gutxitzearekin alderatuta. \Rightarrow Inbertsioa eta kontsumoa behar den beste berraktibatzen ez bada, politika fiskal murriztaileak ekonomia luzaroan geldialdian izan dezake (hemen igurikimen negatiboen arazoa egongo litzateke; horren eraginez, ez litzateke kreditu gehiagorik eskatuko, horiek merkeagoak izan arren).

Kasu honetan, inoiz ez da estanflazio-egoerarik egongo (inflazio-tasa handiak eta geldialdia), ukituta dagoen kurba eskari agregatua baita, ez eskaintza agregatua.

- 5. Jo dezagun ekonomia baten abiapuntuako egoera enplegu osokoa dela, eta gertaera hauek aldi berean gertatzen direla:**

- Kontsumitzaileen eta enpresen konfiantza-mailak behera egitea indarrez.
- Ekonomia honetan giltzarri diren lehengaien prezioak indarrez handitzea.

- a) Grafiko baten laguntzaz, azaldu zer gertatuko den epe laburrean ekonomia honetako ekoizpen-mailarekin, enplegu-mailarekin eta prezioen mailarekin.

EA gutxitzea (beherantz lekualdatzea) eta SA epe lab. \Rightarrow Epe laburrean, atzeraldi sakona egongo dela bakarrik izango da argi, hazkundera eragin negatiboa baitute gastu txikiagoak eta oso lehiakorra ez den enpresa-sektoreak.

- b) Azaldu zer iritzi izango luketen ekonomialari (neo)liberalek egonkortze-neurri aktiboak erabiltzearen aurrean. Zer neurri mota proposatuko lituzkete? Batzuk aipa ditzakezu?

Liberalentzat, egonkortze-politikak ez dira eraginkorrak ez egokiak ekonomiak modu iraunkorrean hazteko, perturbazioak eskaintzaren aldetik datozenean. \Rightarrow Eskaintzaren eredia defendatzen dute, keynestarrek ez bezala, azken horien eredia eskariarena baita. \Rightarrow Izaera estrukturalako neurriak sustatu eta gauzatu dituzte, ekonomiaren ekoizpen-gaitasuna aldatu eta hobetzeko. \Rightarrow Merkatuak askatu, eraldaketa estrukturalak, enpresei zergak gutxitzea....

- 6. Eredua klasiko edo liberalaren arabera, helburua giro ekonomiko segurua eta egonkorra sortzea da, enpresa-ekimenari esker produktibitateak eta baliabideen erabileraren efizientziak modu iraunkorrean gora egin dezaten; hau da, xedea da ekoizpen potentzialari modu jarraituan hazten laguntzea. Hala ere, planteamendu honetan, berrikuntza teknologikoei esker gehiago ekoiztu daitekeen arren, beldur dira erdiko klaseen kontsumoa agian ez dela behar bestekoa gehiago ekoizpen-mailei eusteko. Zure ustez, zer es-**

trategia defendatuko du eredu honek eskaria suspertzeko, ekonomialariak politika fiskal diskrezionalen aurkakoak direla kontuan hartuta?

Etengabe gehiegizko eskaintza agregatua egotea saihestu nahi da. ⇒ Konponbidea jendeari kreditu merkeak eskaintzea da, kontsumoak gora egin dezan. ⇒ Ekoizpen potentzialaren maila erdiesteko, beharrezko gastura egokituta dagoen diru-politika aplikatzea. ⇒ Arazoa: familien gehiegizko zorpetzea.

7. Adierazi eskola klasikoaren ideia nagusiak modu eskematikoan.

- Merkatuek, prezioen bidez, baliabideak modu eraginkorren esleitzen dituzte.
- Sektore publikoak ekonomian esku hartzea saihesten dute: LIBERALISMO EKONOMIKOAP Eslogana: *laissez faire, laissez passer*.
- Ekonomiak modu automatikoan jotzen du jokabide naturalera: ENPLEGU OSOA.
- Analisi klasikoa doikuntza geldo baina seguruaren analisisa da (EPE LUZEA).
- Epe luzeko hazkunde ekonomikoaren determinatzailea eskaintza agregatua da.

8. kapituluko soluzioak

8.1. Inflazioaren kontzeptua eta neurketa

1. Zure ustez, zerk du efektu handiagoa kontsumoko prezioen indizean, hau da, zer da inflazionistagoa: oilaskoaren prezioa % 10 igotzea edo kabiarraren prezioa % 10 igotzea? Zergatik?

Oilaskoaren prezioa handitzea inflazionistagoa izango da, KPIren kalkuluaren barruan duen haztapena bonboien prezioarena baino handiagoa baita. Oilaskoan egindako gastuak familia baten hileko aurrekontuan duen pisua, adibidez, kabiarran egindako gastua baino askoz garrantzitsua da.

2. Herrialde jakin batean, kontsumoko prezioen indizeak 1940. eta 2010. urteen artean % 800 egin zuen gora. Erabili gertaera hori 1940. urteko prezioak doitzeko, inflazioaren efektuak kontuan izateko. Zein produktuk balio dute gutxiago 2010ean 1940an baino, inflazioa kontuan hartuta? Eta zeinek balio dute gehiago?

Produktua	1940ko prezioa (txanpon nazionalen)	2010eko prezioa
Unibertsitatean matrikula egitea	150	2.500
Gasolina-litroa	0,25	1,20
Probintzien arteko telefono-deia (minutua)	2,00	2,00
Tabako gorriaren paketea	0,10	1,00
Hanburgesa	0,20	1,80

KPI % 800 igotzeak esan nahi du 1940 eta 2010 urteen artean prezioak 9rekin biderkatu direla. Hori horrela da, zenbaki bati zenbaki hori 8 aldiz batzea baita % 800eko igoera. Ohiko akatsa izaten da inflazio-tasaren ehunekoaren unitatea prezioak biderkatzeko faktorearekin identifikatzea. Hemen akatsa izango litzateke esatea prezioak 8rekin biderkatzen direla.

Beraz, batez beste prezioak 9rekin biderkatzen direla jakinda, egin behar duguna da 1940ko produktu bakoitzaren prezioa inflaktatu, eta lortutako emaitza 2010ean duen prezioarekin konparatu.

Unibertsitatean matrikula egitea: $150 \times 9 = 1.350$ (2010ean gehiago balio du).

Gasolina-litroa: $0,25 \times 9 = 2,25$ (2010ean gutxiago balio du).

Probintzien arteko telefono-deia (minutua): $2 \times 9 = 1,8$ (2010ean gehiago balio du).

Tabako gorriaren paketea: $0,10 \times 9 = 0,9$ (2010ean gutxiago balio du).

Hamburguesa: $0,20 \times 9 = 1,80$ (2010ean eta 1940an berdin balio du).

3. Pertsona baten errenta nominala 1.000 euro bada, eta % 10 gehitzen bada eta prezioak % 5, zein izango litzateke pertsona horren errenta, igoera horien ostean?

Gutxi gorabehera, kalkulu hau egin dezakegu:

$1.000 + \% 10 \text{ de } 1.000 = 1.000 \cdot 1,1 = 1.100$ euro (errenta nominala handitzea).

$1.100 - \% 5 \text{ de } 1.000 = 1.100 \cdot 0,95 = 1.045$ euro (errenta erreala, prezio-igoera kendu ondoren).

Errenta errealaren balioa lortzeko modu zehatzagoa hau izango litzateke:

Errenta nominala = Errenta erreala \times Prezioen aldaketa $\Rightarrow 1.100 = \text{Errenta erreala} \times 1,05$

$\Rightarrow \text{Errenta erreala} = 1.100 / 1,05 = 1.047,61$

8.2. Inflazioaren kostuak

4. Zer zentzutan esaten da inflazioa gobernuaren aliatu onena dela kontu publikoetan?

Inflazioak, eta nahi gabekoa bada hobe, gobernuari mesede bikoitza egiten dio. Batetik, inflazioarekin estatuak zerga gehiago biltzen ditu, zerga-eskalak ez baitira modu automatikoan aldatzen inflazio-tasekin. PFEZen kasuan, presio fiskala handitu egiten da errenta erreal berberak zerga-tarte handiagoetara mugitzen direlako. Aktiboen plusbalioen gaineko zergetan, irabazi nominalak kargatzen dira, ez errealak. Eta finantza-interesaren gaineko zergen kasuan ere errendimendu nominalak kargatzen dira, eta horrek mailegu-emaileentzat benetako galera dakar.

Bestetik, sektore publikoaren zorrak inflazioarekin termino errealetan txikitu egiten dira; izan ere, prezioak handitzean, gobernuak itzuli behar duen diru kantitateak erosteko ahalmen gutxiago dauka.

5. Jo dezagun zerga-tasa % 40 dela. Kalkulatu interes-tasa erreala zergak kendu gabe, eta zerga-tasa erreala zergak kenduta, kasu honetan: interes-tasa nominala % 10 da, eta inflazio-tasa, % 6.

Interes-tasa nominala: % 10

Interes-tasa nominala zergen ostean: % 10 - % 10etik % 40 = % 6

Interes-tasa erreala zergak kendu gabe $\approx 10 - 6 = \% 4$

Interes-tasa erreala zergen ondoren: % 6 - % 6 = % 0

8.3. Langabeziaren kontzeptua eta neurketa

6. Adierazi zein den gizabanako hauetako bakoitzaren egoera, ekonomia-jarduera kontuan hartuta:

- a) Maitanek bere finantza-aholkularitzan lan egiten du.
Okupatua.
- b) Paula buru-belarri ari da ikasten unibertsitateko lehen mailan.
Ez-aktiboa.
- c) Alvarok 10 urte ditu.
Ez-aktiboa.
- d) Marta banku-sukurtsal bateko zuzendaria da.
Okupatua.
- e) Hectorrek curriculumak bidali eta elkarrizketak egiten ditu.
Langabea.
- f) Isabel, lehen umea izan zuenetik, etxeoandrea da.
Ez-aktiboa.
- g) Jorgek erretiroa hartu zuen duela bi hilabete.
Ez-aktiboa
- h) 16 urteko nerabeak boluntario moduan lan egin nahi du GKE batean udako hilabeteetan, horren truke dirurik jaso gabe.
Ez-aktiboa.
- i) Automobilen arloko langile bat duela bi urte kaleratu zuten; ez dabil lan bila, lana aurkitzeko itxaropena galdu baitu, baina lan egitea gustatuko litzaioke.
Ez-aktiboa, baina desanimatuaren kategorian.
- j) Errentei esker bizi den pertsona bat Benidormera joan da bizitzera, baina egunero-egunero lan-eskaintzak irakurtzen ditu, eta udalerrri horretako establezimenduekin harremanetan jartzen da, lanaldi partzialean lan egiteko prest baitago.
Langabea.
- k) Aita batek lanaldi partziala du; lanaldi osoa nahi du, baina ez du astirik lan hobea bilatzeko.
Langabea, azpienplegatuaaren kategorian.
- l) Irakasle batek lana du, eta aldi baterako ezintasuna jaso du, lan egiteko oso gaixo baitago.
Okupatua, gaixotasun-bajarekin.

7. Nola azal daiteke une jakin batzuetan ekonomia bateko okupatuen kopuruak gora egitea eta, aldi berean, langabezia-tasa handitzea? Arrazoitu zure erantzuna, edo jarri zenbakizko adibide bat hori egiaztatzeko.

Balitzko arrazoa izan daiteke lan-merkatuan sartzen den biztanleriaren (biztanleria aktibo berria) ehuneko handiagoa izatea lanpostua aurkitzen duen biztanleriaren (okupatu berriak) ehuneko baino.

Zenbakizko adibidea.

Jo dezagun biztanleria aktiboa 20 milioi dela, eta okupatuak 18 milioi. Langabezia-tasa % 10 izango da:

$$\text{Langabezia-tasa} = (\text{Langabeak} / \text{Biztanleria aktiboa}) \cdot 100 \Rightarrow$$

$$\text{Langabezia-tasa} = [(\text{Okupatuak} - \text{Langabeak}) / \text{Biztanleria aktiboa}] \cdot 100 = \% 10$$

Biztanleria milioi bat handitzen bada (20 milioiren % 5) eta okupatuen kopurua 450.000 barrik (18 milioiren % 2,5), erraza da egiaztatzea nola handitu den langabezia-tasa.

Kasu honetan, langabeen kopurua 550.000 handitu da; 2.550.000 langabe dira orain.

$$\text{Langabezia-tasa} = (\text{Langabeak} / \text{Biztanleria aktiboa}) \cdot 100 \Rightarrow$$

$$\text{Langabezia-tasa} = (2.550.000 / 21.000.000) \cdot 100 = \% 12,14$$

8.4. Langabezia motak

8. Jo dezagun hiri batean kalkulatzen dutela hilabete batean 1.000 lanpostu huts daudela bete gabe, eta hilabete horretan 2.000 ari direla lan bila. Azal dezakezu zergatik gertatzen den hori?

Hiri horretan langabezia estruktural indartsua gertatzen ari da, lan-eskariaren eta lan-eskaintzaren arteko desdoikuntza baten emaitza moduan. Enpresek behar eta eskatzen dutena ez da langabeek une horretan eskaintzen dutena. Desoreka hori eragin dezakete kualifikazio-arrazoiek, gutxieneko soldata altuegiak eskatzeak, baldintza jakin batzuetan kontratatzekeo sindikatuak egin-dako presioek, etab.

9. Zure ustez nolako eragina izan dezake langabezia-tasan langabeziaren ondoriozko prestazioen zenbatekoa eta iraupena handitzeak?

Langabeziaren ondoriozko prestazioen eskuzabaltasuna kritikatzeko dute hainbat esparru politiko eta ekonomikotatik, bai prestazio horien zenbatekoarengatik, bai prestazioak denboran mantentzen direlako. Kritikatzeko dituztenen esanetan, langabezian dauden langileengan desmotibazioa eragin dezakete lana bilatzeko orduan. Lanik gabe egonda laguntza ekonomiko handia kobratzen bada, langabeek egokitzen zaien prestazio-aldia amaitu arte aprobetxatuko dute lana bilatzeko ekimenik egin gabe, eta gehiago jokatuko dute ez-aktibo moduan, langabe moduan baino.

10. Jo dezagun urte amaieran datu hauek kalkulatu zirela (milaka pertsona):

16 urte edo gehiagoko biztanleak: 33.689

Biztanleria aktiboa: 17.815

Biztanleria langabea: 1.869

- a) Kalkulatu okupatuaren kopurua, lan egiteko adinean dauden biztanle ez-aktiboak, langabezia-tasa eta jarduera-tasa.

Okupatuak = Biztanleria aktiboa – Biztanleria langabea = 15.946 pertsona

Biztanleria ez-aktiboa = 16 urteko edo hortik gorako biztanleria – Biztanleria aktiboa = 15.874

Langabezia-tasa = $(1.869 / 17.815) \cdot 100 = \% 10,49$

Jarduera-tasa = $(17.815 / 33.869) \cdot 100 = \% 52,59$

- b) Kalkulatu biztanleria aktiboaren balio berriak, lan egiteko adinean dagoen biztanleria ez-aktiboa, okupatuak eta langabeak, mugimendu hauek gertatzen badira lehen hiruhilekoan (gogoan izan alde batetik batzen duzuna beste alde batetik kendu behar duzula):

Erretirodunak: 300

Baja edo gaixotasuna dela-eta ezindutako okupatuak: 50

Nahi gabeko enplegu-galerak: 175

Lan-merkatuan sartzen diren pertsona ez-aktiboak: 75

Langabeen kontratazioak: 100

Desanimatuak: 75

Ez-aktibo berriak borondatezko bajengatik: 35

Langabe berriak borondatezko bajengatik: 30

Biztanleria aktibo berria = $17.815 - 300 - 175 + 75 - 75 - 35 = 17.305$

Biztanleria ez-aktibo berria = $15.874 + 300 - 75 + 75 + 35 = 16.209$

Biztanleria okupatu berria = $15.946 + 100 + 20 - 35 - 30 = 16.001$

Biztanleria langabe berria = $1.689 + 175 - 100 + 30 = 1.794$

- c) Kalkulatu langabezia-tasa berria eta jarduera-tasa berria b) ataleko emaitzekin.

Langabezia-tasa berria = $(1.794 / 17.305) \cdot 100 = \% 10,36$

Jarduera-tasa berria = $(17.305 / 33.869) \cdot 100 = \% 51,09$

8. KAPITULUKO **TEST** ERAKO GALDEREN SOLUZIOAK

- | | | | | |
|------|------|------|------|-------|
| 1) c | 3) a | 5) c | 7) e | 9) c |
| 2) c | 4) e | 6) c | 8) c | 10) a |

8. KAPITULUKO **EGIA** ALA **GEZURRA** GALDEREN SOLUZIOAK

1. **Soldatapekoentzat nahitaezko erretiro-adina 65 urtetik 68 urtera igotzen bada, *ceteris paribus*, langabeen kopurua ez da aldatuko, baina langabezia-tasa bai.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Ceteris paribus, erretiroa hartzeko adina atzeratzearen efektua izango da biztanleria aktiboa handitzea soldatapekoen lan-bizitza luzatzean. Aitzitik, langabeen kopuruak berdina

izaten jarraituko du, erretiroa hartzeko adina handitzeak okupatu batzuegan soilik baitu eragina (langabeak ez du lanik izango ez aurretik ez gero). Bi efektu horiek kontuan hartuta, langabezia-tasak behera egingo du; izan ere, zenbakitzailea aldatzen ez den arren (langabeen kopurua), izendatzailea handitu egiten da (biztanleria aktiboa), eta zatidura txikiagoa da.

2. BPGd-ren deflatoarea ekonomia bateko prezio guztien batez besteko portaeraren zenbatespena ematen digu.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Deflatoarea prezioen indize bat da, eta herrialde bateko azken ondasunen ekoizpen osoa oinarri hartuta kalkulatzen da (zatitzen dena da prezio arruntetan duen balioa eta prezio konstanteetan duen balioa).

Bi aldiri dagozkien bi deflatoarea konparatzen baditugu, ekonomia batean ekoiztutako ondasun guztien prezioen batez besteko aldaketaren neurketa nahiko osatua izango dugu. Ildo horretatik, BPGd-ren deflatoarea inflazioaren adierazle hobea da KPI baino, ondasun guztiak barruan hartzen dituelako (gogoan izan KPIk herritarren ohiko erosketen kontsumo-ondasun adierazgarri batzuen prezioak soilik biltzen dituela). Orduan, zergatik ez da hautatzen BPGd-ren deflatoarea KPIrenaren orde, inflazio-tasak kalkulatzeko? Funtsean, bi arrazoiengatik: KPI errazago kalkulatzeko eta azkar publikatu behar delako.

3. Atzeraldietan, enplegu-galeren kopuruak gora egiten du, lan-eskaria gutxitu egiten delako.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Atzeraldia ziklo ekonomikoaren zatirik beherakorrena da. Hazkunde-tasa oso txikiak edo negatiboak izaten ditu, eta horiekin batera langabezia-tasa oso handiak egoten dira. Langabeziak gora egiten du eskari agregatua erori egiten delako, eta, horren eraginez, enpresek lan-faktorearen kantitate gutxiago eskatzen dutelako (kontratazio gutxiago eta kaleratze gehiago).

4. Prentsako titular hauek bateraezinak dira:

- «*Ekonomia-ministroa pozik dago, inflazio-tasak behera egin baitu abenduan*».
- «*Sindikatuak Gobernuari ohartarazi diote abenduko prezioen igoerak kalte handia egin duela*».

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Abenduan inflazio-tasa positiboa bada, baina azarokoa baino txikiagoa, prezioak igo egin dira, eta inflazioaren hazkunde-tasa negatiboa da. Ikus dezagun taula baten laguntzaz:

Hilabetea	Prezioen indizea	Inflazio-tasa	Inflazio-tasaren aldaketa
Urria	100	—	—
Azaroa	200	% 100	—
Abendua	250	% 25	Gutxitzea

5. Langabezia-tasa biztanleria aktibo osoaren eta egon dagoen langabe kopuruaren arteko zatidura da.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Hau da adierazpen zuzena: «Langabezia-tasa egon dauden langabe kopuruaren eta biztanleria aktibo osoaren arteko zatidura da».

Bi zenbakiren arteko zatidura idaztean, arau orokorra da lehenengo zenbakitzailearen lekua hartuko duena izendatzea eta, ondoren, izendatzailearen lekuan doana.

Enuntziatuaren arabera, lortzen dugun zatidura da biztanleria aktiboa langabeen kopuruarekin zatituta, justu-justu langabezia-tasaren alderantzizkoa.

6. Inflazioa da ekonomia bateko ondasun eta zerbitzuen prezioak modu orokor eta jarraituan handitzea edo txikitzea.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Inflazioaren definizioa, arazo ekonomiko moduan hartuta, ekonomia bateko ondasunen eta zerbitzuen hazkunde orokor eta jarraitua da. Horrek esan nahi du prezioen igoerak ondasun gehienak ukitzen dituela, eta igoera horrek denboran iraun egiten duela.

Inflazioaren kontrakoa deflazioa da: ekonomia bateko ondasunen eta zerbitzuen prezioak modu orokor eta jarraituan jaitea, hau da, inflazio-tasa negatiboen segida.

7. KPI kontsumo-ondasun eta kontsumo-zerbitzu guztien prezio guztien laburpen-neurria da.

EGIA

GEZURRA

Azalpena

KPIk (Kontsumoko Prezioen Indizeak) biltzen ditu eskualde bateko familia adierazgarri batek edo batez besteko familia batek normalean eskuratzen dituen ondasun eta zerbitzuen prezioak. Beraz, KPIIn sartzen diren ondasunak kontsumokoak bakarrik dira, ez kapitalekoak. Eta kontsumo-ondasunen barruan, familien erosketa-saskian ohikoenak direnak soilik hautatuko dira.

- 8. Inflazioa positiboa eta altua izan arren, posible da ondasun edo zerbitzuren baten prezioak behera egitea.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Inflazioak ekonomia bateko prezio guztien igoera orokorra eragiten du. Horrek esan nahi du ondasun gehienek prezioa igo egiten dela, baina ez du esan nahi nahitaez prezio guztiak igotzen direnik. Kontuan izan behar da Makroekonomian portaera edo bilakaera orokorrei buruz hitz egiten dugula, baina bilakaera horien barruan salbuespen partikularrak egon daitezkeela.

Aintzat hartu behar da inflazioan ekonomia bateko ondasunen prezioen batez besteko bilakaera biltzen dela, eta batezbesteko guztietan bezala, balio batzuk batezbesteko horren gainetik egongo direla eta beste batzuk azpitik. Adibidez, inflazio-tasa % 10ekoa bada, horrek esan nahi du prezio batzuk % 10etik gora igo direla, eta beste prezio batzuk % 10 baino gutxiago (prezio batzuk jaitsi ere egingo dira).

- 9. Iturri estatistikoek herrialde bateko langabezia osoaren zifra bakarra emango dute beti, langabe bat langabe bat delako, alde batetik zein bestetik neurtu.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Langabezia neurtzeko, bi estatistika-iturri nagusi daude, langabezia erregistratua eta langabezia zenbatetsia, eta normalena da biek zifra osoetan bat ez egitea, kasu bakoitzean kalkulatu-oinarriak desberdinak baitira. Langabezia erregistratua, lanpostu bat lortzeko enplegu-bulegoetan izena emanda dauden pertsonak zenbatzen dira (hau da, horretarako baldintzak betetzen dituzte); langabezia zenbatetsian, aldiz, biztanleriaren lagin bati egindako inkestak hartzen dira oinarri, hau da, hautatutako pertsonen galderak egiten zaizkie, besteak beste, inkestaren aurreko astean izan duten lan-egoerari buruz (lanen batengatik ordainsaririk jaso duten edo lana bilatzeko ahalegin zehatzik egin duten).

Beraz, gerta daiteke enplegu-bulegoetan izena eman ez duten pertsona langabeak egotea, eta pertsona horiek inkesten zenbatespenetan agertzea.

- 10. Inflazioak pertsona bakoitzaren erosteko ahalmenari ez dio berdin eragiten, pertsona bakoitzaren gastu-egitura kontuan hartuta.**

EGIA

GEZURRA

Azalpena

Hemen, bi gertaera kontuan izan behar ditugu: 1) inflazioak ez du esan nahi prezio guztiak berdin igoko direnik (prezioen igoeraren batez besteko zenbatespena da); eta 2) gizabanako guztiek ez daukate gastu-patroi bera (ondasun mota berbera gizabanako batzuek gehiago kontsumituko dute, eta beste batzuek gutxiago).

Beraz, gizabanakoek zer ondasun mota kontsumitzen duten kontuan hartuta, inflazio-tasa berberak gehiago edo gutxiago eragin diezaieke. Inflazio-tasa baino gutxiago igotzen diren ondasunak kontsumitzen badira (adibidez, behe-mailako ondasunak), erosteko ahalmena gutxiago murriztuko da. Izan gogoan marka zurien edo imitazioen xedea.

Enuntziatua gezurrezkoa izango litzateke kasu hipotetiko eta gertagaitz batean, hau da, ondasun eta zerbitzu guzti-guztien prezioa ehuneko berean igoko balitz. Hemen, inflazioak pertsona guztien erosteko ahalmena modu berean ukituko luke.

8. KAPITULUKO *PAREKATZEEN* SOLUZIOAK

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Ekonomia bateko ondasunen eta zerbitzuen prezioen maila modu orokor eta jarraituan jaitea (gutxienez, bi seiheko, NDFren arabera).	INFLAZIOA	5
2	Ekonomiako prezioen indize adierazgarriaren aldaketa portzentuala (KPI) aldi batean, aurre-aurreko aldiarekin alderatuta.	INFLAZIO-TASA	2
3	Inflazio-tasak oso azkar eta kontrolik gabe haztea.	DEFLAZIOA	1
4	Dezelerazioa edo inflazio-tasak denboran apurka-apurka murriztea.	DESINFLAZIOA	4
5	Ekonomia bateko prezioak modu orokor eta iraunkorrean haztea.	HIPERINFLAZIOA	3

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Adierazle honek bizitzaren kostua neurtzen du, etxebizitza adierazgarri batek kontsumitutako ondasunen eta zerbitzuen prezioen bidez.	AZPIKO INFLAZIOA	5
2	Prezioen indize honek ekonomia batean ekoiztutako eta eskatutako azken ondasun eta zerbitzu guztien prezioak biltzen ditu.	KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA	1
3	Mekanismo honen bidez, kontratu batean finkatutako errenta nominalak KPIen egindako aldaketen arabera doitu edo eguneratzen dira.	BPGd-REN DEFLATOREA	2
4	Egoera honetan, prezioak astiro handitzen dira, eta, horren ondorioz, nahiko egonkor mantentzen dira.	INDIZIAZIOA	3
5	Prezioen bilakaera KPIren arabera, baina landu gabeko jakiak eta energia-produktuak alde batera utzita.	INFLAZIO MODERATUA	4

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Lanik gabe dagoen, lan bila ari den eta lan egiteko prest dagoen pertsona multzoa.	LANGABEA	1
2	Lan egiteko adinean egonda, lan egin ezin duen edo lan egin nahi ez duen pertsonen multzoa.	BIZTANLERIA AKTIBOA	3
3	Lan egiteko adinean egonda ordaindutako okupazioa duen edo horrelakorik izan ez arren okupazio bat bilatzeko egoeran dagoen pertsonen multzoa.	BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA	2
4	Erregistro, kontrol eta estatistika ofizialetatik kanpo egiten den jarduera ekonomikoaren atala. Ez da BPGd-n jasotzen.	BIZTANLERIA AZPIENPLEGATUA	5
5	Pertsona aktiboen multzo honek okupazio bat du, baina normalean baino denbora gutxiago lan egiten du, eta gehiago lan egin nahiko luke.	EZKUTUKO EDO LURRAZPIKO EKONOMIA	4

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Aktiboen kopuru osoaren eta lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren arteko zatiketa, ehunekin biderkatuta.	LANGABEZIA-TASA	4
2	Okupatuaren kopuru osoaren eta lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren arteko zatidura, ehunekin biderkatuta. EBn, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriarentzat kalkulatu da.	JARDUERA-TASA	1
3	Soldatapekoen (inoren konturako langileak) eta okupatuaren kopuru osoaren arteko zatidura, ehunekin biderkatuta.	OKUPAZIO-TASA	2
4	Langabeen kopuruaren eta aktiboen kopuru osoaren arteko zatidura, ehunekin biderkatuta.	SOLDATAPEKOEN TASA	3
5	Aldi baterako kontratua duten soldatapekoen eta soldatapekoen kopuru osoaren arteko zatidura, ehunekin biderkatuta.	ALDIKOTASUN-TASA	5

Zk.	Definizioa	Kontzeptua	Zk.
1	Lan-eskaintzaren eta -eskariaren arteko desdoikuntzak direla-eta azaltzen den langabezia.	LANGABEZIA FRIKZIONALA	3
2	Ekonomian eskaria ez egoteagatik sortzen den langabezia. Ekonomia-jardueraren epe laburreko fluktuazioei lotutakoa da (krisi ekonomikoak edo atzeraldiak).	LANGABEZIA ESTRUKTURALA	1
3	Aldi baterako langabezia saihestezina, ekonomia baten funtzionamendu arruntean lana bilatzearen ondorioa dena.	LANGABEZIA ZIKLIKO EDO KOIUNTURALA	2
4	Eskari agregatuaren hazkundera dela-eta murriztu ezin den langabezia da. Langabezia frikzionala eta langabezia estrukturala biltzen ditu.	LANGABEZIA-TASA NATURALA	4
5	Industria motarengatik edo urte-sasoiarengatik lanekuaren eskarian dauden aldi baterako inguruabarrek eragindako langabezia.	LANGABEZIA ESTAZIONALA	5

8. kapituluaren. AUTOEBALUAZIORAKO GIDA

1. Zure ustez, zein izango da ibilgailu militarren prezioa txikitzeak inflazio-tasan izango duen efektua, KPIren bidez neurtuta? Zergatik?

Inflazioan ez luke inolako efekturik izango, ibilgailu militarrek ez baitira eskualde bateko batez besteko familia adierazgarri batek normalean erosten duen ondasun bat. Hau da, ibilgailu militarrek ez daude KPIren balioak kalkulatzeko oinarri moduan hartzen den erosketa-saskiaren barruan.

2. Bizitzaren kostu handiagoa (hau da, KPI handiagoa) duten eskualdeek inflazio-tasa handiagoak dituzte nahitaez? Azaldu zure erantzuna.

Ez dira nahasi behar bizitzaren kostu altua, prezioen indize altuak irudikatua, eta inflazio-tasa altua. KPI altuak esan nahi du ohiko familiaren erosketa-saskia nahiko garestia izango dela, eta inflazio-tasa handiak esan nahi du prezioek igotzeko duten batez besteko abiadura handia dela.

Adibide tipiko bat New Yorken eta Buenos Airesen arteko alderaketa da. New Yorken dagoen bizitzaren kostu altuagoak esan nahi du dirua irabazteko aukera gehiago dagoela, eta horrek eragiten du leku horretan ondasunak eta zerbitzuak garestiagoak izatea. Buenos Airesen, aldiz, inflazio-tasa altuak diruaren erosteko ahalmena azkarrago galtzen dela adierazten du, prezioen igoera azeleratuaren eraginez.

3. Denbora-tarte luze batean, txupatxusaren prezioa 15 zentimotik 45 zentimora igo da. Aldi berean, kontsumoko prezioen indizea 150etik 300era igo da. Adierazi prezioen igoera biak ehunekotan. Ehuneko horiei erreparatu, zenbat garestitu dira txupatxusak inflazio-tasarekin alderatuta?

Txupatxusen prezioak, 15 zentimotik 45era igotzen denez, % 300eko igoera du, eta inflazio-tasa KPIren arabera % 200 da:

Txupatxusen prezioaren aldaketa: $[(45 - 15) / 15] \cdot 100 = \% 200$

Inflazio-tasa: $[(300 - 150) / 150] \cdot 100 = \% 100$

Ehuneko horien arabera, txupatxusen prezioa 3rekin biderkatu da (% 200eko igoera 15i 15 bi aldiz batzea da), eta ekonomiako prezioak, KPIren arabera, 2rekin biderkatu dira (% 100eko igoera). Bi balioak konparatzen baditugu, txupatxusak inflazioa baino 1,5 aldiz gehiago garestitu dira, edo inflazioa baino % 50 gehiago.

4. Jo dezagun 2014. urtean zure urteko soldata 40.000 € izan zela. 2014ko urteko inflazio-tasa % 4 izan bada, kalkulatu zure urteko soldataren balio erreala 2013ko prezioak kontuan hartuta (prozesu horri deflatatzea esaten zaio).

Soldata erreala 2013an = $40.000 / 1,04 = 38.461,46 \text{ €}$ (deflazioa)

Jo dezagun orain zure lehengusuak 35.000 euro irabazi zituela 2013an. 2014an inflazio-tasaren arabera igo bazioten soldata, zenbat irabazi duzu zuk berak baino gehiago 2014an? Inflazioaren arabera errentak igotzeko prozesu horri nola esaten zaio?

$$\text{Soldata 2014an} = 35.000 \cdot 1,04 = 36.400 \text{ €}$$

$$\text{Lehengusuen soldaten arteko aldea 2014an} = 3.700 \text{ €}$$

Errentak inflazio-tasaren arabera eguneratzeko prozesuari indiziazio edo indiziatze esaten zaio.

- 5. Esaldi hau Alfonso Novalesek 1989an egin eta *Moneda y Crédito* aldizkariaren 188. zenbakian argitaratutako ikerketa batekoa da: «*Espanian emakume aktiboaren kopurua izandako hazkundera hain garrantzitsua izateak modu partzialean justifikatzen du langabezia-tasa murrizteko zailtasuna, azken bi urteetan egon den enplegu-sorkuntzako erritmo handia gorabehera*». Nola azal dezakezu enplegu gehiago eta langabezia-tasa handiagoa itxurazko kontraesana?**

Gero eta emakume gehiago lan-merkatuan sartzeak ez du esan nahi emakume guztiek lana aurkitzen dutenik. \Rightarrow Biztanleria aktiboa handitzen da (lan bila ari diren emakume berriak), baina handitze hori okupatu kopuruaren handitzea baino proportzionalki handiagoa da (azkenean lana aurkitzen duten emakume aktibo berriak). \Rightarrow Langabezia-tasaren zenbakitzailea izendatzailea baino ehuneko handiagoan handitzen da. \Rightarrow Langabezia-tasa handitzen da.

- 6. Komunikabide batean, hau esan dute: «Gaur egun, langabezia-tasa % 14 da. Horrek esan nahi du lan egiteko adinean dauden 100 pertsonatik 14 lan bila ari direla, baina ez dutela ezer aurkitzen». Azaldu esaldia egia ala gezurra den.**

Esaldia gezurrezkoa da. Langabezia-tasa langabetuen ehunekoa da biztanleria aktiboarekin alderatuta, ez lan egiteko adinean dagoen biztanleriarekin alderatuta \Rightarrow % 14ko langabezia-tasak esan nahi du lan-merkatuan dauden 100 pertsonatik (lan egin dezaketenak eta nahi dutenak biztanleria aktiboa dira) 14 lan bila ari direla, baina ez dutela aurkitzen (langabeak dira).

- 7. BAI batetik datu hauek lortu dira:**

$$\text{Lan egiteko adinean dauden biztanleak} = 25.000.000$$

$$\text{Okupatuak} = 9.000.000$$

$$\text{Langabeak} = 2.500.000$$

- a) Kalkulatu langabezia-tasa (U) eta jarduera-tasa (JA).

$$\text{Langabezia-tasa} = \% 21,73$$

$$\text{Jarduera-tasa} = \% 46$$

- b) Nola eragiten du ekonomia honen langabezia-tasan eta jarduera-tasan kasu hauetako bakoitzean 500.000 lanpostu berri sortzeak, *ceteris paribus* (hau da, enuntziatuko datuak bakarrik hartuta):

b.1. Lanpostu berri guztiak lehen langabe moduan sailkatutako pertsonak betetzen badituzte.

Langabezia-tasa = % 17,39 (gutxitzen da)
Jarduera-tasa = % 46 (konstante eusten dio)

b.2. Lanpostu berri guztiak pertsona desanimatuek okupatzen badituzte.

Langabezia-tasa = % 20,83 (gutxitzen da)
Jarduera-tasa = % 48 (handitzen da)

8. Ekonomia bati buruz informazio hau daukagu:

- Lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren gaineko langabezia-tasa % 50 da.
- Biztanleria aktiboaren gaineko langabezia-tasa % 25 da.
- Lan egiteko adinean dagoen biztanleria biztanleria osoaren % 80 da.

Ekonomia horretako biztanleria osoa 40 milioi pertsonakoa bada, zehaztu langabeen kopurua, okupatuaren kopurua, biztanleria aktiboa eta lan egiteko adinean dagoen biztanleria.

Lan egiteko adinean dagoen biztanleria = 32 milioi pertsona.

Biztanleria aktiboa = 16 milioi pertsona.

Langabeak = 4 milioi pertsona.

Okupatuak = 12 milioi pertsona.

UNIBERTSITATEKO ESKULIBURUAK
MANUALES UNIVERSITARIOS

INFORMAZIOA ETA ESKARIAR • INFORMACIÓN Y PEDIDOS

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU
argitaletxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus
1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbo • Apartado 1397 - 48080 Bilbao
Tfn.: 94 601 2227 • www.ehu.eus/argitalpenak

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea